JUAN BIZENTE GALLASTEGI

Tontorretik begira

Abade baten oroipenak

JUAN BIZENTE GALLASTEGI

Tontorretik begira

Abade baten oroipenak

LABAYRU IKASTEGIA
BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDAZIOA
BILBAO
2011

© *Argitaraldi honena:* Labayru Ikastegia - Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa
Aretxabaleta, 1-1.a
48010 BILBAO
Tel.: 94 443 76 84 - Fax: 94 443 77 58
Posta elektronikoa: labayru@labayru.org

Diseinua: Ikeder, S. L.
Fotokonposizioa: Ikur, S. A.
Silutegia: Baster S. L. L.

Lege Gordailua: BI-2046-11
ISBN: 978-84-92599-22-6

Lan hau erreproduzitu, banatu, jendaurreratu edo eraldatzeko, titularren baimena behar da nahitaez, Legeak ezarritako salbuespen kasuetan izan ezik. Lan honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu behar baduzu, jarri harremanetan CEDROrekin (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

AURKIBIDEA

Montorretik Tontorrera adi. *Adolfo Arejita* 9

I. Oroipenak eta esker emotea 19
II. Abadegintza 21
III. Umetakoak. Gerrearen zurrunbiloan 25
IV. Santa Susanan 29
V. Jesuitetan 35
VI. Akademian 41
VII. Comillasen, lehenengo urteak 43
VIII. Comillaseko Unibersidadean 59
IX. Iurretan 91
X. Markina aldean. Eskola Laboralean 119
XI. Markina aldeko parrokietan 145
XII. Elorrion... eta Atxondon 169
XIII. Elorrion nagoala, hangoak eta hemengoak 199
XIV. Hemendik aurrerakoa? 227

MONTORRETIK TONTORRERA ADI

Tontorretik begira jako izena Juan Bizente Gallastegiren *oroipen* liburu honi; abade euskaltzale honi "bizitzaren harira" suertau jakozan "oroipen batzuk eta hausnarketatxuren bat", beronen berbaz. Sarreran bertan gogorazoten deusku, 2008an 50 urte bete zituala abade egin zanetik, eta urrezko ezteguen urteurren horri eritxi deutsala ajutuena, ibilitako aldats bide luze horren tontorretik atzerako begiratu bat egiteko. Liburua idatzi izan danetik ia hiru urte igaro dira eta berandu orduko sasoia da honezkero, oroitzapenok argitara ekarri daiguzan, lehen idaztalditik honakoan orraztu batzuk eragin ondoren.

Lehenengotan gure abade idazlearen asmoa besterik zan, antza: lehendik idatzita eukazan euskerazko jardun edo artikuluak batu, hautu bat egin, eta idazlan-txorta hori sarrera autobiografiko moduko bategaz batera argitara emotea. Izan be, jakina da gutariko askorentzat, Gallastegi aspaldirik izan dala idazte zalea, batzuetan herrikazetari zeregina beteaz, beste batzuetan, arlo diferenteen gaineko idatzi laburrak onduaz: euskera, gizartea, eleizea edo osterantzeko gairen baten inguruan. Hor hirurogeiko urteetan Arrate Irratirako "Oiztik Anbotora" eritxon astean-asteango saioa atontzen eban Durangotik, eta harako orduan idazten zituan orriak gorderik ditu oraindino. Harrezkero hainbat euskal aldizkaritan idatzi izan dau noizik noizera: behinola *Anaitasuna* eta *Zeruko Argia*-n, oraintsuago *Alkarren barri*, Bizkaiko Eleizbarrutiaren aldizkarian, *Eraz*, eta batez be Durangerriko *Anboto* izenekoan. Holan, aldikada luzea hartzen

dau idazlan-kate horrek; hirurogeiko urteetarik oraintsura arte ekin deutso lantzean artikulu bat garanduz. "Dindika, dindika, murkoa betatu doa", dino esaera zaharrak, eta halantxe gure Juan Bizentek be, artikulurik asko eta lar dau, liburu eder bat osotzeko aina. Begoz hor hurrengo ahaleginerako. Ez dira ahaztuta eukitekoak euskerazko itzulpenak be, batez be liturgia alderdikoak.

Baina *Sutondoan* bildumaren arduradunek gurago izan dabe oraingoan, lehengoari bake-bakean itxi, eta barriren barri idatziazotea abade euskaltzale honi, ekarri barria egin dagian, bere bizitzako gomuta gogoangarrien kontaera eginez. Eta esan eta egin, esaneko portau da Juan Bizente, eta ia takada baten idatzi deusku ondotiko guztia.

Eredu modura nori aditu be euki dau idazleak, besterik be egongo zan beharbada baina: Karmelo Etxenagusia gotzainak orain urte batzuk atera eban *Euskerea nire bizitzan* (2003) liburua. Karmelo iurretarra eta Juan Bizente durangoarra, nahiz aitaren aldetik Iurretako semea berau be; eta harek emondako oinatzen atzean geratu gura ez beronek be, eta hara, esku artean dogu honezkero *Tontorretik begira*.

Ordena kronologikoan taiutu ditu idazleak bere oroipenok: umeumetatik hasi eta zahartzarorainokoak. Gerra denporako akordu tristeak, Durango bonbakatu ebenekoak, Ibarruriko babeslekua eta atzera Durangora, bere jaioterrira, bihurtzea; eskola sasoiak, lehenengo agustinen ikastetxean eta gero jesuitetan. Han joango ziran erneten eta hazten bere betiko zaletasun batzuk: zorioneko "ostikokea", futbola; musikea, berariaz kantua, koru-kantua; euskereagazko zaletasuna be bertan erneazo ei eutsan irakasleetariko batek. Durangon mutikotan bizi izandako urteotako gomutok, zinez be arinak eta atseginak ditugu harrapalada baten irakurteko.

Comillas-ko bizialdi luzea etorriko zan gero, beharbada Juan Bizenteren izaera eta nortasuna bere horretaratzen erabagiorrena gertatuko zana. Abadetzara bidean ikasketa guztiak hantxe egingo zituan, hamabi urte, bere bizitzako urterik lerdenenak. Liburuaren atalik interesgarrienetakoa, neure gusturako. Oroimen galbahetik

iragaziko ditu bere irakasle eta ikasketa-lagun asko, zahar eta gazte, batzuk gerora be adiskide handi izango dituanak.

Abade edo fraile ikasten horretariko mintegi baten egon dan edozeinek erraz ikusi leike bere burua irudi horretan ispilaturik, idazleak bere kontaeretan aurrera egin ahala. Comillas amesetako unibertso moduko bihurturik dakusku idazlearen begitan: leku askotako eta askotariko jentea batzen zan ikastetxea, kultura eta nortasun kontraste handiko alkargunea. Ikasketa mailakatuak: humanidadeak lehenengo, filosofia gero, eta teologia akaburengo. Hizkuntza eta kultura greko-latinoa sakon ikasteko erea. Irakasbide zorrotzak, ikasketa sakonak, gogo-jardunak, futbola, koru-musikea, udako opor aldiak, apurka-apurka euskerearen uretan murgiltzea, katekesi-jardunak albo-herrietan. Berba baten, gaurko girotik urruneko begitantzen jakun mundu-giroa, nahiz denporan hain antxinako ez izan. Idazlearen ondoko esaldionek irudikatzen dau zehatz idazleak Comillasgo bizialdiaz gerora izango dauen sentiera: "Toki bat zeure bigarren edo hirugarren etxetzat izan dozunean, bertatik alde egin dozunean be, noizean behin bertara bihurtzeko ahaleginak egiten dozuz".

Liburu osoan zehar kontetan deuskuz batera eta bestera eginiko osterak, *Schola cantorum*-egaz gaztetan Erromara eginikoa, geroak garrenean be gizon heldu dala Europatik atxina egingo dituanak legetxe. Egia esan, abesbatz kantore edo zuzendari izateari etekin aberatsa atera deutso Juan Bizentek, erbeste lurrak ezagutu ahal izateko. Eta gogoan sakon erantsirik gordeko ditu ibiliotako irudigomuta mordoa. Nortzukaz joan edo lagundu zan, ze pasadizu bitxi gertau jaken..., kontaereari arintasuna eta bizitasuna emotera datozan pasarteak.

Idazleak, bere bizitzako edozein jazoera edo pasadizu dala-ta be, ez dau erarik galduko inguruan izan dituan adiskide, lagun, ezagun, irakasle edo osterantzeko aitatzeko eta hareen gaineko nonzebarriak garantzeko. Kontaera kateatuon bidez, bera lekuko izan dan inguruko gizarte oso bat erakutsiko deusku hurrenez hurren, XXI. mende honetan ia lausoan geratzen jakuzan aldi joanei buruz.

Abade egin barri Iurretara bialdu eben Juan Bizente gaztea, Francopeko aldi latz-ilun haretan, hirurogeiko hamarka aurretxoan, eta irakurle lez esan nei Iurreta eta Oromino bitartean erabili zituan atzera-aurreren kontakizunek ez deutsela bape zorrik harrezkeroko herrietakoenai. Ekimen oparoko urteak; edoi baltzez beteak kanpotik, baina gazte-odola bor-bor erabilenekoak, bestetik. Txomin Artetxe abade euskaltzaleagaz egingo da lagun handi, hau Apatan eta gero Ibarrurin abade egoala. Kontatueran bertan dario idazleari orduko urteetako adorea eta bizipoza; atsegin handiz irakurten dira harako gaztetxoakazko ibilera, dantzari-talde, antzerki, koru, irratsaio, eleizkizun, hileta eta beste eleiz ekandu, Arantzazura erromesaldia, euskeraren aldeko ekintzak eta hamaikatxo bestetarikoren zertzeladak. Juan Bizentek berak autor deusku orduko poza: "Inoiz eta inon zoriontsu izan banaz, nire Iurretako urteetan izan naz".

Iurreta-Orominotik Markinaldera egingo eban hurrengo jauzia. Orduko urteetan entzute handia irabazi eta Markinaldeko gizarte-bizitzan sekulako eragina izan eban *Escuela Laboral*-era joan zan biziten, eleiz karguak han izentau eutsiezanean eleiz agintariek; han iragoko zituan hainbat urtetxu, irakaskuntza eta eleiz ardurak txandan eroiazala. Etxebarriko kuajutoretza izan eban bere lehenengo eleiz ardurea. Abade eta lagun-hurrenkera ugari eta itzaltsuagaz topo egingo dau bertan: Julian Olazabalaga ekimentsua, Benito Ansola zinezalea, Bernardo Barrutia Etxebarriko parrokoa, Jose Mari Rementeria; baita Mikel Zarate, Xabier Amuritza, Imanol Oruemazaga eta beste batzukaz be, gehienok euskera munduagaz zerikusi estua ebenak. Karmeldar fraile batzukaz be adiskidetasun estua eihoko dau: Aita Migel Maria, Jenaro Larruskain, Aita Lon, Luis Baraiazarra idazlea… Markinalde honetan be ez zan izango kasualidade hutsa, euskera zaletasun edo giroko eleizgizonakaz lokarri estuagoak mamintzea, Durangaldean Txomin Artetxegaz egin eban legetxe. Hamaikatxo kontu zehetzen deuskuz, berari ezeze, batari edo besteari jazorikoak. Gure abade idazleagan ez eban eraginik txikiena izango, Julian Olazabalaga asmogile eta eragileak: beti asmo eta bide barriak sortzen eta bideratzen, ekimen barriak bultzatzen edo eragiten. Baserri-ustiakuntza, irakaskuntza,

baserri edo kontsumo kooperatibak, lanpostu barrien sorrera bultzatzea, munduan zeharreko ibilerak, euskerearen inguruko jarrerak... Emoi oparoa eta zeresan ugari eskeintzen deutso Larrabetzuko seme handi horren geldi egon ezinak.

Eta Markina eta inguruetako ekimen guztien ardatza Eskola Laborala. Lanbide-ikastetxe seinaladu hori izango dau Juan Bizentek, beste abade-lagun batzuekaz batera, bere egotoki nagusia, eta aldi berean eragin-gune indartsua. Izan be, Eskola honen eragina, lanbide heziketan, Artibaitik haruntzago hedatzen zan aldi horretan: Lea, Gernikalde eta Durangalderaino gitxienez. Eskualde osoaren eta urrunagoko gaztearíaren heziketa- eta kualifikatze-gune indartsuena zan, Bizkai osoan be lanbide-irakaskuntzan ia bardinbakoa. Eskola honetatik hedatuko dau, bada, gure idazleak bere abade, irakasle eta hezitzaile jardunaren arlo handi bat.

Oraindino faxisten diktadurea indarrean –inoizkorik indartsuen eta garratzen beharbada– egoaneko urteak ziran hareek, eta Hildago kapitanak Gernikako kuarteletik egiten zituan razziak zirala-eta gorriak ikusi ebezan Markina eta inguruetan, beste leku batzuetako antzean, ez bakarrik herritarrek, abade eta eleizgizonek be bai. Nazional-katolizismoaren morroi leiala ei zan kapitan hori, baina ankerra eta errukibakoa eleiz giroko erakundeakaz be. Pasadizu guztion barri gomuta biziaz eta zehaztasun handiz emoten deusku Juan Bizentek. Lekukotasun bikaina, urte baltz horreena, gerokoen jakingarri.

Markina pelotari-habia ezaguna izanik, Ameriketara eta erbeste batzuetara zestapuntalari asko bialtzen zituan sasoi horretan. Inguru guztian (baita Gernika eta Durango aldeetan be) mutil kozkorren eta neska-gazteen mito-irudi ziran pelotariok. Halanda be, Eskola Laboralaren arduradunek beste bide batzuetatik ikusten eben gazteen etorkizuna; lanbide ikasketa burutu eta lantegirako lanpostu kualifikatua eskuratzeko baldintzak izatetik, pelotarien ustezko diru errazetik baino gehiago. Horrezaz be mintzo jaku Juan Bizente.

Kantua, antzerkia eta, orohar, bardingo eta gazteakazko ekimenak be mintzagai ditu. Artean Iurretako egonaldian garatutako estrategia beretsuak landu zituan gure abadeak Markinaldean be.

Markinan ezeze, inguruko beste herri batzuetan esku artean izan zituan ardura-karguak be zehaztasunez eta umorez kontetan deuskuz. Etxebarrin, Don Berdinardino Barrutiaren aldamenean, Barinagan eta Gerian, besteak beste.

Markinako aldia bete ondoren, Elorriora bialduko dabe abade hirurogeta hamabost aldera, Franco hil aurretxoan. Idazlearentzat hurragora etortea zan, bere sustrairik erdiak handikoak zituan eta, Durangokoak ezeze. Gudarien atzera-aurrerak eta Intxorta aldeko bonba- eta tiro-hotsak entzuten izan zituan uria; eta Balentin Berriootxoa donearen jaioterria. Ama elorrioarra izan eban, eta bera be, eleiz karguak atzera Elorriora dakarrenean, "Goikoerrotako abadea" izango da hondino be elorrioar zaharrentzat, eta hurrekotasun horren konfidantzaz, Artibai aldean "Don Juan" zana "Juanito" bihurtuko da Oizen bestekaldean.

Lehenengo koadjutore arduran jardungo dau luzaroan; eta aurrerago, parroko. Elorrioko egotaldi hau izango dau Juan Bizentek abade-arduretan izango dauenik eta luzeena. Hogeta hamahiru urte, liburu hau idatzi arteinokoak behintzat. Egotaldi horretan Atxondoko eleiz ardurak be beregandukо ditu. Eta Elorriori erakusten deutsan eraspena Atxondori be agertuko deutso. Ez da alperrik igarotekoa. Uriak emon dituan gizon handi edo ezagunen gomuta arina eskeiniko deusku behin banan; Atxondoko pelotarien harrobiaz ahaztu barik. Jaime Kerexeta, Biblia osoa bizkai euskeraz emon euskun idazle elorrioar gogoangarriaren akordu apartekoa eskeiniko deusku. Bai, ba! Euskerazale eta idazle izateak kidetzen izan ditu biok eta!

Francoren heriotza eta horren ondorengo gizarte-zirrarak eta erasoak be Elorrioko lehen urteotan biziko ditu. Horren oihartzun laburra be badamaigu labur.

Elorrion eta Atxondon aldikada luze horretan erabili dituan eginkizun-ardurak gogoratuz emoten deutso amaiera Juan Bizentek bere gomuta-ibilbide luze horri, *tontorretik begira* idatziriko gomuta ikuspegia.

Idazleak berak zuzen gogorazoten deuskunez, autobiografia baino gehiago, berak ibilian-ibilian bizi izan dituen esperientziak, jazo-

erak eta hurretik ezagutu eta maite izan dituan lagunak eta gizarteak ditu mintzagai liburuan. Idazleak bere burua lekukotzat darabil gehiago, protagonistatzat baino.

Guri, XXI. mendearen lehen hamarrurtekoaren buruan liburu hau irakurriko dogunontzat, eta lehengo mendeko diktadura aldiko eta ondoko urteok ezagutu ez edo lainoturik ditugunontzat, ondo jatorkula deritxat, lehen hurreko hori barriztetea, abade idazle honen lekukotasunaren espiluan.

On beizue irakurle euskalzale guztioi.

Adolfo Arejita

TONTORRETIK BEGIRA

ABADE BATEN OROIPENAK

I
OROIPENAK ETA ESKER EMOTEA

Orain berrogeta hamar urte hartu neban abadetzako sakramentua, 1958an, hain zuzen be, irailaren 28an.

Beraz, 2008garren honetan izan dira nire abadetzako urre ezteguak.

Gogoratzekoak eta, batez be, Jaunari eskerrak emotekoak izaten dira urteurrenak. Zer esanik be ez, urteurrenak urre ezteguak diranean.

Horregaitik, eskabide bati baino gehiagori jaramon eginaz, urteurren horrek dakardazan oroipen bat eta beste idaztea otu jat.

Jakina ez dana biografia bat. Barregarria litzateke holako ausardikeria. Gainera, edozeinen biografiak liburu mardula behar leuke.

Beraz, ez dira agertuko hemen nire bizitzaren ardatz izan daitekezan eta nigan eragin handiena izan daben jazoerak eta bizikizunak, eta ez da izango hau nire izatearen eta barruaren azterketa edo autortza edo azalpen ez sakon ez arina be. Bai, bizitzaren harira, oroipen batzuk eta hausnarketatxuren bat... ez besterik.

II
ABADEGINTZA

Gotzain bila

Bai. Harainegun zala dirudi, baina, berrogeta hamar urte igaro dira abadetza hartu nebanetik.

Urtero egiten eta ospatzen zan handikiro abadegei mordoaren abadegintza Gasteizen, edo, gutariko batzuena, Comillasen.

Nirea bakarrean izan zan, orain basilika dan nire herriko eleizan, Durangoko Uribarriko Andra Marin, Zenon Aranburu gotzain eta jesuita misiolariaren eskutik, berez egin behar neban baino urtebete lehenago, 1958ko irailaren 28an. Neu ete naz Durangoko Uribarriko Andra Marin abadetzako sakramentua lehenengo hartu dauena? Haren baten, bai.

Baina ez uste ni zerbait nintzala-ta hartu nebanik urtebete lehenago abadetza bakarrean. Aurreko urtean, neure moduan Comillasen egoan Barakaldoko Iñaki Francori, orain be lagun mina dodanari, jazo jakona jazo jatan niri be: semea laster abade ikusteko pozarren egoan amaren heriotzea.

Hori izan zan, gotzainaren ustez, bai nire laguna eta bai ni, urtebete lehenago abade egiteko errazoia. Pablo Gurpide gotzainak, Otsagabiako semeak, zuzentzen eban orduan Bilboko Eleizbarrutia.

Gauza garrantzitsuren baterako aurretik berbea emonda eukalako, berak ezin ninduan ordenau edo abade egin, horretarako izentauta geunkan egunean. Horregaitik, Gipuzkoako herri bateko

komentuan udaldian egoten zan gotzain ezagun bategana, Iurretako Jabier Lauzirika jaunagana hain zuzen be, bialdu ninduan, berak ordenau nengian.

Zelakoak ziran orduko gauzak! Bera oporretan egon arren, eta bera eta ni albo herrietakoak, Iurretakoa eta Durangokoa, izan arren, alkarrizketa osoa bere zerbitzuan egoan abadearen bitartez izan zan. Larregi zan gotzainarentzat, abadegeia baino ez zan bategaz beste barik berba egitea. Orain ezin jakuz holako gauzak buruan sartu, baina, egia esan, orduan be ez neban ulertu.

Ez eustan holakorik egingo Aurrezki Kutxan lan egiten eban eta adiskide-kutsuz "arzobispoa" esaten eutsen bere anaia Perikok. Pozik joaten nintzan Aurrezki Kutxara, honegana, umetan, beti arkatzen bat edo gauza politen bat emoten eustalako.

Bitarteko egin eban abadea Francisco Alvarez jauna zan; orduan iurretarraren zerbitzuan egoan, baina geroago Toledoko gotzaina izango zan.

Txinatik etorritakoak baietza

Bilbon egoan egun hareetan Zenon Aranburu jauna, Txinan misiolari urte asko emondakoa, apala eta jatorra benetan. Lehengoak huts egin eustanez, honegana joteko esan eustan Gurpide jaunak, berak bertan behera itxi ezineko zeregin baterako berbea emonda eukala errepikatuz. Pozik emon eustan baietza Zenon Aranburu jaunak.

Gure eleizbarrutia orduan zuzentzen eben batzuen pentsaera estua agertzen dauen adierazgarria da orduko bazkal ostekoa.

Etxean bazkaldu genduan gotzainak, parrokoak, amama biak, aita-amabitxi izan ziran Elorrioko osaba Emiliok eta izeko Matildek eta nire aitak.

Bazkalosteko jardun gozoa amaitzeko gengozala, Ezkurdiko pelotalekuan zesta punta edo txisterako pelotaririk onenak jokatzen ebela esan neutsan gotzainari.

"Zergaitik ez goaz?". Asiako egonaldi luzean pelotari euskaldunekin sarritan egondakoa zan gure Zenon Aranburu Jauna. Pozarren hartu eban barria.

Parrokoak, orduan, berak be ez ebala ulertzen, baina abadeok galarazota geunkala jenteaurreko ikuskizunetara joatea.

Pelotakadaren bat hartzeko arriskua geunkalako ete zan ba?

Neure abadegintza egunean, biribiltzeko hain ondo etorriko litzateken goi mailako pelota jokaldia ikusi barik geratu behar izan genduan Txinan pelotarien adiskidea zan Zenon Aranburu jatorrak eta biok.

Hurrengo egunean, monja frantsesak esaten jakenek Durangon dauken Nevers ikastetxeko eleizatxuan emon neban Meza barria, Jose Maria Dañobeitiak eta Karmelo Etxenagusiak, abade zaharrak eta gazteak, zuzentzen ninduela edo laguntzen eustela. Oraindino ez egoan orduan mezea abade batek baino gehiagok emoterik, handik urte gitxira Kontzilioak onartu arte.

Ha ta guzti be, hurrengo domekan, 1958ko urriaren bostean, izan zan meza barri ofiziala, orain basilika dan Uribarriko Andra Mari parrokian bertan, altaran Pedro Aboitiz parroko jauna laguntzaile nebala, eta Joxe Mari Bergarak eta Antonio Madinabeitiak, biak Comillaseko lagunak, diakono eta subdiakono egiten ebela. Eleizkizuna zuzentzen, abadegintza egunean lez, Juanito Azpitarte adiskide handia, Donostiara joan jakuna.

Eleizea beterik egoan, eta han ziran presbiterioan Don Sebastian nire irakasle izandakoa, Don Fermin Madariaga eta Jose Martin Bergara lagun handiak, Don Isaak Uribesalgo eta hiru don Frantziskoak, lodia, handia eta txikia, Jainaga, Apeztegia eta Santamaria hurrenez hurren, Iñaki Comillasen lagun mina nebana eta orain gogoratzen ez dodan besteren bat edo beste.

Garrantzitsua izaten zan hitzaldia nork egin. Rikardo Sarriortuzar nire osaba Agustinen ezkon-anaiaren esku egon zan ardura hori. Orduantxe entzun neban lehenengoz, nire parrokian, hitzaldia euskeraz egiten. Ez eusten orduan be sinesten Comillaseko lagunek nire Meza barrira arte itxaron behar izan nebala, neure herrian, neure parrokian, neure hizkuntzan berba egiten entzuteko.

Eguerdian, ohiturea zanez, Durango bertako Miota hotelean bazkaldu genduan senideek eta abadeek bakarrik, amaren hutsune ikaragarria baina bere laguntza eta poza sumatzen genduzala.

Aurretik, diakonautza

Baina abadetza ezin daiteke hartu diakono izan ezik. Astebete aurrerago, 1958ko irailaren 21ean, hartu neban diakonadutza Arantzazun, Inazio Larrañaga Pingliand-go gotzainaren eskutik, frantziskotar mordoagaz batera. Gogoratzen nazanez, neugaz batera egin ziran diakono egun horretan Fernando Mendizabal euskal gramatikalaria, Iñaki Bereziartua handik urteetara lehenengo "Gogoeta Aste"etan liturgia zuzenduko ebana eta beste ezagun batzuk.

Baina ez zan nahikoa diakono izatea abadetza hartzeko. Meza nagusi baten, gitxienez, bete behar zenduan diakonautzak eskatzen deutsun liturgi-zeregina. Epe hain laburra egoanez, orduan Abadinon egozan monjek eratu eben, ez dakit zein santu zala eta, abade, diakono eta subdiakonodun Meza nagusia. Holan bete neban hurrengo domekan abadetza-sakramentua hartzeko geratzen jatan baldintza.

Jakina, aurretik Comillasen bertan hartu izan nebazan tonsura eta ordena txikiak esaten jakenak, horreek be gotzain misiolari baten eskutik eta, gerotxuago, subdiakonautza.

Abade egin eta urtebetera amaitu nituan, Comillasen bertan, Seminario eta Unibersidadeko ikasketak.

III
UMETAKOAK. GERREAREN ZURRUNBILOAN

Zerutik sua eta triskantz... Durangon

Urre-ezteguak. Igoera malda luzeak dituen mendi gain tontorra. Gain horretatik, argi ikusi daitekez, oroimenaren laguntzaz, maldaz gora ibilitako une asko, baina ez danak; oroimen hori estaltzen daben laino piloa izaten dira.

Zenbat eta zenbat esker emon behar Jaunari, umetatik, umezarotik hasita, erreskadan ikusten ditudan une zoriontsuakaitik: gurasoak, senideak, lagunak, adiskideak... zelako umezaro pozgarria, nahiz eta nire bizitzako lehenengo oroipen biak garratzak be garratzak izan: azpian harrapau ninduan Durangoko bonbardaketak eta Elorrion gudariak, hilteko arrisku handiz, Intxorta mendirantz gure aurretik igarotea.

Bai. Sirena hotsa! Amaren esturea! Kalean zehar arineketea! Sirena hotsa barriro!

Trenbidea igaro eta ondoko lantegi barruko horma ondoan zorro mordoa; zorroak babestzat harturik, emakume batzuk, neure ama euren artean, umeak magalpean dituela!

Handik laster, abioien burrunbada ikaragarria! Bat-batean, sekulako eztandak, sua alde guztietan, kea, hautsa… larritasuna! esturea! izuikara! negarra!…

Durangoko bonbardaketea.

Horixe da nire bizitzako orain dodan lehenengo gomutea. Edota, ez dakit ziur lehenengoa beste hau ete dan:

Arratsalde euritsua. Elorrion, San Juan kalean, amamaren etxe aurrean. Gudari aldra bat, lepoa jantziz eta tramankuluz beterik eta iskiluak beso gainean daroezala, eta kantuz, "Ez dirala pasauko Intxorta menditik…" Emakume batzuk eurei begira, negar-anpuloak begietatik dariela.

Hiru urte nituan orduan, ia lau, baina barru-barruan eta bizibizirik geratu jatazan jazoera bien irudiak.

Handik urte mordo batera, Historiako irakasleak, liburutik irakurriaz, erderaz, jakina!: "Gerra galdu ebenek… koldarki ihes egikeran, Gernika, Durango… erre egin ebezan…". Atzamarra jaso eta irakasleari nik: "Hori ez da egia, neu naz Durangokoaren lekuko eta nire ezagun asko Gernikakoaren lekuko".

Irakaslea eta biok bakarrean. Nik dana zehatz-mehatz azaldu ondoren, harek, alde guztietatik sartu eutsoen guzurretik askatu ezinik, baina, begiak geroago eta handiagoak egiten jakozala, egiari amore emonda, badinosku, hurrengo klasean: "Se suprime esta lección".

Zer egin beharko ete da, hemendik aurrera inoren bizitzako lehenengo gomutea holangoa izan ez daiten eta idazten dan historia be egiazkoa izan daiten?

Irabazleen garai-ikurra soka-muturrean

Elorrioko aititaren jaiotetxera joan ginan Durangoko bonbardaketak abioien azpian jasanda gero, Ibarruriko Undabeitira, hain zuzen be.

Gerran alkarren kontra ziharduen talde bien erdian edo artean egon ginan hile batzuetan. "Pa-kun, pa-kun", lehenengo silabea ozenagoa zala, entzun behar izan genduan egunero-egunero goiz eta arrasti, batak besteari jaurtiten eutsazan tiro hotsen musikatxua.

Behin, alboko Justonean errosarioa errezetan gengozala, bala bat sartu zan leihotik aurreko hormaraino. Ikaraz izututa itxi ginduzan:

aitita zeozertarako jagi barri zan bertatik, jo izango eban bestela.

Handik laster etorri ziran, zeozeren eske baletoz lez, militar batzuk. Antza danez, uste izan eben arerioei keinuak egiten ziharduela etxe haretatik, ate batetik bestera argi egiteko pasetan genduzan eskuargiakaitik eta errosarioa esateko gelan iziotuta egoan argiagaitik.

Alboko bizilekuan andra eibartar bat egoan geure antzera eta harek eroaten ninduan beragaz "goazen pasiatzera, Juanito" esanda, ondoko etxeetako lagunak etorten ez ziranean. Ama eta beste andrak senarren eta beste etxekoen zoriaz arduratuta eta negarrez ikusten ebazanean, "etorriko dozan, neska, etorriko dozan" esaten eban.

Berak senarra eukan gerran alde batean eta semea bestean. Gauza zelebrea jazo jakon gerrea amaitutakoan. Bera Francoren aurkakoa izan arren, semeak, haren taldean izanik, banderaren bat irabazi ei eban gerrako ekintzaren bategaitik. Pozik egoan eibartarraren alabea, eta etxera joaten ziran adiskideei harro erakusten eutsen nebeak irabazitako bandera hori.

Baina, San Juan jaietan, soka-muturrean, han ikusi ei eban Benantzi izeneko andra horrek, leihopean, horma kontran, mutil bat geldi. "Zer egiten dok hor geldirik?" "Ez daukat zegaz toriau eta..." "Hor daukak kapia". Eta seme-alabek hain estimu handian euken banderea emon eutsan. Zelan geratu ete zan zezenaren adarrak probauta gero!

"Nire esturak, neska, hurrengo baten alabeak, beti lez, adiskide batzuei harro-harro erakustea nahi izan eutsenean!" esan eutsan nire amari, handik gerora, gerra denporako kontuak esaten hasi ziranean.

Ni ez naz ondo gogoratzen, baina neure kontra *consejo de guerra* izateko merituak egin ei nebazan ia. Umeak bizkorrak izaten diranez, laster ikasi neutsen *gorriei*, beste batzuen artean, arerioen aurka kantetan eben eta, "Jóvenes antifazistas..." hasten zan abesti bat.

Francorenak sartuta, baserri inguruan ebilzanean, ni eurei begira eta neure kantu trebetasuna erakutsi guran edo, han hasten naz *gorriei* ikasitakoa zoli-zoli abesten.

Euretariko batek: "chaval, quién te ha enseñado eso? tu padre?". Ni, nire ahots onagaitik edo, zorionak emoten eustazalakoan, irriba-

rrez, berari begira begira. "Toma un caramelo" izan ei zan nire aurkako *consejo de guerra*ren erabagia. Dardaraka jarri nebazan etxekoak eta albokoak, nasai geratu ziran orduan.

Nik ez neban izan nahigaberik eta sufrimenturik gerrea zala eta. Hiru urte ez da nahiko, antza danez, horretarako.

Baina, ni baino nagusiagoentzat, guztientzat, benetako infernua izan zan. Zenbat bider entzun izan deutsedan hainbesteri gerrarik onena baino hobea dala eta gurago dabela bakerik txarrena. Behin be ez dago gerrarako edo inor hilteko errazoirik, ezta gauzarik onena lortzekotan be. Ez al da izango holako besterik gure artean eta beste inon be!

IV
SANTA SUSANAN

A, e, i, o, u ikasten

Ibarruritik barriro Durangora joan eta uste dot laster izango zala eskolan hastea, Komentu kalean monja agustindarrek euken Santa Susana ikastetxean. Hobeto esateko, badakit ikastetxeak Santa Rita izena dauela, nahiz eta gehienok beti Santa Susana esan, hori dalako komentuaren izena.



Gurasoakaz denda aurrean, Durango 1950.

Ama San Jose, ama Lourdes Zarrabeitia Durango bertakoa, ama Inmakulada, ama Arantzazu... Zelako maitasunez irakasten euskuezan *Silabario moderno* lehenengo eta gero *Catón moderno* Santa Susanako monjatxuek. Hori bai, dan-dana erderaz. Eta "España es nuestra amada patria, a la que...". Eta danok sartzen ginanean egunero abesten genduzan abesti "patriotikoak".

Ezin leitekean bestetara. Etxeko euskal giroari eskerrak jarraitzen genduan geure herri zahar eta maitagarri honen seme-alaba izaten.

Behin, bizioak neukazala eta, eskolara joan barik geratu nintzan egun baten edo bitan. Hurrengo egunean, monjeak zergaitik joan ez nintzan itaundu eustanean, hau izan zan nire erantzuna: "Madre, he tenido vicios". Ez nekian nik bizioak erderaz *lombrices* ziranik.

Erderea zan nagusi, ez eskolan bakarrik, baita Durangoko kalean be, nire umetan edo ume denporan. Baina, zelako erderea! "Al oste" joaten ginan, "en goitibera", "con el buztin" gauzak egitera. Ezin igarri Real Academia Españolarako ala Euskaltzaindirako bidean ginoazan.

Beste behin, ikastetxean, antzerki antzeko baten, nik San Agustinena egin neban. Ume bat ikusi ei eban Agustin jakintsuak txirla baten barruan itsasoko ura batzen.

—Zer egiten dok?

—Itsasoko ur guztia hementxe batu.

—Hori ezina dok.

—Ba zailagoa da zuk Jainkoaren misterioa zeure buru horretan sartzea.

Umezaroko gogorapenak, gitxi izaten diranez, huskeriak edo huskerien hurrengokoak izan arren, balio handikoak izaten ei dira. Horregaitik jarten dot ozta-ozta gogoratzen dodan hau be.

Nire jaiotetxean, Durangoko Kale Barrian hain zuzen be, Duñaiturria nire bigarren lehengusuekin jolasean nenbilela, erraz ez, baina, ekin eta ekin, lortu neban balkoiaren burdina biren erditik burua sartzea. Sartzea bai, baina gero ezin atera. Aterako neban, halako baten, edo aterako eusten, belarriak ebagi barik, buru hori, oraindi-

no be han ez nago eta belarri biak aldean daukadaz eta. Izan ete eban horrek burugogorra izatean eraginik?

Aititak "baturroak" ekarri

Ezin ahaztu Elorrioko aitita Kandido, amaren aita, etorten zaneko egunak. Etxera sartzeagaz batera, ia lepora igoten neutsan eta txapela kenduaz, burusoila igurtziten neutsan. Haren poza, orduan oraindino biloba bakarra ebanak berari hori egitean!

Baina, beharbada, handiagoa zan nire poza *baturroak* ekarten eustazalako. *Baturroak* zer ziran? Ba, pospolu-kaxeak eukazan kartoizko zati biak. Horrekin ordaintzen genduan, burdinazko txapetara *tako* egiten jokatzen genduanean, galdu ezkero leporatzen genduan zorra. Harro joaten nintzan lagunakana, aitita etorten zanean, eskukada *baturro*gaz. Zenbatek gura izaten eben orduan holako aitita eukitea!

Baina, beste gauza bategaitik be pozik egoten nintzan aitita etorten zanean. Ez nintzan aspertzen entzuten, behin eta barriro izan arren, lehenengoz trena ikusi ebanekoa. Jai emon ei eutsien eskolako umeei Ibarrurin, Okatik trena lehenengo aldiz igaroten ikusi egien.

"Zelan izango dok ba hori egia? Burdia idi edo behi barik, bera bakarrik, eta kea dariola? Ezin jok holakorik izan!"

Baina, han ikusi eben, aho zabalik, Gernikarako trena, fa, fa, fa... eta ke moltsoa atzean ixten ebala. Nire barreak hori entzuten neutsanean!

Aitak, jakina, geroagoko jazoera jakingarria azaldu eustan sarritan. Bere mutikotan, Arriandi inguruko solo baten lanean zihardueela, bat-batean batak besteari: "Hi, begiratu egik... zeruan txoria eskilara bategaz!". Ez zan han ez txoririk ez eskilararik, baina bai eurek ikusten eben lehenengo hegazkina edo abioia. Hori izango zan hemen inguruan lurra hartu ebana eta gero, inguruko herri guztietako jentetzaren aurrean, hegaz egin guran, sua hartu eta erre zana.

Osaba Dionik behin eta barriro, neuk eskatuta, "Peru eta Marixa"na azaltzen eustan. Marixak esaten eutsana, bestetara egiten ei

eban Peruk beti. Egun baten, Marixak Peruri, "Itxi atea, Peru", eta honek, bestetara egitearren, bertan itxi barik, lepoan hartu ei eban atea. Zelako barreak nik orduan be!

Errioxan, Arripozuetan

Ez neban ezagutu beste aitita, aitaren aita. Ni jaio baino bost hilabete lehenago hil zan. Bere amak, ostera, nire aitaren amamak, ezagutu ninduan. Ni jaio eta hirugarren egunean hil arren, poz-pozik jarri ei zan bere biloba zaharrenaren, nire aitaren semea ezagutu egian eroan eutsienean.

Sei, zazpi eta zortzi urte nebazala Errioxako Bobadillan egin nebazan egonaldiak, urteak zirala hemendik joandako urruneko senide baten ondorengoen etxean.

"No quiero hablar vascuence!" esan ei neutsan amari, lehenengo urtean bila etorri jatanean. Nahikoa izan zan, antza danez, berak esan eustan "ume!", gehiago holako ames txarrik ez izateko.

Oraintxe be maite dogu alkar eta pozik ikusten dogu batak bestea ia urtero, senide eta herriko beste mutiko-neskato jolas-lagunak, orain danak urtetsuak.

Jolas asko genkian eta egin be egiten genduan gure ume denporan. Andra Mariko eleizpean izaten zan "txorro-morroka" egitea. Horma ondoko jesarlekuan jarten zan lehenengokoa, makurtuta, eta bere atzean, honeek be aurrekoari heldu eta makurtuta, bi, hiru edo gura zan beste jarten ziran. Besteek jauzia egin behar eben hareen gainera, ahal zan aurreren, danak sartu ahal izateko. Jausten zanak edo ziranek eurek egin behar eben astoarena, behean aurrekoari heldu eta makurtuta besteek euren gainera jauzia egin egien.

Ez zan hori jolas bakarra.

Garrantzi handia emoten geuntsan igerian jakiteari be. Arripozuetan ikasi neban. Gerrirainoko uretan sartu, etzun eta urpera ez joateko eskuei eta hankei batera eta bestera zipli-zapla eragin, inguruko danak txipristinduz, eta bigarren egunean, "ene! metro bi ur gainean joan nok urperatu barik; uger egiten ikasi joat". Horretan be

giza mailak egozan. Lehenengo mailakoek presatik behera jauzi edo salto egiten eben, beheko ur sakonetara. Bigarren mailakoek presa gainean herri alderantz egozan ur sakontxuetan ibilten ziran. Eta hirugarren mailakook, bestekaldean, ur txikiagoetan, eskuei eta hankei eragin eta geroago eta txipristin gitxiago ateraten.

V
JESUITETAN

Pozik

Urte ederrak jesuitetan batxilergoko lehenengo urteak ikasten igarotakoak. Gizon izaten, kristau izaten... eta futbolista izaten pausu garrantzitsuak. Nahiz eta odolean neroian azkenengo hau pikutara joan zan, jesuitetakoa amaitu eta urtebetera, abade izateko deia neukala uste izan nebanean.

Barrukoak eta kanpokoak, internuak eta externoak hain zuzen be, gengozan jesuiten San Jose ikastetxean. Gero jesuita izateko ustea eukenak izaten ziran barruko. Gu beste guztiok ez.

Oroimen gozoz gogoratzen ditut orduko jesuita batzuk.

Barrena eta Ozaeta anaia legoak dira lehenengo aitatu beharrekoak. Ozaeta zan Ingreso eritxan lehenengo urteko irakasle bakarra.

Barrenak, gaztetxuok edo umeok sakristia inguruan batzen ginduzan beti eta gugaz osotzen eban futbol taldea be, herri guztirako jesuitetan bertan izaten ziran futbol txapelketetarako.

Txapeldun be izan ginan urte baten, eta bestean, itxi egidazue nire harrokeriatxua botaten, neuri emon eusten txikienen txapelketako banakako kopea.

Zelako poza hartu neban sariak banatzean Aita Zabaletak, kosken eta luistarren zuzendariak, neuri begira jarri eta kopea emoteko dei egin eustanean. Erabagia futbolari handi biren, hain zuzen be Barinaga gaztearen eta Garate gaztearen eretxiak jasota gero hartu

eben eta eurak ondoan egozan, saria hartzera joan nintzanean. Ni pozez beterik, baina ni baino gehiago poztu zirala, uste dot, nire taldekoak.

Nausitxuen kopea, kategoria gehiagokoa, Zamora abizena eukan gure auzoko mutil bizkorrari emon eutsen. Handik urte gitxira hil zan.

Behin, futbol-txapelketa baten, gure taldeko batek, bape errazoi barik (inoiz ete dago?), ostikada bat emon eutsan beste taldeko bati. Honek, haserretuta, sekulako astindua emon eutsan gu bere eskuetatik askatzera heldu orduko. Gero, gure taldeko horri etxera laguntzen ginoazala, emakume ezagun batzuek, odola eta zauriren bat ikusi eutsiezanean, esan euskuen: "Zer jazo da?" "Futboleko gauzak" izan zan gure erantzuna. Hori zan izan be eta!

"Sociedad Infantil Acólitos Católicos" edo holako zerbait esan gura eban SIAC Anaia Barrenak egindako futbol taldearen izenak. Laster aldatu euskuen esangurea: "Sociedad Inútil Acción Cameladora". Irudimena eta umorea nagusi!

SIAC monagillo taldea txapeldun, Durango, 1946. *Zutunik:* Barrena, Basozabal, Murgoitio, Oñate, Alejandro Duñaiturria, Mardaras, Javi Duñaiturria, Jabi Gorrotxategi, Bilbao, Patxo. *Belauniko:* Santi Duñaiturria, Gallastegi, Arrien, Karmelo Gorrotxategi.

Talde horretatik, bostek edo seik jesuita izateko erabagia hartu eben eta batek, neuk hain zuzen be, handik urtebete ingurura, abade izatekoa.

Batzuk egin ziran jesuita, batek edo bestek agintzariak eginda eta abadetza hartuta gero itxi be bai, eta bada, jesuita dala hil danik be, Jabi Gorrotxategi, hain zuzen be, Karmelo ikustera Madrilera joan zanean. Bere anaiea zan Karmelo hau, futbolean egurra emoten ebana, baina ez lehen aitatutakoa. Ez dakit euren ama eta nirea biak Elorriokoak ziralako edo auzokoak ginalako, baina adiskiderik handienetarikoak nebazan, eta dot orain be Karmelo. Durangoko bonbardaketan hil jaken beste anaia nagusiagoa, jesuitetako eleizan, abadeari Mezea erasoten edo laguntzen egoala.

Eta auzokoak eta adiskideak aitatzekotan, leihotik leihora berba egiten genduan Jose Antonio Aldekoa aitatu behar. Hau gerotxuago sartu zan jesuita. Deustuko Unibersidadeko idazkari nagusia eta Metafisikako irakaslea izan zan Txilera joan orduko, eta han hamabi urte eginda gero, handik etorritakoan be, beste horrenbeste, Unibersidadeko idazkari eta Metafisikako irakasle. Orain jubilauta dago, baina beti lanean, jo eta ke. Biok izan gara beti danean ezbardinak, baina biok seme bakarrak, adin berekoak eta adiskide adiskideak.

Irakasle eta beste

Jesuitetako irakasleen artean, nahiz eta asko eta onak izan gehienak, baten gomutapena geratu jat ahaztu ezinda: Lekeitioko aita Kortabitarte, Patxi Korta guretzat. Ikasketetan euskerea danik be ez genkianean eta aintzat be hartzen ez zanean, harek bere ikasgaiko galdera batzuk euskeraz egiten euskuzan etxean euskeraz berba egiten genduanoi, eta eskolatik kanpora be geure hizkuntzan jarduten eban gugaz.

Negar anpuloak be urten eutsien handik hogei eta ez dakit zenbat urtera, hirurogeta batetik hirurogeta bostera bitartean, Francoren denpora gogor hareetan, Bilboko euskaltzale batzuen laguntzaz Bizkaiko umeentzako berak antolatutako euskerazko sariketara Oromi-

ñoko ume mordotxua eroaten ikusi ninduanean, ni ordurako abade eginda.

Eta haren poza nire ume hareek lehenengo sariak irabazten ikusi ebazanean, ez behin, lau bider baino, eta Arriaga eta Coliseo Albia antzokietan txalotuak izan ziranean.

Nigaz izandako hartuemonetako azken gomuta hau daukat. Sotanearen ordez klermana jazteko baimenak etorri ziranean, ni oraindino sotanaz jantzita ikusi ninduan Durangon. "Noiz kendu behar dozu sotana hori eta klermana jantzi? Azaleko gauzak izan arren, ez gara atzean geratu behar". "Ez estutu, Aita Korta, eskatuta daukat eta laster nozu klermanez jantzita".

Beti sumau izan dot herriaren, kulturaren eta euskerearen arazoekin arduratuta egozanak eta dagozanak, guztiak ez izan arren, gehienak bai behintzat, arazo orokorretan eta eleiz arloetan be, sakonak nahiz azalekoak izan, askoz be aurreratuagoak eta gaurkotuagoak izaten dirala besteak baino, azken honeek goimailetako postuetan egon arren.

Ez zan Aita Kortabitarte bakarrik jesuitetako irakasle. Ahaztuta be badaukadaz gehienak. Urte baten eta bestean matematikak emoten euskuezanekin konpontzen nintzan ondoen, gorengo notak jarten eustezalako, beharbada. Izan be, atsegin nituan ikasketak, baina matematikak gehien.

Eta zelan diran gauzak! Gazte denporan atseginen eta errazen sartzen jatana, gerora zaila eta ia ezina egiten jat. Pelotariei jazoten jakena. Pelotan jokatzea bertan behera ixten dabenean, endekatu egiten ei jakez besoak, aparteko ariketak egin ezik. Hori berori uste dot jazoten jakola adimenari be, ariketa batzuk bertan behera ixten dituenean.

Musika zaletzen

Geroago aitatuko dot nire zelanbaiteko musika zaletasuna. Amagandik neukana jesuitetan gehitu jatan Aita Keller-en eskuz. Frantziako jatorria eukala uste dot eta Euskal Herria maite ebala, Zarau-

tzegaz eukan lotura estuagaitik. Ikasleen abesbatza txikitxu bat zuzentzen eban, jesuitetako eleizan izaten genduzan meza eta eleizkizunetan.

Caruso edo Gaiarre bera ete nintzan nengoan, behin bigarren ahotseko abeslari bakarrak abestu behar eban esaldi laburra, "el sol de más fulgores" hain zuzen be, abestuazo eustanean.

Amagandik etorriko jatan musika zaletasuna. Oso belarri fina eukan, eta gozo-gozo abestuten eban. Oraintxe be dardarea sartzen jat gorputzean, "Itsasoan laino dago, Baionako barraraino" entzuten dodanean edo neuk abesten dodanean.

Zenbat bidar entzun neutsan, nik egin neiken baino askoz be gozoago abesten, neure amari. Beraren nebak be kantuzaleak ziran eta Elorrioko parrokiako abesbatzan abesten eben bik, Emiliok, beherainoko notetara heltzen zanak eta Alejandrok, gero Ameriketara joan zan Gallastegi bategaz batera, inguru guztian tenore onenetarikoa zanak.

Beti esan dot beste hainbesteren artean nire "asignatura pendiente"etariko bat, pianoa edo organoa behar dan moduan ez ikastea izan dala.

Durangoko musika banda ospetsuaren zuzendari izan zan Don Millan Elgea, gizon jatorra eta atsegina, izan neban solfeoko irakasle.

Pianoa joten be hasi nintzan beragaz, baina gero Comillasera joandakoan, ezina izan zan jarraitzea, pianoa ikasteko izena emon genduanon aurretik egoalako gela haretan honako edo halako batzarrak egitea gura izaten ebenen eskubidea. Eta udan, etxean, ordu batzuetan bai, baina oporrak oporrak zirala eta, laburrak izan be gainera, han sartuta egon baino gurago izaten genduan batetik bestera lagunekin eta ibiltea.

Euskeraz, zenbatek?

Ikaskideen artean, taldetxu bat egoan berezia. Guk ordura arte hemengoxe euskerea bakarrik entzunda eta ezagututa, eurakandik hasi nintzan hain erraz eta bizi egiten eben beste euskera mota bat

entzuten. Mota hori ez zan besterik, giputzek egiten eben gipuzkera baino. Talde horretakoak ziran gero entzutetsuak izan diran Xabier Arzalluz, Dionisio Aranzadi eta Altunatarrak, besteak beste.

Sei edo zazpi ikaskide externok bakarrik egiten genduan geure artean beti euskeraz, Abadiñoko Amezuak eta Agirrebeitiak, Berrizko Aiarzaguena anaiak, Durangoko Jose Ramon Castillok eta neuk.

Urteetara jakin neban beste batzuk be euskeraz ekiela, eta ez gitxik. Baina, orduan, Durangoko kaletarren artean, giro erdaldun hutsa genduan.

Ezin itxi aitatu barik Joseba Alberdi, mutil argia be argia, Motrikuko "Bar Loretxo"koa, ikasturtean zehar Durangon bizi zana. Berak lagundu eustan, maisutasunez, lehenengoz entzun nebazanean, bertsolariek esaten ebena ulertzen.

VI
AKADEMIAN

Jesuitek orduan oraindino batxilergo osoa ez eukenez, hirugarren urtera arte baino, hangoa amaiturik, Komentu kalean egoan akademia baten egin neban hurrengo urtea, jesuitetako beste bost edo sei lagunegaz, eta, jakina, batxilergoko azkenengo mailarainokoekin, honeek be jesuitetan ikasitakoak.

Beste lagun gehienak, Tuteran jesuitek dauken ikastetxera joaten ziran. Banaka batzuk, internoekin batera, jesuita izateko ustez, Nafarroako Xabierrera.

Hil jakuzanen izenak jarriko dodaz, nik dakidala behintzat, oroipen bihozkorrez: Juan Pablo Baqué; honen anaia zaharragoa eta handik urteetara hildakoa, Txetxu Baqué; eta Eneko Arieta-araunabeña, Arieta lehenengokoa, nire kintoa eta Athleticeko eta nazinoarteko futbolari indartsua eta ospetsua izango zana.

Zenbat bider esan eustan honek, futbolista entzutetsua zala, beste batzuen aurrean, beragaz jokatu behar nebala Athleticen. Baina ez da hori handiena! Handiena da, ni ia sinisteko gertu egoten nintzala.

Luzia Sagastasoloa irakasleak gu mutiko bihurriok zehatz eta maitasunez zuzendu ginduzan, Don Sebastian abadeak lagundurik. Francoren erregimenak zigortua, urtearen amaieran monja karmeldar egin zan eta geroko urteetan mundu guztiko karmeldarretan zeregin handienak eta garrantzitsuenak leporatu eutsiezan. Zelako nortasuna emakume harena!

Handik urte askotara, bere bizitzako azkenengo urteetan zihar-duala, Gasteizen ikusi neban. Zelan gogoratzen zan Durangoko Akademiako urte haregaz eta ni sartu orduko igaro zituan urte hareekin! Hunkigarria izan zan biontzat azken topaketa hori!

Beti uste izan dot nonbaitera heltzeko, gehienetan edo sarritan behintzat, bide bat eta bi baino gehiago izaten dirala. Asko dira bide bat aurkitu dabenak, eta hori dala bakarra uste dabenak, eta besteak be hortik joaten behartu behar dituela uste dabenak. Bizitza arlo guztietan dagoz holakoak.

Zer dala eta etorri jatan bururakizun hori? Luzia irakaslea joan jakunean, irakasle gazte-gazte bat etorri jakun geratzen zan hilabete edo birako.

Zertzuk egin eutsiezan gutariko nausitxuek batez be! Egun baten, matematikako ariketa bat jarri euskun. Ni ziur nengoan ondo egin nebala, baina berak, nire nondik norako guztia ikusi barik, beste bide batetik ninoiala ohartu zanean, jarraitu barik, txarto egoala esan eta horri egokion notea jarri eustan. Hasi jakun bere bidea erakusten. Ondo. Bide zuzena. Baina, azkenera heldu zanean, neuk ateratako kopuru bera agertzen zan ebazpide lez.

Orduantxe konturatu nintzan hobeto, nonbaitera heltzeko bide bat baino gehiago egon daitekezala. Ontzat hartu eustan irakasle gazteak be, eta egokidan notea jarri.

VII
COMILLASEN, LEHENENGO URTEAK

Comillasera, abade izateko ustez

Jaunaren deia? Berari zuzenean ez jako entzuten behintzat.

Ikusitakoak, ikasitakoak, etxeko giroa, inguruko giroa, irakasle eta abadeengan sumatzen dana, kristau alkartea... eta beste mila gorabehera izan daitekez Jaunaren deia mamintzen dabenak.

Benetan holan izan ala ez, argi ikusten neban nik behintzat, orduan, Jaunak abade egiteko deia egin eustala.

Eragozpen handi bat. Seme bakarra nintzala. Baina txikitatik izan dot grina bizia gizon heldua izateko seme bakarrari ezarten jakozan eragozpen guztiak gainditzeko. Orduan, seme bakarra nintzala eta, ezin izan abade? Ez neban gura seme bakarra izatea ezertarako eragozpen bihurtu eiten.

Eta gurasoak? Lehenengotan, ezbai barik, min handia hartu eben. Baina euren kristautasunak lehenengo, eta giza mailan nire askatasunari lagun egiteko gogoak gero, baietza emotera bultzatu ebazan. Eta pozik, nahiz eta etxetik kanpora hainbeste denporan izatea aldasgora latza izan eurentzat. Baina Urkiolamendira eta Sabigainera igotea be gogorra izan arren, hara gora heltzeak sekulako poza ekarten eban.

Zergaitik Comillasera?

Ez neban ezagutzen nik ez Comillas ez Gasteiz. Jesuitetan ibili nintzanez eta eurekin hartuemon handia neukanez, Seminariora joateko ustea nebala jakin ebenean, euretariko batek eta Jose Martin Bergara abadeak, han urte batzuk egindakoak, bultzatu ninduen Comillasera joatera. Beste barik. Behin be ez naz damutu.

Zer da, baina, Comillas? Izatez, Cantabriako itsasondoan dagoan herri polit bat. Baina hemen Comillas aitatzen dodanean, herritxu horren gainekaldean eregi zan Seminarioa eta Unibersidadea aitatzen dodaz. 1892an hasi zan bere bizitza. Ibilbide betea eta luzea izan dau Cantabriako herri zoragarrian kokatutako erakunde honek. Urte batzuk dira Seminario Txikia itxi eta Unibersidadeko Fakultadeak Madrilera eroan zirala. Jesuitak izan dira Comillaseko Unibertsidadearen arduradunak, nahiz eta bertako ikasleak ez izan jesuitak, ez jesuita izateko ikasten ebenak.

Han ikasitakoak ziran abade euskaldun asko. Beste batzuen artean, Comillaseko lehenengo ikasleetarikoa Abadiñoko Zakarias Bizkarra gotzaina; Jabier Lauzirika Iurretako semea eta gotzaina; Eugenio Beitia, *La Gaceta del Norte*ko kazetaria eta gotzaina; Fortunato Unzueta Begoñako parroko argia; Luis Jauregi *Jautarkol* euskal olerkaria; Jesus Iribarren Espainiako gotzainen idazkaria; Jose Aristimuño *Aitzol* Francoren gudariek hildakoa; Nemesio Etxaniz euskal idazle bide-urratzailea eta Klaudio Gallastegi Elorrioko semea eta San Antongo parroko entzutetsua... banakatxuak jartearren. Eta zelako aldea batzuengandik besteengana, bai izakeran, bai jokaeretan!

Liburuak idatzi neikez hamabi urteko malda horretan ikusten ditudan oroipenez beterik. Hamahiru urte ziran berez, baina bigarren mailan hasi nintzalako egin nituan hamabi.

Seminario Txikia esaten jakona, "humanidades clásicas", lehenengo. Unibersidadea gero: Filosofiako hiru urte eta Teologiako lau. Zuzenbide Kanonikoko fakultadea be baegoan, jarraitu gura ebenentzat eta beste tokietan abade egindakoentzat.

Alde guztietakoak

Alde guztietako, adin guztietako eta era guztietako ikaskideak. Zenbat adiskide min, urte horreetan egindakoak. Edonora zoazala, han aurkitzen dozu Comillaseko lagunen bat. Min-minak ditut batzuk.

Adibide lez, hau idatzi baino hilabete batzuk lehenago jazotakoa. Sevillaraino joan ginan *komillastar* bi, Txomin Bereziartua eta biok. Abade-etxeko jantokian, Bilboko eleizbarrutikoak ginala jakin ebanean, ea Iñaki Franco ezagutzen genduan itaundu euskun abade batek.

Hori be badok ba! Biokin etorteko izan da bion lagun handia dan Iñaki Franco hori.

"Zelan ezagutzen dozu, ba?" esan neutsan. "Comillasen ezagutu neban" izan zan bere erantzuna.

Orduan, geu be komillastarrak ginala esaten hasi nintxakon, baina ez eustan itxi amaitzen be: "Ene! Gallastegi, lehengo ahotsa daukazu. Zelan egiten zenduan futbolean!" (Ez eustan esan santua edo argia edo holako zeozer nintzanik, futbolean egiten nebala baino. Ai ene!). Berrogeta hamar urtetik gora zan alkar ikusten ez genduala.

Aitatutako Txominegaz eta Iñakigaz oraintsu-oraintsu egin dogun ostereak be argi erakusten dau adiskide minak itxi genduzala edonon.

Oviedon egin genduzan hiru egunetan, batetik bestera erabili ginduezan bost ikaskidek, gitxienez, euretariko bat gero aitatuko dodan Obdulio zala. Zelako poza hartu eben honek eta besteek Oviedoraino geugaz etorri zan gure eta euren lagun Xabier S. Erauzkin ikusi ebenean!

Gijonen parrokia baten sartu ginanean, bertako parrokoak, gu baino zazpi-zortzi urte gazteagoak: "Ene, tiplea nintzala zeu etorten zinan abestiak irakasten, eta gero bigarren tenorra nintzanean, biok abesten genduan batak bestearen ondoan". Eta ez dakit ba honek be aitatu ez eustan futbolaria nintzala! Avilesen be beste ikaskide bat ikusten gelditu behar! Galiziako sei egunetan zelako harrera egin eus-

kuen gero aitatuko dodazan Espiñak eta López Calok eta, andoaindarra izan arren, Panjonen bizi dan Jesus Mari Aranburuk, eta zenbat kilometro eragin euskuezan Espiñak eta Aranburuk, euren kotxean, Galizia osoa erakutsi guran!

Baina, goazen barriro be hirurogeta bi urte atzerago.

Comillasen alkarregaz bizi ginanok alde guztietakoak izateak orduko jazoera bitxi asko azaltzeko bidea emongo leuke. Bat edo beste aitatzeko:

Comillastik hamabi kilometrora dagoan Cabezón de la Sal ondoko mendietan urteroko edurra hasten zanean, pozik be pozik egoten ginan danok, amerikanoakaitik egun bateko oporraldia hartzen gendualako. Baina pozago hegoamerikarrak eurak, izan be, gehienek umeak zirudien, edurra esku artean ikusteko eta beragaz jolasteko euken gogo bizi-biziagaitik.

Ez ziran orduko komunikabideak gaurkoak lakoak. Horregaitik, peninsula barru aldeko askok eta askok Comillasera etorten ziranean ikusten eben lehenengoz itsasoa. Ordura arte, argazkietan edo zinean, gehien be, ikusi izan eben. Horregaitik, Comillasera lehenengoz etozala, gauez edo iluntzean heltzen ziranean, goizaldean jagiten ziran behin be ikusibako eta laurehun metro inguru beherago egoan itsasora aho zabalik begira-begira jarteko.

Barregarria izan zan Filipinetako tagalo bati jazo jakona be. Soldadutzan barriei egiten jaken antzera, *petakea* egin eutsien ohean lehenengo gauean. Hurrengo egunean, berak lagun bati: "Ezin izango naz ohitu hemengo ohe horretara". Orduantxe ohartu ziran beste lagunak praixku batzuek zer egin eutsien. Petakea zala eta, bokazinoa galdu ez ebanean...

Gramatikako urtetxuak

Zama astuna eroaten genduan barruan Bizkaikoek eta beste nonbaitekoren bat edo bestek Bilbon dagoan Santanderko geltokia esaten jakonera hurreratzen ginanean.

Besteak oraindino etxean, oporretan egozala, guretzat udako egun pozgarri hareek amaituta. Gainera, lehenengo urteetan batez be, uztailera arte bihurtzeko uste barik! Gabonetan be ez ginan joaten etxera Comillasekook. Jakina, alde guztietakoak gengozanez, egunak beharko eukezan askok, orduko bideak zirala eta, etxera joaten eta handik etorten. Zer esanik be ez amerikarrek.

Gogorregia egiten jakun, edo jatan niri behintzat, etxera hainbeste denporan etorri ezinik egotea.

Ez nekian nik aitak lagunduta lehenengoz abiatu nintzanean, Durangoko Culturalaren fubolaldia ikusita gero, zein latza zan etxetik kanpora joan eta etxeko giroagaz antzik txikiena be ez eukan beste giro baten buru-belarri sartzea. Orduantxe ikasi neban zein esangura mingotsa eukan ikasturtean ikasleen artean hainbeste erabilten zan *murria* berbeak. Asteetan iraun eban nigan herrimin edo etxemin esan geinkion barru egoera horrek. Eta hain luzaroan izan ez arren be, urtero errepikatzen zan, nigan behintzat, eta nire lagunik gehienengan be bai, gitxi asko.

Gainera, gogo-jardunak izaten genduzan ikasturteko lehenengo egunetan. Isiltasun hutsean. Gure bizitzaren norakoa, geroko bizitza, betiko galtzeko arriskua... danok dakigu zein bildurgarriak izaten ziran lehenengo urte hareetako gogo-jardunak.

Jainkoari eskerrak, goitik behera aldatu ziran gero, Jesusek ekarri euskun Barri on eta pozgarria hausnartzen hasi ginanean eta San Inazioren Gogo-jardunen nondik norakoa gaurkotuta eta guri egokituta emoten hasi jakuzanean.

Dana dala, lehenengo urteetako oporrak amaituta jarraiko isiltasun larri ha zala-eta geratu jatan ezkortasunak edo dana dalakoak ez eustan itxi urte batzuetan gogo-jardunak behar dan moduan, egoki eta gozatsu egiten.

Beharbada, abade eginda gero, euskeraz lehenengoz egin nebazanean, aita Gaztelumendi azkarrak Loiolan zuzenduta, izango zan onerako aldaketa hori.

Urtetik urtera laburragoa egiten zan *murria* dalakoa. Gogo-jardunak amaitutakoan, lehengo lagunekin barriro alkar topetea zala,

hango eta hemengo eta alde guztietako lagun barriak ezagutzea zala, ikasturte barrirako irakasle nortzuk izango genduzan jakitea, bakotxari emoten euskuezan kargu barriak onartzea zala, liburu barriak erostea zala, bakotxaren kurtsoko futbol eta beste kirolen taldea egitea zala... udea erdi ahaztu eta buru-belarri sartzen ginan ikasturte barrian.

Gogor ekiten geuntsan, gramatikako urte hareetan, latina eta griegoa ikasteari.

Seminario Txikian, Gramatika esaten jaken lehenengo hiru urteetan eta Retorika esaten geuntsen hurrengo hiru urteetan, bai ikasketetan bai osterantzeko bizitzan, gain-gainean izaten genduzan irakasleak eta gure heziketaren arduradunak. Hamabostero edo hilero izaten genduzan notak, ikasi be danok egiten genduan alkarregaz, ikasgela handi baten gramatikoek eta beste baten erretorikoek.

Behar dan beste ikasi ez bagenduan, ez zan izango erraztasun guztiak, baliabide guztiak eta irakasle bikainak, gehienak behintzat, ez genduzalako.

Erretorikako ikaste urteak

Erretorika deitzen geuntsen urteetan, laugarrenetik seigarrenera, dotore idazten eben gure ikaskide batzuek latinez, Zizeron eta orduko denporako idazle ospetsuen bideari jarraituz.

Mendebaldeko kulturaren aurrelariak izan ziran Greziako idazleak be ondo aztertuazoten euskuezan orduan geunkazan irakasle jakintsuek eta greziar kulturaren zaleek; aita Mayor ospetsuak danen gainetik, baina baita beste batzuek be, alemanez idatzitako liburuak gaztelania jatorrera itzuli dituen aita Garridok, esate baterako.

Guretzat eraginkorragoa izan zan, beharbada, Sabino Arnaiz. Hizlari trebea eta Greziako eta Erromako klasikoetan oso jantzia zan eta guk bosgarren urtean izan genduan irakasle. Ateak ondo itxita, Demostenesen zatirik garrantzitsuenak bizi-bizirik esaten hasten jakun, ahots zoliz, Atenasko agoran bertan balego lez, gure txalo beroak lortu arte.

Ez dakit txalo horreekaitik izango zan, baina futbolean gure aurreko urtekoekin norgehiagoka genbilzala, han etorten jakun, estu eta larri benetan, guri adorea emoten eta baita mehatxu egiten be.

Nire lagun Dominguez toledotarrari eta niri deitu bazterrera, entrenatzailea balitz lez, eta, ia guri baino izerdi gehiago urteten eutsala, esaten euskun: "golik sartzen ez badozue, bihar zeuei bioi galdetuko deutsuet klasean". Ez zan behar holakorik, izan be gurago genduan astebete jan barik egon, gu baino urtebete goragoko kurtsokoek guri futbolean irabaztea baino. Gure ahaleginak, baloiaren atzean...!

Espainiako telebista sortu zanean, Erromako barriemoile entzutetsua izan genduan, ordurako jesuita izateari itxita egoan Sabino Arnaiz jatorra.

Hiru aitatzekoak

Urte horreetan, gehienetan irakasle izaten genduan aita Luis Penagos, ia umetatik Comillasen bizi izan zana. Hainbat liburu eukazan idatzita, pedagogia handiz, ikasketa horreetan erabilteko eta lagungarri izan eitezan. Umetan abade izateko bertan ikasia, jesuita sartu zan eta abadetza hartuta gero beti bizi izan zan Comillasen irakasle. Bera genduan ezagunena teologia ikasten jardun genduanean be, eta bera zan ikasle izandakoen ikustaldi gehien izaten ebazana gero Santanderren bizi zala. Ze pozik eta gogotsu ikusten ginduzan antxina bere ikasle izandakook! Mordoa izan ginan, urte asko ez dirala, urrundik joanda, bere hileta osteko egun baten, Santanderren bertan ospatu genduan Eukaristian.

Beharrezkoa aitatzea aita Iglesias, seigarren mailan gengozala oraindino abadetu barik egoala, aita Arrupe jesuiten nagusiaren laguntzaile jakituna eta lagun mina izango zana eta baita Espainiako jesuiten nagusi be.

Hemen, urteetan jauzi edo salto handi bat egingo dot aurrerantz, abade eginda geroagoko egun batera. Arrupe honek mundu guztiko jesuiten agintarien batzar bat zuzentzen ziharduan Loiolan. Duran-

goko Karmelo Gorrotxategi jesuita laguna autoz eroaten joan nintzan bertara. Goitik behera lanpetuta egon arren, jesuita honen arazoei erantzuteko nahi adina denpora hartu eban.

Amaitu ebenean, "nork ekarri zaitu, ba, Durangotik?" itaundu eutsan aita Arrupek. "Ba, beti jesuitokaz, Durangon eta Comillasen, ikasi dauan abade lagun batek". "Datorrela hona!". Adeitasun osoz agurtu ninduan eta esan eustan: "Non zagoz abade?"."Markina inguruan" erantzun neutsan. "Ene! Badogu Jesuiten Lagundian gorengo markinar ospetsua! ("una eminencia" esan eustan erderaz). Batbatean, nerekautan uste izan neban Unibersidadean gero ministro eta entzute handikoen irakasle izan zan bategaitik esaten eustala. Baina, ez! Han, Japonian, misinoetan, lanik eta zereginik apalenak egiten ziharduan eta ia inork ezagutzen ez eban Agirregomezkorta jesuita lego bat zan Arrupe sonatuaren ustez, goren-gorena eta ospetsua, "eminentzia", eta ez gehienek horretakotzat eukena. Hori zan Arrupe handia! Bihurtu gaitezan aita Iglesiasegana.

Hezitzaile genduala, banan-banan hartzen ginduzan eta ikuspegi zorrotzez guri buruz sortutako eretxiak argi eta maitasunez esaten euskuzan, zeintzuk akats ikusten ebazan gugan eta zer eta zelan hobetu geinkezan, geunkazan gauza onak be. Hezitzaile bikaina aita Iglesias, aurretik izan genduan eta bera baino nagusiagoa zan euskal jatorriko aita Jauregizarregaz batera. Goi mailakoak biak.

Urte horreetan, buru-belarri sartzen ginduezan irakasleek "humanidades clásicas" esaten jaken horreetan. Matematikei eta natur zientziei be lekua emon arren, hareei emoten jaken garrantzi eta denpora gehiago. Orduantxe galdu neban edo endekatu jatan zenbakietarako nekarren sena eta trebetasuna.

Hizlari ariketak eta...

Lehenengo urteetatik izaten genduzan beste kurtsoetako ikasle eta irakasleen aurrean, areto nagusian, lehiaketa antzekoak. Zelako bildurra izan neban behin, ni lehenengo urtean barik bigarrenean hastearren, ikasi barik neukazan grekozko lehenengo itzulpenetako

bat danen aurrean eragingo eustelakoan. Irakasleari eskerrak, baketan itxi nindualako.

Gazte-gaztetatik hasten ginan besteen aurrean berba egiten be, hizlari antzera. Norbere ikaskideen aurrean lehenengo. Gero, jantokian, norbere eta aurreko eta osteko kurtsokoen aurrean. Zelako esturak izaten genduzan eta zenbat zelebrekeria kontau leitekezan!

Hizlari ospetsu edo trebea izandakoaren zatiren bat hartu, buruz ikasi eta danen aurrean esaten genduanean, gatx erdi. Ahaztuta be, han geunkan ondoan liburutxua edo esan behar genduanaren zatia.

Norberak idatzitakoa eta buruz ikasitakoa zanean be, nahiz eta estuagoa izan, gatx erdi orduan be.

Baina, irakasleak ordu erdi lehenago gaia jarri eta bat-batean esan behar izaten zenduanean, orduan etozan benetako esturak, eta zer esanik be ez, Seminario Txikiko azken urteetan, bosgarren eta seigarren mailan, hain zuzen be, kurtso guztietakoen aurrean egin behar zenduanean.

Horren aurretik, norbere ikaskideen aurrean izaten zan bat-bateko hori.

Ez naz gogoratzen ze gai azaldu behar izan neban lehenengoz. Orduko esturearen estureak edo, ahaztu eragin deust. Nire egoerea ikusita, hiru-lau minututan bakarrik euki ninduan irakasleak.

Baina bigarrena izan zan izatekoa. Orain be gogoan izango dabe nire orduko ikaskideek. Espetxean dagozanei zuzendu behar nintxakela esan eustan irakasleak. Ez ekien hori ikaskideek. Eta han hasten naz, serio-serio: "Queridos presos!". Hango barre-zantzoak kilometroetara entzun eitekezan. Ezin izan neutsen gehiago ezer esan aurrean barrezka leherturik neukazan "espetxeratuei".

Gomuta ona daukat, jantokian, kurtso guztien aurrean izan neban azkenengo bat-batekoari buruz. Bosgarren minutuan "nahikoa" esateko eskatu neutsan irakasleari, aita Iglesiaseri hain zuzen be. Ekin eta ekin jardun neban, eta amaitu nebanean ohartu nintzan hamar minutu inguru egin nituala, gehiago ez bazan. Irakasleari "zer egin deustazu?" esan neutsanean, irribarrez eta pedagogi handiz, esan eustan: "Holan ez al dozu ikusi ahal dozula?".

Gogo bizitza

Zer esanik be ez gogo bizitzari emoten jakola, Comillasen sartu eta handik urten arte, garrantzirik handiena.

Aitatu doguz urtero ikasturtearen hasieran izaten genduzan gogo-jardunak.

Ekiturtean zehar, goizetik jagi eta danok joaten ginan San Jose eritxan Seminario Txikiko eleizatxura. Lehenengo ordu erdian, otoitzaldia, gramatikako urteetan aita Teofanes de Diego gogo-zuzendariak, gero Teodizearen irakasle izango genduanak, zuzenduta. Jarraian, Mezea.

Honenbestetik honenbestera izaten genduan aita Teofanesen gelarako deia, banan-banan norbere barri emoteko. Lehenengotan bildurretan joan arren, pozik joatera heldu nintzan ni, beste batzuen antzera, norbere kexu eta etxemin eta kezka guztiak argi eta garbi azaltzeko bidea eta erantzun egokia emoten eutsulako.

Laugarren urtetik aurrera, aita Jauregizar jarri euskuen gogozuzendari, nire lehenengo urte bietan prefekto izandakoa.

Arlo guztietan, mundu barrian sartzen da nerabea, gaztetxua. Ia gauza bera da gaztetxua izatea eta noraezean egotea. Zenbat iluntasun, lilura, bihurrikeria gogo, maitemintze... Orduan bai behar dozula nork zuzendu, nork bideratu, baina batez be nork onartu, nork ulertu. Zori hori izan genduan aitatutako aita Jauregizarregaz. Zenbat zor deutsadan!

Bere aginduz irakurri euskuen, jantokian, Marie Sklodowska edo Marie Curieren bizitza, nahiz eta beste nagusi batzuk ados egon ez, katoliko izatea alde batera itxita eukalako. Polonian jaiotakoa, bizitza latza izandakoa, zientzian ahaleginen ahaleginez goi maila lortutakoa eta bere azterketen bidez gizadiari hainbeste on egindakoa zan Marie Curie hori. Mesede handia egin euskun aita Jauregizarrek irakurriazo edo, hobeto esateko, entzunazo euskun liburuak.

Ule motxa eukiten eta futbolean sotaneagaz edo soingainekoagaz egiten be ez euskun ixten, prefekto zala. Aurreko hezitzaile gehienen aurka, behar dan moduan orraztu behar genduan ulea eta behar dan

moduan jantzi behar genduan kirolean egiteko. Eta bide horretatik jo behar genduan beste gauza askotan be, gaurko munduari uko egin barik.

Hile birik baten uste dot, erretiroa izaten genduan, gogo-zuzendariak berbaldi bitan azaltzen euskuzan gaiak isiltasunean hausnartzeko eta otoitz egiteko. Hasikerako gogo-jardunen errepikapen laburtxua izaten zan.

Bai, Zamorakoak irakatsi ezpatadantzea

Ez zan dana gogo-bizitza eta ikasketa. Zertan hasi orain, izaten genduzan jolasaldi eta jai guztiak azaltzen? Jaialdi bat geunkan nahiko berezia, Inozente egunean hatan be. Txikienen artean, egun baterako "aita santua" aukeratzen zan eta sekulako jaia atontzen.

"Aita santu" txikiaren aurrean, Inozente egunean, ezpatadantzan. Txistulari, Xabier S. Erauzkin eta Juan B. Gallastegi. 1949.

Jai horren erruz edo jai horri esker, ez dakit beste inori jazoko jakon niri jazo jatana.

Durangokoa izanik, Cantabrian ikasi behar izan neban ezpatadantzea, Comillasen hain zuzen be. Baina ez da hori bakarrik. Zamorakoa zan irakaslea.

Zelan izan daiteke hori? Jakina, Antonio Morales zamoratarrak irakatsi euskun guri, Bilboko "Dindirri" taldean jardundakoa eta Bilbon bizi zana. Eta Valladolidekoa zala, esan behar, nire lagun Santiago Martín Peña, aurreskua ondoen ikasi ebana. Holakorik!

Aita Prieto musikari handiak pianoa jota dantzatu genduan Zamorako semeak irakatsitakoa, lehenengo urtean. Gero neuk ikasi neban txistua joten, eta geroago, eta nik baino askoz be hobeto, Gasteizko nire lagun Xabier S. Erauskinek.

Hori zala eta, jesuitek Palentziako Carrión de los Condesen euken ikastetxera joan ginan erakustaldia egiten.

Eleizbarrutikoen arteko topaketa egunak

Lehenengo urteetako kontakizun hau amaitzeko, gogotsu itxaroten genduan egun berezia aitatu behar. Ez zan egoten hartuemon handirik, ez txikirik, gramatikoen eta erretorikoen artean. Ezta filosofia eta teologia ikasten ziharduenen artean be, eta gitxiago, honeen eta lehenengoen artean, bata bestearen aurkako futbol partiduak eta futbol txapelketak izaten ziranean baino.

Ba, egun izendatu batzuk izaten ziran, Eleizbarruti bakotxekoak alkartzeko eta orduren bat jardunean igaroteko. Pozik egoten ginan Diego Berguices eta Txomin Bereziartua bilbotarren kontu umoretsuak entzuteko eta Bizkaiko besteen barri jakiteko be. Orduantxe ikusten genduzan Oráa, Lledó, Larrea, Eskibel, Izpizua...

Lehenengo urteetan, Gasteizko Eleizbarrutia hirutan zatitu orduko, Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabakoak batzen ginan.

Orduan ezagutu genduzan Unibersidadera hitzaldiren bat emoten etorten ziranak hartzeko izendatuta egozan Laburu bilbotarra eta Jose Sebastian Laboa pasaitarra be, gero Panamako (Noriegaren ara-

zo larriagaz), Paraguayko eta Maltako Nuntzioa eta aita santuaren Libiako lehenengo ordezkaria izango zana. Biak jatorrak, diplomatiko trebeak izan arren.

Bedel ordea

Zaleak ziran jesuitak ikasleei zereginak edo betebeharrak leporatzen, baina ez behin behingoak, urte guztirakoak baino. Niri, bosgarren mailan, bedel-ordea izatea egokitu jatan.

Ez neban ondo bete, ezta gitxiagorik be, ekimenik ez neukalako eta bedela izaten zalako nahikoa bedeltzako zeregin guztiak zehatz beteteko, eta lagun handia nebalako. Orain be ikusten dot inoiz Teruelgo Cristóbal Navarro dalako hori.

Zeregin bat bai geratzen zan nire eskuan. Orduan ez egoan oraindino alkarregazko Mezarik. Abade bakotxak berea emoten eban. Eta asko ziran Meza emon behar ebenak. Irakasle jesuita gehienak, Eleiz Legedia ikastera etorritako abade eta praileak, Filosofiako eta Teologiako Lizentziatura eta Doktorautza egitera etorritakoak... Eta neure esku egoan, urte horretan, horreei guztiei egunero Meza laguntzailea edo monagiloa jartea.

Ez neban hutsik egin. Neure burua be jarten neban, baina beti bat berari laguntzeko, Bilboko Xabier Goitiari hain zuzen be, Bermeoko jatorrikoa eta gero euskal teologorik onenetakoa izango zanari. Xabierrek emondako Mezea luzea be luzea izaten zan. Horregaitik esaten eutsen "El Padre eterno". Baina, latinez izan arren, azken Agur Mariak eta otoitza euskeraz egiten genduzan, pozarren, Xabierrek eta biok.

Oporrak

Bizkor amaitzen jakuzan udako oporrak. Hain luzaroan noiz helduko itxaroten, eta igarri barik joaten jakuzan. Hori bai! Goizetik gauera barruan euken guztia ateraten geuntsen.

Oporrak amaituta, hurrengo egunean Comillasera joan behar nebala eta, Iurretan izan nintzan, urtero lez, San Migel jaietako meza-

tan eta meza ostean plazakoa ikusten eta bizi izaten. Dantzariena amaitu zanean, ondo be ondo abestuten eban ez dakit nongo zortzikotea ez da hasten ba "Azkenengo eguna da eta, azkenengo eguna da eta..." geroago eta errimeago esaten? "Honeek bai igarri deustela zein egoeratan nagoan!" esan neban neure kautan.

Lehenengo urteetan, abadegeiak isolatuak egon behar ebela irakatsi euskuen. Ia beste abadegei batzuekin bakarrik egoten ginan. Laster aldatu genduan, Jainkoari eskerrak, eretxi oker hori, baina holakoak ziran kontuak orduko denporetan.

Nahiz eta Comillaseko beste guztiak oporretan beste guztien moduan jantzi, euskaldunok, eta ez dakit asturiastarrak be ez ziran, baltzik janzten ginan.

Juanito Azpitarte neukan hurrenengo abadegei laguna Durangon. Beragaz, Bitor Royuela, Jose Mari García Frontaura, Felix Iraurgi eta Santos Teodoro Errekaldegaz izaten ziran nire udako ibilerak. Geroago, Jesus Garitaonandia eta honen ondoren, Jose Luis Atxotegi eta Juan Mari Arregi genduzan gazteenak.

Bildurgarria zan Errekalderena. Errekan, harririk egoan ala ez begiratu barik, plaust! salto; mendian, arriskurik egoan ala ez begiratu barik, edozein hatx igoteko ahalegina; bizikletan, zer ez? Behin, ofiziozko txirrindularien arineketaldi baten, pelotoiraino, edo orain esaten dan moduan, tropeleraino, eroan eban atzeratuta joian txirrindularia, honen aurrean jarriaz.

Politak izaten ziran iluntzeko Juanito bion jardunaldiak, etxerako ordua zanik aintzat hartu barik, arziprestea leihotik zelatan geunkala, argiak amatauta eukazalako guk ikusten ez gendualakoan. Abadegeien ganorea, ordu horreetan kalean! Bere ustez, jakina.

Ez zan holakoa Don Fermin Madariaga. Ameriketatik etorri barri, hainbat alkarrizketa eta hartu-emon izan nebazan beragaz. Durangotar peto-petoa eta Durangoko kaleko "berbetia" egiten eben azkenetarikoa. Bera zala-eta, Fidel Castroren barri gehiago nenkian edozein kazetarik baino. Mendietan ebilen hau Batista agintariburuaren aurka. Nondik nire jakite hori? Don Fermini entzunda. Zelan ekien, ba, berak Fidel Castroren horrenbeste barri?

Ba, Don Ferminek Fidel hain ospetsua izan orduko ezagutu ebalako. Hain zuzen be, Fidel Castro, Unibersidadean ikasle zala, Don Ferminen anaiak, Don Manuel durangotarrak, ezkondu eban, eleizaz, Batistaren ordezkari edo ministro baten alabeagaz ezkondu be.

Egun baten, Don Fermin goizean etxetik kanpoko zereginak betetakoan etxeratu zanean, honako hau esan ei eutsan anaiak: "Hi, ez dakik zelango mutila etorri dan, goizean, abade-etxera, ezkondu egin behar dauala eta; ez joat hain mutil argirik behin be ezagutu. Jesuitak Kuban dauken Belen ikastetxe entzutetsuan ikasi jok. Ia mundua konpondu joagu bion artean".

Ordurako, Unibersidadeko arazo eta iskanbila askotan sartuta egoanez, bizkar-zainak, bere ikaskide lagunak, hain zuzen, eukazan abade-etxea inguratzen...

Ez ei da bere biografietan agertzen eleiz-ezkontza hori. Gitxiago oraindino, abade durangotarrak ezkondu ebanik.

Euskeraz irakurten

Uda baten, goi mailako idazlan bat burutzen ziharduan, Durangon, Aita Galdos, hamalau hizkuntza mihinean eta bat bihotzean eukazan eibartar jesuita jakitun eta jatorrak. Laguntzaile lez ebilen, beste jesuita gazte batzuen artean, Gaizka Barandiaran.

Honek hartzen zituan atseden aldietan, orduan gaztetxu ginan eta oporretan gengozan talde txiki bategaz urteten eban osteratxu bat egitera.

Txistua joten irakatsi euskun, euskal literatura baegoela eta euskaldunok bageunkala geure historia berezia eta interesgarria eta hainbat gauza jakin genduzan beragandik egun gitxitan. Estalduta geunkan mundua edegi euskun. Berak ekarri eustan jesuiten liburutegitik Lizardiren *Biotz-begietan*. Larregi orduan niretzat, baina kaskagogorra izan, eta goitik behera irakurri neban, nahiz eta, lehenengotan, gauza gitxi ulertu.

Askoz be errazago irakurri neban Jose Martin Bergarak itxi eustan Zamarriparen *Firi-firi*. Berak eskatutako mandatu bat egiteko,

etxeko liburutegian eukan liburu hori itxi behar eustala jarri neutsan baldintza lez.

Ordutik aurrera, ahal neban guztia irakurteko ohiturea hartu neban. Comillasen bertan, Xabier S. Erauzkini, oraindino euskeraz jakin ez arren, bialtzen eutsezan euskal liburu bat baino gehiago irakurteko erea izan neban, eta, batez be, geroko urteetan, euskerea ez ahazteko eta gure Herriaren barri jakiteko, Baionan Lafitte zuzendari zala agertzen zan *Herria* hartzen genduan. Ez zan guretzat erraza izaten, baina ez genduan atzerantz egiten. Teologiako ikasketa urteetatik aurrera, *Yakin* gaztea hartzen eta irunsten genduan, amesez eta asmoz beterik eta jakintza gai guztiei edegirik etorrena. Ez naz ondo gogoratzen orduan zan ala beranduago, *Zeruko Argia*, bizkaierazko *Anaitasuna* eta karmeldarrek hiru hilabeterik behin argitaratzen eben *Karmel* be hartzen genduzana.

VIII
COMILLASEKO UNIBERSIDADEAN

Abadegei, fraile, jesuita...

Guztiz aldatzen zan gure biziteko erea, Unibersidadera igaroten ginanean.

Askatasun askoz be gehiago geunkan geure bizierea antolatzeko. Filosofian, gela zaharrak izan arren, bakotxak bere ikas- eta logelea eukan, orduak eta orduak ikasten (eta otoitz apur bat egiten be) jarduteko.

Lagunak be gehitu egiten jakuzan, bateko eta besteko Seminarioetatik etorrita. Ordena bateko edo besteko fraile ikasleak be geugaz batera bizi ziran. Guri, geure biziera bera geugaz urteetan egin eben agustindar nafar jatorrak, Ganuza eta abar, etorri jakuzan, besteak beste.

Unibersidadean (eta baita Seminario Txikian be) irakasle eta nagusi eurak ziranez, jesuita ikasleentzako Ikastetxe Nagusia edo "Colegio Máximo" esaten jakona eregi eben jesuitek Seminario eta Unibersidadearen ondoan, euren ikasketak bertan egin ahal izateko.

Bere buruaren jabe izaten da jesuiten alkarte edo etxe bakotxa, baita diru arloan be. Gogoratzen naz, nahiz eta ordena berekoak izan, Maximokoek gureei, honeek diruz larri ebizela eta, behiz ondo horniduta egoan kortea edo ukuilua erosi eutseela, gureek gero, alboan, txikiagoa erosteko.

Filosofia hasi orduko euren nobiziadoa eta junioradoa egiten ebezanez, gu baino nagusiagoak izaten ziran, irakasleen azalpenak,

geure moduan, entzutera etorten ziranean. Zer esanik be ez, Teologiara etorritakoan. Izan be, Filosofia amaituta, hiruren bat urte egin behar izaten ebezan ikastetxeren baten, hezitzaile eta irakasle zereginak beteten.

Zubi antzeko bat egoan etxe bien artean, jesuita ikasleen etxea zan "Maximo"aren eta Seminario Txikiaren artean. Jesuitek beti eroan izan dabe gerriko edo *fajín* baltza. Guk ez geunkan gerrikorik, domeketan eta jai egunetan izan ezik, eta egun horreetan, urdina izaten zan gurea. Hori zala eta, "Tintearen zubia" izena jarri jakon etxe biak lotzen ebazanari.

Seminario Txikia eta Unibersidadea lotzen zituanari "Miranda zubia" esaten jakon, handik pasaeran herritik etorren aldatsaren amaierea zan ezkero, danek ea inor etorren edo begiratzen ebelako.

Horren ia gainekaldean egoan gure irakasle jesuita guztiak euren atsedenaldietan batzen ziran gela zabal bat. Orduan izen horrek eukan esangura bereziaz, "Kremlim" deitzen jakon.

Haren kanpokaldean egoan erlojuaren ordua geunkan legezko ordutzat. Aurretik igaro ezkero, danok gelditzen ginan erlojua ordu zehatzean jarten. Behin horretan gengozala, eleizan edo sagrario aurrean egoalakoan, gure lagun nafar bat burua makurtu eta belaunikotu egin zan erlojuaren aurrean, oharkabe edo despistadu hutsa zan eta. Ez ei zan lehenengo aldia izan.

Filosofiako ikasketak

Ikasketa arloa be, goitik behera ezbardina unibersidadean.

Nasai joaten ginan eskoletara, aurretiaz esan ezik ez euskuen irakasleek ezer galdetzen eta. Eurek filosofiako eta teologiako gaiak ahal zanik sakonen eta argien azaltzen euskuezan. Eta itaunen bat egiten bajaken, erantzuten eta azalpena argitzen edo sakontzen ahalegintzen ziran.

Hori bai! Irakasleak hurrengo ikastaldirako galderei erantzuteko gertauta joateko esaten ebanean, *repetitio* edo errepikapena izango genduala eta, urtean behin edo birritan hain zuzen be, galdetuko

eban gaia ondo ikasita eta menperatuta eroan behar guk. Bardin, irakasleak bata edo bestea izendatzen ebanean egun batzuk lehenago beste guztiei gai bat azaltzeko.

Latinez izaten zan guzti hori, irakaslearen azalpen guztiak lez. Aurreko urteetan nahiko latin ikasita egon behar genduan, baina latinez izateak beti gehitzen euskun zailtasun apur bat, erraztasunez erantzun ahal izateko. Egia da, baita, latin hobea erabilten genduala bosgarren eta seigarren urteetan, klasikoak aztertzen genduzanean, filosofiako klaseetan baino; "latin makarronikoa" esaten geuntsan honi.

Zer esanik be ez, gaiak sakonak izaten zirala. Jakintzagai edo asignatura bi ziran filosofiako hiru urteetako bakotxean garrantzitsuenak eta eurei buruz egiten euskuezan azkenengo azterketak: ontologia edo izatearen teoria eta kritika edo ezagueraren teoria, lehenengo urtean, aita Cuesta barre erraza eta latin eskasa eukanak, eta aita Alejandro dotoreak (ez dot *doktorea*k esan gura, danak ziran eta) azaldu euskuezan, eurek idatzita eukezan testuekin; kosmologia eta sikologia errazionala, bigarrenean, antxinako aita Domínguez eskolastiko amorratuak eta aita Muñoz zehatzak; eta, teodizea edo Jainkoari buruz errazoiak esan daikena eta etika edo gizakiaren portaeraren teoria, hirugarrenean, aita Teofanes de Diego zorrotzak eta aita Ireneo González zehatzak, honeek biok be, besteek lez, eurek idatzitako eta argitaratutako testu liburuak erabiliz. Lerro gitxitan sartu dot liburuetan eta liburuetan dagoana eta ikasten genduana.

Urte bakotxeko gai nagusi bi horreezaz gain, beste gai batzuk be izaten genduzan filosofiako urteetan, latinez barik, gaztelaniaz: filosofiaren historia zala, zientzia eta filosofiaren arteko mugak zirala, sikologia esperimentala zala, soziologia zala...

Aita González Caminero izan genduan Filosofiaren Historiako irakasle, Unamunori buruz lan sakona egindakoa eta oraingo filosofo guztiak goitik behera ezagutzen ebazana. Erromako Gregorianoan egiten eban urte erdi eta Comillasen beste erdi. Tamalez, ez neukan behar zan besteko heldutasunik arlo horretan, orduan, beragaz klase ostean bakotxak izaten genduan alkarrizketari atera leikion zukua aterateko.

Teologiakoak

Teologian be, eskolastika deritxan bidez edo metodoz atonduta egoan teologia guztiaren ikasketa: Oinarrizko Teologia eritxanari emoten jakon lehentasuna lehenengo mailan, nahiz eta gure lehenengo urtea beste era batera atondu behar izan zan, Espainiako urteroko Teologia Asteak zuzentzen zituan aita Joakin Salaberri (gailegoa zan) gaixotu zala eta.

Filosofiatik Teologiara igaroteko sarrerea, Kristau agerkundea, Kristau Eleizea eta Idazti Deunak ziran Oinarrizko Teologia hori osotzen ebenak. Beste hiru urteetan ikasten zan Sinisgaien Teologia esan geinkiona eta Teologia Dogmatikoa esaten jakona: Hirutasuna, Jainko sortzailea eta jasotzailea, Kristoren gizakundea, Jainkoaren grazia edo dohaia, Isuritako onbideak, Sakramentuak, Heriotzondokoak...

Handikien laguna zan aita Rodrigo adinekoak azaltzen euskun gero penitentziako sakramenturako balio izango euskun Teologia Morala. Txinatik etorri barri zan aita Balirach jarri euskuen gero. Gorri-gorri jarten jakun seigarren aginduaren inguruko gai batzuk azaltzen hasten jakunean.

Ez ditut irakasle guztien izenak jarriko. Entzute handikoak batzuk, baina, beharbada, pedagogia hobea eukenak beste batzuk: aita Moranek azalpen argiak emoten ebazan; aita Bravok, gaztelaniara pasetan zanean, bere jakituriaz aho zabalik ixten ginduzan; aita Quevedok errazoi handirik ez eukanean (eta sarritan zan hori) esaten ebanari indarra emoteko ukabilaz mahaia gogor joten eban; aita Escudero buru argia erretore izango zan gure hango azken urteetan.

Bide ezbardinez, ez eskolastika metodoz, ikasten genduan Idazti Deuna edo Biblia. Alkartasun Barria, aita Paramo *alkartasun zaharrekoak* emoten euskun, latinez, jakina! Gero aitatuko dodan aita Jose Alonso *testamentu oso barrikoak* azaltzen euskun, gaztelaniaz, Alkartasun Zaharra.

Eta horrez gainera, Aszetika eta Mistika, aita Hernández handiak emonda; Misionologia aita Santosek azalduta, gazteak udan

kanpalekuetara eroaten ebazanak; gauzak baieztatzea zaila egiten jakon aita Constancio Gutiérrezek aurkeztutako Patristika (zortzigarren gizaldirainoko teologiari eta teologoei buruzko jakintza) eta Eleizearen Historia; Hagiografia (santuen bizitzari buruzko ikerketak...) pentsaera gaurkotzeko ardura handia eukan aita Aldeak irakatsita, eta abar. Honeek guztiok be gaztelaniaz.

Jakina, bai filosofian bai teologian izan diran aurrerapen izugarriakaz, gaindituta dagoala dalako eskolastika hori, baina ikaragarri lagungarria izan jaku bide edo metodo lez, pentsetan eta hausnartzen ikasteko eta gauza bakotxa bere lekuan jarten erraztasun gehiago eukiteko.

Hauxe da argi eta garbi ikusten dodana. Atzeratuta eta zaharkilduta geratu gura ez badozu, beti jardun behar dozula ikasten. Ez orain aitatutako arloetan bakarrik, arlo eta karrera guztietan baino. Baina, astia dala, hainbeste gauza zahar eta barri dirala, norbere gogo urria dala... horretan komediak!

Azterketak

Urtean zehar nasai-nasai, baina orduak eta orduak gelan ikasten, liburutegian sakontzen, irakasleagaz edo lagunen bategaz gaien ilununeak argitzen. Erraza zan beste gauza batzukaitik, astia geunkala eta, ikasketak alde batera ixtea. Horretan jausi ezkero, azken asteetako esturen larria!

Maiatzetik aurrera izaten zan ona! Bigarren mailako, zerbait esatearren, gaztelaniaz izaten ziran gai horreen azterketak egin, eta buru-belarri, urte guztian zehar ikasitako beste gai bi nagusien tesiak azken azterketarako ikasten ekiten geuntsan.

Urduritasun handia izaten genduan, ordu erdiko ahozko azterketan, hiru-lau katedratikoren aurrean, tesi mordo baten artetik, aurretik zeintzuk izango ziran ez zenkian biren barri bakarrik emon behar zendualako, irakasleek bat-bateko eta ustebako galderak jarri eikeezalako... eta ikasturte guztia ordu erdi horretan jokoan izaten zendualako.

Zenbat kilo galtzen genduzan maiatzeko eta ekaineko egun larri hareetan! Izan zan inoiz konortea galduta azterketa-gelatik atera behar izan ebena be! Moureille eukan izena berak. Uste dot ez ebazala jarriko estura horretan bere ikasleak, handik urte gitxira, Madrilgo Unibersidade Complutenseko ez dakit zeren irakasle izan zanean.

Baina estuena filosofiako hirugarren mailako, eta handik lau urtera, teologiako laugarren mailako azken azterketa izaten zan. Lizentziaturako azterketa. Orduan ez zenduan urte barruan ikasitakoaren kontua bakarrik emon behar, hiru urteetakoa batera baino, filosofian, eta lau urteetakoa, gero, teologian.

Sei jakintzagairen larogei tesi ingurutik, lauren kontua emon behar zenduan, filosofian, aurretik zein jausiko jatzun ez zein irakasle izango zan jakin barik. Horixe berori teologian, baina, lau urte izanda, jakintzagai edo asignatura gehiagotik urteten eben azterketa aurretik zeintzuk izango ziran jakinbako lau gaiak.

Baina, azterketa bildurgarri horren aurretik, tesina egin behar izaten zan, norberak aukeratutako irakasle baten zuzendaritzapean. Idatzizko azterketa orokorra be egin behar izaten zan lizentziaturarako ahozko azterketea baino lehen.

Kantabriako kobazulo guztiak arakatuta eukazan aita Valeriano Andérez aukeratu neban nik tesinaren zuzendari, berari hizkuntzen jatorriari buruz hitzaldi sakon eta jakingarria entzunda gero.

"Sobre el origen del vascuence" izan zan nire lantxua. Ez zan izaten tesina dalako hori gauza barriak asmetako edo aurkitzeko, gai horri buruz esan dana eta idatzi dana argi eta zehatz batzeko eta eretxia emoteko baino. Ondo etorri jatan gure hizkuntzeari buruz zertxobait irakurteko. Tamalez, gerora, etxe aldaketa baten, galdu egin jat hain gogoko neban lantxua, nahiz eta berez balio handikoa izan ez.

Teologian, handik lau urtera, aita Jose Alonso, Biblian adituenetarikoa izan dana, izan neban tesinaren zuzendari. Orain batzen garean lagunok, bera izaten dogu, beharbada, gehien aitatzen doguna. Argia, apala, ikuspuntu barriak azaltzen euskuzana, interesgarria, oso aurreratua, orduko denporetan batez be.

Aho zabalik egoten ginan bere eskoletan, eta ez berbetako eukan erraztasunagaitik, ez eukan larregirik eta, baina bai irakatsiei emoten eutsen sakontasun eta gaurkotasunagaitik. Bide-urratzaile izan da Biblia ikasketetan.

Horrez gainera, gogoratzen naz zelako mesedea egin eustan betiko, beragaz lana egiten niharduala, esan eustanean: "irakurri egizu, zure lanerako, Oskar Culmanen liburu hau". Nik, harrituta, esan neutsan: "Ez al da ba protestantea?" "Bai, protestantea da, kristau zintzoa, jakituna eta santua gainera". Orduan denporan protestante bategaitik jesuita bati hori entzutea...

Ondoko herritxuetan, eta esturaren bat

Teologiako lehenengo hiru urteetakoak uste dot joaten zirala domeka arratsalde guztietan katekesia emotera alboko herritxuetara. Ia Cobreceseraino, zisterkoek Monastegia dauken herritxuraino, heltzen ziran, batetik, eta ia San Vicente de la Barqueraraino, bestetik, gehienak oinez eta batzuk bizikletan, sotanaz eta umorez, astero.

Niri Ruilobako herritxu polita egokitu jatan. Ondo gogoratzen naz hiru-lauk osotzen genduan taldeko bat Patxi Larrainzar jatorra zala, gero Nafarroan idazle zorrotza eta ospetsua izango zana eta nahiko gazterik hil zana.

Asko be asko aldatu dira, Kontzilio ostean eta urteotan, katekesiaren edukiak eta azaltzeko erak. Orduan, ordukoa.

Ume txikiak neukazan lehenengo urtean. Han ibilten ginan teologian ikasten genduzan ikasketa sakonak eurei egokituta emoteko ahaleginetan. Gero, neskato kaskonduekin, mezan abesteko kantuak irakasten.

Behin, Aita Domínguez etorri jakun ea umeak zenbat ikasi eben ikusten. Katekesi guzti horreen arduradun nagusia zan Aita Domínguez, filosofiako historigilea eta kosmologiako irakaslea eta begi bat galdu barri ebana. Gu katekistok, ikusten ez eban aldean jarririk, eskuekin eta keinuka esaten edo agertzen geuntsezan umeei erantzun behar ebezanak. Harrituta eta pozik joan jakun Aita Domínguez. Ume hareek ekien jakitekoa!



Ruiloban, domeka arratsaldeko dotrinan, 1956-57.

Hurrengo urtean, gaztetxuekin, hamabost-hamasei urtekoekin egokitu jatan. Denpora gehiago egiten genduan landan baloia zelan jo behar dan ikasten, barruan liburuagaz baino. Izan be, *mitikoak* ginan inguruko gaztetxuentzat Unibersidadeko futbol-taldeko selekzinoan jokatzen genduanok. Baina, horregaitik, dotrinan esaten genduanak be askoz be indar gehiago eukan eurentzat besteenak baino. Eta asko ikasten ez baeben be, gitxienez lagun handi izaten ginan gerorako be.

Azken urtean ez ginala joaten uste dot. Nahikoa geunkan azken azterketak gertateagaz.

Esan dodanez, abade nintzan teologiako azken urte horretan. Horregaitik, abade barria nintzanez, La Revillako katekesi-tokira edo parrokiatxura joan nintzan Sortzez Garbiaren bezperan autortzak egitera eta jai egunean Meza Nagusia emotera. Orduantxe jarri

nintzan, lehenengoz, autor-lekuan. Urduri samar, hasieran, baina nasai eta pozik laster. Luzaroan egon nintzanez eta hezetasunez beteriko lekua zanez, sekulako haserrea hartu eban nire sabelak.

Hurrengo egunekoa izan zan kontua! Eleizatxua bete-beterik. Neu Meza emoten, diakonoa eta subdiakonoa alboetan nituala. Hizlaria, Unibersidadeko erretore-ordea, gerra denporako Lamamié de Clairac ospetsuaren semea. Eta eleizkizun guztia zuzentzen Felix Obieta, Gernika aldekoa, Comillasen doktoraduren bat egiten ziharduana eta Madrilgo Leon XIII goi-ikastetxeko idazkari nagusia.

Ez jatan hasi, ba, sabela kirri-korro hutsean? Nire esturea eta larria! Eta nire ondoan diakono egiten neukan nire lagun Santi Martin Peñarena! Biok izerdi-patsetan. Izan be, ez egoan jentearen erditik izan ezik urteteko modurik. Eta nora joan? Sakristian ez egoan ez komunik, ez urteteko aterik ez leihorik. Eta bitartean, gazteen abesbatza kredoa luzatzen...

Minutu gitxira, egoereaz jabetuta, badinosku Obietak: Belaunikatu eta danok sakristiara! Ez dakit zer sumau neban une horretan, baina "Ez!" esan neutsan. "Eutsiko deutsat". Eta, ozta-ozta, baina patxadaz jarraitu neban, azkeneraino, Meza emoten. Gero izan zan hurren egoan etxeraino arineketea. Obietari ea zein urtenbide asmau eban itaundu neutsanean, hau izan zan bere erantzuna: sakristia erdian lora-ontzi handi bat dago.

Urte horretan, abade nintzanez, etxera joateko baimena lortu neban, Amorotoko parrokian Santos Teodoro Errekalderi aste santuan laguntzeko. Orduantxe izan nebazan lehenengoz autortzak euskeraz. Hiru abade, eta une batzuetan lau, egon ginan arratsaldeko bostetatik gaueko hamaikak arte, autorlekutik alde egin barik. Eguazten santuan zan. Sinistu ezinezkoa? Baina egia.

Abesbatza

"Schola Cantorum" eritxan abesbatzak emon deuskuz askori Comillaseko oroipen gozoenetakoak. Ehun eta berrogeta hamar inguru edo gehiago izaten ginan. Abesbatza nagusia osotzen eben kidee-

tatik aukeratuek egiten eben abesbatza txikia edo "Coro Reducido" esaten zana be.

Ni, lehenengo urtean, gramatikako bigarren mailan nengoala, tiplea izan nintzan bietan. Hirugarren mailan, abesbatza nagusian tiple eta txikian kontralto. Gero, urte gitxitan, kontralto bietan.

Nire atsekabea, kontralto be egin ezin nebanean eta, nahiz eta bizarra urteten hasi, ez ume ez oraindino gizon eginaren ahotsik ez neukanean. Urtebetean izan zan. Urte horretan, solfeorik ez ekien tiple barriei, gehienei hain zuzen be, Santa Zezilia egunerako solfeoa irakasten jarri ninduan aita Prietok.

Orduantxe joan zan "Schola Cantorum" Santanderrera, Bilboko orkestreagaz batera aita Prietoren "Sinfonía Cántabra" lehenengoz joteko eta abestuteko. Bidean, ostera, hiru autobusetariko batek sekulako istripua izan eta Aita Prieto bera eta Rorro esaten geuntsan tiplea, zauritu ziran. Erdi zorabiatuta egon arren, zuzendu ahal izan eban bere Sinfonia barria aita Prietok.

Hurrengo urtean, gizon ahotsaren jabe eginda egongo nintzala eta, aprobea egin eusten. Pozik handienetarikoa hartu neban, iluntzean, Bernardo Sokobehere abesbatzaren idazkaria etorri eta esan eustanean "Gallas, tenore bigarrena izango zara hemendik aurrera". Esan be, euskeraz esan eustan, nigaz ohi ebanez, Luzaideko semea izanik orain Arizkunen dagoanak. Belarri on samarra eta ahots badaezpadakoa daukenak izaten dira, gehienetan, tenor bigarrenak. Handik aurrera, beti izan nintzan koru nagusikoa eta baita txikikoa be.

Liburu osoa beharko litzateke abesbatza dala eta izan doguzan ikastaldiak, abestialdiak, joan-etorriak, bizikizunak... azaltzeko: zenbat ordu gozo Radio Nacional eritxan irratitik emoten zan Aste Santu osoa gertetan; zenbat abestialdi han eta hemen; zelako ahalegina aita Prietoren abesti moderno eta bihurriak baina baliotsuak ikasten, zenbat oroipen atsegin musika-gelakoak... Futbola bera be erraz ixten genduan Aste Santua gertetan musika-gelako abesti ikastaldiakaitik.

Urte guztian be, abesti zerrenda luzea gertetako eta orrazteko izaten zan bazkalaurreko ordua. Abeslari ez ziranak be gregorianoa ikasten eben ordu horretan.

Erromara erromesaldia

Urte Santuan, mila bederatzirehun eta berrogeta hamarrean hain zuzen be, abesbatzagaz joan nintzan lehenengoz Erromara. Besteak, orduko ikasleak eta ikasle izandako abadeak, euren kontura, nahiz eta Seminario guztiarena izan erromesaldi hori.

Amesetea zan guretzat Erromara joatea eta Erromako hainbeste gauza ikustea, aita santua batez be. Beste munduko zerbait balitz lez.

Comillaseko Markesaren ondorengoek jarri eben Unibersidadearen eskuan itsasontzi bat, "Conde de Arjalejo" izenekoa, oker ez banago, Bartzelonatik Genoara eroan gengizan.

Abeslariok, udako oporretako azken egunetan Comillasen bertan batu, abesti ikastaldi batzuk egin, eta han eta hemen abestuz joan ginan Bartzelonaraino, han beste abadegeiekin eta Comillasen ikasitako abade mordoagaz batu eta Genoaruntz urteteko. Comillasen bertan, Santanderren, Castron eta Donostian izan genduzan abestialdiok. Santanderko Pereda aretoa bete-beterik eta txaloak joteko egarriz. Kanpoan be txaloak jo euskuezan zale batzuek. Castron, Ataulfo Argenta bera izan genduan entzule, eta Donostian, Nuntzioa, Font Andreu bertako gotzaina, eta Guridi, Iruarrizaga, Urteaga eta ez dakit zein musikari ospetsu gehiago, baina entzule gitxi. Zelako poza hartu eban aita Prietok bere abesti barri batzuei buruz Guridiren eretxia entzun ebanean!

Fin bai abestu genduan, baina hots urriegia atera be bai, lorik ezak eta "Parque Móvil Militar"eko autobus bizkor baina deserosoetan joateko nekeak samazarratuta itxi ginduezalako ia danok.

Zaragozatik, oker ulertu bategaitik, ia afaldu barik eta lorik egin barik urten genduan Kataluniarantz. Guztiz zorabiatuta heldu nintzan, goizaldean, Montserratera. Barruan neukan guztia bota behar izan neban. Erromara joateko azkenbako gogoa eta poza izan arren, Bilboko edo Donostiako matrikuladun autorik ikusten ete neban ibili nintzan, etxera eroan nengien. Zelakoa ete zan nire larrialdia! Lehorrean hain estu egonik, itsasoan hil egingo nintzala, gitxienez, uste neban.

Nagusi batzuk jabetu ziran nigaz, farmaziara eroan Bartzelonan, itsasontzi barrura joan ginanean jan eragin, eta zer izan zan ha! Bartzelonako kaitik urten ahala, Gernikako parrokoagaz, Abadinoko Fernando Bizkarragaz, berbetan hasteagaz batera, esku batek gatx guztia kendu baleust lez sumau neban nire gorputz-egoerea.

Ez dakit une gozoagorik izan dodan inoiz. Beharbada, itsasontzian bertan. Mediterraneotik ginoazala, itsasontziaren gainekaldean, ilunabarrean, ordurako abade nagusitxuak ziran lau euskaldun, ez naz gogoratzen nortzuk, bakotxak besoak bestearen lepo gainean jarri eta ahots zoragarriz eta belarri finez, "Itsasoa laino dago..." abestu ebenean.

Genoan, sekulako ezustekoa. Italia guztiko komunisten batzar eguna zan bertan, Togliatti buru zala. Gu, ehundaka, igarri-igarrian abade edo abadegei ginala, sotanakaitik eta beste jantziakaitik.

Desfilean erreskadan etozala, aldamenetik igaroten ziranean, gehienek irribarretxu bat egiten euskuen, gaztetxuei batez be. Desfilea amaitutakoan, euretariko mordoa ikusi genduan eleiza aurretik pasaukeran aitaren egiten. Gu harrituta! Komunistak izan eta... gu agurtu eta eleiza aurrean aitaren egin!

Labur egin jakuzan Erroman igaro genduzan lau egunak. Betebeteak izan ziran. Ordu batzuk hau eta bestea ikusteko geure esku izanik, taldean joaten ginan egunero basilika nagusiren batera, gure otoitz eta kantuekin jubileoa betetera.

Don Klaudioren trumoi ahotsa

Ez dakit zein basilikatan izan zan. Frantziako erromesak egozan, euren otoitzak eta abestiak abade batek zuzentzen ebazala.

Baina, holako baten, sartzen gara gu, eta beste guztiak isildu egin behar. Zer zala eta? Ba, don Claudio Gallastegi elorriotarrak zuzentzen ebazala lehengo eta orduko komillastar erromes taldearen otoitzak. Berari entzuten jakon gehiago beste guztiai batera erantzuten baino. Beraz, frantziarrek be isildu egin behar don Klaudiok ateraten eban burrundadearen aurrean.

Une baten, ia danok geratu ginan isilik, batak besteari traba ez egitearren. Eta bat-batean bati otu jakon danok batera otoitz egin behar genduala eta ahots zoliz "Credo in unum Deum..." abesten hasi zan. Bai frantziarrek bai guk, pozik eta bihotz dardaraz jarraitu genduan gure fede bakarra batera autortzen. Orduan bai, zeozertarako balio izan eban latinak, nahiz eta fede bera bakotxaren kulturan mamindu behar dan. Eskerrak don Klaudioren ahots ikaragarriari!

Hunkigarriena, San Pedro eleizea bete-beterik egoala eta gu erdian dagoan autortza deritxan altaran, Pio hamabigarrena aita santua ondo-ondotik igaro zanean eta gero minutu bat baino gehiago geuri beren-beregi zuzendutako agurra eta hitzalditxua egin euskunean. Hango gorak eta zaratak! Zoratuta gengozala emoten eban.

Gipuzkoako langile batzuk agurtu ebazanean be bihotzean sartu jatazan hareek euskeraz esan ebezan "Gora aita santua!" deiak, nahiz eta guk, abade eta abadegeiok, atera genduan zalapartea atera ez. Orduantxe ohartu nintzan alemanak zelakoak diran, nahiz eta milaka gazte izan, Pio hamabigarrena eurei zuzenduta gero, danek bat batera, ahots sendoz baina zarata barik, erantzun eutsienean.

Solesmesen

Urte mordo baten, hamaika-hamabi abeslari eroaten ebazan aita Prieto zuzendariak Frantzian, Solesmesen, beneditarrek dauken Monastegi ospetsura. Haxe da gregorianoa sakonen aztertu dan, ondoen ezagutzen dan eta bikainen abesten dan tokia mundu guztian.

Neuri be egokitu jatan uda baten joatea. Loteria handiena baino gehiago zan guretzat Paris, Chartres, Le Man eta abar ikustea, estatuaren mugetatik kanpo ia inor joaten ez zan sasoi hareetan.

Gogo-mundu barria izan zan beneditarren mundua, Amerika barri baten antzera. Hareen gizatasuna, hareen jakituria eta apaltasuna! Eta hantxe ikasi genduan, espiritualidade edo espiritu-bide ezbardinak dagozala Eleizan. Oso ezbardinak ziran gure San Inaziok jesuitei jarritakoak eta beneditarrek eukezanak.

Eta gregorianoari buruz, zer esan? Zeruan aurkitzen ginala eurei entzuten. Herritxuan bertan beneditar emakumeek euken Monastegian be zoragarri abestuten eben. Bizkaiko lau beneditar euskaldun egozan euren artean. Hareen poza, taldeko euskaldun biok, Azpeitiko Migel Eizmendi, *Txapel* bertsolariaren semea, eta neu, eurak ikustera joan ginanean! Eurek egindako eskulanak emon euskuezan euren etxeetara eroan gengizan.

Orduantxe izan zan Frantzian gerra denporatik ordura arte lanuzterik handiena. Bildur izan ginan etxerako ordua heldu jakunean, trenak-eta ibiliko ete ziran. Etxerantzako urtetea egokigun baino egun bat edo bi lehenago amaitu zan, nahiz eta bazter guztietan egozan zikinkeria piloek argi erakusten eben oraindino ze gogorra izan zan.

Parisek gugan sortu eban harriduratik aparte, beste gauza bi geratu jatazan gogoan. Batetik, orduantxe izan genduala telebista lehenengoz ikusteko aukerea, baina ez genduala lortu ikusterik. Eta bestetik, eragin handia egin euskuna, gure Seminarioak irakaslez eta ikaslez bete-beterik egozanean, Pariseko eleizbarrutiaren ondoan, Chartresen bertan, bost bakarrik zirala abadegei nagusiak eta geugaz latinez jardun eban teologiako irakasle bakarra egoala eurentzat, Frantzia guztian jazoten zan antzera.

Gure lagun bati jazo jakona argigarria izan zan guretzat, gauzak ertzera ez dirala eroan behar ikasteko. Otoitz egin behar zala eta, eleizan beneditarrekin sartzen genduzan orduetatik kanpo, gu guztiok jolasean edo zarraparrea ateraten genbilzala, bera, haruntzatxuago edo, ahal baeban, eleizan, otoitzean. Solesmeseko ibai ederrean arratsaldero igerian egiten genduanean, berak topera ekiten eutsan, atseden txikienik be hartu barik, pilatuta eukan nekea holan kenduko ebalakoan. Horrek, jakina! nekea gehiturik, kalte handiagoa eragiten eutsan.

Egiten eban udako beroagaz be, lagun batek, jolasean, manta sendo bat jarten eutsan bazkalondoko lo kuluxkan. Ba, nahiz eta jasan ezina izan, ez eban kentzen. Besteok joan behar izaten genduan kentzera. Eta beste holako antzerakoak.

Organu-jole ospetsu baten etxera tea hartzera joateko dei egin euskuenean be, ahalegin guztiak egin ebazan etxeko neskatileari eskua emon barik geratzeko. Aita Prietok berak hartu eta eskua emotera behartu eban. Jakina! Ezin izan eban hurrengo ikasturtea egin. Santutasuna txarto ulertzeak ez eutsan itxi geroago be Seminarioan jarraitzen.

Solesmesen ikusi genduan lehenengoz, geu gengozan areto antzerakoan, hiru zulodun komuna. Ez genkian danek batera egitekoa zan ala ez. Dana dala, gregorianoko irakasleak, beragaz abesten genbizala, "le triolet" esaten euskunean, gu gengozan lekuko hiru zulodun komuna etorten jakun gogora eta, horregaitik, "triolet" izena jarri geuntsan komun zelebre hari.

Igerian joan ginaneko arratsalde baten, mutil mordoa aurkitu genduan leku berean. Gure harriduraz, ia ikusi be ez jakezan egiten jantzita eukezan uretarako prakatxuak, guk futbolistek jazten ebezanen antzekoak eroaten genduzanean. Lyongo abadegeiak zirala jakin genduan, berbetan hasi ginanean.

Urteak geroago

Handik urteetara, Kontziliotik gerora, egon nintzan barriro be Solesmesen, egun batzuk, nire senide Eusebio Martijagaz eta nire umetako lagun Jabi Gorrotxategi jesuiteagaz. Liturgian, nahiz eta berbaz frantsesez egin, abestu latinez egiten zan, lehengo antzera.

Orain be beneditarrez bete-beterik egoan monastegia. Urteak lehenago, nahiko gazte zala, gregorianoa irakasten euskun aita Gué ezagutu neban, danak lerroan gure aurretik igaro ziran baten. Gero beragaz egon ginanean, gogoratzen zan Comillasetik joandako taldeekin.

Egun baten, euren koruan sartu ginduezan, euretariko batek abesteko liburua aurrean jarten euskula. Hasieran, dardareak ez eustan ahotsik ateraten ixten. Gerotxuago, bildur barik eta ahotsari eutsi barik, hasi nintzan eurekin batera kantetan. Zelako ohorea eta poza!

Emakumeen ondoko monastegira be joan ginan, euren Mezea entzun ondoren Bizkaiko monjak ikustera. Urteak ei ziran bat hil zala. Beste bat Afrikan egoan, monastegi barri bat edegitera antxina joanda. Hirugarrena bertan egoan, baina ohean gaixorik. Euskeraz ez ekian bakarra ikusi genduan, Barakaldokoa hain zuzen be, ordurako urte mordoa pilatuta.

Harrituta geratu ginan komentuko nagusi egiten eban Ama Abadesa zanagaz. Gazte-gaztea eta liraina zan benetan, beragaz batbatean maitemintzekoa. Zelako emakumea, baina ez itxuraz polita zalako bakarrik! Luzaroan egon ginan beragaz alkarrizketan. Ez dot ikusi hain ikusmira zabalekorik, sakonagorik, gaurkotuagorik... eta apalagorik.

Oraingo gazteak eta ohitura ezbardinak-eta aitatu genduzanean, bidezkoa zan monja zaharrak eretxi ezbardinak izatea, oraingoaren kontrakoak izatea, hain zuzen be. Zein gozo, adeitsu eta maitasun handiz bereizten eutsazan nagusi gazteak zaharrari azaleko gauzak eta sakonak zeintzuk ziran eta gazteek eukezan gauza onak, nahiz eta guk igarri ez, eta eukezan akatsak.

"Neskatila askok egon behar leuke monja horregaz oraingo-oraingoa eta sakon-sakona izatea zelan lotzen diran ikasteko" esan genduan ia batera beragaz egon ginan Jabik eta biok, handik urteerakoan. Txundituta itxi ginduzan!

Abesbatzaren zuzendari bikaina

Ezin aitatu aita Otaño euskaldunak sorturiko "Schola Cantorum" ospetsua bere zuzendaria eta arima zan aita Prieto aitatu barik. Gozokirik gozoena jatea baino gozoagoa eta atseginagoa zan bere zuzendaritzapean abestea. Goitik beherako musikaria zan. Ez ziran edozelakoak zuzentzen ebanean egiten zituan keinuak, behar ziranak bakarrik, baina argi eta dotoreak. Liluratuta ixten ginduzan eta, zer esanik be ez, ixten zituan entzuleak.

Urte baten, japoniarrak kulturan eta artean aurreratuak zirala eta, hara eroan eban hango jesuiten Unibersidade batek. Bertako

abesbatzagaz ibili zan Japonia osoan zehar. Baina berak azaldu euskunez, honako honeek izan ei ebazan jazoera nabarmenenak:

Behin, organua joten ziharduala, konorte barik gelditu zala. Sekulako osaketa egin eutsien Japonia menpean euken Iparramerikako Armadako osagileek, buru guztian orratz antzekoak sarturik. Orduantxe asmatu ei eban *Sinfonia divina* esaten eutsana, baina behin be jo ez zana, nik dakidanez behintzat.

Bestea. Tokion Tokioko edo beste nonbaiteko Orkestrarik ospetsuenetarikoa eta biolin-jotzaile entzutetsuenetarikoa zuzendu ebazala. Unetxu baten, ez ei eban entzun ez dakit zein musika tresnak jo behar eban notea edo hotsa. Bat-batean bota eutsan begirada zorrotza zala eta, sartu ei zan bai musika-tresna hori joten ebana, nahiz eta unetxu bateko atzerakizunaz. Gero jakin ei eben konplot antzekoa zala. Baina ez ziran ausartu konplot hori aurrera eroaten, begirada zorrotzegia ikusita gero.

Harrituta etorri zan japoniarren sentiberatasunaz. Kalean joiala, begiak itxi eta Azpeitiko kaletik joiala begitantzen jakon, japoniarren berbaroa entzuten ebanean. Beraren belarrirako, euskerea langoa zan hareen berbetea.

Harro egoten zan, amama bat Iurretakoa ebala eta, nahiz eta ez neban lortu zein etxetakoa zan jakiterik. Comillasetik urten eta urteak geroago ikusi neban Tolosan Madrilgo Unibersidadeko abesbatza zuzentzen. Betiko zehaztasunaz, baina lehengo bizitasun barik. Buru barruko isurpena gainditu behar izan eban aurretik.

Kirolak...

Sasoia makala hamahiru-hamalau urtetik hogeta bost-hogeta sei urtera bitartekoa!

Gure gorputzak eskatzen eban kirola egiteko aukera onak izaten genduzan. Pelotaz, palaz, baina, batez be, futbola zan nagusi. Bere futbol taldea izaten eban kurtso bakotxak. Irabazi genduzan ekinaldiak eta galdu genduzanak parean jarri ezkero, azkenok geratuko litzatekez nagusi apur bategaitik. Baina zelako ahaleginak!

Seigarren mailan gengozala, oraindino Seminario Txikian hain zuzen be, Unibersidadeko ligan sartu ginduezan, eta ez ginan, ba, finalera heldu? Hiru minutu edo geratzen ziran finala amaitzeko. Penalti geure alde. Behin be penaltirik huts egin barik nengoan. Geure eskuan egoan txapela, edo neure hankan, hobeto esanda. Emoten deutsat ostikadea baloiari eta ez dau joten, ba, honek, neure eskuman ikusten neban hagea? Oraindino be ez jat kendu guztiz orduan hartu neban nahigabea!

Epikoak izaten ziran, noizean behin filosofiako fakultadeak teologiakoaren aurka jokatzen ebanean. Gehienetan jokatzea egokitu jatan, bai filosofian nengoanean, bai teologian. Zelako haserrealdia nire barruan, behin bazterrean itxi nindunenean!

Ez zan inor geratzen norgehiagoka hori ikusi barik. Bateko eta besteko prefetoa eta irakasleak be, nahiz eta gizon ganoraz beterikoak izan, aparte jarri behar izaten eben. Bestela, ez ziran urrun izango euren arteko, ez borrokak, baina bai ika-mikak eta ia haserreak!

Urte askotan, hil ala biziko futbol norgehiagokak geunkazanean, beti izaten genduan arbitro bera. Zehatza, argia... ez eben emoten bere erabagiek eztabaidarako biderik. Kantabriako Colindreseko Pablo Puente Buces genduan arbitro ospetsu hori. Handik urteetara, Paraguay, Puerto Rico, Kenia, Tanzania eta beste nonbaiteko nuntziaturetan egon zan, eta gero bera izan zan, bata bestearen atzean, Indonesiako, Dakarreko, Beiruteko eta Londreseko aita santuaren nuntzio. Ez eban txarto egingo, arlo horreetan be, futbolean arbitro izateko mailea izan badau behintzat.

Telmo Zarrari eta oinetako barriei esker, hamaika eta bat!

Alboko "Maximo"ko jesuita ikasleek behar dan moduko futbolzelai barria egin eben, bedarrezkoa. Guk lurrezkoaren gainean jolasten genduan.

Zelai barri hori zala eta, Bilboko Marroquin jesuita ikasleak orduan futbol ligako bigarren mailan egoan Indautxu ekartea lortu eban, Olaso presidentearen adiskide handi izateaz baliaturik.

Kontua ez zan Indautxu bigarren mailakoa zala bakarrik. Urte horretan, bertan jokatzen eban Zarra mitikoak be, Athleticen nire adineko, adiskide eta lagun Eneko Arieta durangarrak ordezkatuta gero.

Sekulako jentetza etorri zan inguru guztietatik. Hasi eta ia batbatean, gola sartu geuntsen. Haxe izan zan gure hondamenaren hasierea! Berotu ziran, eta... hamaika, bai, bederatzi eta bi edo hamar eta bat, sartu euskuezan!

Egia da gura ebezan beste sartzeko gauza zirala, baina baita be, edozein taldek irabazi eikigula orduan. Gugaz jokatu eben jesuita biak izan ezik, beste guztiok lehenengoz! ipini genduzan geureak ez ziran futboleko oinetakoak, beti erabilten genduzan abarketa antzekoen ordez. Gehienok hanketatik odola dariola gengozan norgehiagokaren erditik aurrera.

Hurrengo urtean, barriro etorri zan Indautxu. Iriondo, Athleticeko beste mitiko bat, zan entrenatzailea. Gero lehenengo mailan, Sevillan, jokatuko ebana izan zan gure atezaina: Cobos, hain zuzen be. Eurentzat, ordezkoa jarri eben. Han ziran gure aurka jokatzen Arriaran pelotarien anaia umoretsua eta oraintxe urte gitxi hil jakun Elorrioko nire ezagun Pedro Bolinaga be. Eta jakina! Ez eben jarriko Txus Pereda, hain ona etorrena eta gero Madrilen, Bartzelonan eta Espainiako selezinoan jokatuko ebana. Arbitro egin euskun honek, apurtxu bat gure alde egoala. Ez zan izan gero nuntzioa izango zan Puente lako zehatza. Baina oraingoan, botekin ohituta edo, itxura ona emon genduan, eta hiru eta bat bakarrik galdu.

Jokatu genduan hiru euskaldunok, Bergarako Jose Mari Bergarak, Barakaldoko Iñaki Frankok eta neuk bazkaldu genduan eurekin. Bazkal osterako, nahiz eta oraindino abadegeia izan, "Ciudad de los muchachos" eta honen Zirkua ordurako sortuta eukazan Jesus Silva eta beste bi etorri ziran.

Sinistu be ezin eben indautxutarrek hareen barre eragiteko trebetasuna eta azkenbako umorea, eta abadegeien arteko giroa.

Gugaz jokatu eban Coboseri geure elastikoa jarri eutsan Silvak, bedeinkapen lez ur parrastada handi bat botata, gitxi gorabehera

honako hau esaten ebala: "Ego te impono camisolam Universitatis...". Sotanea zan camisola hori. Ez eutsoen etxerako bidea hartu arte kentzen itxi.

Kirol arloan sartu nazanez, urtetxu batzuk atzerantz jota, Seminario Txikian gengozaneko denporetara igaroko naz. Santanderren soldadutza beteten ziharduan gazte bat etorten jakon sarritan, beti pakete handi bategaz, bizikletan, Comillaseraino, Larrabetzuko gure lagun Iñaki Alvarez Gojeaskoetxeari. Pozik egoten ginan hori jazoten zanean, pakete barruko zeozer besteentzako, geuretzako, be izaten zalako. Orduan inork ezagutu ez arren, gero onenetarikoa izango zan Jesus Loroño genduan mutil gazte ha.

Handik urteetara, "Vuelta a España" igaroten zan, arratsalde baten, Torrelavegatik. Hara joan ginan, autobusean, jai geunkan teologo mordoa, aldats tontor batera. Ene! Iges eginda etozan bietatik bat, urrundik ikusten zan Kosme Barrutia zala, aldatsaren erripeagaitik bizikletaren albo batera eta bestera egiten ebalako, Arriandiko gure amamaren ondoko Abarrategikoa. Bide erdira urten eta "Kosme!" esan neutsanean, berak irribarrez eta besoa jasota agurtu ninduan, nire izena esanaz. Louison Bobet, Frantziako Tourra irabazitakoa zan beragaz joiana.

Gerokoa izan zan barregarria. "Nork irabaziko dau gaur?" autobusean batek esan ebanean, gehienek "Louison Bobetek" erantzun eben. Nik ezetz. "Ez, zeure lagunak!", esan eusten. Nik: "Gitxiago! Van Steenbergenek irabaziko dau". Comillasera heldu ginanean, jakina zan, irratiak esan ebalako, Belgikako txirrindulari hori izan zala sprintean irabazle. Ez zan zaila asmatzea. Argi egoan gu gengozan lekutik Santanderrera, berrehun metro aurretik joiazan biak atzekoek atrapauko ebezala. Eta helmugara batera heltzen ziranean hamarretik bederatzitan edo hamarretan Van Stenbergeenek irabazten ebanez...

Handik aurrera, txirrindularitzari buruzko edozein eztabaida egoanean, neugana joten eben, eta nik esandakoa... "Roma locuta est!", nahiz eta urrundik be egia izan ez. Jakina! "Tourra irabazitakoagaz lehenen joan danak ezagutu egin dau, eta gero irabazlearen

izena asmau dau...", zer gura dozu gehiago arlo horretan oilarra izateko?

Umorea

Otoitz egin, ikasi... jo eta ke eta sakon egiten genduzan, baina, beharbada horrexegaitik, umorea... sekulakoa!

Ohizko jaietatik aparte, jai bereziak asmetan ziran. "Bonetizazinoa" izaten zan holako bat. Filosofian zan. Egun izentau baten, hirugarren mailakoek baimena emoten eutsen lehenengo mailakoei etxe barruan be bonetea janzteko. Baina, lehenengo urtekoren bat egun hori baino lehen bonetea janzten ausartzen bazan... zigorra eukan.

Egunak eta egunak egiten ebezan hirugarren mailakoek jaialdi horren gioia gertetan, urtero ezbardina. Lehenengo urtekoak, epaituen antzera, ia gainera zer etorkien, urduri. Batzuk bildurrez izaten ziran. Hirugarren mailakoak, protagonista. Eta bigarren mailakoak, ahal zan moduan jarleku batzuk beste batzuen gainean jarri eta sekulako ikustokia eregita, antzerki antzekoa edo zirko antzekoa ikusteko irrikitan.

Bide erraza hartu genduan guk, hirugarren mailan gengozala, gidoi korapilotsua asmau barik. Filosofiako sei irakasgai nagusien irakasleen imitazinoa. Bata, niri egokitu jatana, teodizeakoa, sur luze eta bota handiekin; sikologiakoa ia gurdi bete liburugaz... bakotxa bere imitauari egokonagaz...

Santanderren erositako kartoizko sur luzea eta aurkitu ebezan oinetako handienak jarri eustezan niri. Nahiz eta antzezlari txarra be txarra izan, ondo ikasita neukazan beraren ahoskerea eta gauzak azaltzeko erea, orain teodizeako irakaslea zan lez, lehenengo urteetan gure gogo-zuzendaria izan zalako. Baina, surrak eta oinetakoek izan eben arrakastarik handiena.

Prefektoa, imitazino bakotxagaz (ez nireagaz) barrearen barrez lehertu ez zanean, pozik! Baina hurrengo egunetan, imitatzaileren bat, irakaslearen umorerik ezagaitik, honen ustez neurritik kanpo egon zalakoan, bildur samarrez eskolan. Ez zan ezer jazo, ha ta guzti be.

Harro joaten ziran lehenengo urtekoak, bakotxari egokon zigorra ordainduta gero, bonete barria jantzirik, Seminario Txikiaren aurreko paseotokira, eurak baino gaztetxuagoek bekaitzez ikusi egiezan.

Holakoxe urte baten izango zan orain hemen jarriko dodana. Ikusmena zeharo galtzen hasi zan Aita Dominguez. Gure hurrengo urtekoek beragaz euken ikastaldiren bat. Irakaslearen ikusmena zein neurritan beheratu zan jakitea gura izan eben. Eta ez jaken otu besterik, disekauta egozan abereen museora joan, neurri txikikoa baina metro eta erdi baino luzeagoa zan kokodriloa lepoan hartu eta ikastokiaren erdian jartea baino.

Ez dot uste Aita Dominguezek azaltzen eban kosmologia asko ikasiko ebenik, baina barre? Purrustadei eutsi ezinik danak ikastaldi osoan! Aita Dominguezek, zer danik be ez! Hurrengo egunean, kokodriloa beragandik hurrago jarri, eta bardin. Aita Dominguezek zirkinik be ez! Handik egun batzuetara, itaundu deutsoe bere ikusmenari buruz. Bere erantzuna: "Geroago eta txarrago, mutil! Baina larriena ez da geroago eta gitxiago ikustea, ez diran gauzak ikusten dodazala baino. Begira: lehengo egun bitan edo, ezer ez dagoan tokian, kokodrilo bat ikusten izan dot".

Entzun egin behar jako orain be, kontu zaharrak esaten hasten garanean Xabier S. Erauskini, jazoeraren "errudun" izan zanari. Haren pasadizoak azaltzeko liburu osoa beharko neuke.

Haundienetarikoa, beharbada, honako hau izango zan. Ordurako zaharra zan Pedro Céspedes hebreotar hizkuntzaren irakaslea izandakoa, bakarrean, begiak itxita, lilurapen hutsean, otoitz egiten aurkitu eben irakasleen kaperan, Erauskinek eta ia bera besteko umoretsua zan Laso abizeneko batek. Eta zer uste dozue gogoratu jakela? Ba, eskilara bat hartu eta kanpokaldetik, leihoak eukan zulotxu batetik, ahots ozen-ozena barruruntz zuzenduaz eta patxadatsu, Jesusek Pedrori esandakoa gogoratuz, badinotse: "Pedro... Pedro... besteek baino maiteago nozu?". Aita Céspedes, lilura goi mailara jasota, ameseta baten balego lez! Beste biak barriro be, ahots ozenez: Pedro, Pedro..." . Ez ei eben esaldia amaitzeko astirik izan. Zarataren bat entzun, eta kanpokaldeko horman euken eskilarea bat-

batean bertan behera itxi, eta nonbaiten ezkutatzera, arineketan igesean joan ei ziran.

Gogo-zuzendariak. Irakasleak. Legoak.

Seminario txikian izan genduzan gogo-zuzendariak aitatu ditut lehen. Zerikusi handia izan eben gu guztion bizitzan, filosofiako eta teologiako urteetan izan genduzanak be.

Aita Reino, galiziarra, urteetan parroko izanda gero jesuita sartutakoa izan genduan filosofian. Gizon jatorra eta santua. Oso osokoa.

Baina neurri guztiak gainditzen ebazana da teologiako urteetan izan genduan aita Nieto ospetsua. Guztiok dogu gogoan eta bihotzean. Gorputz eta aurpegi itsusiagorik ez munduan, baina ezta gizon jainkotiarragorik be. Dohatsu edo beato izendatuko ete daben.

Honi buruz bai liburuak idatzi leitekezala. Eta idatzi be egin dira. Izango dira gerrira heltzen ez jakozan santu izendatuak be. Gogorra be gogorra berarentzat, baina bihozkorra eta biguna besteentzat, nahiz eta banan-banan eta danoi zuzenduta be, eskabide sendoak egin.

Lerro asko behar beste nagusi eta irakasle guztiak aitatzeko. Eta zer esanik be ez, jesuita legoak aitatzeko. Halabeharrez, euskaldunak ziran euretariko batzuk, Anaia Artabe arratiarra ospetsuena zala. Berak eskatu euskun Xabier Santxez Erauskin nire lagun handia eta biok txistua joten ikusi ginduzanean, egun batzuetarako ixteko, zelan eginda egoan berak aztertu egian. Handik egun batzuetara han geunkan berak egindako beste txistu barri bat: ahokoa ez dakit zein ojalatagaz eginda, atzamarra sartzekoa ez dakit zein burdinatxugaz eginda, txistuaren ohola bera, laban ogiak sartzeko palearen enborraz egina... baina ondo joten eban benetako txistua. Haren barre gozoa, txistu barriari lehenengo musika hotsak atera geuntsazanean!

Euskal Herrian Pernando Amezketarragaz jazoten dana gertatzen zan Comillasen anaia Artabegaz. Bereak eta besteenak ezarten eutsiezala. Behin, kanpotar batzuei Unibersidadea erakusten zihar-

duala, aita Hernández agertu ei zan. "Hori poligamoa da" Artabek kanpotarrei. Honeek, harrituta, sinestu ezinik: "Baina ez al da jesuitea?". "Bai" harro-harro anaia Artabek. "Jesuitea da eta hizkuntzatan badaki jakin be, hizkuntzatan!". Jakina, *poliglota* esan gura eban.

Ez dakit eurekin ala beste batzuekin izan zan. "Santo Tomasen apoteosia" deritxan kuadro handia dago areto nagusian. Artabek, ikusleei erakutsirik: "Hemen, lauki ospetsua: Santo Tomasen apostasia". Holakoak eta beste batzuk leporatzen eutsiezan anaia Artabe argi eta umoretsuari.

Ezin ahaztu Goenaga anaia be, Azpeitia aldekoa eta aroztegiko nagusia. Berak egindako palekin jokatzen genduan han egozan pelotaleku bietan.

Eta Lizarralde anaia biak; hainbeste behi eta txahal egozan kortako arduraduna euretariko bat. Zuhur egoten zan hau gabonetan eta pazkoetan gure aita nigana etorten zanean noiz ikusiko, beragaz jarduteko.

Han be euskaldun?

Nik ez dakit, Gasteizera joan banintz euskaldun jarraituko neban ala ez. Dakidana da, mesede handia egin eustala Comillasera joateak, Euskal Herriko semea nintzala aintzat hartzeko. Euskerea ia galduta eukan gure lagun batek, Comillasera etorritakoan berreskuratu eban. Eta uste dot hori jazo jakon besterik be izan zala.

Izan be, alde guztietakoak gengozan, bakotxak bere eleizbarrutiko eta bere lurraldeko izateko erak eukazala, latinoamerikanoek euren gaztelania biguna eta gozoa, brasildarrek eta portugaldarrek guk bereizten ez genduzan brasileiroa eta portugesa, katalanek katalana, gailegoek gailegoa... nahiz eta batekoak besteekin egozanean eta gengozanean gaztelaniaz egin, baina nor nongoa zan erraz igarten zala. Anaia-anaiak lez, baina norbere nortasunik galdu barik. Eta horregaitik berorregaitik, anaiagoak beharbada.

Hantxe ikasi neban nik benetako unibertsala izatea zer dan —nire ustez, jakina!—. Jazoera batek emon eustan argitasuntxua arlo horretan. Han gengozan euskaldun banakak euskal arazoaz arduratuta ikusten ginduzan hemengo batek hau bota euskun: Unibertsalak izan gaitezan, txokokerietan jausi barik! Bere gurasoak euskaldun-euskaldunak ziran. Berak euskerea ahaztuta eukan eta ez eban ahalegin txikienik be egiteko asmorik, gurasoakandik hartuta eta gero galduta eukana berreskuratzeko.

Gure arteko lagun batek, begirada zorrotzez, esan eutsan: Zelan izango haz hi unibertsala, heure gurasoak be ez dituk ulertzen eta!!!

Zenbat eta norbere zuztarretan gehiago oinarrituta egon, gaitasun gehiago izango dogu besteena be ulertzeko, aintzat hartzeko eta maitatzeko.

Unibersidadekoa hasita, ala lehenago?, laster sartu jakun gure Herriaren arazoen, amesen eta bizitzaren barri jakiteko gogo bizia be. Ez dakit zer egin genduan lortzeko edo zein bidetatik etorri jakuzan, baina eskuetan geunkazan Iturraldek idatzi eta liburu bitan agertutako *El catolicismo y la cruzada de Franco*, Egi-indarra argitaletxe berean argitaratutako *El Pueblo Vasco frente a la cruzada franquista*, *El clero vasco frente a la cruzada franquista* eta ez dakit besterik zan. Iruntsi egiten genduzan.

Filosofiako lizentziaturarako egin behar izan neban lantxurako irakurri behar izan nebazanak be, onurakorrak izan jatazan geure kulturea ezagutzeko eta maitatzeko.

Arantzazuko lehenengo kongresuan

Aitatu beharra, Arantzazun Euskaltzaindiak eratu eban gerra osteko lehenengo kongresua. Udaldian zan, eta nik, oraindino, euskera arloan ezerezaren hurrengoa bakarrik jakinik, baina ausardia handiz eta entzuteko eta hango giroa ezagutzeko eta biziteko gogo handiz, izena emon neban.

Aurretik ezagutzen ez nebazan Bizkaiko beste abadegei bi aurkitu nebazan bertan, Mikel Zarate eta Ander Manterola, hau orduantxe

sotanea jantzi barri, subdiakono egun batzuk lehenago eginda. Itzelezko poza halako lagunak aurkitu nebazanean, ez orduan bakarrik, bai gerora be.

Gogoangarria izan zan kongresu hori. Orduan be euskal munduan zerbait ziranak eta, zer esanik be ez!, gero entzutetsuak izango ziranak ezagutzeko aukerea izan neban. Ondo azalduta egongo dira idazki edo agiri baten baino gehiagotan egun hareetako batzarrak, lanak eta jaialditxuak.

Ilun samar ditut buruan une honetan, baina gogoratzen naz, egun baten, monumentu handi bat merezidu dauen Antonio Zavalari egokitu jakola bertsolaritzari buruz bere lanen barri emotea.

Berak, hori agindu eutsenean, ez ekian berbaldia euskeraz izango zanik, eta erderaz gertauta ekarri eban. Aurreko gau guztia egin ei eben lan hori euskeratzen Antonio Zavalagaz batera beste jesuita bik edo, bata Gaizka Barandiaran zala; baina ezin izan eben lan hori burutu.

Bere aurretik, aita Inazio Omaetxebarriak izan eban aditzari buruz, uste dot zala, hitzaldi sakon eta argigarria. Baina, erderaz!

Hasi zan gero Antonio Zavala ez dakit zenbat bider parka eskatzen, ezina ebala une horretan bere lana euskeraz azaldu, hurrengoan egingo ebala... baina, oraingoz eta behingoz, euskerearen morroi erabiliko ebala erderea. Oso sakona eta entzungarria izan zan bere jarduna. Baina hasi eta laster, entzuleen artetik batek, ahots zoliaz, danok entzuteko eran: "Meka... para oir castellano me quedo en Bilbao!!!". Danok geratu ginan zurtz eginda, eta han joan jakon, lepoan eskua jarrita baretzen ebala, adeitsu, Koldo Mitxelena handia, gero bera be handia izango zan eta hori jaurti eban Gabriel Arestiri. Urteeran, eta behin baino gehiagotan gero be, adiskidetasun osoz euren artean jardunean ikusi genduzan Antonio eta Gabriel, biak.

Adiskidetasun osoz honeek be, agurtu eben batak bestea Jon Mirandek eta aita Villasantek. Idazten ebana irakurrita eta zelakoa zan entzunda, orduan, askok ia deabrutzat euken Jon Mirande. Harek, ostera, abegi osoz agurtu eban, eleizako eskilaren gaineko aldean, orduan eta geroetara be sotanaz ibilten zan eta santutasun

usaina erion aita Villasante frantziskotar jakintsu eta orekatua. Zati luze baten egon ziran batak besteari bostekoa emonda, inguruko guztiok, pozik, eurei begira gengozala.

Ez dakit kongresu horretan izan zan ala ni abade eginda gero, beste baten, euskalari eta euskaltzale handien aurrean, pozik baina ia dardaraka, Julene Azpeitiaren txosten bat irakurri behar izan neban, bere etorri ezinagaitik.

Gero be Comillasera

Toki bat zeure bigarren edo hirugarren etxetzat izan dozunean, bertatik alde egin dozunean be, noizean behin bertara bihurtzeko ahaleginak egiten dozuz. Nonbaiten ikasle izandako gehienei jazoko jake ez dirala ahazten hainbeste bizikizun izan dituen eta gehienetan hainbeste oroipen gogoangarri burura ekarten deutsiezan ikastetxeagaz. Hori jazoten jaku Comillasen gure urterik ez dakit onenak, baina bai gazteenak sartu doguzanoi.

Guk alde egin eta laster, errazoi askogaitik, Madrilera eroan eben, urte gitxiren barruan, Unibersidadea, Madrilen beste fakultade batzuekin batera, "Universidad de Comillas en Madrid" deritxana osotzeko. Seminario Txikiak be ez eban iraun urte askotan.

Urte batzuetan, Udako Teologi Ikasketak atondu ebezan Unibersidadearen lehengo lekuan, Comillasen bertan. Udako atsedena eta ikasketak barriztatzea batzen zituan ikastaro horrek.

Han izan nintzan bi edo hiru urtetan. Goizetan, azterketen estura barik, irakasleen adierazpenak gogotsu eta atseginez entzun eta, nasai-nasai, Oyambreko hondartzara ordu batzuetarako. Arratsaldean be antzerako zeozer. Eta afal ostean, etorten zan irakasleren bategaz edo pertsonaiaren bategaz alkarrizketa mamintsua izaten genduan.

Espainiako gotzainen artean ez dakit zein primadutza eukan Comillasen bertan ikasitako gotzain batek, nahiz eta goiko solairuan bizi egun hareetan eta nahiz eta geroko galdera barik berak nahi ebana azaltzeko esan, ezetza emon euskun.



Comillaseko unibersidadean, gelan ikasten, 1953.

Urte guztiko nekeak itxi eta atsedena hartzeko leku egokirik badago, Comillas ingurua egokienetakoa. Ikastaro horreek barik be joaten ginan, lehenengo urteetan. Baina hiru urtetan jarraian, aste guztia euripean izan ginala (bada hori be gero!) eta ez gara joan gehiago, egun baterako izan ezik.

Gainera, nahiz eta luzaroan egon Comillasen bertan, aspaldi alde egin eben Unibersidadea Madrilera eroandakoan geratu ziran jesuita banakak be.

Lehengo lagunak. Bilbon, Asturiasen

Euskeraz "Anai arteko batasuna" deitu geinkion "Unión Fraternal" osotzen genduan Comillaseko ikasle ohiek, mundu guztiko leku askotan sakabanatuta gero. Legez egiten ziran noizbehinka batzarrak

lurralde bakotxean. Ni "ohia" izaten hasi nintzanean, Durangoko jesuitetan batzen ginan Bizkai, Gipuzkoa eta Arabakoak. Benetan zan anai artekoa.

Baina gauza bat ez genduan ondo ulertzen, gazteenok batez be. Gotzaina, Pablo Gurpide Jauna, Comillasekoa bera be, han egoten zan, baina danok sartu ahala, belaunikotu eta mun egiten geuntsan eskuan. Orduan be ez geuntsan hartzen horri "anai arteko"tasunik.

Ez dakit zenbat iraun eben batzar horreek, baina amaitu zirenean, batzen jarraitu dogu beti Bizkaiko sei edo zazpik. Urtean bost-sei bider izaten dogu batzar hori, orain beti Bilboko leku berean, alkarregaz eguneko bazkaria jan eta ordubete inguruko barriketaldia egiteko. Azken urteotan, abadetza itxitako hiru-lau gehitzen jakuz, danak Bizkaikoak izan ez arren, hona ezkondutakoak. Eurak egoten dira ia pozen batzar labur horretan.

Zaila izaten da norbere urtean ibili ziranekin batzea. Behin be ez dogu lortu holakorik, gure gaineko kurtsokoei jazoten jaken alderantziz. Honeek, bost urtetik bost urtera, guk lortu ezin doguna lortzen dabe. Geure antzera hain toki ezbardinetakoak eta urrunekoak izanik, erdiak inguru batzen dira behintzat. Neu be izan naz eurekin urteren baten.

Baina, izan ditut nik neure kurtsoko bategaz edo besteagaz ikustaldi eta hartuemon bat baino gehiago.

Asturiasko Obdulio Fernández aitatuko dot lehenengo. Durangoko nire ezagun bati, Oviedon egoala, nongoa zan aurkeztu ebenean, badinotso taldeko batek: "Ezagutzen dozu zure herrian bere gurasoak zapata-dendea dauken abade bat?

"Bai horixe!" izan zan durangarraren erantzuna.

"Ba, ni Comillasen nengoanean, lagunik handienetarikoa neban". Handik urteeran jakin eban durangarrak Asturiasen agintaririk handiena, gobernadore eta Gobernuko ordezkaria zala une horretan, galdera egin eutsana.

Telefonoz izan ezik, kargu hori itxi eban arte ez nintzan hasi orain doguzan hartuemon estuak izaten, bai Oviedon eta bai hemen bertan alkar ikusiaz. Zabaltasunez eta ardura handiz ikusten ditu

gure herriaren hil ala biziko arazoak. Su-etena izan zanean be pozik deitu eustan telefonoz.

Jazoera bitxia azaldu eustan behin. "Gobernuko ordezkari" izendatu ebenean, protokoloak agindurik, gu baino nagusiagoa zan Gabino Díaz Merchan, Oviedoko goi-gotzaina eta Espainiako Gotzainen Konferentziak buru aukeratutakoa, agurtzera joan ei zan.

"Zuk, Don Gabino, gregorianoa abesten irakatsi zeustan" esan eutsan Obduliok.

"Nik zuri gregorianoa abesten irakatsi? Zelan izan daiteke hori? Non eta noiz irakatsi deutsut, ba, gregorianoa? Ah! Ez zara zu izango harako Comillaseko Obdulio Asturiasko meategi herri batekoa?"

"Bai, ba, berbera naz!"

"Orduan, zertan dihardugu hemen protokoloaren menpe bakotxak besteari "tú" barik "usted" esaten?".

Galiziako eta Gaztelako ikaskideak

Orain be lehengo ikaskideen artean hartuemon estuan jarraitzen dogula aitatzeko, Galiziara jo behar, arlo guztietan ertz bitan dagozan lagun bi aintzat hartuz. Baserri giroko López Calo eta uri eta intelektual giroko Manuel Espiña.

Barakaldotik deitu eustan honek Elorriora, orain urte asko ez dala. Barakaldoko "Centro Gailego"n egoan, gailegoz mezea eta gero hitzaldia emoten.

Han izan nintzan berehala. Euskadiko lehendakaria izan banintz be ez ninduen hobeto hartuko "Centro"ko zuzendariek. Afal ostean, ekarri ebenek aginduta euken hotel dotorera barik, neugaz etorri zan etxera, hiru egunerako, lagun min dodan hori.

Neugaz ibili zan Elorrion eta inguruan, euskerazko mezak eta mezako abestiak txundituta entzuten, alkarteak miresten, erakusten jakon guztia begi onez ikusten. Handik egun batzuetara, Galizian gehien saltzen dan egunkarian, *La voz de Galicia*-n hain zuzen be, berak idatzita agertu zan "Os meus amigos vascos" idazlan irakurgarria bialdu eustan.

Castillako beste hiru lagunegaz be hartuemon gozoak izan dodaz uda batzuetan. Toledoko Jose Domínguez, Palentziako Jose Martínez Ruiz, "Azorin", eta aurreskua hain ondo ikasi eban Valladolideko Santiago Martín Peñagaz, astebete egin neban, uda baten, Galiziatik zehar eta beste astebete, beste uda baten, Euskal Herria erakusten, Elorrion lo egiten ebela.

Iparraldeko Sarara joan ginanean, harrituta geratu ziran, abadea non dagoan galdetueran ez nebala frantsesa erabilten, euskerea baino, sumau ebenean. Nire adiskide Mixel Idiart abadea aurkitu genduanean, bere etxera eroan ginduzan.

Berak euskeraz egiten ebana, nik lagunei gaztelerara bihurtzen neutsen, eta nire lagunek gazteleraz egiten ebena, nik Mixeleri euskerara. "Baina, ez ete gagoz Frantzian?" zan euren itauna.

Abadeok liburutegia erakusteko ohiturea geunkala eta bere bibliotekea erakutsi behar euskula esan euskun Mixelek, irribarre maltzurtxua eginez. Gu, ze liburu ete eukan, zuhur! Edegi eban araza handi bat eta... non agertzen dan dana edariz beterik! "Hau da nire biblioteka" esan euskun, berak eta besteok barre egiten genduala.

Nafarroako Arizkunera heldu ginan bazkaltzeko. Zerbitzera etorri zan neskatileagaz nik euskeraz niharduala eta alboan egozanak be euskeraz ziharduela sumau ebenean, eurek, barriro be harrituta: "ez al da hau Nafarroa eta ez "País Vasco"a"?

IX
IURRETAN

Lehenengo ezkontzak

Adiskide giroa, unibertsaltasun giroa, otoitz giroa... Comillasen, orain gomuta baikorra izateko eta eskerrak emon beharra sumatzeko.

Goazen, lehenera begira gagozan mendi tontor horretatik, goratxuago dagoan beste oroipen une batera, abadetzako lehenengo urteetara.

Comillasekoa amaituta gero, abade zeregina beteten hastera, nora eta, nire aitaren herrira, Iurretara joatea egokitu jatan.

Nahiz eta bertako gehienen borondatearen aurka izan, urte horreetan, Durangoko auzunea zan Iurreta, 1926. urtean hasita. 1990etik aurrera, kofradien eta beste erakundeen eraginez, barriro be bere buruaren jabe da. Durango zanean, ez neutsan behin be Iurretako nagusi bati be entzun, nahiz eta Durangokoa izatearen kontra egon ez, bera Durangokoa zanik. Nongoa dan itaunari emon jakon erantzuna, nagusi guztien artean, beti izan da "Ni Iurretakoa".

Comillasen azken azterketa egin eta hurrengo egunean izan neban lehenengo aukerea abade zeregina beteten hasteko.

Ezer ederrik bada, emakumearen eta gizonaren alkarren arteko maitasuna da, betiko eta neurribako izango dana. Era batera edo bestera, eleizaz edo herriz, bideratzen dala, Jainko Aitak edo Jainko Amak deuskun maitasunaren adierazgarririk handienentzat dogu kristauok maitasun hori.

Ba, eleiz alkartearen izenean bikotearen baietza onartzea eta bedeinkatzea egokitu jatan, ikasketei egokienez "karrerea amaitu" eta hurrengo egunean.

Estu eta larri egoan nire bigarren lehengusu eta umetako jolaslagun neban Aletxu, Alejandro Duñaiturria, hurrengo egunean Urkiolan izango zala ezkontzea berbea emonda egon arren, bezperako iluntzean oraindino ez nintzala Comillasetik Durangora heldu eta. "Nasai, Ale, etorriko da" esaten eutsan nire aitak, Alek atzamarretako atzazalak be jaten ebazan bitartean. Heldu nintzan, bai, gauerdia baino lehenago, eta hurrengo egunean izan genduan Urkiolan, niretzat, abade lez, lehenengo ezkontza izango zana, Ale eta Begoña Meaberena.

Handik lasterrera izan neban lehenengokoa Iurretan. Ia arratsalde erdia egin genduan alkarregaz Etxetxuko Rosaritogaz ezkontzeko zan Bittor Lejarazu abadinotarrak eta biok. Gustora, aho zabalik, hartu barri neukan bertsolarien zintea entzuten. Ez zan edozer gauza orduko denporan. Baina, gitxien uste nebanean, Bittorrek, aurpegi tximur-tximurra jarriz: "Baina, biharkoagaitik, ni estu!". Behin esan baleust..., baina izango zan lau-bost bider be, ordu laurenetik ordu laurenera. Aurpegian igarten jakon esturea. "Bittor, bihar egin behar dozuna gehienek egiten dabe, neu lako hiru-lau lelok izan ezik", esaten neutsan nik. Baina alperrik. Bertsolarien bertso ederrak be ez ziran gai bere larria kentzeko.

Heldu zan eguna eta ordua. "Bittor jauna, nahi dozu Rosario andrea emaztetzat..." esaten hasi nintxakonean, berari begiratzea otu jatan. Ha zan ikustekoa! Ez dot ikusi inoiz be aurpegi tximurragorik eta egoera estuagorik. Aurreko arratsaldekoa etorri jatan bat-batean gogora eta... orduan neurea izan zan larria. Barregura ikaragarria etorri jatan, odolak begietaraino igon eustan eta, gehiago ezinean, sekulako barre-purrustadea egin neban. Ikustekoa, orduan, Bittorren aurpegia. Uste dot, une horretan, Rosaritok berekautan esango ebala: "Honeek biok zoratu egin jatazak ala?". Handik urte mordora, euren alabeari azaldu neutsalako haserre egin eustan Bittorrek, gero nasai-nasai barre zantzoa eginda.

Lagun barri bategaz topo

"Coadjutor de Yurreta y encargado de Orobio" izan zan nire lehenengo izendapena. 1959. urtea zan. Izendapena zala eta, Gotzaindegira joan behar izan neban zeozertan. Ozta-ozta nekian non egoan.

Sartu nintzanean, ezagutzen ez neban abade bat aurkitu neban, bera be, nire antzera, bikario nagusiak barrutik noiz deituko zain. Agurtzearren, jesarten ninoiala, "Esperando, eh!" esan neutsan. Izan be, erdera bakarrik entzun neban aurretik inguru haretan.

Berak, irribarretxua ezpanetan, sorbaldeagaz atzera-aurreratxu bat egin, eta badineust: "Zer, euskalduna zara?". Nik: "Bai, horixe!". Berak, barriro be irribarre eginaz, eta Arratiako doinu bereziaz: "Orduan, zergaitik dinozu ba *esperando*?". "Ez deustazu minik egiten gero, bestetara baino. Ez dakizu zelako poza emoten deustazun" esan neutsan.

Biok alkarregaz joan ginan gero trenean eta lagun handi egin ginan. Orduan Apatamonasterioko parrokian abade egoan Txomin Artetxe zan gotzaindegian topo egin neban abade hori.

Atsekabea hartu neban Apatatik atera ebenean, baina zelan diran gauzak!, nigandik hurrago geratu zan Ibarrurira joanda. Behin baino gehiagotan joan izan nintzan Oromiñoko dotrina-umeekin Ibarrurira, Txominen parrokiara. Gaztainak eta ez dakit zer gehiago jaten eben, alkarregaz, alde bietako umeek. Orain be jarraitzen dauen adiskidetza sortu zan bateko eta besteko umeen artean.

Gero, Muniketatik behera umeak bialdu Oromiñorantz, eta Txomin eta biok Muniketako tabernara. Alde bateko eta besteko, Iurretako eta Ibarruriko abadeak etxean ebezala eta bertakoak pozik. Eta gu biok amaitu ezineko barriketaldiak egiten... ez dakit zein ordutara arte.

Handik urteetara, lagun batzuen aurrean, Txominek aurpegi iluna jarri eta hau bota eustan: "Heuk emon deustak nire bizitzako atsekaberik handiena". Nik, harrituta: "Nik?". "Bai, heuk!... azkenean neuk esan behar egun baten, edo hobeto esateko, goizalde baten, "Hi Juanito, goazak etxera"!".

Rusia txikin?

Inoiz eta inon zoriontsu izan banaz, nire Iurretako urteetan izan naz. Iurretako abade-laguntzaile eta, Iurreta barruan, Oromiñoko arduradun.

Batek *Rusia txiki* esaten eutsan Oromiñori, orduan esaera horrek eban esangura okerraz. Niretzat, ostera, orduko *Rusia txiki* ez eze, *Zeru handi* izan zan eta da Oromiño.

Hemen liburu osoa bete daiteke nire oroipen gozoekin eta Jaunari eskerrak emon beharragaz. Zaharrak, adinekoak, eta gazteak eta umeak batez be... zelako oroipenak! Jainko maitasuna eta oraindino bizirik baina arriskuan egoan gure herriaren nortasuna zaintzeko gogoa lotzen, zenbat ahalegin! Ze pozik joaten nintzan egunero umeei eskolan, euren eskola lana amaitzen ebenean, dotrinea emotera. Eta dotrinea amaitutakoan, bertan, abestiak, bertsoak, euskal alfabetatzearen hasiera...

Lambrettan jarten nintzanean, abiada hartu orduko, han izaten neban atzeko jesarlekuan jesarrita mutiko edo neskatoren bat. Ezin, ba, bultza eginda bota, eta horregaitik, hegazkinean baino pozago joiazala, eroaten nebazan motorrean, metro batzuetan.

Hurrengo arratsaldean: "Eroango deustazu?". Sudurretik helduta, nik, "Zer eroango deutsut, ba? Sudurra? Ala atzean daroazun zorroa?". Neuk be antzera ikasi neban, umetan, *deustazu* eta *nozu* bereizten.

Dantzariak eta maitemintzea

Gazteekin, mutilen dantza talde barria ikustera eta bultzatzera, eta nesken abesbatza prestatzera eta zuzentzera joaten nintzan. Eta han eta hemen antzeztuko genduzan antzerkiak irakastera. Uste dot lortu genduala euskerearentzat eta gure izaerearentzat galtzen etorren estimu urria goitik behera aldatzea.

Iurreta zeozergaitik entzutetsua izan bada, dantzariakaitik izan da. Oromiñon bertan ez ziran gogoratzen inoiz dantza talderik izan eben ala ez. Gazteak horretarako gogotsu egozanez, Durangoko

Oromiñoko dantzariak, 1960.

Pedro Mari Andreu ekarri neutsen ezpatadantzea, aurreskua, zaragidantza eta abar irakatsi egiezan. Ikasi eben bai, ondo ikasi be!

Negu-neguan eroaten neutsen Iñaki Sopelana, txistua jo egien. Motorrean, atzean, egiten eban hotzaren hotzaz, ez nintzan ausartzen etorri eiten esaten be. Baina, nik ezer esan barik hiru-lau egun igaroten ziranean, berak esaten eustan ea noiz joan behar genduan. "Irunsten dogun hotzagaz, gogotsu hartu jok honek, gero!" esaten neutsan neure buruari.

Laster igarri neutsan zergaitik gura izaten eban hain bizirik Oromiñora joatea, edurtza handiena jausita be. Zubizarretatarren eta Sakristaueneko atartean izaten zan dantza-saioa. Maria Luisa Arroitajauregi, hamasei urteko neskatila polita egoten zan Iñakiren atzean, euren atetik dantzariei begira... eta, batez be, atzea emonda eukan txistulariari begira.

Handik urte gitxira, ni ordurako Markinan nengoala, izan genduan bien ezkontzea. Eta urte gitxi dirala ospatu genduzan zidarezteguak, Egaña eta Peñagarikano bertsolari handiak parte hartzen ebela, eta urte gitxiago dirala, bigarren semearen, Josuren, ezkontzea. Zelan joaten diran urteak!

Arriandin be, mila bederatzirehun eta berrogeta hamazazpian, ni joan baino urte bi lehenago, sortu zan ezpatadantzari taldea, nire senide dan Juan Antonio Alberdi *Pertxe* eta gazterik hil zan nire adineko Bernardo Larrinaga *Arki* irakasle zirala.

Urteetara, talde barriak sortu ebezan talde horretako Jose Agustin Belarrek, Roman Basabe nire lehengusuak eta Iurretako bertako Mikel Sopelanak.

Uztailaren hamazortzian dantzan egin behar ebela eta dantzaikurrinik oraindino ez eukenez, Arrazolara joan ziran arrianditarrok, nire izenean, Jose Antonio Retolazagana, ea itxiko eutsen.

"*Dieciocho de julio*rako? Ezta inondik inora be! Eskatzen ausartu be!".

"Ez, baina ez da uztailaren hamazortzia dalako, Santa Maña dalako baino, Arriandiko jaiak".

"Ah, orduan bai, pozik be!"

Oromiñon be, orduan sortutako taldekoak ziran gero gazteagoei irakasten eutsenak. Makina bat izerdi atera eban Sakristaueneko Pedro Arroitajauregik, Goitiko Jose Antonio Zamalloak lagunduta, bigarren eta hirugarren taldeak sortzen.

Ez ziran neskak, dantza arloan be, atzean geratu. Orduantxe sortu ebezan talde bi, Durangoko Lidia Pérez irakasle zala.

Oromiñoko bost taldek egin eben dantzan, batera, San Markosen baseliza ondoan, nik alde eginda laster, orominarrak adurra erioela egozala.

Danak batera?

Iurreta bertako kofradi-auzunean etenbakoa izan da ezpatadantzarien tradizinoa, nahiz eta ez bertako kofradiako lagunez baka-

rrik, baita beste kofradietako lagunez be osotuta egon. Beti izan dira Oromiñoko eta Arriandiko eta beste kofradietako dantzariak Iurretako sasoi bateko eta besteko dantza-taldeetan.

Urte horreetan, aurrekoei jarraiera emongo eutsan talde barri apain-apaina lortu eban Jose Mari Zarrabeitiak, gaztetxuekin. Txonpolonean ekiten eutsen ikasten, txistulari Iñaki Sopelana ebela. Ni abade egin nintzan egunean egin ei eben lehenengoz dantzan, San Migel aurreko egunean, 1958ko irailean hain zuzen be, oraintsu jakin dodanez.

Hiru kofradiatan ezpatadantzari taldeak egozala eta, uste izan neban gauza ederra izango litzatekela, Iurreta guztiko zaindari dan San Migeletan, une baten behintzat, herriko talde guztiak batera agertzea eta dantzan egitea. Oso egokitzat jo eben urte haretako jaien antolatzaileek asmo hori, eta hori jarri eben jaien egitarau papeletan.

Ene Maria eta Jose! Haserre be haserre jarri jatazan nire lagun handi ziran Jose Mariren ume ezpatadantzari guztiak, nahiz eta eurek ez baten bakarrik, beste ez dakit zenbat bider be, egin behar eben jaietan dantzan.

Aldi baten bakarrik danek batera egiteak izan eban arrakasteak eta zentzunez gauzak ikusteak, baretu eban haserrealdi hori. Hurrengo urteetan be, uste dot beti egoten zala herriko talde guztiek batera egiten eben egun bat edo une bat. Sarritan aitatu dot gero hori orduan, ume izanik, aurka egozanekin, eta barre egiten dabe. Eurak izan ziran gero danak alkarregaz egiteko zaleenak.

Satanas sotanaz eta belarriondokoak

Satanas sotanaz antzerkia idatzi euskun irudimen bizia eban eta dauen aita Martzel pasiotarrak. Oromiñon, Bazterreko Juan Luis Arregi, nire meza laguntzailea edo, hemen esaten dogunez, erasotzailea, zan Satanas egiten ebana.

Antzeztu baino egun bat lehenago, azkenengo ikastaldia izan genduan eskolan bertan. "Hasi hadi, Juan Luis" nik. Mutikoa isilik eta geldi. Neska nagusitxuak itxaroten egozan eurek be abestiei azken orraztua emoteko.

"Hasi hadi, ba! Ez dok ikusten neskak itxaroten dagozala?"

Mutikoak "ji!" esan eta geldi.

"Hasiko haz?".

Ez da hasten ba gure Juan Luis mutikoa eskolako jarleku batetik bestera saltoka, harrapauko ez dodalakoan? Harrapau neban bai, bizkor harrapau be, berak baizen arin egiteko gauza nintzan orduan eta.

Plisti-plasta, emon neutsazan belarriondoko batzuk eta esan neutsan: "Egik negar, gura badok, hor bazterrean".

Jarraian: "Mari Karmen, hasi zeu". Hasi bai "Hau da umearen ederraren ederra", baina umeen gauzak!, berari, neskea zanez, ez neutsala ezer egingo eta, harek be, jarraitu beharrean, "Ji!".

Beste barik, hari be, urrunetik be entzungo zan plastakoa. Gogoratzen da orain be matrailako haregaz geroago "Miss Durango" izendatu eben Balierreneko Mari Karmen.

Txarrena, Juan Luisen aitak jakin ebanean jazo zana. Ezerezean itxi ebazan nire matrailako biak edo hirurak. Sekulako astindua emon eutsan. "Ea eta abadeak jo behar!". "Nahikoa izan dau neureagaz" esan neutsan aitari. Orain jazo behar holakorik!

Zelako barreak egiten doguzan Juan Luisek eta biok, batzen garean bakotxean. Oraintxe be buruz daki bere Satanasen papela. Ah! Eta hori jazo eta hiru-lau egunera, biok joan ginan alkarregaz Oizeko San Kristobalera, niri mezatan lagunduta edo mezea erasota gero.

Orobiorrementeriako Begoña Uria izan zan Mari Karmenegaz andra txatxalena egin ebana eta Artatzako Mari Tere Basagoitik eta Makinako Pedro Mari Ugartek hartu eben Ama Birjinearen eta San Joseren lekua, eskuz egindako Jesus umea zaintzen ebela.

Elorrioraino be joan ginan geure antzerkiak antzeztera. Gogoan dot zer esan eustan hango ezagun batek:

"Zer, ez dago erderaz, beste lekuetan egiten daben moduan, antzerki hoberik, ala?"

"Bai, eta inglesez be bai. Shakespeare dogu antzerkilaririk entzutetsuena eta bereak izango dira, beharbada, antzerkirik onenak!" erantzun neutsan.

Zelako konplejuak norberaren hizkuntzaren aurka!

Ez zan izan Elorrio gure antzerkia, dantzak eta abesbatzaren lau ahotsetako abestiak aurkeztu genduzan leku bakarra. Abadinoko kultura etxean, Arrazolan, Bernan, Arriandiko Maria Goretti ikastetxean eta Gizaburuagan be izan ginan. Hemen, Juan Antonio Aroma txistulari aspertuezinak lagundu eutsan abesbatzari "Atzo arratsaldean" abesten.

Geure kultura bidetik

Beti gogoan izango dabe Oromiñoko orduko umeek, lehen aitatu dodanez, Bilbon Arriaga eta Coliseo Albia antzoki ospetsuetan, betebeterik egozala, zelako txalo beroak hartu ebezan euskerazko lehenengo sariak irabaztearren eta gero han danen aurrean eurek idatzitako ipuinak irakurtearren eta abestiren bat abestearren.

Ez naz ni gogoratzen zehatz-mehatz zein sari, zenbat bider eta zein mailatan irabazi eban bakotxak. Pozik jarriko neukez danak hemen. Baina, urte mordoa joan da eta lainotu egin jat sariketa horreen gomutea. Orduan ume ziran iturrietara euretara jo dot, baina eurek be ezin izan deustez emon argitasun guztiak.

Santueneko Kristina Mardarasek badaki lau bider atera ebala lehenengo saria. Zugatzagoitiko Irene Sarrionandiak, Arratera joan orduko, badaki sari nagusiren bat atera ebala, baina ez da gogoratzen zenbat bider izan zan. Beste horrenbeste esan behar Mari Karmen Balierregaitik, txikienen mailan. Honen gomutan geratu da, hamaika urte izanik, berak idatzitako ipuina irakurtea amaitueran hartu eban txalo zaparradea. Adinagaitik bigarren mailan aurkeztu zan Bazterreko Mari Tere Zugazartazak gogoan dauka, birritan behintzat, lehenengo saria lortu ebala. Etxandietako Rosa Mari Gandarias be gogoratzen da, lehenengo urtean edo, bigarren saria ateratearren, "Euskaldun jaio nintzan, euskalduna hazi..." abestu behar izan ebala.

Ete dago Jesuiten Indautxuko Ikastetxean edo Euskaltzaindian bertan edo beste nonbait, Aita Patxi Kortabitarte jesuita jatorrak, orduko denpora zailetan, Bilboko euskaltzale batzuen laguntzaz, era-

tutako sariketa horreen argibiderik? Jakingarria izango litzateke Oromiñoko, Laukizko, Bilboko ikastetxe bat edo besteren... historia txikirako.

Galdera bi gogoratzen dabez orduan ume ziran Oromiñotarrek: "Zeinek dau pisu handiagoa, kilo bat harrik ala kilo bat galtzuk?" zan lehenengokoa. Eta hauxe bigarrena: "Zenbat botoi ditu zure herriko abadearen sotaneak?"

Nork ez eutsan erantzungo lehenengokoari harriak eukala pisu gehiago? Ez al da harria galtzua baino pisutsuagoa edo astunagoa? Jakina, ba!

Eta bigarrenari, txapeldun geratu zanak behintzat, honako hau erantzun eutsan: "Erdiak eta beste hainbeste!" Antza danez, ondo zenbatuta eukazan nire sotanearen botoiak.

Entzutetsu egin zan aldi haretan Norbert Tauer, euskereagaz maitemindutako hizkuntzalari eta jakitun txekiarra. Bera izan zan, urte baten, euskeraz eskutitz gehien idatzi ebazana. Horren saria irabazi eban, behintzat. Euren arrakastagaitik hain pozik egozan umeak berari idazten ausartu ziran. Gutun mordoa idatzi eutsoen batak besteari Norbert Tauerrek eta Kristinak. *Zeruko Argia*ra herriko barriak bialtzen be hasi zan hau.

Bilboko Arriagakoagaz eta Coliseokoagaz batera, Durangon gazteek izan genduzan ekinaldi bi geratu jakuzan danoi gogoan. Danetariko norgehiagoka baten, Durangoko Astarloa zinetokian hain zuzen be, Oromiñoko neskek ahotsetara abestu ebezan kantu bi. Txalo zaparradea izan genduan Mokoroaren "Sorgin dantza" abestu genduanean, abesteko bape erraza ez dana.

Bigarrena, San Frantziskoko monjen ikastetxeko areto nagusian izan genduan abestialdia, dantzaldia eta antzerkia. Dantzaldia, tokiak gehiagorako emoten ez ebanez, Zamalloatar Serafin eta Jose Antonio anaia bikotxen eta azkarren esku egon zan. Binakoa egin eben, betiko txistulariak lagunduta, Iñaki Sopelanak, hain zuzen be. Nesken koruari be beronek lagundu eutsan "Atzo arratsaldean izandu ginan..." abestu ebanean.

Bai lehen aitatutako ekinaldian, bai azken honetan, abestu eben oraindino ia ume zala hil jakun Etxezaharreko Maria Isabel Badiolak eta handik urte gitxira, irakasle eginda gero, joan jakun Trazolako Amaia Gorroñok be.

Kristina Mardarasek aurkezpena egin ebanean, ia argi guztiak amatau ziran, antzoki garrantzitsuei jagokenez, baina han ez egoan irakurri ahal izateko beste argi. Eskerrak buruz ekiala!

Gerra ostean euskera hutsean egiten zan lehenengoko ekinaldia izango zan Durangon. Hizkuntza mordoa ekian Eduardo Rian abade jaun jakitun eta jatorrak eroan ginduzan eta dana eratu.

Han izan zan gure amama Errosa be. Eta euskal jaia zalako, Julene Azpeitia idazle ospetsua etorri jakun, orduan Durangon bizi zan eta, etxean eukan soinekorik dotoreena jantzirik eta eskubitorrean eta sama inguruan bitxi eta iduneko dotoreenak jarririk.

Ez jaku behin be ahaztuko arratsalde ha!

Bertsolariak

San Markosak izaten dira Oromiñoko jaiak. Beti izan dira mutilak euren jaiak antolatzen eta ospatzen.

Oraindino urriak ziran bertsolariak eta bertso saioak. Ez dakit nork bialduta, Basarriren, handik urte mordora adiskide izango neban Jon Azpillagaren eta besteren baten bertsoz hornidutako magnetofoi zintea heldu jatan eskuetara. Zenbat bider entzun neban eta zelako poza emoten neutsen bertso egarriz egozan hainbeste nagusiri!

Orduantxe hasi zan Alfonso Irigoien bilbotarra han eta hemen bertso saioak antolatzen. Ordura arte, ozta-ozta geunkan Balentin Enbeitaren, Arratiako Pujanaren eta Jon Azpillaga gazteagoaren barririk. Ez dakit ordurako hasita egozan nire amaren lehengusina Arantza Agirreren senarra Deunoro Sardui eta Jon Lopategi. Egia dana da bertsolaritza gure artean arnasa hartzen hasi zaneko urteak zirala horreek.

Ba, orominarroi ez jakun gogoratu besterik, hamalau urteko eta hamaika urteko bertsolariak ekartea baino. Arrakasta ikaragarria

izan eben. Baina, nortzuk ziran, ba, hamalau eta hamaika urte bakarrik izanda bertsotan hain ondo egiten ebenok? Muxikan dagoan Ariatza auzuneko Ireneo Ajuria hamalau urtekoa eta, praka motxetan, Jon Enbeita, hamaika urtekoa. Gogoan izango dabe eurek be.

Gerora, Oromiñoko hazia izango eben bertsolari handi bi sortu ziran Durangon. Gure orduko gazteen taldeko Txalekoneko Josefina Zugazartazaren semea bata, Unai Iturriaga, eta Larrako Jaime Elortzaren semea bestea, Igor Elortza. Hainbat bider Bizkaiko txapeldun izandakoak eta Euskal Herri guztiko txapela be hur-hurrean ikusitakoak.

Gure artean ohitura handia dago ateraldi zelebreak izaten dituenakaitik "horrek bertsolari sena jaukak" esateko. Hain zuzen be, bertsolariak aitatzean, Tabernabarriko Jose Mari Lizarralderen, *Txantxa* gaztetxuaren, ateraldia etorri jat gogora. Beragaz eta beste gaztetxu batzukaz, euretariko bat Juan Inazio Abasolo, Iurreta gainean dagoan Goiurirantz ninoiala, hilerri edo kanposantu ondora heldukeran, badineust, irribarrezko aurpegi ilun antzekoa jarriz: "Jauna, sano bagara, hona etorri behar dogu danok!".

Baseleizea barriztau

Harrigarria izan zan, orduan Arrazolan abade egoan Jose Antonio Retolazaren esanera Lander Gallastegi arkitektoak, gogotsu eta zentimorik jaso barik, San Markos ermitea barriztau ebanean, herriak emon eban laguntza osoa, bai diruz, bai lan eginaz. Egun gitxi behar izan ziran hormen behekaldea kare barik, agirian, ixteko eta "juntak" hartzeko. Izan be, han ibili ginan, jo eta ke, izerdi baten, gizonezko gehienok.

Istorioak izan genduzan baseleiza horren barriztatzea zala eta. Aurretik emoten eban diru-laguntza guztia ukatu euskun Durangoko andra aberats batek. Batetik, berak ordaindutako kurutze-bidea, barriztatzeari egokiona jartearren, kendu behar izan gendualako eta, bestetik, herriari barriztatzearen barri emotea eta diru-laguntza eskabidea euskeraz idatzitako eskutitz baten bidez egin geuntsan moduan, berari be beste horrenbeste egin geuntsalako.

Aurreko horman jarri zan Kristoa askok miresten dabe orain, ikusten dabenean. Lander Gallastegiren asmakizuna izan zan ha be. Berak zirriborratu edo diseinau eta beste batek landu eban. Azken horrek, Landerrek esan euskuna baino askoz be diru gehiago eskatu euskun. Orduan, Landerrek adiskide bat galtzeko arriskuaz, baina gizatasun osoz, esan eutsan:

"Zerk balio dau gehiago, zuk ala nik egindakoak?"

"Argi dago, zuk egindakoak askoz be gehiago balio dauela" izan zan tailistearen erantzuna.

"Orduan, zureari nirea gehituaz, honenbeste da. Ausartuko litzateke inor Kristo horregaitik guzti hori eskatzen? —esan eutsan Landerrek.

"Ba, ez"—izan zan erantzuna.

Landerren gizatasunagaitik ordaindu ahal izan genduan berak asmautako Kristo modernoa, baseleiza haretan hain egoki geratu zana.

Milagros Cedrun eta oraintxe hil barri dan Pedro Jose Zubizarreta joan ziran Kristoa zizelatuta egoan ez naz gogoratzen zein herritara, eta Oromiñora ekarri. Arroitajauregitarren etxeko ohe baten ezkutauta egon zan luzaroan, badaezpadan. Zer esanik be ez ondo zaindu ebala etxean Juanita Aranzeta serora fin eta urduriak. Ama baten antzera zaindu ebazan edo zaindu ginduzan handik pasau ziran eta pasau ginan abadeak be, gordeta eukan Kristoak baino guk gastu gehiago sortu arren.

Azken ordainketa arazo honeetan nik be esku hartu arren, ordurako Julen Kalzada etorrita egoan Iurretara eta, beraz, Oromiñora be. Ni, aitatuko dogun *kleromotoa* zala eta, Markina aldera joan barri nengoan. Baina zorrak-eta kitatuta itxi gura izan neutsazan hurrengoari. Kristo horren argazkia ekarren azalean, handik laster *Gogor* abade-taldekoek atera eben diskoak.

Eleiztar

Hasten ziharduan, orduan, Eleiza guztian, mezatan danek esku hartzeko ohitureak. Ez eben atzera egiten Oromiñoko gazteek. Laster hasi ziran, batean bata eta bestean bestea, aurretik bialtzen neutse-

zan mezako irakurgaiak irakurten, eta herriak abestuko ebazan kantuei hasierea emoten.

Aita Iñaki Goikoetxea jesuiteak *Otoitz abestiak* izeneko liburutxu baten batutako kantu guztiak edo gehienak ikasi genduzan, mezatan abesteko. Bera be etorri jakun inoiz. Soldadutzara joatekoekin —ez ziran gitxi izaten— hausnarketa eta otoitzaldi eguna izaten genduan.

Orduantxe atera eban Jaime Kerexeta elorriotar abadeak liburu polita be polita, bizkaiera errazean eta aberatsean: *Jesu-Kristo gure Jaunaren Barri Ona*. Lau ebanjelioetatik hitzez hitz atera eta laurak alkartuta. Geroago aterako eban Biblia osoa bizkaieraz.

Ez zan geratuko Oromiñoko etxerik liburu barria hartu barik. Nork esango eutsen, ba, ezetz, hain gogotsu saltzen ibili ziran Begoña Cedrun eta Maria Luisa Arroitajauregi neskatilei? Baina ez zan izan hartzea bakarrik. Irakurri be etxe askotan irakurten ziran ebanjelioko berbak, liburu hain txukunetik.

Bakixako eleizatxuan be mezea ospatzen zan domekero. Don Jose Maria Dañobeitia etorten zan Durangotik, urte batzuetan. Gero, bidezkoa zanez, Iurretako abadeok hartu genduan bere lekua, eta neu joaten nintzan nire Iurretako azken aldian.

Beste leku batera joateko, Markina aldera hain zuzen be, azken agurra emon nebanean, ez dakit zelan, baina nahiko ondo eutsi neutsan barruko hunkipenari, San Markosen. Ezin izan neban beste horrenbeste egin Bakixan Berbaldia amaitu ezinik, aurrera begira jarri nintzan, orduan meza guztia berbaldia izan ezik izaten zan moduan. Egun horretako bigarren mezea Bakixan barik San Markosen izan baneu, han jazo izango jatan hori.

Euskaldun irakasleak behar

Lehendik buruan sartuta neukazan gauza batek edo bik geroago eta indar gehiago hartzen eben nigan, Oromiñoko umeakaz nenbilela. Ez egoan euskaldunen artean irakasle izateko amesik ez gogorik. Beste edozein ogibideri emoten jakon garrantzi handiagoa eta ikusten

jakon etorkizun hobea. Baina, Franco betiko ez zanez, laster beharko genduzala irakasle euskaldunak, eta ugari behar be, uste neban nik.

Horregaitik, Oromiñon neukazan neskato hain argiei irakasle izateko gogoa sartzen ahalegindu nintzan, euren askatasun osoa kontuan harturik, jakina!

Bestetik, antxinatik ikusten neban Durangotik bat eta bi baino gehiago joaten zirala hortik zehar karrerak ikasten, ez argiak ziralako ezta horretarako deia sumetan ebelako be, euren gurasoak aberatsak ziralako baino. Baserrietan, ostera, hor geratzen ziran karrerarik ez ezer be barik, balio handiko neskato-mutikoak.

Gogoratzen naz noiz hartu eban indar gehiago gogoeta horrek. Etxeko preminek eskatuta, nonbaiten ikasten jarraitu barik, eskolakoa amaitu ebanean, astotxu bategaz ogiak banatzen ikusi neban argia be argia zan Irene Sarrionandia neskatoa.

Jainkoari eskerrak, egun batzuk lehenago Arrate Santutegiko don Pedro Gorostidiren deia hartu neban irratirako balio eban neskaren bat behar ebala esanez. Joan nintxakon Ireneri eta, esan neutsanean, etxeko baietza eta baimena eskatzera joan zan poz-pozik.

Nahiz eta hamalau urte baino izan ez, laster egin jakun sekulako esataria Arrate Irratian. Beraren antzeko argia eta bizia zan bere lagun Kristina Mardarasek ez eutsan lagundu, baina, honek be irakasletza ikasteko bideak urratu ebazan, geroago, horretan Mari Tere Zugazartazak, Amaia Gorroñok... , eta Irenek berak jarraitzen eutsiela.

Lehengo ohitura batzuk

Baina ez zan Oromiñora mugatzen nire abade betebeharra. Lehenengo eta behin, Oromiñoko arduradun izateaz batera, Iurretako abade-laguntzailea be banintzan.

Zelako izerdiak urten eustan gorputz guztian parrokian ez dakit noiztik etorren ohitura zahar bat bete beharra izan nebanean. Eleizako atzeko aldean jarten ziran andra piloa euren hildakoei errespontsuak aterateko.

Betebehar hori izan neban lehenengo domekan, joan nintzan nire boneteagaz eta isopuagaz. Baten aurrean Aita gurea esan eta beste bategana; harena amaitu eta hurrengokoagana. Ez zan luzea izan errespontsuak esate hori.

Banoa sakristiara, eta Don Frantzisko parrokoak: "Zer, ez dok egin ala?" Nik baietz, amaitu nebala. "Baina zelan hain bizkor?". Ez nekian nik, bakotxagaz pater nosterrak esaten egon behar zanik, berak txakur handiak neure bonetean jarteari itxi arte.

Ha zan izerdia botatea hurrengo domekan gauzak behar dan moduan egiten hasi nintzanean! Gehitu egiten zan izerdiak urtetea, korutik gazte eta zahar begira-begira ikusten nebazanean eta, gero esan eustenez, don Kanutok pater noster bakotxeko ea zenbat denpora kentzen eustan neurtzen egozala konturatzen nintzanean. Ez eban iraun luzaro antxina-antxinatik etorren ohitura horrek.

Ezta beste honek be: lau maiordomok urteten eben ofertorioan, bakotxa kutxa bategaz, diru batzen, laurak batera bata bestearen atzean. San Antoninoren, Arimen eta San Migelen alde eskatzen eben hiruk, eta ezkongea izan behar eban laugarrenak, Errosarioaren alde. Lau, guztira! Eta beste une baten, sagaratze ostean, sakristaua, orduko eta oraingo Ezekiel gizon jatorra, jatorrik bada, agertzen zan, batzuen esanean sakelean dirurik geratzen bazan edo, parrokiaren alde batzen. Zelango lotsea eta esturea nirea! Baina ohiturea zala-eta bidezkotzat joten eben gehienek.

Ohitura onak? Ohitura txarrak? Beti eta gauza guztiekin jazoten da hori. Ezin daikeguz lehengo gauzak eta ohiturak oraingo eretxiak eta neurriak erabiliaz epaitu. Leku, kultur-une eta sasoiak ez dira bardinak izaten, eta orain lotsagarria deritxaguna izan daiteke lehengo denporetan bidezko-bidezkoa izatea. Nik, orduan egokiak eretxi ez arren, baleiteke sortu ziranean ekandu jatorrak izatea eta guk gero ikusten ez genduan zentzun jatorren bat izatea.

Ohiturak aitatu doguzanez, galduta egoan, ni joan nintzanean, gabonzaharretan kirtenkeriak egiteko ohiturea. Zertzuk egiten ziran lehenago gabonzaharretan, nagusiek esaten ebenez!

Ez dakit zergaitik izango zan, baina ohitura zahar horreek barriztetako gogoa etorri jaken, une baten, Oromiñotar batzuei.

Banoa goiz goizez, San Markora, lehenengo mezea emotera, eta non ikusten dodan, motorraren argi motelaren laguntzaz, aldatsgorea hasteagaz batera, bidean batetik besterainoko halako marra antzeko bat. Ez eustan emon astirik gelditzeko. Zugatz enborra zan, bidean egoan batetik besterainoko hori. Jo neban, baina ez jatan ezer jazo. Motorrak matxura txiki bat.

Eskerrak behetik gorantz ninoiala. Goitik beherantz beste motordun bat edo kotxedun bat etorri balitz, edozer jazo eitekean. Laster baten kendu genduan enborra bidetik, holakorik jazo ez eitean.

Handik ordu erdi baino lehenago, hauxe esan neban, beste gauza batzuen artean, homilian: Jaungoikoak ez deuskula emon burua sama gainean eroateko, beragaz pentsetako baino. Ez neban gura izan nortzuk ziran jakiterik. Gero horretan ibili ziran guardia zibilak be ez dot uste jakin ahal izan ebenik.

Oromiñoko nagusi batzuk Arantzazun, 1961.

Geroago entzun nebanez, damututa ei egozan arrisku hori jarri ebenak. Ez ziran konturatzen, eta neu be ez orduan, gure herrian eta munduko beste herri askotan oinarri sendoa eukan ohiturea zala egun horreetan gehiegikeria batzuk egitea.

Izan be, joan joian urte zaharraren eta etorri etorren urte barriaren artean bitarte bat egoan, legerik ez dagoan bitartetzat hartzen zana.

Zenbat gehiegikeria zelebre baina kaltebakoak egiten ziran gabonzaharretan! Iurretan bertan, aurreko urte baten, astoa jaso ei eben abadetxeko balkoira; soka luze bat jarri eta kanpantorreko kanpai batera lotu ei eutsien sokeori. Hango amaibako kanpai hotsa!

Behin baino gehiagotan jazo ei zan, bat kortara joan eta burdia non dagoanik be ez. Jakina! gauez gazte talde batek hartu eta inguruko solo batera eroanda egoan dalako burdiori. Zenbat holako esaten euskuezan gure aurretikoek!

Igarri barik, esangura sakona euken ohitura horreek, baina inoren bizia arriskuan jarri ezik. Ezin esan gauza bera, baten baten bizia arriskuan jarri ezkero.

Hareek bai kereizak!

Izan zan beste ohitura bat be nire Iurretako denporan amaitu zana. Baina ez nire edo orduan Iurretan abade gengozanon eraginez eta erruz, trafikoa gehitzeagaitik baino.

Lehen lepoan eroaten zan hildako gorpua etxetik eleizaraino. Sarri izan ez arren, behin baino gehiagotan egokitu jatan Oromiñotik Iurretako parrokiaraino gorpuari laguntzen joatea. Eleiz-mutila edo monagiloa, kurutzeagaz, aurretik; abadea, sotana gaineko jantzi zuri laburragaz, jarraian; gorpua barruan eban hilkutxa eroien lau morrosko gero, eta etxeko, lagun, adiskide, aldra luzea, atzean. Behar be morroskoak eta hauspodunak izan behar, kilometroetan hilkutxa lepoan eroateko.

Oromiño inguruko eta Bakixa aldeko edozein etxetatik parrokiara zanean, geldiunea egiten zan, otoitz labur batzuk, errespontsua, egiteko, Arriandin, Donostiatik Bilborako errepidera urten orduko.

Artatzatik izan ezkero, laburragoa zanez eta ibilgailurik ez ebilenez, Goiurirako basobidea hartzen zan, handik parrokiara jaisteko. Behin baino gehiagotan entzun izan deutset Ezekiel Zugazartaza Iurretako betiko sakristauari eta besteren bati, eurek ikusitakoa. Behin, Artatzakoren baten gorpuagaz joiazala, bidetxuaren egoera kaskarragaitik, Meaberen eta Agarreren etxeen bitartean, aurreko anderu biak laban eginda jausi zirala eta eginahalak egin behar izan ebezala hilkutxatik urten zan gorpua barriro be bere lekuan jarten. Aurretik be esan ei eban Teofilo zanak, bera hilten zanean, ez ebazala Goiuri aldekoak bakean itxiko.

Geroago eta arrisku handiagoa sortu zan Arrianditik parrokiaraino dagozan kilometroetan zehar horrenbeste lagun aldran joan ahal izateko. Ez zan urte batzuk lehenago lez, Mallabiena aurreko errepidean gaztetxuek, euren artean gero gotzain egingo jakun gure Karmelok, futbolean ekiten eutsenean eta jokaldi guztian zehar auto bat edo bi, goia jota, igaroten ziranean. "Hi! kotxea jatok!". Astia emoten eutsen, orduan, lau harri sendogaz errepidean eginda eukezan futbol-zelaiko ateak edo porteria biak kentzeko. Zenbat ibilgailu igaroten ete dira orain, ia segundu bakotxean, nahiz eta autopistea be alboan izan!

Itzelean gehitu zan, ba, ibilgailuen kopurua urte hareetan. Orduantxe hasi ziran funerariakoak gorpu guztiak euren autoetan eleizara eta gero hilerrira eroaten. Baina hori izan orduko, jazoera bitxia bizi izatea egokitu jatan. Goiuriko hildako bat eroaten ginoazala, nire aurretik kurutzea eskuan eroiala joian monagiloa (nor ete zan?), Goiuritik beherantz doan bidearen bihurguneari jaramonik egin barik, zuzen-zuzen abiatu zan aurrera, eta jakina!, tupust egin eta bide ondoan egoan erripatik beheruntz jausi zan, kurutzea ez dakit noraino joan jakola, bera kereiza arboleak gelditu arte. Nahiz eta berak hori autortu gura ez gero, aurretik, begiak joan jakozan, eta gero hankak eta gorputz guztia, kereiza eder eta dotore hareen atzetik.

Eguneroko zereginak eta arazoren bat

Egunero emoten geuntsen dotrinea umeei. Goizean, eleizearen aurrean egoan eskolako *maixu baltza* esaten eutsienak bialtzen euskuzan umeak, gugaz ondo konpontzen zan eta. Arratsaldean, neu joaten nintzan, lehenengo orduan Arriandira eta gero Oromiñora.

Arriandin, lehenengo urteetan neuk emoten neutsen bai neskatoei bai mutikoei, baina gero, nire abade lagun Jose Rementeriak eta biok banatzen genduzan zereginok. Oromiñora neu bakarrik joaten nintzan.

Pozik egoten zan, Arriandin, mutikoen irakaslea, Antonia Egibar, gero politikari ospetsua izango zan Joseba Egibarren izekoa, dotrinea euskeraz izaten gendualako. Baina nesken irakasleak hau esaten eutsen neskatoei: "Delante de Don Juan hablad euskera, pero cuando se vaya, que no os pille yo hablando así".

Gure hizkuntza arrisku gorrian ikusten genduan une hareetan, izan genduan arazotxu bat Arriandin bertan, baina, oraingoan, pasiotar monjek eregi barri euken ikastetxean.

Egunero joaten ginan parrokiatik monjei mezea emotera. Inguruko andrak eta gizonak be joaten ziran. Hizkuntza zala eta, ez egoan arazorik. Mezak latinez izaten ziran, eta kito. Baina Sortzez Garbiaren bederatzi urrena ospatu behar zanean etorri zan arazoa. Ni joatea izan zanean, jakina, euskeraz egin neban. Inguruetako meza entzuleak eta monja gazteak, danak, bat izan ezik, euskalduna ez zan bakarra, pozarren, eurek autortu eustenez.

Baina hurrengo egunean, monjen nagusi italiarraren deia izan neban. Luzaroan egon ginan berbetan. Eurentzat bakarrik izan ezkero, eurek nahi eben hizkuntzan egingo neutsela, baina, inguruetako andra-gizonak be egon ezkero, beharrezkoa zala euskeraz egitea. Orduan be, gero eurei egingo neutsela gura eben hizkuntzan. Esateko nasai-nasai joaten jarraitzea gura eben ala ez, eta ezetza esaten baeusten be, euren lagun handiagoa izango nintzala.

Hurrengo egunean edo, euren probintziala etorri zan. "Vengo desde Irun. In castilano, in castilano!" esan eustanean, nik, erdi italieraz (ez uste izan italieraz egiten dakidanik) erdi gazteleraz: "ba,

ondo dago; esan neutsuen lez, lagun handiago izango naz, baina ezin naz etorri hemendik aurrera".

Negarrak-eta izan ei ziran euren artean, gehien be pasiotarrak-eta, batez be, euren espiritu zuzendaria, nik egin nebanaren alde jarri ziranean. Urtebarri egunean zorionak emoten joan nintxakonean, ez ekian zer egin be ikastetxeko nagusiak.

Handik gerora, lagun batek hau bota eustan: "Diplomazia gitxi erabili dok". "Agortu egin joat diplomazia", izan zan nire erantzuna.

Sasoi horretan, hau esan eustan beste lagun batek: "Begira, alperrik zabilze euskereari eutsiten. Geroago eta indar handiagoaz goitik behera doan edur-bola baten antzekoa dok beraren galdu beharra".

Nire erantzuna: "Etxakiat edur-bola baten antzekoa dan ala ez. Niri behintzat, nire kontzientziak esaten jaustak bola horri eutsiten jarri behar dodala, nahiz eta berak ni beragaz batera tarraz eroan. Baina hau eskatzen deutsuet hiri eta hi lakoei: boleari aurrera egin ez daian eutsiten jarten ez bazaree be, ez zaitezela jarri berari beherantz bultzaka".

Larogei gazte

Iurretako urte hareetako oroipen gogoangarritzat dot Arantzazura larogei gaztek egin genduan erromesaldia. Batu egin behar ziran gero larogei! gazte, neska eta mutil. Baina orduan ez zan hain gatxa be.

Eleizan otoitzalditxu bat egin, nire berba labur sutsu batzuk entzun eta han doa Durangotik zehar, oinez, gazte aldra osoa, aurrean makila bigaz eutsita idazkun hau daroala: "Iurretako gaztedia Arantzazuko Amarengana".

Durangoko Montorretatik gora errosarioa errezetan. Gero, batzuk aurrerago, beste batzuk beranduago, danok heldu ginan, goizaldean, Arantzazura. Han, bere irudiaren bidez Maria agurtu, mezea ospatu eta, autobusetan uste dot izan zala, etxera.

Hurrengo egunean, arziprestearen deia izan neban. Ni, harrituta. Ez zan zorionak inori erraz emotekoa gure arzipreste hori, baina hainbeste gazte erromesaldian joateak ikututxua egin eutsala uste izan neban.

Ni bai inozentea! Agiraka baten ez jatan hasi ba? Sekulako haserrea eukan gure arzipresteak. Ea zer zan hori, mutil eta neska alkarregaz, gauez, abade batek eroatea. Begirunea neutsan, baina ezin izan nintzan egon hau erantzun barik: "Bai, erromesaldi horri itxaroten dagoz ezer egin gura badabe egiteko!" Baina hori zan orduan baten baino gehiagoren pentsaerea.

Eroan eben idazkuna euskeraz idatzita egotea be...! Nahiz eta ez eustan aitatu be egin holakorik.

Abesbatza jatorra eta nire azpijokoa

Harro jarten naz honek edo besteak abesten irakatsi deutsadala edo abesten neugaz hasi zala esaten deustanean. Ez da asko behar izaten bat harrotzeko.

Neugaz hasi zala musika-zaletzen esan deust behin baino gehiagotan, orain Iurretako abesbatzaren zuzendari trebea dan Bargundiako Anton Mari Aldekoa-Otalorak. Holan izango da, baina nik Iurretan, kantu arloan, ez neban egiten besterik, abesbatzeko tipleei euren ahotsari egokiona irakatsi baino, gero, gizon ahotsa eukenekin batera, Jeronimo Bilbaok zuzendu egizan.

Anton Mariri lehenengo notak irakatsiko neutsazan, baina inondik inora be ez orain zuzentzeko daukan trebetasuna, ezta abesteko, gregorianoa batez be, daukan fintasuna eta zehaztasuna.

Jeronimo Bilbao zan orduko Iurretako abesbatzaren zuzendaria. Nire senidea zan, Karmen emaztearen aldetik. Zintzoa eta iraunkorra. Inguruko koruak, han eta hemen, desegiten baziran be, Iurretakoak, Jeronimo buru, beti aurrera. Jose Mari Larrinagak be laguntzen eutsan inoiz zuzendaritzan. Demetrio zan betiko organu-jolea. Munduan ez egoan inor "Aita San Migel Iurretako, zeru altuko loria" joten irabaziko eutsanik.

Eta hemen, nire orduko pekatua autortu behar dot, danen aurrean. Ez dakit parkatuko deusten Iurretako orduko abeslariek, ala penitentzia eta zigor latzen bat leporatuko deusten.

Ahots zoragarriak izan arren, eta Jero iraunkorra izan arren, banekian ez eukela behar zan besteko eroapenik abesti gatxak be gatxak zehatz ikasteko. Gehiago ziran hots ozenak agertzeko eta belarrirako berez atseginak ziran kantuak abesteko, bai eleizan eta bai behar zan tokian.

Nik, Oromiñoko nesken abesbatzakoak puztu eitezan eta ez zirala edozer gauza sinistu egien, honeek Durangon ondo be ondo abestutako abesti bat eskeini neutsan Iurretako abesbatzari. Tonu erditik tonu erdira hainbat bider igon eta jaitsi behar dozun abesti bizkorra zan, lehen aitatu dodan Mokoroaren "Sorgin dantza", hain zuzen be. Ez belarri zehatza bakarrik, eroapen handia be behar zan ondo ikasteko.

Banekian bazirala gauza ikasteko eta abesteko, baina ez ebela izango adorerik horrenbeste lan emongo eutsen abestia ikasten hasteko.

Azpijokoa eta maltzurkeria izan zan nirea, baina ez dakizue zenbateraino igon eban Oromiñotarren moralak.

Arrate eta "Oiztik Anbotora"

Gitxien uste genduanean, sekulako barriak poztu eban gure barrua: Arrateko abade Don Pedrok irrati-emisorea jarri ebala han goian, eta euskeraz be egiten ebala. Amesetea orduan! Laster entzun ahal izan genduzan Arroako irratsaioak, Lea ibai ingurukoak, Markinakoak… Eta guk, zer? Jose Antonio Mallona eta biok Aita Iñaki Goikoetxeagana jo genduan, jesuitetan egin ahal izateko, eta laster sortu genduan "Oiztik Anbotora" irratsaioa.

Magnetofoi zahar bat, irratian jarduteko teknikea zer zanik be ez, kazetaritzea ezagutu barik, euskerea landua izateko aukera txikienik be ez, herri-agintarien eta baita orduko eleiz-agintari batzuen begi zorrotza gainean... baina asmoz beterik, gogotsu eta bildur barik, hori bai gero!

Aita Iñakiren ahaleginak ahalegin, ezin izan genduan jesuitetan luzaroan jarraitu. Orduan, neu bizi nintzan Durangoko Astarloa kaleko etxean egiten hasi ginan eta han jarraitu genduan azkenera arte.

Astelehen arratsalde guztietan etorten zan, lehenengo asteetan jesuitetara eta gero gure etxera, Jose Antonio Mallona, Izurtzako abadea, euskal-musika euken disko batzuk besapean ebazala.

Biok zuzentzen genduan irratsaio hori. Iluntzerako amaituta izan behar genduan, gero mandatariak Eibarrera eroan egian edo gutariko batek motorrez Arratera bertara, martitzen eguerdian entzun eiten.

Biotariko baten sarrera edo editorial antzekoa, urte batzuetan aita Martzelen lan sendo eta atsegina bertsoz eta hitz-lauz osotuta, Julene Azpeitia idazle ospetsuaren ipuin bat aldikada baten, Eskarne Aromak eta Itziar Zuriturrizak emakumeei buruz lehenengokoak idatzitako Itziar eta Lorea izeneko lantxua, batagaz eta besteagaz neuk izandako alkarrizketak, inguruko kirolari guztiekin gehien be... eta herrietako barriak, Kristina Mardaras eta Rosa Mari Gandarias umeak irakurle zirala.

Baina, begira! Orduko giro itolarritsuan, danok arnasaz bete ginduzan Joan XXIII.aren Bakea Lurrean entziklika ospetsua agertu zan. Ha poza eta arnasea hartzea guztiona! Gure hurrengo irratsaio bat, zer esanik be ez, horri buruzkoa. Nire hiru-lau lerro, aurkezpen eta editorial antzera, eta gero Aita Martzelen "artilleria astuna".

Hitz lauz eta bertsoz, gatz eta piper, astindu ederra emon eutsan orduko egoereari, Entziklikearen irakatsiak oinarritzat harturik.

Eta jakina! Poliziak Arratera. Arratetik Durangora dei larria: ezkutau edo apurtu egizuez papelak eta zintea! Durangotik Eubara be deia!

Hortxe hasi ziran agintarien erasorik gogorrenak Arrate irratiaren aurka, handik lasterrera urte mordo baterako isilazo arte.

Oraindino be azterketak

Egia da beti ikasten jardun behar dogula. Zer esanik be ez besteei on egiteko lanean diharduzunean. Ez dauka osagile batek, ikasi behar dauena ikasi dauela eta, gehiago ikasi barik egoteko eskubiderik. Hori jazoten da beste lanbideetan be, eta, zer esanik be ez, baita

abadetzan be. Ikasten jarduten ez badozu, laster zagoz Trento baino atzeratuago.

Beraz, betebehar hori itxi ez gengian, azterketak izaten genduzan, Bilboko gotzaindegian, abadetzako lehenengo lau edo bost urteetan.

Teologia ikasten genduan urteetan ikasitako gaiak errepikatzen ziran. Beharbada, eta hori uste eben askok, hobeto litzatekean gauza barriak ikasten jardutea eta munduan teologiari eta erlijinoari buruzko gaien jakintzak zein bide eroian ikustea.

Dana dala, ez ziran izan niretzat gozoak nire abade eginda geroko, edo hobeto esateko, ikasketak amaituta geroko, lehenengo azterketa horreek. Zergaitik? Ez nekian nik zelakoak izaten ziran eta zein neurritako eskabidea eben azterketa egiten euskuen irakasleek. Nik ez nebazan ezagutu be egiten, eskolak emoten behintzat.

"Errazak izaten dituk" esan eustan ez dakit zein lagunek. "Nik trenez noanean begiratzen jautset ikasgaiei. Ez jaustak horrek ordu laureneko gertau beharra be eskatzen", beste praixku batek.

Gauza horreek entzunda, ni, nasai, ezer be ikasi barik, azterketa horreek egitera.

Baina, sartu ginanean, benetako kurtsoa izan bagenduan lez itauntzen ebela ikusi neban. Zelako esturea! Lotsa-lotsa eginda nengoan. Gehiago oraindino, Ubieta jaunak, bere gizatasun handiz, ea programan jarten ebana Comillasen be ikusten edo ikasten genduan itaundu eustanean. Ni ez nintzan gogoratu be egiten. Gogoratuta be, ahaztuta eta barrien barri ikasi barik neukan. Lotsari handiagoa izan neban irakaslea bera, dan moduko fina eta gizakoia izanez, erraztasun guztiak emoten jarri jatanean.

Hurrengo urtean, "lagun txarrei" jaramonik egin barik, ikasi neban, bai, ikasi behar zana.

Ubietak berak, oraingoan lehengo erraztasunak emon barik, baina gizatasun osoz, gai bati buruz itaun batzuk egin eustazan eta nik zelan edo halan, baina ez aurreko urtean lez, erantzun nahiko egokia emon neutsan. Barruan sartu jatan irribarrez esan eustana: "Gaurkoa ez da igazkoa lakoa". Demontre halakoak oraindino be gogoan eban aurreko urtekoa. Dana dala, gizon handia gure Ubieta!

Ahozkoak ez, baina idatziz ziranak, euskeraz egiten hasi ginan batzuk, ez dakit urte horretan ala hurrengoan. Alvarez abizeneko irakasle bat, haserre! Gogoan dot, orduan bera be irakasle zan eta, Karmelok esan ebala ez egoala eragozpenik, berak zuzenduko ebazala euskeraz egozan lanak eta.

Zer bidezkoagorik? Ez dakit horregaitik ala zergaitik, handik urte bira edo amaitu ziran lehenengo, bost urtetan ziralako, "kinkenalak" eta gero, lau urtetan ziralako, "kuadrienalak" esaten jaken azterketak.

Eurak gertetan emoten genduzan orduak liburu barriak irakurteko eta ikasketa barrien nondik norakoa ikusteko erabili geinkezan.

Sinatze arriskutsua

Abade gaztea oraindino, odola bor-bor, ametsak ugari, gure herriaren izatea eta kultura galzorian, gure Euskal Herriko Eleizan aginpidea ebenak, neurri batean behintzat, horri laguntzen, gu Eleizeak beste era batera jokatu behar ebalakoan... eta horra non agertzen dan abade lagun bat egoera horri aurre egiteko balio eikean eskutitz bat izenpetzeko eskabidea eginez. Gotzainei zuzendutakoa zan. 1960ko maiatzean izan be.

Jakina, beste inorena jakin barik be, izenpetu behar nebana. Zelako poza, handik egunetara, hirurehun eta hogeta hemeretzi abade izan ginala jakin nebanean, eta euren artean Andra Maria nire jatorriko parrokiako don Isaak Uribesalgo eta don Frantzisko Santamaria.

Aitak begirune handia eutsan abade bat joan zan beragana, egun batzuk lehenago, hori egin ezkero kalte handiak etorriko jatazala eta niri ez sinatzeko esan eidan. "Begira, antxinatik bere buruaren jabe da eta, kokoloa ez danez, berak jakingo dau zer egin behar dauen" izan zan nire aitaren erantzuna. Gerora jakin neban hau guztiau.

Baina sinadura horrek atzekoa ekarri eban. Lehenengo, eleiz epaiketa antzeko bat. Lau galdera egin euskuezan. Ni, aurreneko deialdian gogo-jardunak egiten nihardualako, bigarrenerako geratu

nintzan. Beraz, bagenkian zeintzuk ziran galderak, eta gertauta geunkazan erantzunak be.

"Ezagutzen izan dozu sinatu dozuna?". "Jakina ezagutzen izan dodana. Zelan sinatuko neban, ba, ezagutu barik?"

"Nork ekarri deutsu sinatu daizun?" Gehien edo danen erantzuna, nirea be beste horrenbestekoa zala: "Zelan esango deutsut, ba, holakorik? Ez, ez deutsut esango besterik, abadea izan dala baino". Ea politikarien aldetik edo etorri ete jakun, atera gura eben, Francoren propagandeak esaten ebanez.

Beste itaun bat: "Askatasunez ala behartuta jarri dozu zeure sinadura?". Danon erantzuna: "Jakina askatasunez jarri dodana". Danona esan dot, baina ez da egia. Ezagun batek: "Bai, behartuta egin behar izan dot". "Nork behartuta?" galdereari, hau erantzun eutsan: "neure kontzientziak behartuta".

Azken galdera: "Baieztau egin gura dozu ala zuzendu edo kendu egin gura dozu?" Edo ez naz gogoratzen beste honetara jarrita egoan: "Barriro be egingo zeunke?" Itaun honi be danok, aho batez: "Baieztu egiten dot, edo jakina egingo neukela, baina ez komunikabideek emoten deutsien esanguraz, geuk emon geuntsan esanguraz eta zentzunez baino".

Danok aho batez, esan dot. Egia osoa esateko, Bizkaian bakar batek esan eban, ez kontzientziak, lagunek behartuta egin ebala baino, eta beraz, ez sartzeko bera sinatzaileen taldean.

Jazoera bitxia izan zan eleiz epaimahai horren aurrean erantzunak emon beharra. Baina bitxiagoa niretzat, hilabete lehenago ezagutu nebala eta bere anaiagaz batera Nafarroaraino eroan nebala Gillermo Rian jauna, epaile egiten ebana.

Anaia horrek be, don Eduardo Rianek hain zuzen, zintzo-zintzo jarrita eukan sinadura eta ez zan izan anaia, beste epaile bat baino, galderak egin eutsazana.

Beraz, ez nabe inon, ia ezagutu barri neban epaile horrek hartu ninduan baino abegitsuago eta gozoago hartu. Denpora gehiago egin eban osterantzeko adiskide galderak egiten epaimahaiari egokiozanak baino. Ia-ia beste sinaduraren bat egiteko gogoa emon eustan.

Bestelako zigor txikiren batzuk be izan ziran, beste eleizbarruti baten autortzak entzuteko debekua, esate baterako, horretarako hango gotzainaren baimena bazenduan.

Poliziaren aldetik, agur gure pasaporteak urteetarako! Urte batzuk igarota be, sasoi laburrerako emoten eutsuen, Franco hil eta gerora arte.

Baina Eleizearen orduko agintarien aldetik, *kleromoto* ikaragarria izan zan zigorrik nabarmenena. Bai, izenpetu genduan eta eben danak edo gehienak pozik egozan parrokietatik beste parrokia batera bialtzeari esan geuntsan orduan, umoretsu, *kleromotoa*.

X
MARKINA ALDEAN. ESKOLA LABORALEAN

Lehengoaren lotura apurtu ezina...

Hortik etorri jatan, handik urte gitxira, Markina aldera joan beharra. "Coadjutor de Echevarria con residencia en la Escuela Laboral de Marquina" izan zan nire bigarren izendapena. Urteurren honetan gagozan tontorretik beste begirada bat goratxuago: Markina aldean egindako urte bete-beteak. Lanbide ikasketak egiteko egoan parrokiako eskolea. Han, Markinako Eskola Laboralean bizi, bertan eskolak emon, eta Etxebarriko Parrokiako abade laguntzaile izan. Hori izan zan nire zeregin, leku eta bizimodu barria.

Euskaldunok, asko esateko *hamaika* esaten dogu batzuetan. Ba, hamaika urte egin nituan Markina aldean, baina ez asko izan ziralako, hamar eta bat izan ziralako baino. Eta hemen be, liburu mardul bat idazteko baizen zenbatu ezin ahalako bizikizun.

Neurtu ezinezkoa izan zan Iurretatik alde egin behar izateak eta gurasoakandik be, neurri baten behintzat, alde egin behar izateak emon eustan atsekabea. Sendoak eta betikoak izaten dira zeure eleiztarrekin sortu dozuzan lotura estuak, eta zer esanik be ez, umetatik ezagutu dozuzanekin eta zeure aitaren herrikoak diranekin.

Min hori areagotu egiten da zuk argi eta zintzotasun guztiz eginbeharrekotzat zeunkan ekintza bategaitik zigorra leporatzen dozune-

an. Baina, aurrera begira jarri beharra egoan eta leku maitagarriak ziran aurrean jarri jatazanak be.

Ezin itxi autortu barik, abade-lagun barrien harrera anaikorra, batez be guztion aita lakoa zan Elias Lasuen, Markinako parroko eta inguruko arziprestearena.

Urberuagako Maison Familiare

Joan eta oraindino arnasea hartzeko asti barik, Julian Olazabalagaren asmoetariko bat beteteko eskabidea eta aukerea izan neban.

Baserriko gazteentzat Frantzian nahiko zabalduta egoan "Maison Familiare" eritxana. Hamabost egun egiten ebezan gazteok ikastetxean eta beste hamabost etxean, han ikasi ebena beteten.

Ez eban izan ezbairik Julianek hori ezagutu ebanean. "Eskola Laboral"aren kerizpean jarri behar zan holako bat Markina aldean.

Ni joan barri nengoala, Iurretako Amatsako Jesus Zamalloa eta bioi esan euskun ea Iparraldera joan gura genduan, hamabost egun inguruan hango "Maison Familiare" ikastetxe horreen metodoaz jabetzera. Ez naz gogoratzen zelan lortu neban pasaportea. Aurkitu eban Julianek bideren bat, lortzeko.

Julianek berak jarriko ebazan ekonomi aldetik behar ziran guztiak eta Markinako "Extensión Agraria"ko zuzendaria eukan baserriko teknika-ikasketak emoteko. Hamabost eguneko internaduko bizitza eratzea eta beste irakasgai guztiak eratzea, geure kontura.

Bidaia gugaz egin eben Clarita Castro eta Itziar Manterola be bialdu ebazan neskentzako eratutako beste ikastetxe batera, mutilak ez egozan hamabost egunetan neskek izango ebelako euren ikasteko hamabostaldia.

Donapaleura joan ginan, ba, ikustera eta ikastera. Eiherabide abadea zan zuzendaria. Han egun batzuk egin eta Euskal Herritik kanpo egoan beste ikastetxe batera jo genduan, baina egun baterako.

Hara joan ahal izateko, Eiherabide jaunari esan neutsan deitu egiola telefonoz hango zuzendariari. "Bainan samurtu eginen zauku" esan eustan.

Nik: "ba, samurtzen bada, hobeto, pozago hartuko gaitu".

"Bainan, samurtu eginen zauku" barriro be donapaleutarrak, haserre antzean.

Orduan, esan neutsan: "Esan egizu, mesedez, frantsesez zer esan nahi dozun *samurtu* esaten dozunean".

Orduantxe ikasi neban gu *haserretzen* garanean, iparraldeko anaiak *samurtu* egiten dirala. Ardura jazoten dira holakoak. Zer? Ardura? Bai, *ardura* berba hori gure *sarri* edo *sarritan* lakoa ei da.

Ezusteko atsegin bi izan genduzan joan etorri horretan. Itziar Manterolaren bitartez, etxeko zirala eta, Beskoitzera joan ginan Manu Robles Arangiz ospetsua agurtzera. Geuk eroan genduan gero Baionaraino, han batzarren bat eukala eta.

Baina, aurretik, Beskoitzen, bere etxeko gela baten, gu laurontzat bakarrik abesten ebala, Estitxu bere alabeari entzuteko zoria, eta ez makala, izan genduan.

Donapaleukoa amaitu eta Lourdeseraino joan ginan Jesus eta biok. Sasoia eta eguraldia zala eta, behin be ez dot ikusi Lourdesen lagun gitxiagorik. Gozoagoak egin jakuzan hango meza eta otoitzalditxuak.

Gauerdian, zarata batek izartu ninduan. Nik, goiza zalakoan eta ostatuko nagusia jagiteko ordua zala esaten etorri jakulakoan, ahal zan abegitsuen: "Merci, merci bien!" Jesusen barreak orduan, bestekaldean egoan ohetik! Berak ohe osteko ola eskuagaz jota ateratakoa izan zan zalako zaratea.

Honuzkoan, eguerdia zala eta goseak eraginda, "Restaurant" jarten eban etxe baten aurrean gelditu ginan. Ez genkian Euskal Herrian sartuta gengozan ala ez. Euskeraz berbetan entzundakoan, andra nausi bat hurreratu jakun. "Nongoak zarete?".

Guk "Bizkaikoak" esateaz batera, negar baten hasi jakun andratxu ha. "Gaizoa! Nire senarra ere Bizkaikoa da. Soldadu ez izatearren ihes egin zuen, ez gaztelania ez frantsesera jakin gabe... Gaixoa!... Bai, Bizkaikoa, Iurretakoa zen, Arriandikoa".

Biok zurt eginda, txundituta, geratu ginan. Ni erdi Iurretakoa, eta Jesus iurretar peto-petoa, Amatsakoa. Nire amamaren ondoko etxekoa eta umetako laguna zan orain bere semeagaz batera erai-

kuntzan lan egiten eban Olaizola jauna. Gero, behin baino gehiagotan ikusi genduan alkar.

Markinara heltzeagaz batera, "maison familiare" dalakoaren hasiera. Izerdi batzuk bota genduzan Jesusek eta biok ezerezetik asmo barria ibilian jarten.

Eskerrak lagun minak ginala, eta gareala biok, bigunago egin jakun holako hasiera batek dakarzan laztasunak gainditzea. Zer esanik be ez ondo be ondo konpontzen ginala mutilekin eta gogotsu genbilzala, adiskidetasun eta alkarrizketa giroan, irakasten eta ikasten.

Eurek ekarren hazia ureztatzea eta hazten laguntzea zan gure zeregina, eta ez eurek ekarrena alboratu eta beste kultura bat ezartea, Euskal Herriko ikastetxeetan orain arte neurri handi baten egin dan lez. Geunkan irudimen apurrari ahal dan fruturik gehien ateraten ahalegindu ginan.

Guk aste bi eginda gero, nesken txandea izaten zan, euren hezitzaileekin, Ikerne Arsuaga, Itziar Manterola eta Clarita Castrogaz, hain zuzen be. Ez dakit zelan konpontzen ziran horretarako, baina mutil bakotxak jakiten eban zein neska egoten zan bere gelan, eta neska bakotxak zein mutil berarenean.

Urtebete eginda gero, Jesus Ermuko abade izendatu eban Gotzainak eta ni Eskola Laboralean sartu nintzan buru-belarri. Seminariotik urten barri zan Jose Mari Rementeria etxebarritarrak eta Otxandioko Bitor Kapanagak hartu eben Urberuagan mutilen ardurea, handik lau-bost urtera esperientzia hori Markinan bertan, Eskola Laboralean, kokatu arte.

Ez zan izan lehengoa, Iparraldera egin genduan ostera bakarra.

Behin, Itziarregaz eta Claritagaz etorri ginanean, miaketa izan genduan mugan, beti lez. Estu eta larri laurok, Labegeriren disko barria geugaz genkarrelako. "Gu gara Euskadiko", "Itziarren semea", "Aita, zer egin duzu"... Azala aldatu geuntsan eta gidariaren aurrean, agiri-agirian, jarri genduan. Baina, nork jakin trikimailu hori ikasita euken ala ez? Gehiago estutu nintzan ni, mugea igarota gero, Espainiako poliziak, miaketa egin ondoren, aurrera joateko agindua hartzeaz batera, abiatuta metro gitxira, Itziarrek egin eban

zizpuru zaratatsua entzun nebanean. “Entzun bajoek, altoa botako jauskuek” pentsau neban bat-batean. Baina ez zan ezer jazo. Aurrera jarraitu genduan, nasaitasun handia hartuaz.

Bikotxak?

Gauza zelebreak jazo jakuzan Jesus Zamalloari eta biori, gure arteko antza zala eta. Apustuak egoten ziran Markinan ea motorrean igaro zana Etxebarrikoa ala Larruskaingoa izan zan.

Etxekoek be, urrundik ikusita, nahastau ginduezan inoiz.

Behin, Durangon, ohean itxi ninduan, sukarrak hartuta, ama Isabelek, nire bigarren amak edo amaordeak. Handik ordu erdira, harrituta! non ikusten nauen kalean! Apur bat hurreratu zanean... “Jesus dok eta!”.

Beste behin, Iurretako eleizpean nengoala, Jesusen arrebea igaro zan plazatik zehar, etxerantz. “Atera beste plater bat bazkarirako, Jesus oraintxe etorriko da eta” esan eban etxean.

Baina Jesusik agertu ez, eta hurrengoan etxera joan zanean, arrebeak, haserre: “Lotsarik be ez daukak. Iurretan egon eta etxeraino hurreratu be ez?” “Noiz egon non ba Iurretako eleizpean eta etxera joan barik geratu?”.

Bere etxera mesede bat eskatzera joan eta ezagutu genduan Juan San Martinek be behin: “Tokaio, arineketan ninoian lehengo egunean eta ezin izan nintzan gelditu agurtzera”. Nik: “Nik ez zaitut aspaldietan ikusi. Non izan da ba hori?”. Berak: “Ermuan, lehengo egunean”. Jakina, Jesus Ermuko abadea zan ordurako.

Handiena, beharbada, Larruskainen jazo jakun. Hileta baten, armonioa joten nengoala, jarten da ukondoak armonio gainean ipinita, metro erdi ingurura, Jesusen ezagun handi bat, niri begira-begira. Nik, oraindino han barria nintzanez, ez neban ezagutu be egiten.

“Hi, Jesus, badakik...”.

Nik berari: “Zu, ni ez naz Jesus...”.

“Jesus, ez adi hasi adarra joten. Badakik...”.

Nik barriro be: “Ez nazala, ba, Jesus...”.

Ia nire gorputza arakatu behar izan eban berak "ikusten" ebana guzurra eta nik esaten neutsana egia zala baieztatzeko.

Guardia zibilak ziur egoten ziran, ostera: "Eze é el de Larruzkain; aquel otro, el que ha pazau ánte, é el de Etxebarria". Ez ei eben hutsik egiten.

Gaur, kilotan, ez dot uste Jesusen erdira heltzen nazanik.

Eskola Laboralean. "Auxiliarrak"

"Abadeen laguntzaileak" eritxen emakume jator batzuk egozan, eskolako arimea, baina laguntzen ez eskoleari bakarrik, baita herriari be, bateko edo besteko beharrizanetan. Ahaztu ezinak, euren gertutasun eta lan ixil eta baliotsuagaitik. Gainera, bakotxaren lan berezian trebeak izan arren, danetik eragiten eutsen Julianek, danetik jakin egien eta danean gitxieneko trebetasuna izan egien.



Eskola Laborala, Markina, 1968.

Zenbat mesede egin eben Markina eta inguruetako andren artean, euren etenbako ikastaroen bitartez. Geuk be emon geuntsen inoiz laguntzatxuren bat, euren ikastaroetan.

Atxondoko Aspeko Josefina Basauri izango da, beharbada, "Eskola Laboral"ean urterik gehien egin dituena. Ni joan nintzanean be antxinakoa zan eta nik alde eginda gero be urte mordoan jarraitu eban, idazkari lana ikastetxe barrian betetan. Begirune handia, ala bildurra?, eutsen ikasle guztiek.

Miren Gerrikagoitia, nortasun handiko emakumea, hara eta hona ibilten zan emakumeen heziketarako ikastaroak eratzen eta egin behar zana egiten. Lehenengo aldietan jakin ez arren, ze ederto ikasi eban euskerea, horretarako ahalegin guztiak jarriz. Geure hizkuntzan ekin deutsagu beti, urteetara alkar ikusi dogunean.

Ze ondo zaindu ginduzan ezkaratzean buru egiten eban Mari Karmen Legorburu pasaitarrak. Zenbat lan emakumeen heziketan be! Sukaldari lanetan, pozik eta, sarritan, kantuz, laguntzen eutsien Mari Isabel eta Begoña Urzuriaga barinagatarrek, Mari Isabel Geriakoak, Barendako Mari Karmen Arrietak, "Erlatx"eko Mari Karmen Ibarluzeak, Mari Karmen Oleak...

Handik urteetara, barriro egin genduan lan alkarregaz Mari Karmen Legorburuk eta biok, ni Elorrioko parroko nintzala eta berak Apatan, Felix Orobiourrutiari lehenengo eta Jabi Jaiori gero laguntzen parroko ordezko ziharduala eta emakumeen alde hainbeste lan egiten ebala. Eleiztarrek eta eleiztar ez ziranek, danek maite eben. Sekulako omenaldia egin eutsien Atxondoko hiru parrokietan! Akats bat euken berak eta bere herritar beste emakume jatorra be jatorra dan Begoña Aginagak, estropadetan ez dagoala munduan, euren ustez, Pasaiko San Juan lakorik. Sanjuandarrak hil arte! Horixe akats bakarra... baina akats ona. Zentzun handikoa Ikerne be. Zenbat lan eta ze ondo, ez emakumeekin bakarrik, baita gaztetxuekin be. Beti irribarrez eta umore onez. Beste horrenbeste edo antzekoak esan neikez danakaitik.

Ezin jarraitu beste guztiekin: adeitsua zan Maria Luisa Agripina Ibisate arabarra; mutilak erraz menperatzen ebazan Maite Olazagu-

tia, gero Eusko Jaurlaritzako gaztediaren arloan betekizun handia izan ebanak; beti alai egoten zan Mertxe Malkorra; ikasi barri, autoa gidatzen ausarta be ausarta zan Maria Luisa Larrañaga; Pili Valderrama...

Ez dakit zenbat denporan, astero jarduten neban eurei euskal kantak irakasten, ikasleei lez, "Boga boga" liburutxuan egozan danak ikasi arte. Baina honeekin, ahots bitan edo gehiagotan be abesten ei genduzan. Benetako bedeinkazinoa Joakin Goikoetxeandiaren irakatsietara ebilzan emakume honeek joaten ziran parrokientzat eta herrientzat!

Bidailari, baina ez ni

Eskola Laboralean danen buru eta zuzendari, Julian Olazabalaga. Aparteko gizona.

Orduko denporan gitxi izango ziran Julianek baino munduko bazter gehiago ikusitakoak. Nire Markinako hamaika urteetan, Australia zan berak zapaldubako kontinente bakarra.

Estatu Batuetan, aurretik be sarritan egonda egoan, New Yorkeko parrokia baten hango abadearen ordezkoak egiten. Txilen, osaba bat zala eta, behin baino gehiagotan. Markinak bere lepo hartu eban Arenillasko misinoan be egin ebazan egun batzuk. Afrikan, ez dakit zein nazinotan, berari karterea ostu arren, laster bereganatu eban.

Europan, "Altzairuzko oihala edo teloia"ren hemendikaldetik eta handikaldetik. Bai, jesuita bategaz batera, *zaldi biko*an, ikasle txartel bategaz baliaturik, orduan inork amesetan be egin ezin eikean lekuan agertu jakun gure Julian, Moskun, hain zuzen be.

Urte baten, ez dakit zein egunetik zein egunera Markinatik alde ez egiteko eskabidea egin eustan, berak kanpora joan behar ebala eta. Heldu zan eguna, eta danok, besteak jakingo ebalakoan, alkarri itauntzen: Oraingoan nora joan jaku Julian? Inork be ez genkian. Handik laster, posta-txartela, nondik eta... Japoniatik.

Etorri zanean, Gotzaindegira joan zan Markinara orduko. Han, orduan bikario nagusi zan Karmelo Etxenagusiak, Markinatik eto-

rrelakoan eta adarra jotearren: "Hi Julian. Orain be hi, gitxienez, Txekoeslovakiatik etorriko hintzan". Besteak, aurpegiari zirkinik eragin barik eta irribarre txikienik egin barik: "Ez, Tokiotik najatok".

Gerora, badakit Txinan be izan dala. Non ez?

Toki bakotxetik barriztatze egitasmoren bat ekarten ebanez, bildur izaten ginan zer izango ete zan aldatu behar izango genduana edo barrien barri sartu beharko genduana.

Gogoratzen naz, behin, Europako herrialde batetik etorri zanean, han gauza guztietan aurreratuta egozan arren, bazkaltzen eta afaltzen platerik aldatu barik ikusi ebazanean, geurean be horixe sartu ebala. Kafea hartzeko be ardauaren edalontzia erabilten ebela eta geuk be beste horrenbeste egin behar genduala. Aurreratzea izan ezkero...

Baina, oraindino aldaketa horren barri ez ekian Benito etorri zanean, kafe orduan, honek, zerbitzen ziharduanari "Zu, mesedez, ekarrizu kafearen kikarea, lelokerietan ibili barik!". Hantxe amaitu zan kafea ardoaren edalontzi berean hartzearena behintzat.

Forofoak?

Julianegaz jarraituz, ez egoan jabetuta, nik ezagutu nebanean behintzat, euskaldunontzat gure hizkuntzak dauen garrantziaz. Aurreko urteetan Arrateko irratitik guk, ni Markinara joan orduko, "Oiztik Anbotora" egiten genduanean, Markina aldekoek euren irratsaioa egiten eben. Ba, Julianen esku egoana, baserritarrentzat izan ezkero, bai, euskeraz egiten eban, baina kaletarrentzat zana, gaztelaniaz, "Consultorio del doctor Egizale" eta Markina bertako barriak, esate baterako.

"Romantikoak" edo "forofoak" ginan, bere ustez, euskereak aurrera egin egian ahalegintzen ginanok. Zenbat eztabaida, nire lehenengo egunetan Markinan, bion artean.

Hori ez zala holan ikusi egian, erderaz egiten neban beragaz, bakarrik gengozanean, nahiz eta euskeraz jarraitu beste inor gugaz

egoanean. Baina, egun baten, ez jat hasten, ba, biok bakarrik gengozala, euskeraz egiten?

Ohiturearen ohitureaz, nik ezin erantzun euskeraz. Baina berak ekin eta ekin. Hiru egun egin genduzan holan, eta, azkenean, hasi nintxakon neu be, biok bakarrik egon arren, euskeraz egiten. Holan jarraitu dogu beti, beste guztiakaz egiten dodanez.

Zer jazo zan ba? Burugogorra ez zanez, guztiz aldatu ebazala bere ikuspuntua eta jarrerea. Horretan zerikusitxua izan nebala, uste dot, neuk be, nahiz eta gizon garrantzitsuena askoz be handiagoa izan. Gizon garrantzitsu horreen artean, honeek biok jarten ditut batez be: Xabier Goitia eta Jose Anjel Ubieta.

Jardunaldi luzea eta sakona izan genduan lehenengoagaz bazkaloste baten. Beste gai askoren artean, kristau misinoen arloari hasi ginan, edo hobeto esateko, hasi ziran, astindu gozoa emoten.

Julianen ustez, hobe litzatekean afrikar guztiek inglesa edo frantsesa ikasiko balebe, horrek misiolarien zeregina asko erraztuko ebalako. Ni, alkarrizketan musturra sartuaz, horren aurka. Baina, Xabier Goitiak, teologiako irakasle sakona zala barriro be erakutsiaz, sekulako azalpena emon euskun kristautasunaren ardatza dan Jesusen gizakundeari buruz eta horrek misinoekin eta leku bakotxeko hizkuntza erabili beharragaz dauen lotura eta garrantzi handiari buruz. Uste dot ikutua egin eutsala Juliani, ez zan hau bere pentsakeretan gizon itxia eta.

Jose Anjel Ubietagaz gengozan biok beste behin, orduan be eskolako bazkaloste baten. Harrituta itxi ginduzan Jose Anjel eta biok Julianek euskal baserriari eta bere ekonomiari eta egoerari buruz egin euskun azalpen argi eta sakonagaz.

Eta amaitu ebanean, irribarretxua eginez, eta hezkuntza aitatuz, ziritxua sartuko eustalakoan, esan eutsan Ubietari: "Honetan ez dogu bat egiten Juanitok eta biok", berari errazoia emongo eutsalakoan.

Baina guztiz bestetara izan zan. Harek be, errazoi sakonak erabiliz, bakotxaren hizkuntzak norbere heziketan dauen garrantzia argitu euskun. Jose Anjelek, hain zintzoa eta fina izanik, biotariko bati bakarrik errazoia emon barik, niri be errazoizko ziritxua sartu

eustan, euskeraz egiten ez dan Euskal Herriko lurraldeei buruz orain gogoratzen ez dodan zerbait aitatuz.

Ez ziran edonor edozeinentzat eta gitxiago Julianentzat, aitatutako gizon jakintsu horreek. Eragin handia uste dot izan ebela handik aurrera bere jarrera aldatzeko edo zuzentzeko. Izan be, Julianek gauza bat egin behar zala argi ikusten ebanean, egin egiten eban. Euskera arloan be, bardin.

Egitasmo batek aurrekoa jan

Julian abade izan ez balitz, Euskadiko enpresarik handienaren buru jarriko eukeen, ezbai barik, eta gora egingo eukean orduan be dalako enpresa horrek.

Bere gaitasun horrez gainera, Eskolarako eta baita baserritarrentzat be, beti gauza barriak asmetan. "Julianengan egitasmo edo plan batek beste egitasmo bat irunsten dau" esaten eban Bernardino Barrutia Etxebarriko nire parroko zuhurrak.

Leku baten baino gehiagotan dagoz idatzita Julianen egitasmoak eta ekintzak, ez Eskolakoak bakarrik, baita inguru guztikoak be, bai baserriari begira, bai industriari begira, beti gizakumeen garapenik jatorrena lortu guran. Ez ditut aitatuko, beraz, bat edo beste baino.

Japonian ikusi eta ikasi eban "artea"rentzako eta kirolentzako atxikimenduak be eragin luzea izan eban gure ikasleen artean.

Ni Markinara joan orduko, orduan "Servicio de extensión agraria" eritxanaren arduradun Jose Ramon Yarza, Jose Mari Pagegi eta Don Bernardino lagun zituala, MIBA sortu eban. Aurrekoen arteko bigarrenak asmautako MIBA izen horrek zer esan gura eban? Markina Inguruko Baserritarren Alkartasuna. Ez eban MIBAk mesede gitxi egin inguruetako baserritarren artean. "Gurea" zan danen artean landu eta Bernardinok azken ikutuak emoten eutsazan hileroko orria. 1964ko irailean hasi eta, 147 ale aterata gero, 1976ra arte iraun eban.

Aurreratxuago, 1959an, Eroskiren aurrerapena izan zan "La Marquinesa" kontsumo kooperatiba sortu eban Julianek.

Eta beste guzti honeen sortzailea edo euren sortzean zerikusi handia izan ebana izan zan: Hirurogeta lauan, Markinako "Caja Laboral Popular"; hirurogeta hamaikan, Altzako "Arrasate kooperatiba"; hirurogeta hamabian, gero edurtza ikaragarriak apurtu eban "Barrenetxe invernaderos"; urte berean, "Auzoa" etxebizitzen kooperatibea; eta hirurogeta hamalauan, EIKA lantegia. Beste zerbait eregiten be musturra sartu ei eban. Nik zirriborro antzean nekizan honetariko batzuk, gainerakoan Maite Garziak zehaztu deustaz.

Paulo seigarrenak "Populorum progresio" idatzi ebanean, burua apurtzen jardun eban gure Julianek, ea guk zer egin geinkean, eta hortik sortu zan Eleizbarrutiko Misinoekin ados jarrita, Markinaldeko kristinauen ardurapean jartea Ekuadorreko Arenillas lurraldea. Hara joan ziran gure lagun Benito Ansola eta Gerian Mikel Zarateren hurrengo etorrita egoan Pedro Agirre, Elorrioko *Pedro Handi*, Merzedeko monja bi, Maria Anjeles Galdon eta Jesusa Kareaga, eta Markinako Josune Malaxetxebarria, neskatila dotorea. Beste abadeok gertu gengozan, ez hara joateko, baina bai hareen hutsuneak beteteko. Urte bi egin ebezan Benitok eta Josunek, lau Pedrok eta oraindino handik jarraitzen dau joan ziranetako monjaren batek.

Baina asmo horren ondorena ez zan izan hara joatea bakarrik, inguruetako herrietan hangoei laguntzeko sortu ziran gogoa, ahalegina eta ekintza ugariak baino.

Urte batzuk lehenago, ni joan aurretik, Eskola Laboralean zineari buruzko ikasketak sartzea otu jakon. Horretarako, Benito Ansola –beti lehenengoa asmetan zana beteteko– eta Mari Karmen Arrizabalaga bialdu ebazan zineari buruz ikasketen batzuk egitera.

Berak sortutakoa zan, Eskolearen kerizpean, ni joan nintzanerako egoan "Centro Social" eritxana be. Hemen euken euren batzarlekua eta laguntza JOCeko eta Herri Gaztediko gazteek eta herriaren eta eleizearen alde mugitzen zan edozerk eta edonork.

Madrilera bialdu zituan ikasketak egitera, 1963an, gero bat Markinarako eta beste bat inguruetarako "Centro de formación de la mujer" zabalduko ebezan aitatu barri dodan Maite Garzia markinar ekintzailea eta lehen aitatutako Miren Gerrikagoitia. Julianen bultza-

daz egin ebazan urte batzuk Marruekosen, hango gazteei laguntzen, JOCeko kidea zan Maiteren neba Xabierrek. Izango dira nik ezagutzen edo gogoratzen ez dodazan Julianen egitasmo eta honeei eskeinitako bultzada gehiago be.

Hamaika urtetan bizi izan nintzan Eskola Laboralean. Beragaz bazkaltzen eta afaltzen neban ia beti, gehienetan beste batzuk be gugaz zirala, eta asko be asko ikasteko aukera berezia izan nebala autortu behar dot, nahiz eta ez dakit ezer neuregandu edo ikasi neban. Buru-traketsa izan behar, gero!

Madrilen azterketak

Aitatutako egitasmoei beste bat gehituaz, abade guztiok izan genduan ikasketa bereziren bat egiteko aukerea, urtebete edo bi horreetan beste abade-lagunok joaten zanaren lana ordezkatzen genduala.

Benito, orduko eta oraingo nire lagun mina, izan zan lehenengo Madrilera joan zana. Psikopedagogia egin eban. Neuk be orduantxe izan neban aukerea, hiru udatan, lehengo filosofiako eta teologiako lizentziaturekin baliaturik, "Filosofía y Letras"koa be, oraingo hau Madrileko Konplutensean, egiteko.

Orduantxe ikusi neban zelako asmakizuna dauken ikasle batzuek ikasi barik azterketak ondo egiteko. Erlojuan sartuta eroaten ebezan gaien azalpenak. Erlojuari giltza emoten ziharduelakoan, egokitu jaken gaiaren orrialdearen bila ibilten ziran, eta inork ezer ezin esan.

Gogorra izatetik goragoko irakaslerik edo aztertzailerik be baegoan. Entzunda neukan Arte irakasten eban baten azterketak gainditu ezinak zirala. Danak jausten ziran. Hori zala eta, uda oso baten jardun neban Arte bakarrik ikasten.

Azterketak heldu ziranean, niri beste aztertzaile bat egokitu jatan eta ondo joan jatazan gauzak. Beste batzuei, ostera, euren artean teologiako katedratikoa izanik liburu bat baino gehiago idatzita eukazan eta arte arloan nik baino ehun bider gehiago ekian Dionisio Borobiori, aitatutako irakaslea egokitu jaken.

Joan ziran, geu lez, martitzenean, azterketea egitera. Euren azterketa-gelako atean, honako idazkuna aurkitu eben: "Datorren barikuan izango da azterketa".

Guk martitzeneko azterketea ahaztuta geunkala eta etxeratuta gengozala, badoaz talde horretakoak barikuan... eta beste idazkun bat aurkitzen dabe atean: "Datorren martitzenean izango da azterketa". Danak, bidezkoa zanez, haserre bizian, zer egin ez ekiela, lur jota, urduri, amorratuta... eta heldu da hurrengo martitzen hori be.

Ehun ikasgaitik, bat jarri eutsen, testuaren bazter baten egoana, ekialdeko artea. Azaldu behar ziran hogei filminetatik, artistearen lan bakotxa osotasunean jarri barik, igarri ezin leikean zatitxu bat bakarrik hogeietan. Jakina, inork be ezin gainditu halako azterketa basatirik.

Handik ez dakit zenbat denporara, egunkarietan agertu zan Madrilgo Komplutensean irakasle ospetsu bat hil zala, ikasleekin eztabaida latza izanda gero etorri jakon bat-bateko bihotzeko erasoagaitik. Irakasle edo katedratiko hori zan. Ez ninduan harritu barriak.

Parisen bost egunean

Madrilgo azterketak amaitutakoan, neure antzera, baina urtebete beranduago hasita, bertan ebilen Iñaki Agirre jesuiteak Paristik egin eustan deia hara joateko, leku egokia nebala eta, bera kapelauaren ordez monjei zerbitzen egoan komentuan.

Hartu neban Hendaiako trena eta Parisen nintzan ordu batzuk geroago.

Goizetan, nire lagunak oraindino geratzen jakozan azterketak gertetan jarduten eban eta nik museoak eta ikusi behar ziranak ikusten.

Mundu guztiko kulturak erakusten dituen Musée du l'homme dalakoa guztiz izan jatan atsegina. Munduko hizkuntza familia guztiak be han egozan jarrita. Familien buru ziran ez dakit zenbaten artean (hamahiru edo?) han egoan, azken, gurea be.

Musée Modernen ikusten ziranak ikusita, une baten uste izan neban neu be, edozein beraz, izan neintekela artista. Zaku zahar bat edo maspildutako auto bat horman itsatsi eta izenburu bat jartea baino ez. Ikusitakoak biak!

Goiz batean, Iñaki be neugaz zala, auto bat gelditu zan gugandik hur egoan semaforoan. "Ene! Setien gotzaina! Bai, Gazteizko matrikuladun kotxea da!"

Handik laster, barriro be orduan Donostiako gotzain lagunzailea zan Setien, senar-emazte bikotea ondoan ebala, oraingoan auto ondoan oinetakoak aldatzen.

Guk biok, hurreratuta: "Egunon!".

"Zer, euskaldunak?"

"Bai, eta apaizak, gainera."...

Iluntzean, Sacré Coeur inguruko erdiaroko kale estu batetik ginoazala, barriro be Setien eta bikotea aurrean. Berak, orduan: "Paris txikia da gero, hiru bider leku ezbardinetan alkar ikusteko!"

Arratsalde erdian be eurek gu ikusi eta agurka egon ei ziran, baina gu ez ginan ohartu.

"Honek merezidu du zerbait elkarrekin hartzea". Eta han egon ginan jarrita garagardoa edo hartzen, solasaldi gozo atseginean. Zati batera ohartu ginan bikoteak ez euskula ezer ulertzen, eta orduan gaztelaniaz hasi ginan. Nik, holako baten, Setieneri zuzenduta: "Sí, usted..."

Berak, bultza eginda: "Zer dek hori? *Usted? Tú* ere nahikoa dek!"

Orduantxe ezagutu neban beti oso seriotzat neukan Setien jatorra, harrokeriabakoa, umorea zer dan eta adarra joten be dakiana... zala.

Beti miretsi dot bere aparteko jakituria, nahiz eta batzuetan, zehaztasunaren zehaztasunagaitik, zaila izan irakurri ahala ulertzea.

Baina gehiago miretsi dot beragan, munduan irain gehien, arbuio gehien, deskalifikazino gehien eta berari buruzko guzur baltz gehien hartu dauena izanda, berak izaten dauen patxadea eta Ebanjelioari jagokon erantzun jatorra.

Eskola inguruko abadeak

Eskola Laborala izaten zan inguruetako abade guztien topaleku. Eta eurek emoten eutsen ikasleei be bateko eta besteko eskolea. Ez genduan bertan bizi ginanok bakarrik egiten hori.

Han batzen ginan, lehenengo eta behin, nagusiena genduana, Bernardino Barrutia Etxebarriko nire parrokoa, Xabier Amuriza eta Imanol Oruemazaga euren abade denporan, Mikel Zarate idazle, lagun, adiskide eta gizon handia, Benito Ansola, orduan eta orain be zinezale amorratua eta zinean aditua. Honeek biok liluratuta eukezan Merzedeko neskatoak eskolea emoten eutsienean. Mikelek bere irudimen biziaz eta Benitok pelikulen ezagupideaz baliatuz.

Jose Mari Etxebarria Larrabetzukoa be sarritan egoten zan gure artean, Bolibarko parrokoa zala. Jakitun egoten nintzan hau noiz etorten zan, nire langela eta logela guztia erretako tabako usainez beterik aurkitzen neban eta. Nire hango azken urteetan, Bolibarrera etorrita egoan Karmelo Arrizabalaga arrazolatarrak be emoten ebazan eskola batzuk.

Bolibarko abadeak aitatutakoan, ezin ahaztu Don Ramon Berrojaetxebarria, gorputzez txikia baina izatez handia. Honek baino gitxiago merezidutako askoren biografiarik idatzi izan da. Eskubide batzuen alde beste guztioi laguntzearren Madrilera joan zanean, gainbeherakada handia egin eban bere osasunak, eta handik laster hil jakun. Ehun eta hamaika abadek lagundu geuntsan hiletetako mezan eta eleizatik hilobiraino.

Aparteko graziaz esaten eban biziena osatzeko botikea asmauta egoala, baina ezina zala aurkitzea: abadearen eta kamineruaren izerdia nahastauta. "Kaminerua" zan bere aita.

Astelehenetan, Gernikara joaten zan. Bere esanez, danak pozik herrian. Umeak, holan dotrinarik ez eukelako; andrak, abadea handik izanik, Gernikan gizonak "formalago" ibiliko ziralako; eta bera pelotaleku dotorean pelotaldi ederra eta han ziran neskatila dotoreak be ikusten... Jainkoagandik hurrago.

Ezin Markina aitatu Karmengo Amaren komentua eta bertako fraileak aitatu barik.

Lagun handi egin ginan ni joan nintzanean nagusi zan Migel Mari Juaristi azkoitiarra eta biok. Berak ziharduan jo eta ke "Zerutxu" ikastolea aurrera eroaten.

Behin baino gehiagotan nagusi izan zan Aita Jenaro Larruskainek, "Makarda"k, eta biok purotxu bat erretan genduan alkarri laguntzeko, abadeok eta fraileek alkarregaz egiten genduzan bazkalosteetan. Orain, beste horrenbeste egin izan dot Aita Jenaro etxeko eban Jabier Arroitajauregigaz, Elorrion ezkonduta bizi dan markinarragaz. Aita Jenaro, Madrilera be neugaz etorri zan behin, beste barik lagun egiten.

Aitatzen dodaz beste nonbaiten aita Emiliano eta aita Jose Domingo, musikari handiak biak.

Aita Juantxu, aita Lon, aita Honorio organu konpontzailea... eta zer esanik be ez, Luis Baraiazarra lagun mina eta euskeraz inork ez besteko ondo eta zuzen idazten dauena, eta baita Julen Urkiza ondarrutarra be, historialari zehatza. Honeek biok egin eben lan guztia Kontzilioaren itzulpenean. Eta lehenengoak aholku baliotsuak emon deustaz libururen bat itzuli dodanean.

"Ama txit agurgarria"

Komentua aitatu dodanez, talde batek han egin genduzan batzar batzuk etorri jataz gogora. Euskerearen egoera latzaz kezkatuta gengozan batzuek osotzen genduan taldetxu hori. Geure ingurukoagaz hasi gura genduan.

Azterketa egin, eta Eskola Laboralak bide egokia eroiala ikusi zan, umeentzat "Zerutxo" be hor egoala, baina puntu baltza ikusten genduan. Hainbeste neskak ikasten ziharduan Merzedeko monjen ikastetxea.

Bertan ikasten eban nire Elorrioko ezagun baten alabeak be. Jesus Atxa genduan adiskide hori, euskal munduan hain ezaguna zana eta geroago ezagunagoa izango zana, eta Mari Asun bere alabea

orain, urte askotan Elorrioko Txintxirri ikastolako idazkaria. Pozik gogoratzen dau honek orain be monjen Markinako ikastetxea.

Deitu geuntsan, ba, Jesusi, eta laster etorri jakun. Batzar batzuk izan ondoren, beste ekintza batzuen artean, erabagi genduan eskutitz bat egin behar geuntsala monjen Ikastetxeko zuzendariari. Zer jarri monjen nagusiaren izenaren aurrean? Hemen izan ziran gure barre egiteak, orduan eta bai gerora be! Umore barik ez gengozan, ez horixe!

"Ama txit agurgarria", eta ezin besterik asmau. Ez dakit azkenean zer jarri zan, baina bai eskutitza egin zala. Juana Ondarra zan une horretan ikastetxearen arduradun nagusia, emakume argia eta handik gitxira istripu baten ondoren hil zana. Eta, halabeharrez, honen aita eta ama izan ziran Jesus Atxaren irakasleak bere umetan. Baina Maria Dolores García zan ikasketa arloan zuzendaria.

Ez dakit eraginik izan eban be gure eskutitzak, baina badakit handik laster samar euskerea sartu zala ikastetxean. Orduantxe hasi nintzan ni be bertan eskola bat edo beste emoten, bai euskeraz bai erderaz. Urteak dira, dana edo gehiena behintzat, edozein ikastolatan lez, euskeraz emoten dala, "Zerutxu" be bere barruan izanik.

Aita Migel Maria zan aitatutako taldearen buru eta, gero alkate izango zan Lauren Aretxabaletak, Jose Antonio Ansolak, neuk eta gogoratzen ez nazan besteren batek osotzen genduan.

Irakasleak, ikasleak...

Abade ez ziran irakasleekin be adiskide handi ginan, nahiz eta behin baino gehiagotan haserretzen jakuzan, abadeok mutilekin bigunegiak ginalako, euren ustez.

Gure denpora guztian Luis Ruiz de Austri zan tailerreko arduraduna. Bekoki iluna eta begirada zorrotza jarri behar hainbeste mutil jo eta ke lanean eukiteko. Tailerretik kanpo, beste bat zan Luis. Adeitsua eta irribarretsua. Bere anaia Jose Antonio morrosko urduriak be urtetxu batzuk egin ebazan gure artean. Gogotsu gonbidatu ninduan bere ezkontzara, nahiz eta egun batzuk lehenago haizeak berehala eroateko moduko ika-mikatxua euki biok geure artean.

Pedro Razkinek eskola mordoa emoten ebazan. Ez ekian euskera eta erdaldunagaz ezkonduta egon arren, badakit bere alabek Markinako euskerea berez-berez egiten dabela.

Migel Anjel Bilbao Markina barrutik ezagutzen eta maite dauena, eta laster pelotariei buruz liburu irakurgarria argitaratzeko dana; Aulestiko Sabino Kortabitarte, Elorriotik etorri eta gure eskolan ibilita gero Lean lanpostuak sortzen zerikusi handia izan dauena; Markel Arizmendi motrikuarra, hurrengo urte batzuetan zuzendaria izan dana eta bertso-papelen arloan jakituna; abade izandako Desi Fernández erlijinoko eskolak hain sutsu emoten ebazana; gero Rafa Salterain abadinoarra, Elorrion nire eleiztar izango zana; Jesus Etxebarria nafarra, gimnasia eta frantseseko irakaslea; Iñaki Irusta, Ea itsasaldeko herri politetik Markinara etorrita Teknologia irakasten ebana; Ondarruko Pedro Aramaio, marrazten irakasten ebana; horreek izan ziran nire denporako irakasleak.

"Elkor" zan Eskolako eta inguruko bazter guztietatik gehien ikusten zana, nahiz eta irakaslea izan ez. Eskola gaineko baserri batekoa, "Elkor"ekoa, zan Pedro Elkoro. Hau konpondu behar zala, besteak ikuturen bat behar ebala, "Elkor"engana jotea baino ez egoan. Hau ekarri behar zala, bestea eroan behar zala, beragana joan behar orduan be. Mutilak autoan eroateko be bai. Eskola barruan herriarentzako izaten zan zinea nork emongo eban, ba, "Elkor"ek izan ezik? Danetarako. Eta danak ondo egiten ebazan mantenimenduko arduradunak.

Beharbada, holakoetan behinena edo hartuemon gehien izan dozuna ixten dozu. Ez neuke gura holakorik jazoterik. Nik oraintxe gehien gogoratzen ditudanak eta neu Markinan egon nintzan denporakoak bakarrik jarri ditut.

Ikasleak eta irakasaldiak

Markina, Ondarru, Lekeitio, Berriz eta inguruetakoak ziran ikasleak.

Ikasturtearen lehenengo eskolako bosgarren minutura orduko igarten neban zeintzuk ziran, barrien artean, itsasaldekoak eta zeintzuk barrukaldekoak. Zelan, ba?

Itsasaldekoak, nahiz eta lehenengo aldiz ikusi irakaslea, ezin ziran une baten be isilik egon. "Jaune! Jaune!...". Besteak, ostera, zaratarik atera barik, zuhur, ea irakasleak zer esaten eban. Hurrengo eskola orduetan, lehenengo uneko isilak be hasten ziran euren bildurtxua uxatzen. Bai horixe.

Orain, orduko ikasle bat edo beste ikusten dodanean, ze pozik gogoratzen doguzan orduko euren okerkeritxuak eta gu irakasleon haserre eta ernegualdiak. Baina, orduan be, giro jatorra, gehienetan. Gainera, lehenengoetarikoa izango zan gure Eskola hau euskerea geroago eta gehiago aintzat hartu ebana, gerora dana edo ia dana euskeraz izan arte.

Ez dakit niri zenbat gai irakastea egokitu jatan. Goiz eta arratsalde, orduren bat kenduta, hau edo bestea irakasten jarduten neban, beste irakasleekin batera.

Barinagatik etorten zan Benito Ansola eta biok jarri ginduzan Julianek ikasleen "gogo zuzendari" esan geinkiona. Hainbat ordu igaro nituan gazteekin hartuemonean, euren barruko mundu barri eta aldakorrari buruz, jatortasun betean alkarrizketan.

Nik baino mila bider gehiago eta argiago gogoratzen dabez ikasle izandakoek, zertzuk egiten genduzan ikastaldietan. Jazoeratxu mordoa esan daitekez, baina horretan hasi ezkero, beste liburu bat behar. Berez berez eta gozotsu joaten jakuzan eskola batzuk eta ez hainbeste beste batzuk. Pozik gogoratzen ditut gehienak, baina izaten ziran une latzak be batzuetan.

Pelotarien eragina

Eragin handia euken ikasleengan, noizean behin Ameriketatik etorri eta "Vega"ren aurrean ikusten ebezan zestazko pelotariek. Ez ziran ohartzen ikasleak, ez zirala pelotariok bardin bizi Ameriketan pelotan ziharduela. Orduak eta orduak pelotalekuko geletatik alde

ezinik, eta gero be ez, orain hemen ikusitakoan gaztetxuek uste eben bizimodu nasaia.

"Zuetariko zenbat izango zarie, ba, pelotari onak? Inor bai? Ba, inor balitz be, errazoi bat gehiago ikasketak eta ondo beteteko, gizon egin zaitezen. Pelotari lez handia eta gizon lez txikia? Zer izango litzateke hori? Eta pelotari puntakoak ez izatekotan, danoi edo gehienoi jazoko jatzuena, beharrezkoak dozuez ikasketak bizimodua aurrera aterateko be".

Ez dakit ba, gehienentzat alperrekoa izaten ez zan be nire sekulako eta sarritan errepikatutako sermoe hori! Dana dala, urten eben euren artean puntarengo pelotariak be. Hor dogu Jose Antonio Illoro, Bolibarko Txikito, adituek eta pelotazaleek bere sasoian onentzat eukena. "Maixu zaharra!" esaten deust inoiz ikusten nauenean. Markinako bertako Juan Jose Kalzakorta, neurritik kanpoko indarra izanik, peloteari abiada gehien emoten eutsana, eta bere anaia Julian be ez dira makalak izan. Ezta nire ikasleetariko beste batzuk be.

Kantuak eta mutiko bihurriren bat

Gogoan izaten dabez oraindino orduko ikasle gehienek Eskolako areto nagusiko kantu ikasketak. *Boga boga* liburutxu ia osoa abesten irakatsi neutsen. Balio izan deutse horrek bazkalosteak euskal giro ederrean bizi izateko be.

Behin, mutiko baten gurasoak etorri jatazan haserre, ia bere semeari zer egiten neutsan. Ondo hartu nituan, baina argi esan neutsen bihurriegia zala bere semea eta kalte handia egiten euskula guztioi, ikasketak aurrera eroaten be ez euskula ixten eta. Gurasoek lehenean jarraitu eben. Orduan, etorri ziran beste irakasleak eta nik esandakoari beste horrenbeste baino gehiago gehitu eutsoen. Ez dinot buru-makur joan ziranik, inori ez jako burua makurtuazo behar eta, baina bai beste jarrera bat eukela alde egin ebenean.

Mutiko hori betiko haserretuko jatala uste izan neban. Handik urte batzuetara, Loiolan ezkontza bat izan nebanean, non jatortan mutiko izandako hori eta... sekulako besarkadea emon eustan, "zelako okerra nintzan, ezta?" esaten eustala.

Izan be, ez dot ezagutu mutiko mendekaririk, bat izan ezik. Ez dakit nik zer eukan barruan, baina beste honek bere ikaskideak eurak be ok eginda eukazan. Ez euskun ixten ez irakasten ez ikasten. Gehiago ezinean, neure bizitzan egin dodan agiraka handiena egin neutsan danen aurrean. Ez eustan gehiago aurpegira be begiratu.

Behin, autostop egiten ziharduala, hartu neban, eta bidean, beste bategaz batera, jardunean ekin geuntsan. "Hemendik aurrera lagun gaituk!" pentsau neban nirekautan. Lekutan! Hurrengo egunean, biok bakarrik kalean, ni herri barrurantz eta bera eskolarantz, eta ni berari begira-begira nengoala, burua bihurtu eta txistua bota eban lurrera. Holakoren bat be egon behar, ba!

Merzedean be bai

Dana dala, gogorapen gozoak Eskola Laboralekoak!

Gauza bera esan behar, denpora gitxiago izan arren, nire Markinako azkenengo urteetan hain zuzen, Merzedeko monjetan euskerea sartu ebenean bai euskeraz bai erderaz emoten nituan ikasketei buruz.

Poztu eta puztu egiten naz apur bat edo gehiago, orduan Historia emoten neutsen neska batek baino gehiagok, mesede handia egin neutsela-eta, eskerrak emoten deustezanean.

Ez dakit nik norainoko egia dan, baina "liburuak, historiakoak batez be, emoten deuskuena bereizten eta bere lekuan jarten erakutsi zeunskun" esaten deuste. Beti esaten neutsen ez egiela iruntsi emoten eutsen guztia. Ikusi dagiela nork idatzi dauen, noiz eta zein helburu jarriaz. Eta adibide batzuk jarten neutsezan gauza bera zelan aurkezten eben historiari buruz idazten eben batak eta besteak.

Beste hau be esan behar historiako nire irakaskuntza zala-eta. Datak, urteak eta egunak niri beti laban edo irrist egin deustenez, horreek ez eukela garrantzirik esaten neutsen, gizaldiak edo mendeak berak izan ezik. Holan ete da?

Eskolea eta herriko etxeak arakatzen

Inon be ez ei dira izaten gozoak diktadura baten azken arnasak. Hori emoten eban gurean be, urte hareetan. Ez dakit zer geunkan abadeok, baina ez euskuen guardia zibilek-eta begirik kentzen.

Baten baino gehiagotan, autoa gelditu eragin, eta beste guztiei, arakatuta gero, aurrera joateko esan arren, han eukiten ginduezan bazterrean geldi ez dakit zenbat denpora igaro arte.

Baina gogorragoa izan zan egun baten jazo jakuna. 1973ko otsailean zan. Goiz goizean, goizeko laurak inguruan hain zuzen be, orduan Markinako parroko zeregina beteten eban Benitoren deia Eskolara etxetik: "Guardia zibilak etxea arakatzera etorri dira".

"Epai-agindua badauke, itxi egin behar deutsezu, bestela ez", izan zan Julianen erantzuna.

Etxe askotan jardun eben, goizaldeko ordu egoki horreetan, azterketa eta miaketa gozook egiten. Benitori liburu batzuk, Labegeriren diskoak eta papel batzuk eroan eutsezan. Papel horreen artean, ihes eginda egoan ikasle izandako baten eskutitza. Uste izan eben horrek baieztatzen ebala euren susmoa, parrokia inguruan gazteekin egiten zan lan guztia ETAren aldekoa eta "Aberria askatzeko"a zala.

Horregaitik eroan eben Benito, bere etxea hiru ordutan miatu eta gero, goiz goizetik, eleizako sakristiara, han zerbait aurkituko ebelakoan. Gero, jakina, Eskola Laboralera, miaketa zehatza egitera, parrokiakoa izan eta hainbeste gaztek ikasten ziharduen ezkero.

Orduak egin ebazan dana aztertzen guardia zibil mordoak, metro batzuen barruan. Ez eben ixten papelik be arakatu barik. "Erderaz dagoana bertan itxi zeinke, euskerazkoak batu" izan zan gure aurrean Hidalgo kapitan entzutetsuak esan eutsena.

Une batean, Juliani heldutako eskutitzak irakurten hasi ziran nire aurrean. Nik, orduan, hori ezin eikeela egin ez eurek eta ezta aita santuak berak be. Bilozik aurkituko bagina lez sumau neban neure burua eta gizonaren duintasuna hain zapaldurik ikusteak negargurea emon eustan.

Agertu zan Julian, hartu eban telefonoa eta bikario nagusiagaz berbetan hasi zan "de tú a tú", erderaz. Ez eban emoten urduri egoanik be, nire kontrara.

Atzerantz eragin eutsan harrituta eukan kapitanari, eta honek ez irakurteko agindu eutsen beste guardia zibilei, berari emoteko baino, eta erremiterik edo bidaltzailearen izenik azalean eukenak bertan behera ixteko.

Bazkal ostean be barriro agertu ziran, oraingoan gitxiago. Batek nire gelea edegi ebanean eta horrenbeste liburu ikusi bai apaletan, bai ohe gainean, inork ikusten ez ebala oharturik, esan eban: "Eto ez demaziao!".

Egon be begiak edegita euki ezinik egozan, guztiz nekatuta, gau guztia hainbeste etxe arakatzen ibilita gero. Atea itxi eta kapitanagana joan zan. "Todo vizto, mi capitán". Kalte egitekorik edo euren ustez legezkoa ez zanik aurkituko ete eusten bildurragaitik neukan esturearen estureagaz, ia besarkada bat emoteko gogoa emon eustan.

Benito, herriko beste batzuekin, barruan izan eben kuartelean, hurrengo arratsaldera arte. Ia gau guztia egin genduan kuartelean Julianek eta biok eskolan hartu ebezan papel guztiei buruz, lekuko edo testigu lez, argibideak emoten edo "deklarazinoak" egiten, Hidalgo kapitanaren eta, gero, Durangotik etorritako nagusiagoaren eta bien aurrean.

Gauza kontagarria jazo zan gauerdian. Herriko baten etxean pistola bat aurkitu eben etxea arakatu ebenean. Ezkondu barria zan bertako alabea, Italian, banketxea zaintzeko bere zereginagaitik pistolea eroateko legezko baimena eukan mutil bategaz. Jakina! Pistolea aurkitu ebeneko etxeko mutila barrura sartu eben, bere ezkonanaia agertu arte eta gauzak argitu arte.

Interpolen bitartez aurkitu ebezan ezkonbarriok eztegu bidaian eta Markinara etorteko agindu. Txitean-pitean sartzen zan guardiaren bat kapitanagana, ezkonbarriok nondik etozan esaten.

Holakoren baten, sartu zan, bat-batean, haize-boladaren antzera, zarata baten eta ohiuka, italiarra "¿Dónde está la justicia española?!!!" esaten ebala.

Izututa itxi ginduzan.

"Deténganle!" kapitanak beste guardiei.

Orduan, Julianek, nasai-nasai: "Déjenme hablar con él en italiano". Aurretik be, uste dot berak berba egin ebala Interpolekoekin frantsesez.

Hidalgo kapitana barriro be Julianek harrituta itxirik, holantxe argitu zan italiarraren pistolearen auzia. Neu joan nintzan, kapitanaren baimenaz, barruan egoan italiarraren ezkon-anaiari hurrengo goizera arte nasai egoteko esaten, italiarra heldu zala eta. Eta bide batez, Benito eta besteak gela txiki ilun haretan zelan egozan ikusten.

Honeek Gernikaraino eroan ebezan, hurrengo egunean, epaileagana han itaun batzuei erantzuteko, eta gero aske itxi ebezan.

XI
MARKINA ALDEKO PARROKIETAN

Etxebarrin

Eskolako beste mila gauza esan neikez, baina parrokiara jo beharko dogu, Etxebarrira. Bernardino Barrutia zan parroko, irakurle amorratua, gizon urduria, baina jatorrik baegoan jatorra.

Ni haren laguntzaile jarri ninduen Etxebarrin. Semea banintz be ez ninduan hobeto hartuko bere amak, bertara joaten nintzanean, ia egunero. Bihotzean sartuta daukat oraindino, hil zanean, Bernardinok gurago izan ebala nik orduan joten neban organua jo barik geratzea, nik mezatan buru ez egitea baino. Gitxitan egin izan dot hain bihotz-bihotzetik urten deustan homiliarik.

Gure Erria ateraten eban, hilero, berak bakarrik, hutsik egin barik, gaixotu zaneko behin izan ezik, gure Don Bernardinok. Guardia zibilek kopiadora tramankulua Eskola Laboraletik eroan ebenean, ez dakit zelan konpondu zan, baina atera eban orduan be.

1957ko urtarrilean agertu zan lehenengo zenbakia. 1991ko irailean izan zan azkena. Laurehun eta hamasei ale! Honako honeek ziran betiko sailak: Danontzat, Au be egia da, Ondo dago eta ez ain ondo, Echebarri (sic), Barinaga.

Jose Mari Rementeria Etxebarrikoak ditu ale guztiak eta berak emon deustaz *Gure Erria*-ri buruzko zertzelada horreek, nahiz eta neuk be nire denporakoak danak irakurri. Jose Mari hau beti izan da zehatza danean. Etxebarrin, eleizako organua jotera korura igoten

nebanean eta liburu bakotxa bere lekuan jarrita ikusi, hutsik egiteko bildur barik esaten neban: "Etorri dok, Seminariotik oporretan, datorren urtean abade izango dan gure Jose Mari".

Oromiñogaitik esan dodan antzera esan behar Etxebarriri buruz. Zelako herria! Eta zelako gazteria!

Hara joan eta ia hurrengo egunean, andratxu bik, errukituta antzera: "Zer, jauna, ekandu da berori?". Irakurrita baneukan, baina entzun orduantxe entzun neban lehenengoz *ekandu* berba hori. Guk liburuetatik bakarrik dakiguzan zenbat berba eta esaera erabilten dituen, berez-berez, gure zaharrek! Zer galdu dogun! Eta zer galtzeko arriskuan gagozan!

Etxebarrin hasi eta laster, honako hau be jazo jatan. Ordurako adiskide eginda neukazan gazte batzuek esan eusten: "Zer dabilzu berbaldian hainbeste *antza* eta *antza* esaten? Hain usain txarra ete dago, ba, parrokiako eleizan?" Jakina, Etxebarrin, *hatsa* edo usain txarra adierazoteko *hantsa* berbea erabilten dabe. Eta *antza*-k eta *hantsa*-k, bizkaieraz hots bardina dauke. Kontuan izaten neban handik aurrera, eta *antza* barik, *itxurea* edo holakoren bat erabilten neban.

Don Bernardinok izaten zituan gazteekin erlijinoari buruzko heziketa batzarrak eta nik kulturari egokozanak, iluntzeko batzarretan. Gazteei buruzko arlo hori eta domeketako mezaren baten ardurea izan ezik, bere lepoan egoan parrokiako beste ardura guztia, nik zeozertxu lagunduta.

Gazteen abesbatza

Ia arratsaldero genduan zerbait gazteekin. Laster osotu genduan abesbatza, bereiztasun honegaz: mutil gehienak edo soldadutzan egozanez edo pelotan jokatzen ziharduenez, nesken bi edo hiru ahotsez eta mutilen ahots batez abesten genduzan kantuak.

Aita Emiliano Barandiaraneri esan neutsan egun baten: "Zu, zeuk egindako mezea abestu gura dogu, baina ezin daiteke hiru ahots zurira eta gizonezkoen ahots batera dala jarri?". "Ez" izan zan bat-

bateko erantzuna. Handik egun batzuetara, karmeldarretara joateko deia izan neban. "Hemen daukak!" esan eustan aita Emilianok nire eskabidearen arabera egindako partiturea emonez. Sinestu be ezin neban egin.

Don Bernardinori negar-anpuloak urten eutsen bere gazteei lau ahotsetara meza osoa abesten entzun eutsenean. Holan jarraitu genduan gero jai nagusietan, aita Emiliano bera organu-jole zala. Baina, gitxien uste genduanean, hil egin jakun.

Santa Teresaren aita Jose Domingo bera etorri zan Markinara haren ordez, musikan haren maisu izandakoa eta Euskal Herriko musikarien historia liburuetan be agertzen zana.

"Ez jagok zereginik!" esan neban nire kautan. "Musikari hain handia ezin daiteke etorri gurea lako abesbatza txatxar bati organua joten". Baina aita Migel Maria Juaristi komentuko buruak Etxebarrira bialdu eban gu abestiak ikasten gengozala.

"Zer egin deutsazue aita Jose Domingori?" esan eusten fraile batek baino gehiagok hurrengo egunean. "Etxebarriko gazteak eta Etxebarriko abesbatza aitatu baino ez deuskuz egiten egun guztian".

Guk pozik hartzea baino ez genduan egin. Bere azkenbako apaltasunak egin eban bestea. Beraz, zati baten, jai handietan, berak jo euskun organua aita Emilianoren mezea abesteko. Baina, gero, "Credo" eder bat asmau eban eta, geroago, berak barrien barri geuretzat egindako meza barria. Jakina, nesken hiru ahotsetara eta mutilen ahots batera. Hori abestu genduan handik aurrera, berak organua joten euskula. Inoiz Etxebarritik kanpora abestu genduanean, nire lehengusu Romanen emaztea, Txaro Barrenetxea, etorri jakun organua jotera.

Nik alde egindakoan Markinan hasi barri zan abesbatzarentzat meza horixe emakumeen ahots bitara eta gizonezkoen ahots bitara jarri eta Markinako abesbatzak hainbeste bider abestu dau. Nik orduan Elorrion birsortu barri neukan "Berrio Otxoa Abesbatza"ri be bialdu eutsien Markinakoek eta eurekin batera abestu be egin genduan Lekeition, eta ez naz gogoratzen beste inon egin genduan ala ez.

Ez dakit ezer barruragotik eta gogotsuago zuzendu dodan Meza hori baino. Jose Luis Lauzirika Markinako Abesbatzaren zuzendari gaztea bat-batean eta uste barik hil zala eta, handik hilebetera edo, Markinako abesbatzak nik zuzenduta abestu eban, Jose Manuel Azkue organu-jole handiak lagundurik. Apaltasun handikoa Azkue hau, Europako musikaririk onenetakoa izanik, zale kazkar hutsak izatetik pasetan ez ginanoi laguntzeko. Eta zelan lagundu, gainera!

Geroago Elorrion jazoko jatan lez, ez ekien solfeorik abeslaririk gehienek, danek ez esatearren. Baina danak izan dira belarri zorrotzekoak. Esango neuke, euretariko bigan ia neurritik gorakoa zala edo dala zorroztasun hori. Bitxikeria dirudian arren, Etxebarrin, Agerreko Mari Eli Arrietak, solfeorik jakin barik, lehenengo berak ahotsez ahots ikasi eta umeen hiru ahotsetako korua zuzentzen eban eta zuzentzen dau. Ez dakit oraingo solfeorik ikasi dauen. Eta geroago Elorrion, nasai izaten nintzan Juan Mari Basterretxea egoanean, beherengo ahotsa eukenak ez ziran galduko eta.

Alfabetatzearen aurrekoak

Etxebarriko gazteek ez eben abesbatzean abestu bakarrik egiten. Orduantxe ziran hasibarriak alfabetatze ikastaroak han eta hemen.

Markinan, aurretik Juan San Martinek eta Rikardo Arregik berbaldi argi eta zirikatzaileak izan ondoren, Luis Baraiazarra karmeldar gazteak, "Zerutxu"k eratuta, Merzedeko areto baten emon eban alfabetatze ikastaroa. Eta Etxebarrin be laster eratu genduan gazteok. Neuk be neure burua gaztetzat neukalako jarri dot "gazteok". Juan San Martinek ateratako lagungarri batzuekin eta Kirikiñoren *Abarrak* herrikoiagaz baliaturik (ala Bitañoren *Atalak* ete zan?), jo eta ke ekin geuntsan irakurten eta zelan idatzi behar dan ikasten.

Lagungarri askorik euki ez arren, izan leiteken lagungarririk onena euken etxebarritarrek: egunero erabilten eben euskera oparoa, aberatsa, ederra. Erabilten ebela esan dot, baina apur bat argitu beharra dauka esaera horrek. Markinako Merzedeko ikastetxean ikasita egozanez, erderaz egiten eben gehien baten, euren artean, neskek.

Bai. Modan jarten joian erderea, gaztelania hain zuzen be. Ni harrituta gelditu nintzan hara joan nintzanean.

Markinan bertan be erderea zan nagusi, nahiz eta ia danak jakin, eta askok hobeto beharbada, euskerea. Baina baegozan, mutilen artean be, euskerea beharbada ulertzen ebenak, baina egiteko gauza ez ziranak, Markinako kaletarren artean.



Antzerkia Etxebarrin, *Nire senargaia*, 1969-70.

Ondo ezagutzea egokitu jatan batetik besterako bilakaerea, askori jazotakoa, erderaz egitetik euskeraz egiterakoa hain zuzen be. Etxebarrin bertan, mutilek, zer esanik be ez, euskeraz egiten eben beti, eta zelako euskerea egin be! Neskak, egiten ebenean, mutilek baizen ondo edo hobeto, baina noiz egin? Jakina, nire aurrean, lehenengo egunetan izan ezik, ez neutsen entzuten euskeraz baino. Nigandik metro batzuetara hasten ziran erderaz.

Ondarrutarren kexua eta Picos de Europa

Behin, Barinagako ez dakit zein jai zala eta, hara joan ginan abestuten. Ondarruko talde bat be han zan, gauza bera egiten. Haserre etorri jatazan ondarrutarrok, nire neskek euskeraz ez ebela egiten eta. Ni pozik hori esan eustenean, baina eurak entzuteko moduan barriro esan eragin neutsen ondarrutarrei. Neskak lotsatuta. Min handia hartzen eben, neuk be behin baino gehiagotan "las de Casanueva" zirala esan behar ebela zirikatzen nebazanean.

Baina, haren baten, eraginik handiena Cantabria aldean izan eben. Urte batzuetan urtero egiten genduan ostera baten, edurra zala eta, Picos de Europako teleferikoari itxaroten egon behar izan genduan han goian, zati baten.

Gu, umoretsu, hasi ginan, ez ahotsetara abesten, eguneroko euskal abesti zahar eta barriak kantetan baino. Danen txaloak entzunda jarraian, edurtzan ibilteko tresnakin egozan Asturiasko gazte jator batzuk euren kantua abestu euskuen. Gure txaloak orduan, eta beste abesti bat. Ez dakit zenbatgarrenean, eurek, gehiago ez ekienez, isildu egin behar, baina gureek ekin eta ekin jarraitu eben. Ez neban uste horrenbeste euskal kanta ekienik.

Danak jarri ebezan dantzan. Salamankako senar-emazteak, dantzan eginaz, pozik, esaten eben: "¡Estamos bailando en vasco!". Gauza polita izan zan. Jakina, ez kantuak bakarrik, geure arteko jarduna be euskera hutsean, eta danak pozik.

Uste dot, ordurako be norbere hizkuntzearen garrantziaz ohartzen ziharduan neska taldearentzat eragingarria izan zala teleferikoaren jaitsierari itxaroten egon ginan une gozo ha.

Alfabetatzea

Horreen ondorena izango zan? Ez dakit, baina goitxuan esan dodanez, euskal alfabetatzeari be ekin geuntsan jo eta ke, ez dakit zenbat bider.

Alfabetatzeagaz lotuta, gazteek ia etxe guztietakoak egin ebezan une haretan bizkaieraz agertzen zan *Anaitasuna*-ren harpidedun. Herri guztia alfabetatzeko bide egokia zan. Tamalez, goizetik gauera jarri zan *Anaitasuna* batueraz, eta gatxegia egiten jaken danei. Zorioneko ala zoritxarreko pedagogiarik eza! Eskerrak Don Bernardinok ateraten eban *Gure Erria* mundu guztiak irakurten ebala, Etxebarrin eta Barinagan, hilero.

Iluntze mordo baten joan nintzan, pozik joan be, Mendexara ikastaro bat osotzen. Zelan diran gauzak! Zer esanik be ez, bai etxebarritarrek bai mendexarrek nik baino hobeto egiten ebela berba euskeraz. Alfabetatzea behar!

Urte horreetan hasi ziran euskeraz ez ekienak euskeraz egiten zan etxeetara eta joaten. Ez dot ezagutu inor bizkorrago ikasi dauenik Sestaotik tautik jakin barik etorri zan Arantza Santamariak baino. "Argi indar" dendea euken Josenaneko Aginagatarren etxean egiten ebanagaz, ikastolan irakasleari laguntzen entzuten ebanagaz eta neuk iluntzeetan laguntzen neutsanagaz, urtea amaitutakoan edozeinen aurrean berbaldiak egiteko be gauza zan.

Orduko euskalgintza giro horretatik etorri ete jaken Arriondoneko Yoli Arrieta orduan ia, edo ia barik, umea zanari idazle izateko eta Arabako Xabier Altzibar gaztetxuari euskal literatura goitik behera ezagutzeko gogoa eta grina? Lan ederrak argitaratu dabez, behintzat, biek be, bakotxak bere arloan.

Zelako antzerkilariak!

Orduak sartzen genduzan antzerkiak ikasten be, gero han eta hemen antzezteko. Abadiñotik be deitu euskuen behin San Blasetan probalekuan egiteko. Bozgorailurik ez egoanez, sekulako ahalegina egin behar izan eben antzezlari guztiek, ia oihuka esaten ebena ikusleak ikusi bakarrik ez, entzun be entzun egien.

Ez Abadiñon bakarrik, baita Aulestin, Ibarrurin, Mallabian, Bernan, Munitibarren, Barinagan eta beste nonbaiten be izan eben etxebarritarrek antzerkirako euken trebetasuna erakusteko erea.

Bernan, esate baterako, gogoan ei daukie antzerkia zein izan zan eta antzezlariak zeintzuk izan ziran. Aulestin, Etxebarriko gazteen antzerki emonaldia zala-eta, lehenengo aldiz aurkeztu ebezan euren kantuak Eskarne Aroma nire lehengusinearen hamar urtetik beherako hiru seme-alabatxuek, gero gazte-gaztea zala istripuz hil zan Ibon bertsolaria euretariko bat zala. Ibarrurin egin genduanean, han egoan begira, zuhur-zuhur, Bilbotik etorritako Xabier Gereño, eta zer esanik be ez, Txomin Artetxe bertako parrokoa.

Okilomendi alkate antzerkian, *Txikitxo* esaten geuntsan Arrotaingo Frantzisko Beristain notarioari, ezetara be ezin irakatsi neutsan une laburtxu bateko sartu-urtenean esan beharrekoa. Egun bitan edo, Etxebarrira joan barik geratu nintzala eta, antzezlariek eurek euretara ekin eutsen jo eta ke. Joan nintzanean, harrituta itxi ninduan Txikitxok. Ondo baino hobeto egiten eban nik irakatsi ezin neutsana. "Zer egin dozue ba?". "Ba, antzerkian neskame egiten eban Blankik hartu dau eta zirti zarta, ia hasi orduko, Txikitxok behar dan moduan egin behar izan dau". Zelako antzerki irakaslea ete nintzan, ba? Edo zelakoa ete zan Landibarko Blanki Ibarzabal?

Gazterik hil ziran antzerkilari bi, *Okilomendi alkate* antzerkian notario egiten eban aitatutako Txikitxo eta tabernari egiten eban Anjel Korkostegi, gero Ameriketara joan jakuna. Antxiko Juan Anjel Armaoleak, antzerkian Santxo kalezaina, kaleak garbi eukiteko zeregina eukan. Etxebarriko benetako alkate izango zan Juan Luis Arrieta, *Patro*, ez dakit zenbat umeren aita izan zan *Nire senargaia* antzerkian.

Hau nahiko nagusitxua zala, ez dakit zer dala-eta, gehiago ezinean ernegau eragin eustan, eta nik, bero-bero jarrita, beste barik, kanpora bota neban. "Ba, neu be bai!" esan eta han doa bere atzetik kanpora Urrusoloko Mari Paz Ugarteburu neskatila liraina be, berak aurretik ezer egin ez arren. Jontxo! Zergaitik ete dok ba? Handik urte gitxira, ni Elorrion nengoala, eurei ezkontza-bedeinkapena emoteko deia izan neban. Aurretik be, pasadizo ha jazo izan arren, lagun handi nintzan eurekin.

"Osaba maitea, zenbat maite zaitudan" esaten eutsan, *Ameriketako osaba* antzerkian, Belaotseko Maria Jesus Zubialdeak Basabeko

Fernando Arrietari. Honek, "Neuk be bai zu, lobatxu maite" erantzuten eutsanean, zelako barreak egiten ebezan etxebarritarrek eta beste herrietako ezagutzen ebezanek. Ondo gogoratzen naz benetako bizitzan, handik urte gitxira, neu joan nintzala, hanka bat igeltzatuta nebala, eurak ezkontzera.

Ikasten jardun arren, antzeztu barik geratu jakun Agustin Zubikarairen *Kapitan pilotu*.

Bat-batean asmetan be ez ziran makalak gure antzezlariak. Eta holan izan behar Mari Jesus Zubillaga Urtakoagaz. Papelean jarten ebana barik, berak asmetan eban berba egin ahala. Behin, Santa Engraziko Maribel Arrieta, une baten, isilik. Hasten da Mari Jesus, bere eskuei gora eta behera eta alboetara eraginez, hau eta bestea eta ez dakit zer asmetan eta esaten, eta aurrean eukan Basabeko Loli Arrieta barreari eutsi ezinik. Maribel berea esaten hasi zanean, aurkitu eben barriro be haria eta ondo jarraitu eben. Baina, zati hori amaitzeagaz batera, Lolik ezin izan eutsan negarrari eutsi, zer erantzun ez jakiteak emon eutsan lotseagaitik eta erneguagaitik. Eurek jokatzen ez eben antzerkiren baten apuntadore egin eben Juanita Gisasola Ibarluzekoak eta Agerreko Mari Eli Arrieta be noraezean geratu ziran inoiz Mari Jesusen urtenaldi horreekin. Barreari eutsi ezintxua be izaten zan behin baino gehiagotan, Mari Jesus egon ez arren be.

Jakina!, antzerkia egiten genduanean, abesbatzaren ekinaldiagaz osotzen genduan saioa, hiru eta lau ahotsetara abesti mordoa abestuaz.

Behin, ostera, ni bizi nintzan orduko Eskola Laboraleko Aretoan, jentez bete-beterik egoala, antzerkirik egin barik abestu genduzan, ahal izan genduan txukunen, ikasita eta "orraztuta" geunkazan abestietariko batzuk. Ez ziran edozelangoak Markinako "Zerutxu"k antolatutako saio horretan esku hartu ebenak: "Benito Lertxundi, Julian Lekuona eta Xabier Lete (Ez Dok Hamairukoak), Jon Mirena Aginagaren txistu eta ahoko soinu joaldia eta Zerutxuko umeen olerki eta abestiak". Hori agertzen da Zerutxuren papelen artean, Luis Baraiazarrak erakutsi deustanez. Baina, ez ete eban abestu saio horretan hain gozo eta samur hori egiten eban Lourdes Iriondok?

Badakit behintzat han izan zala, agertokian, nire gazteak, abestu orduko urduri egozala eta, adoretzen eta abestuta gero eurei eta niri zorion beroak emoten. Gogoko genduzan andra eta abeslari bihotz handikoaren abesti fin eta bihozkorrak.

Nik alde eginda gero, sekulako antzerki lanak aurkeztu ditue etxebarritarrek ez dakit zenbat lekutan. Elorrion ikusteko zoria izan neban Etxebarriko jazoera baten oinarritutako *Hamalau heriotzarena*.

Gure antzerkien denporan oinez ikasten jardungo eban Txikitxoren lobea da, hain zuzen be, Irubideko Iñigo Larrinaga, bere trebetasunagaitik Euskal Herri mailan antzezlari ezagunenetarikoa, Euskal Telebistako *Goenkale*-ko Koldo.

Gazteen ostera luzeak

Aitatu dot Picos de Europako Fuentede-ra egin genduan osterea. Covadongan be izan ginan. Miraria zala uste izango eben askok han jazotakoa. Covadongan, autobusaren zuzendaria kanpoan zan une baten, gauez, autobusa beheruntz hasi ez zan ba! Barrukoek kanpoko argiakaitik ohartu ginanean, gazte batek, ez dakit nork, aurrera jauzi egin eta galgeari emotea lortu eban.

Urtero egiten genduan ostera luze bat.

Liluratuta itxi ginduezan Aragoiko Monasterio de Piedra ondoko ursaltoak, zubiak, uretako arrainak, uraren birbisak...

Futbolean be egiten genduan jokaldia, neskek mutilen aurka. Eta ez harritu neskek irabazten ebela esaten badeutsuet. Mutilek pelotan bai, baina futbolean... Ni neskekin jarten ninduen, eurekin tope egitea saihesteko, antza danez.

Beste urte baten, Madril ondoko Eskorialeraino joan ginan. Han bai haserretu nintzala gauean, hotelean, atera eben zalaparteagaitik. Ugazabak zirala uste nebazanek, alboko gela batetik protesta hutsean "estos jovenzuelos vascos... y el peor el cura" esaten sumau genduzan. Hobeto esateko, horma horren ondoko ohean egoan eta Markinatik txistulari lez laguntzen etorten jakun Migel Anjel Ibarzabalek entzuten eutsen. Honek, dardaraka, niri: hau eta hau dihardue esaten.

Etxebarriko gazteakaz Monasterio de Piedran, 1968.

Hurrengo goizean, ugazabei parka eskatzera ninoiala, honeek: "Ha sido el grupo de jóvenes más educado". Nik orduan "Entonces, los que protestaban...". "Ah, dos viejos cascarrabias". Hantxe amaitu zan nire benetako haserrea. "Eguzkia agertu da!" esan neutsen kopetilun eta ni hain ilun eta haserre ikusita harrituta egozan gazteei.

Gogoangarriena, beharbada, Lourdesera egin genduan joan-etorria izango zan orduko udearen egun bi beroenetan, San Pedro inguruan. Erre ez ginanean! Gure ekonomi urria zala eta, patata-tortilak eroaten genduzan hiru egunetarako. Oraingoan, bigarren egunerako, beroaren beroagaitik, alperrik galduta egozan danak.

Patroko Isabeli jazo jakon jazotekoa. Frutak baino ezin ebazan jan. Bidean, erreka baten ondoan jesarri ginanean, uretan jarri ebazan, apur bat hozteko, eta ez eutsazan, ba, danak urak eroan?

Nork antolatu behar?

Jakina, aurretik be, euren esku egoten zirala gauzarik gehienak, baina antolaketa, esateko, neure esku.

Lehenengoz itxi neban antolaketa guztia euren esku. Hori ikasi neban orduan irakurri nituan pedagogiako liburuetan, ondo heziteko ez jakela dana egin behar heziketa hartzen dabenei, eurei asmatzen eta egiten itxi eta lagundu baino. "Ez habil zuzen, Juanito" esan neutsan neure buruari. Barre egiten eustan Don Bernardinok. "Teoria horreekin Irunera be ez zarie helduko zuek".

Jazo be hori egin jakun. Hartu eben autobus zaharra Irunen itxi eta, Hendaiara igaro behar izan neban, Markinan autoeskola eukan Mari Sol Etxabegaz eta Mari Karmen Rodríguez, Etxebarriko maistrearen alabeagaz, autobus barri eta gidari barri baten eske. Pasaporte arloan, baten izenik ez egoala eta orduak egin behar izan genduzan poliziara joan-etorrietan.

Lourdesen be, ez uste izan hotelean lo egin genduanik. Diruz urri genbilzala eta, autobus barruan lo egitekotan gengozan. Eskerrak autobusa aldatu behar izan genduala. Bestela, erre egingo ginan bertan. Barrian be, gitxi batzuk geratu ginan gau guztian. Gehienok landako bedar gainean lo egin behar izan eben. Ez dakit beste hutsen bat izan genduan ala ez. Izango zan besteren bat be. Orduan bai barre egin euskun Don Bernardinok etxera etorri ginanean. Baina, azterketa sakona egin genduan hurrengorako, eta ordutik aurrera be eurak arduratzen ziran danagaz. Eta ez eben barriro hutsik egin. Balio izan eustan liburuetan ikasitako pedagogiak.

Dana dala, zoragarria izan zan Lourdesera egindako osterea. Ezkutatu barik egin eban negar, benetan gainera, barriro Hendaian itxi behar izan genduan autobus-gidari euskaldunak. Urteetan, ia bere umetatik, halako giroan bizi izan barik egoan. Ostera guzti honeek asko balio izan euskuen beste lurralde batzuk zelakoak diran jakiteko eta arte lanak eta monumentuak ikusteko eta gozatzeko.

Madrilen arteari buruzko azterketa egin barri neukan eta han jarduten neban "hau gotikoa da, hau barrokoa da...". Neskak zuhur-

zuhur, ikasi guran. Mutilek gurago izaten eben taberna zuloetara egarria baretzen joatea. Nahiz eta urte baten, egun bateko osteran, Elantxobera joan ginanean, aho zabalik geratu ziran mutil guztiak be, "hau da hau!" esaten ebela.

Ekintza ederra burutu eben gazteok Doña Salva maistreari herriak agur egin eutsanean. Herri guztiaren aurrean, neure laguntzaz eurek egoki prestautako umeen, gazteen, helduen eta zaharren parte hartzea maisuki zuzendu eban Mari Jesus Urtak.

Pozik egoten ziran ezkonduak eta nagusi guztiak gazteek eurentzat gertetan eben osterea egiteko. Zelako gozoak izaten diran orain be gaur egun horren gazte ez diran orduko gazteekin noizbehinka izaten ditudan afariak eta jardunaldiak!

Mezea norbere hizkuntzan. Jantzi aldaketa

Ahaztu ezina dot, urtean behin gazteok, altarea inguraturik, izaten genduan Meza ederra, danok esku hartzen genduala.

Markinara joan barritan, aurretik latinez emoten genduan mezea, bakotxa geure hizkuntzan ospatzen hasi ginan. Kontzilioak liturgian aldaketa ikaragarria eragin eban. Zelako aldea! Gogoan dot oraindino, mutikotan eta geroago, eleiza askotan, abadeak mezea emoten, aurrera begira, latinez ziharduala, beste abade bat honako eta halako otoitzak edo berbaldiak egiten ibilten zala, errosarioa errezetan ez bazan. Nire abadetzako lehenengo urteetan be latinez eta aurrera begira ospatzen genduan mezea, nahiz eta irakurgaiak norbere hizkuntzan izan eta kantu asko abestu.

Eta orain, danok ulertzeko eta esku hartzeko eran, bakotxak bere hizkuntzan. Zelango zirrara guztiona, bidezkoa dan era horretan hasi ginanean. Markinako karmeldarren nagusiak, Aita Migel Mariak, euskerazko lehenengo mezea emotean sentidu eban hunkipena eleiztar guztiek sumau eben, eta eurek be dardara bardina izan eben. Ez zan gitxiagorako be!

Lourdesera joan baino apur bat lehenago izan zala uste dot, sotanea kendu eta klermanez janzten hasi nintzanean. Gero, laster kendu

genduan danok klermana be. Ha izan zan barre-algara iluntzero lez gazteakana joan nintzanean eta sotanea soinean barik beste era batera jantzita ikusi nindunean! Baina gero, lasterrera, barre handiagoak egingo ebezan, sotanaz agertu banintz. Berehala moldatzen gara ohitura barrietara, eta gehiago, berezkoak eta bidezkoak diranean.

Ez uste izan agiriko eta azaleko aldaketa horreek bakarrik ekarri ebazala Kontzilioak, ezta antzik be! Hau ez da unea gogoratzeko Kontzilioak hartu ebazan ebatzi ugari eta sakonak, urratu ebazan bide nagusiak eta eleiztarroi eta gizaki guztioi jarri eta egin euskuzan eskeintza barriak eta, neurri handi baten oraindino geugandu ez doguzanak.

Herri Gaztedia

Eleizbarruti baten barruan dagoan parrokia izaten da kristau ekintza askoren esparrua, baina kristau ekintza batzuk parrokia baino esparru zabalagoa eskatzen dabe. Parrokia esparruan barik, bizigiro bat aintzat hartzen dabenak edo esparrutzat hartzen dabenak esan geinke dirala eleiz mobimentuak esaten jakenak. Horreen artekoak dira sasoi haretan pil-pilean ziharduen batzuk: antxinako Katoliko Ekintza, honako eta bestelako honen adarrak, kristau langile nagusien HOAK, kristau langile gazteen JOC, kristau ikasleen JEC... Eragin handia hartu eben gure inguru guztian.

Honetan be, beste arlo gehienetan jazoten jakun lez, ez geunkan euskaldunok behar genduanik, erdera mundua zan guzti hori eta. Horregaitik, sekulako dilema mingarria sortzen jakun: gure eleiztarrak kristau mobimentu horreetan sartu, euren euskalduntasuna galtzeko arrisku ikarragarriagaz, ala arrisku horretan sartu barik geure pobretasunean geratu? Jakina, batzuek ez eben ikusten holakorik. Ze euskera eta ze otxokuarto, gizonago eta, gure kasuan, kristauago izateko eragozpen badogu!

Gazteen kristau mobimentuei buruz, laster erraztu jakun bidea eta joan jakun dalako dilemea. Hor agertu jakun bizi-bizirik, eta goian esan doguna aintzat harturik, Herri Gaztedia eleiz mobimen-

tua. Izan ziran, Jainkoari eskerrak, buru argidun batzuk eta ausart batzuk hemen behar genduan eleiz mobimentua, gazteena behintzat, sortu eta bideratu ebenak.

Gogoan dot laster bialdu euskuela batzarretarako eta erabilten zan argota edo gehien erabilten ziran berbak, euskeratuta: ekintzaileak, batzordea, heziketa, bizikizunak, gizartea...

Kristautasuna dotrinatik ekintzara edo bizitzara eroaten laguntzen euskun tresna jatorra zan, Gaztedi Langile Kristaua sortu eban Joseph Cardijn-ek asmautako (ala besteren batek asmau ete eban?) bidea: ikusi, kristau ikuspegiz aztertu, eta ekiteko erabagiak hartu.

Ezin dot gauza askorik esan, Herri Gaztediak iraun be ez eban iraun luzaroan eta, baina bai sekulako mesedea egin eutseela gure gazte taldeetan ziharduen bati baino gehiagori.

Oraindino gogoan ditut abadeoi neskatila gazte batek, argitasun osoz eta trebetasunez, emoten euskuzan berbaldiak. Dimako Mari Karmen Ibarra genduan neskatila argi eta ausarti hori. Eta zer esan neike urte hareetan Herri Gaztediko abade-arduraduna zan gure Ander Manterolagaitik? Asko zor deutsagu beste guztiok, gero beste arlo batzuetan jazo danez, orduan egin eban lan jatorragaitik.

Antza danez, ez dakit nortzuek eraginda, Euskal Herri guztiko Herri Gaztediak bereak izan behar ez eben bide batzuk hartu ebazalako, hor amaitu zan gure artean izan eban ibilbidea.

Arerioak alkar maitatzen

Goitxuan Lourdes aitatu dodanez, ezin dot itxi aitatu barik barruan sekulako zirrarea sortu eustan jazoera bat. Lourdesera joan ginan, neuk autoa zuzenduta, gurasoak, Mari Karmen lehengusina eta neu.

Europa guztiko edo mundu guztiko gudarien erromesaldi eguna egokitu zan. Milaka eta milaka ziran Ama Birjinaren laguntza eta betiko bakea eskatzera joandako gazteak. Morrosko bakotxik! Lourdesko kurutze-bidea egiten ikusi genduzan mordoak, taldeka. Otoitz egitera bultzatzen eban gazte hareetan ikusten genduan otoitz egiteko ereak.

Baina arratsaldekoa izan zan hunkigarriena. Munduan izan dan gerrarik ikaragarriena antxina ez zala amaituta, irabazi eban gudarosteko gudaria, galdu eban gudarostekoaren ondoan, batak besteari besoz beso helduta. Milaka bateko eta milaka besteko, alkarri besotik heldurik, danak, batean hizkuntza baten, bestean beste hizkuntzan, abestuz eta otoitz eginaz, aurrera. Ikusi ete daiteke gauza hunkigarriagorik?

Negarrak urteten euskun ondoan begira eta eurei otoitzean laguntzen gengozan gehienoi. Milaka barik, neurri txikitxuagoan, ehundaka balitz be, gure Herrian holakorik ikustearren!

Egoera gogorra eta ekintza gogorrak

Ez ziran artziprestaldera mugatzen abadeon ekintzak. Beraz, gureak be ez ziran Markinaldera mugatzen.

Mila bederatzirehun eta hirurogeta zortzia zala uste dot. Larria zan, benetan, Eleizbarrutiaren egoerea. Ez dakit zenbat, baina ez ginan gitxi, gotzaindegiko langeletara sartu ginan abadeok, bidezko eskabide batzuk egitera. Asko idatzi da horretaz, eta nik zelan bizi izan neban adierazoten dauen jazoeratxu bat edo beste bakarrik jarriko dot.

Zapatuan sartu, eta nik parrokiako gazteekin domekan osterea neukalako, alde egin neban, ordezkoa itxirik. Luis Baraiazarra, gero euskal idazle trebeenetarikoa izango zana eta Kontzilioa euskeratuko ebana, egon zan hurrengo egunera arte nire ordez.

Gauean danak, ekintza amaituta, kanpoan izango zirala uste izan neban, baina domeka gauean jakin neban han jarraitzen ebela, oraindino urteteko uste barik. Beste barik, han nintzan astelehenean, egokidan tokia hartzen eta Luisi komentuko bidea emoten.

Gogorrak izan ziran egun hareek. Orduko gotzainak bere-berean jarraitzen eban. Danetariko batzarrak izan genduzan barruan gengozanok. Itzelak esan jakozan Ubietari berari, alkarrizketarako etorri zan batzar baten. Ez eban merezi holakorik. Egoereak bultzatuta edo, senetik kanpo jarri ziran batzuk batzar haretan. Ez dakit nongo

beharginek ekarten euskuen, pozik, bazkaritarako eta afaltzeko behar genduana.

Gau baten, batak eta besteak ez dakit nora joan behar ebela, eta lau edo bost bakarrik geratu ginan bertan, egunkari bat mantatzat harturik, lo egiten, ahal bagenduan behintzat, polizia be etorri eitekean eta. Gogoratzen naz Lontzo Salaberria zala bat eta Martin Olazar beste bat.

Garbia eta zintzoa zan ekintza, baina ez jatazan gauzaren bat edo beste atsegin izan. Hiru-lauk euren artean hizketan ziharduela, banoa eurakana, eta euretariko batek: "Ardura ez badeutsu... ezin zaitugu izan berba-lagun une honetan". Gau latzak bertan jasan eta gero eurek esaten ebena entzun ezin? Susmoa sartu jatan. Ez neutsan bape ondo eretxi.

Gauzea luzatzen joian, eta holako baten, gotzainak Ubieta izendatu eban bere ordezko lez eleizbarrutiko gizarte eta pastoral arloetarako. Eta Ubietaren aholkulari lez, batzorde bat. Batzorde horretan, barruan gengozanetatik hiru kide, euretariko bat taldeko gogorrenetarikoa.

Gauzak holan, urten behar zan ala ez erabagiteko batzarra egon zan, taldeka. Gure taldean, danak gengozan gertu gehienek esaten ebena egiteko, baina errazoiak eztabaidatu ziranean, bostetik bik urtetearen alde egin genduan. Gotzainak sortutako batzorde barrian barruan gengozenetatik hiru egonik, gura zana lortzen ez bazan, usteldu arte bertan egongo ginala ikusten genduan, urten egin behar zala uste genduan biok. Beste taldetxuetan be antzera samar.

Talde guztietakoak batu ginanean, gure taldearen barri emon ebanak, gu danok aho batez jarraitu egin behar zala esan genduala azaldu eban. Hori zehaztu egin behar zala esan neban nik. Gehiengoak esaten ebana egiteko gertu gengozala danok bai, baina gure taldetxuan hiru boto izan ebazala jarraitzekoak eta bi urtetekoak.

Nik argitasun hori emoteaz batera, non hasten dan garrasika batzarra zuzentzen egoanetariko bat, gu baino gazteagoa eta nire ezagun handia hain zuzen be. "Bildurtiak doazala etxera!" oihu egin eban, erderaz, jakina, sama inguruko haragiek dardara egiten eutsela.

Handik ordu gitxira, danok gengozan etxerako bidean. Zer jazo zan, ba, bitartean, holako aldaketea izateko? Rafael Belda jakitun argia eta gogoratzen ez dodan besteren bat etorri ziran, eta alkarrizketa labur baten ostean, danek erabagi eben bertan behera itxi behar zala ekintza gogorra izan zana. Ez zan garrasirik ez histeriarik egon orduan.

Geroago, hain ezaguna dan abade mordoa Seminarioan sartuta egotearen ekintza etorri zan. Han egon izango nintzan ni, Madrilen azterketa batzuk egitea egokitu ez bajatan. Madrildik etorritakoan, eurakana aurkeztu nintzan laguntzatxuren bat gura baeben. Hori egin neban.

Idazki bat baino gehiago izenpetu edo sinatu genduzan sasoi haretan, baina ez sinatzeko eskabideaz etorten ziran guztiak, jakina! Zuhur egon behar zan beroaldi haretan, zein zan egia, zenbaterainokoa zan beroarena, kalte egiteko barik, Eleizeari eta Herriari on egingo eutsan sinadura izango zala jakiteko... Beste horrenbeste esan behar, egiten ziran ekintza bat eta besteri buruz.

Egin beharrekoak zirala uste izan neban egin ziran batzuk edo gehienak, eta ez naz damutu. Euretariko bat, Madrilen lagun baten epaiketa zala-eta eratu zan joan-etorria. Ehundik gora abade joan ginan Euskal Herri guztitik. Ez ziran gozoak izan poliziaren aldetik eta madrildar bat edo bestegandik entzun behar izan genduzanak.

Une baten, zahar itxura harturik, izan be bere urtetxuak zituan eta, Nemesio Etxanizengana jo eban polizia batek, guztioi sakabanatzeko eskatu eigula esanez. "Dispersáos!" esaten euskun Nemesiok, baina, jarraian, euskeraz: "Ez egin jaramonik!" Bigarren eskabide hau geratu zan nagusi, poliziek eurek, bultzaka, mobimentuan jarri ginduezan arte eta kale bi edo hirutatik zehar aurrean eroan ginduezan arte. Gogoratzen naz Mikel Atxaga idazle argia zala nire ondoan joan ziranetariko bat.

Zailena niretzat, nire Durangoko etxetik ia bertan, Andra Mariko eleizpean, orduan Durangoko Andra Mariko abadea zan gure Ander Manterolari autoa kendu eutsela-eta, herritarren aurrean abade mordo batek egin genduan protesta ekintza.

Barinagan eta Gerian be bai

Markina aldean egindako urte horreetatik azkenengo bostetan, 1970etik aurrera, inguruko abadeok, bakotxak bere parrokia izan barik, *in solidum*, danok danean, jokatzea erabagi genduan. Julianen beste asmoetariko bat izan zan, gure artean behintzat, gero Eleizbarruti guztian, han eta hemen, zabalduko zana.

Orduan, Markina guztian hain maitatua zan gure Don Elias Lasuenek alde egin eban, guk geratzeko eskatu arren, nahiz eta bera parroko izan ez. Gogoratzen naz zelako ahaleginak egin nebazan, biok Madrilera, ni azterketaren bat egitera eta bera beste zeozer egitera, alkarregaz joan ginanean. Baina zaharra ikusten eban bere burua era barri horretara jokatzeko, eta alperrekoak izan ziran gu guztion erreguak.

Benito jarri genduan arduradun nagusi eta Markinan biziten jarri zan, Barinaga itxita. Neuk hartu neban Barinagako ardura zuzena, beste guztien izenean, Etxebarriko betebeharrak itxi barik, eta, zer esanik be ez, Eskola Laboralekoak. Beste horrenbeste Geriakoa be.

Nahiz eta Barinagan hain estimu handitan euki Benito eta lehen bertan bizi, eta nik Eskola Laboralean biziten jarraitu, ondo be ondo hartu ninduen barinagatarrek. Izan be, lehendik be ondoan egonik, ezagunak ginan danok. Beste horrenbeste jazo jatan Gerian.

Zer dan ardura zuzena hartzea! Nahiz eta Etxebarrin buru-belarri sartuta egon gazteekin eta behar zanean Bernardinoren ordezkoak egin eta Mezea be domekero emon, behin be ez nebazan ikasi baserrietxe guztien izenak, Bernardino zalako zuzeneko eta benetako arduradun. Barinagakoak, ostera, eta baita Geriakoak be, bertako ardurea hartu eta hirugarren egunean nekizan, nahiz eta orain, urteetara, atzera ahaztuta euki.

Aste barruan, eguaztenetan joaten nintzan gurasoekin jaten Durangora, eta handik zuzenean Geriara, lau-bost umeri katekesia emotera. Ume gehitxuagori emoten neutsen dotrinea Barinagan. Gaztetxu eta gazte banakeagaz be izaten genduzan geure batzartxuak, Errotako Maritxu Oregi eta Txasioneko Noelia arduradun zirala.

Lehenengo hori aitatutakoan, ezin aitatu barik itxi han zeozertarako izan garan abade guztion ama, Errotako Maria Arizmendiarrieta, izatez Iturbekoa eta Arrasateko mobimentu guztiaren hauspo izan zan Jose Mari Arizmendiarrietaren arreba gaztea. Zenbat arineketa egin dodazan euren etxetik autora, bertan afaldu edo bazkalduta gero, sagarrekin nahiz intxaurrekin nahiz dana dalakoagaz autoaren atzeko aldea bete ez eidan. Alperrik gehienetan!

Urte baten, ondoko Aginagara Eibartik etorten zan parroko gazte-gazteak, Jon Etxezarretak, izan ebazan gazteekin gogo-jardunak. Behin be ez neban entzun izan gauza egokiagorik eta sakonagorik gazteentzat. Etxebarriko gazteengana be ekarri neban gero.

Polita izan zan Jon hori nor zan lehenengoz ezagutzeko izan neban erea. Barinagara dotrinea emoten joan nintzan baten, han egoan mutil gazte batek Aginagako eleizarako "formak" eskatu eustazan, abadeak meza emon ahal izateko. Bila nenbilela, hau esan neutsan: "Entzun dot abade barria etorri jatzuela Aginagara". "Bai, neu naz" erantzun eustan mutiko aurpegia eukan gazte harek. Bera zan, izan be, Aginagako abade barria.

Bateo bat edo beste eta ezkontzaren bat edo beste izan nebazan Barinagan.

Nik, lehendik horretarako ohiturarik ez, eta ia urte guztian parrokiako liburuetan ezarri barik neukazan bai batzuk eta bai besteak.

Baina ez egoan zertzelada guztiak, ezta bat bera be galduko zan arriskurik. Han geunkan Modesta serorea edo sakristanea. Ez dakit noiztik hasitako bateo guztien eta ezkontza guztien jakingarri guztiak ekizan. Zer esanik be ez, ni hasi eta gerokoak. Eta ez bakarrik egunak, izenak... baita zein ordutan izan ziran eta euria zan ala aterri egoan be. Ez zan egongo makinarik be ha baino zehatzagorik.

Markina aldera joan nintzanetik, abaderik geu joaten ginan Aginagara San Migel egunean. Batak Mezea, besteak berbaldia, hirugarrenak kantuen ardurea eta nik armonioari soinu batzuk ateratea. Bertan bazkaltzen genduan, Eibarko alkate eta zinegotziak ondoko mahai baten egiten eben bitartean. Francoren denporak izan arren,

euskerea zan gehienean euren artean be erabilten ebena. Eskailuak jaten ebezan beti. Geuri be egokitu jakun behin baino gehiagotan eskailuak jatea. Barinagako Tabernabarri jatetxeko Marik gertetan ebazan urte batean eta Zubiaurre jatetxeko Hipolik bestean, nork baino nork hobeto. Atzamarrak miazkatzeko gogoa jatort oraintxe be.

Gerian, egon nintzan bost urteetan ez dakit hileta bat izan ezik, liburuetan jarteko beste ezer euki ete neban. Gaixoen oliadurako sakramentua bai izan neban etxe bitan edo. Baten, sakramentu hori emotera joan nintzanean, sekulako izualdia eta ikarea sartu jakon ohean egoan andra nagusiari. Zergaitik? Ez zalako bera gaixorik egoana, hurrengo baserrietxeko andra nagusia baino. Bera oraindino bazkalosteko lokuluxka egiten egoan.

Barriro be Erroman

Azaldu dot Erromara lehenengoz egindako joan-etorria. Danak ixten ditu liluratuta Erromako uriak. Nik ezin dot holakorik esan, baina ez bestetara izan dalako, beste toki batzuek berak beste zirrara edo gehiago eragin deustelako baino.

Aste Santu baten, aitatutako Josefinak eta Ikernek Erromara joateko erabagia hartu eben nire gurasoakaz eta neugaz batera. Josefina eta Ikerne trenez joan ziran Zaragozaraino eta gu geure Seat txikian. Madrildik etorren autobusak hartuko ginduzan hotelean batu ginanean, aurpegi zelebreak ekarrezan andrazko biek. Ez ekien barre ala negar egin. Ez ebazan, ba, Zaragozarakoa atondu eutsenak, uriko hotelik dotoreenera bialdu! Komunean be telefonoa! Joan-etorrirako diru danak edo gehienak hantxe, gau baten, eralgi behar izan ebezan. Ez ete dan hori bidaia osoa garrazteko be!...

Bartzelonako Las Ramblas etorbide entzutetsuan gengozala, batek samatik heldu eustan, baina ez min egiteko eran. Atzera begiratu eta non ikusten dodan aurreko urte baten Markinan neure ikasle izandako bat. Baina, jarraian, ez dakit nik nondik urteten eben be, bost-sei ikasle izandakoek inguratu ninduen. Zesta-pelotan zihar-

duen Bartzelonan. "Baina hi be pelotaria haz ala?" itaundu behar izan neutsen gehienei. Izan be, orduko denporan, ia gazte gehienek egiten ebezan pelotari izateko lehenengo ahaleginak behintzat.

Milanen eta Venezian izan ginan, Asisen sartu-urten bat eginda, Erromara joan orduko.

Eguen Santuz, Veneziako Patriarkeak emon eban Jaunaren Azken Afariko arratsaldeko Mezea. Eta zer dan! Bi ziran gure Jauna emoten ziharduenak... eta jaunartzeko lerro bakarra! Danek gura eben gure Jauna Patriarkearen eskutik hartu, honen ondoan egoan abade gixajoaren eskutik barik. Lotsatu egin nintzan, eta uste dot neu izan nintzala abadeak gure Jauna emon eutsan bakarretarikoa, beren-beregi beragana joanda. Handik lasterrera aita santu egun batzuetan bakarrik izango zana, Joan Paulo lehenengoa, izan zan patriarka hori, ia danei gure Jauna emon eutsena, Albino Luciani, gizon apala.

Patxadaz ikusi genduan, egun batzuk geroago, Erroma. Zapatu Santuz, arratsaldean Durangoko adiskide bat ikustera joan ginan, Karmen Ormaetxea hain zuzen be.

Eta zelan diran gauzak! Zorionez, ez genduan aurkitu une horretan. Euren taxian aita eta ni baino beranduago heldu ziran hiru emakumeei, Durangoko adiskidea ez egoala-eta, nekian leku bakarrean batak besteari itxaroteko esan neutsen, San Pedro enparantzan hain zuzen be, gu biok autobusean joango ginala-eta. Aurretik, batetik bestera erabili ebazan taxisteak hiru emakumeak, diru gehiago batzearren, baina ez eurak konturatu barik eta berari esan barik. Leku onera!

Bostok San Pedro basilikearen aurrean batu ginanean, bertan gengozanez, hurrengorako itxi barik, barrura sartzea otu jakun. Ez egoan jentetza larregirik. Altara nagusi inguruan mitra piloa ikusten zan eta erdian, besteen gainetik, mitra zuri bat. "Ene! Aita santuak, Paulo seigarrenak, dihardu beste gotzain batzuekin Mezea emoten. Itxaron daigun, Mezea amaitzen danean hemendixek aurretik igaroko da eta".

Eta holan izan zan. Zelako poza monja batzuena, ordurako aguretxu antza eukan Paulo seigarrena eurekin berbetan geratu zanean;

ez baltzak ez horiak ez zuriak ez ziran gure aurre-aurrean egozan monjak! Eta ez zan izan txikiagoa nire gurasoena eta beste lagun biena, guk be hain hur, ia bertan, ikusi genduanean. Niretzat ez zan izan, gaztetxutan lehenengoz Pio hamabigarrena ikusi genduaneko lakoa.

Hurrengo egunean, enparantza guztia bete-beterik egoala, Meza nagusian izan ginan. Jarraian, "Urbi et orbi" bedeinkapena emoten ikusi genduan aita santua. Geure ondoan egon ziran neskato nafar batzuk, monjek gauerdian mezea entzunazo eutselako logureak erreta. Euskeraz berbetan entzun ginduezanean gugana hurreratu ziran. Iturengoa zan gugaz euskeraz egiten ebana.

Semaforoak alperrik eta antza hartzea

Durangoko Karmenen senarrak Castelgandolfora eroan ginduzan hurrengo egunean. Nik uste neban, auto gidariak semaforo gorriaren aurrean ez gelditzea, gazteak ziralako zala. Bai zera! Gure gidariak be, heldua izan arren, oinezkorik ikusten ez baeban, ez eutsen semaforoei jaramonik egiten. Eta alderantziz, oinezkoak euren semaforo gorria igaroten hasten badira, nasai gelditukо jatzuz auto gidariak, protestarik egin barik. Nik, behintzat, Italiara autoan behin be ez joateko erabagia hartu neban.

Etxerakoan, Florentziako hotel baten afaltzen gengozala, ni, umore onez, batari eta besteari ez dakit noren eta badakit noren antza hartzen hasi nintzan.

"Ikusten dozue andrazko ha? Ez ete dauka Lourdes Iriondoren antz handia?, eta beste harek"...

"Lelotu behar dozu, danei bataren eta bestearen antzak hartzen"

Gaztelaniaz ziharduen neskato batzuk jarri ziran gugandik urrun barik. Orduan, txantxetan barik benetan, esan neutsen nire taldekoei: "begira, neskato ha, bere aurpegiagaitik, euskalduna da".

Danek barre, baina nik, barriro be begiratu eta nire etxekoei: "Ez euskalduna bakarrik. Durangoko baten, prantsesetan nire ikasle izandako baten, Lapikoneko Jaime Bengoaren alabearen antz handia

be handia dauka". Barriro be danek barre. Baina, neskatoa begira-begira, hurreratzen hasi zan, eta euskeraz egiten genduala ohartu zanean, neugana etorri zan zuzenean. Jakina antza eukala!, bera zan izan be eta, Kontxi Bengoa, nire ikasle izandakoa, Durangoko familia ezagun batekoa.

XII
ELORRION... ETA ATXONDON

"Kleromoto" barik

Eta heldu zan Markinaldea ixteko ordua be. "Mundu honetan dana heltzen da eta dana amaitzen da" esateko ohiturea eukan nire Elorrioko amama Apoloniak. Oraingo aldaketa ez zan izan beste "kleromoto" baten ondorena. Ez. Oraingoan, Elorrion abade preminea egoala eta ea Berrio Otxoaren eta nire amaren herrira joan nahi neban itaundu eusten.

Lehengo moduan bihotza apurtuko jatala jakin arren, baietza emon neban bat-batean. Beraz, urteurrenaren edo urre-ezteguen tontorreraino datorren azkenengo maldeari egingo deutsagu gain-gaineko begirada arin-arin bat, malda luzea da, izan be eta. Hor geratuko dira, aitatu barik, nire barruan urrezko letrakin idatzita dagozan hainbeste izen eta hainbeste bizikizun.

Elorriora

San Balentinen herria dala Elorrio, esan dot, baina bai beste lehengo eta oraingo entzute handiko gizon eta emakumeena be. Lehengoak itxita, oraingoetara joko dogu.

Politikan, Jose Antonio Ardantza elorriotarrak izan dau hemengo batek euki leiken eginkizunik gorengoena, Euskadiko lehendakari izatea. Juan Jose Pujanak eta Iñigo Agirrek, adiskide jatorrak biak,

oraintsura arte jardun dabe politikan, goi mailetan biak be, batak Eusko Legebiltzarra zuzenduaz eta besteak Madrilen, bere alderdiaren bozeramaile eta Gazteizen be parlamentari lanak beteaz. Eta zer esan, politikatik kanpo, estatu guztian ikusienetarikoa eta hain entzute handia hartu dauan eta nigaz, umetatik hartuemon estua dauan Anne Igartiburugaitik?

Badagoz beste arlo batzuetan be Elorrioko seme-alaba prestuak izan diranak eta orain be diranak. Batzuk aitatzekotan: Roman Berriozabalek Eusko Jaurlaritzan lan egiten dau eta, haren baten, berak daki gehien Berrio Otxoari buruz; Agustin Azkarate arkeologoak zerikusi handia edo gehien izan dau Gazteizko katedrala barriztatzen; Zesar Gallastegik hainbat gauza argitaratu ditu lege arloan euskeraz; Juan Mari Atutxak euskal elaberri bat baino gehiago idatzi dau; Iñigo Bolinagak liburu argigarriak atera ditu faszismoari eta hemengo gerreari buruz, eta Igor Basterretxeak parrokiari eta herriko beste arlo batzuei buruz idatzi dau, biak historialari gazteak; Jose Luis Larrabek teologiako hainbeste liburu idatzi ditu.

Badirudi Euskal Herri inguruan kirolariak izaten dirala ezagunenak. Horretan be Elorrio eta Atxondo ez dira izan atzean geratzekoak.

Nahiz eta Juan Mari Igartuak gure Athleticen jokatu eta Juan Mari Duñabeitiak Zaragozan, eta Alberto Leanizbarrutia txirrindularia izan, eskuzko pelotarien Euskal Herri guztiko habirik onena eta ugariena izan dira Elorrio eta Atxondo, urte batzuetan, Nafarroa izan arte.

Hiru mailetako txapeldunak, urte berean, elorriotarrak eta kale berekoak!!! Hilario Azkarate, gero be beste bost bider gorengo mailakoen arteko txapeldun eta hiru bider txapeldunorde izango zana; bigarren mailakoen artean, Felipe Lejarazu; eta zaleen artekoa, Jose Antonio Alvarez. Nire adinekoak azkenengo biok, eta gaztetxoagoa Hilario.

Eta Atxondon, Aspeko Jesus Garzia Arino, birritan goi mailakoen txapelduna eta lau bider txapeldunordea (txapeldun zala ezin izan eban hurrengo finala jokatu, egun batzuk atzeratzea eskatu eta onartu ez eutsielako), ia gure sasoikoa hau be, bere anaia Anjel lez, eta

askoz gazteagoak, behin goi mailakoen txapeldun eta behin txapeldunorde izandako Iñaki Gorostiza eta bost bider txapeldunorde izandako Roberto Garzia Arino. Bigarren mailako txapelduna, urte baten, Apatako Juan Luis Irazola izan genduan.

Hiru pelotari txapeldunekin: Iñaki Gorostiza, Hilario Azkarate eta Jesus Garcia Ariño. 2007.

Izan ete zan, ba, eskupelotako pelotarien habia orain ninoan eskualdea!

Ibilbidea

Lehenengo urte piloan, Jose Lasuen orduko parrokoaren laguntzaile izan nintzan, Agustin Garamendi eta Roberto Unzuetagaz batera.

Urteak dira geuk hartu genduala San Agustingo eta Atxondo guztiko, hau da, Arrazola, Axpe, Marzana eta Apatamonasterioko parrokien ardurea be. Abade guztiak hasi ginan parrokia guzti horreen abade izaten, *in solidum*. Horren aurretik, neu joaten nintzan eskualdeko batzarretara.

Izenez bat izaten zan abade taldeko *moderadore* edo buru, baina izatez, parrokia bakotxeko arduraduna zana edo parrokiaren erantzukizuna eukana, izaten zan benetako arduraduna edo izenez barik izatez zana. Neuri egokitu jatan izenez izate hori, ez izatez.

Roberto aurretik alde eginda egoan. Gerora, Jose joan zanean, orduan neu geratu nintzan Sortzez Garbiaren parroko edo arduradun. Izenez bakarrik izatetik, izatez be izatera pasau ninduen. Nire bizitzako urterik beteenak, beharbada.

In solidum jarri baino lehen, Elorriora etorrita egoan Apatatik gure Jesus Uruburu, gu baino nagusiagoa eta aurretik beste parrokia batzuen ardurea izandakoa. Urte gitxi dira, bera lehenengo eta gero bere arreba Pastora hil dirala. Felix Gallastegi elorriotar petoa be izan genduan urte batzuetan.

Felix Orobiourrutia lehenengo eta Jabi Jaio gero, iurretarrak biak eta lagun jatorrak eta langileak, izan ziran beste parrokia horreen arduradun, Sortzez Garbiaren parrokian eurek, ardura batzuk leporaturik, niri laguntzen eustela eta nik eurei parrokia horreetan laguntzen neutsela.

Holan izan da, urte luzeetan, orain bost urtera arte. Jabi Jaiok, aurretik bere praile ordenakoekin eleizbarrutia berbatuta egoanez, euren komentura joan behar izan eban. Hori zala eta, goikoek egitasmo barri bati emon eutsoen bidea: nik Sortzez Garbiaren basilikako parroko izateari itxi eta batek bakarrik hartu zazpi parrokien ardurea.

Martin Aranbarri ondarrutarra, gizon azkarra eta lagun jatorra, da danaren arduradun bakarra.

Bere aurretik, Bermeoko Mikel Azpeitiak urtebete egin eban Jaiok eta aurretik Felix Orobiourrutiak euki eben zeregina beteaz, nik oraindino Sortzez Garbiaren parroko izaten jarraitzen nebala. Eta nik

itxitakoan, beste urtebete egin eban, parrokia guztien arduradun, Martin etorri zan arte.

Eta orain, azken urteotan, igandeetako eta jai egunetako eta behar danerako mezak emoteaz gainera, betebehar bakarra dot Elorrion: gaixoen pastoraltza eratu, zuzendu eta aurrera eroan.

Hiru hanka. Eginkizunak

Trebeak izaten dira batzuk irudien bitartez gauzak adierazoten. Niri argitasun handia emon eustan behin, berbaldi baten, batek aurkeztu euskun mahaiaren irudiak, parrokia baten, eta baita kristau bakotxaren eta Eleiza osoaren zeregin behinenak zeintzuk diran argi adierazoteko. Mahaiak, zutunik egoteko edo mahaia izateko, hiru hanka behar ditu, gitxienez. Bestela, jausi egingo litzateke eta ez leuke mahaiaren zeregina beteko.

Kristauak barri on eta pozgarria hartu eta onartu dau eta, beraz, besteei be zabaltzea gura dau. Jaunaren Hitza; Mezako lehenengo zatia; ume, gaztetxo, gazte eta nagusien katekesiak; erlijino irakaskuntza; taldeen batzarrak; familia pastoraltza... lehenengo hankea.

Loteriako saria eskuratzea baino pozgarriagoa dan barri zoragarri hori ospatu egin behar da, hoba ez!: liturgia osoa, sakramentuak, eleizkizunak, parrokiako abesbatza... bigarren hankea.

Baina, barri on hori, batez be, bizi egin behar da. Hori ahalbideratzeko be, parrokiak erakundetxoak behar: danen gainetik Caritas, gaixoen pastoraltza... Horra mahaiaren hirugarren hankea.

Hori guztiori lotzen eta bideratzen, Pastoral Kontseilua, parrokoa buru dala.

Jakina, tokiak eta lekuak be beharrezkoak dira. Eta honeek zaintzeko eta eginkizunak aurrera eroateko, lagunak eta dirua be beharrezkoak. Hemen sartu geinkez, ba, eleiz-garbitzaile eta eleiz-apaintzaile ixilak eta ekonomi batzordea osotzen daben lagun zuhurrak eta arduratsuak.

Baina, tokiak baino garrantzitsuagoak, pertsonak: eleiztar guztiak lehenengo; lan-taldeetan eta kristau-talde berezietan sartutako-

ak batez be, eta, zer esanik be ez, euren bizitza eleizearen eta besteen zerbitzuan jarri daben monjak, praileak eta abadeak.

Hogeta hamahiru urte honeetako labur jarririko ibilbide horretan eta hiru eginkizun handi horreetan sartzen dira bai laguntzaile denporako, bai parroko nintzan denporako lanak, bizikizunak, milaka oroipen… "Entresaka" gogorra egin behar liburu hau idazterakoan.

Franco be hil

Nire Elorrioko abade zereginean, lehenengo egunetan egoera politikoa goitik behera aldatuko eban jazoera sonatua etorri zan, Francoren heriotzea, hain zuzen be.

Egunak egin ebazan hil ala biziko burruka gogorrean. Gau guztietan esaten eben, harenbaten, ez ebala gau osoa bizirik iraungo, baina, Durangon lo egiten nebala, hurrengo goizean, Elorriorako bidean Durangoko guardia zibilen kuarteleko banderea goian ikusten nebanean, banekian oraindino bizi zala.

Egun baten, 1975eko azaroaren 20an, hain zuzen be, ikusi neban banderea bandera-makilearen behekaldean eta historiak aldaketa handia hartuko eban lehenengo egunean gengozala ohartu nintzan.

Jakina ez zala lehenengo egunetik dana goitik behera aldatu. Gogoratzen naz, ez eustela oraindino pasaportea eskatu eta lehenengoan emon, gerora baino. Eta Franco hil eta gero izan zan gure parrokian jazo zana be, hirurogeta hamazazpiko martian izan be.

Amnistiaren aldeko eskabidea egiteko asmoz, ia ehun lagun geratu ziran eleizan, iluntzeko zortziretako meza ostean.

Goizaldeko ordu bietan, guardia zibiletako tenienteak parrokoari deitu eutsan barruan egozanak kanporatzeko eskatuz. Parrokoak barrukoei esan eutsen tenientearena, baina barrukoek jarraitzea erabagi eben.

Goizaldeko hirurak aldean, guardia zibil mordoa heldu zan bost jeep-etan. Enparantzan tiro hotsa entzun zan. "Indar-publikoa"

deritzanaren talde bat eleizan sartu eta han egozanei eraso egin eutsen, kanpora bultzatuz, eta batera, beste taldeak kanpoan ziharduan urteten ebenak joten. Hango narrukoak, zartadak, arineketak, zorabioak, emakumeen garrasiak, hango oinetako eta beste jantzi batzuk galtzea... bai barruan, bai kanpoan!

Ketan itxi eben eleiza guztia guardia zibilok. Hurrengo goizean be ezin eitekean arnasarik ondo hartu. Bati kanpaiak jotea otu jakon. Jose Lasuen parrokoa izan zan danei lagundu eta egoerari aurre egin eutsana. Tirabira batzuk izan ziran, barruan egon ziranen arteko batzuk, hurrengo egunean, eleizan eurek idatziriko oharren bat irakurri gura izan ebenean.

Astebetera, abade gazte biok, Robertok eta neuk, idatzitako eta abade guztiek onartutako idazki bat irakurri zan Meza guztietan, gotzain bien, Koldobika Mirena Larrearen eta Juan Mari Uriarteren oneretxi osoaz, gauzak izan ziran lez azaldu guran eta eretxi zuzena emon guran.

Izen aldaketa

Izena aldatzeak garrantzi handia dauka hebreotarren literaturan, Biblia osoan be agertzen danez, eta bai beste antxinako literatura askotan edo gehienetan be. Lehenagoko herrietan, izena ez zan gizona edo emakumea nor zan izendatzeko bakarrik, zer zan eta zelakoa zan adierazoteko be bazan.

Markina aldetik Elorriora joan nintzanean, izen aldaketa etorri zan. Markina aldean Don Juan nintzan danentzat. Don hori jarten euskuen, orduan, abade guztioi. Baina Elorriora joan nintzanean, batetik ohitura hori kentzen joialako eta, bestetik, han, askorentzat, umetako Juanito ezaguna nintzalako, Juanitogaz geratu nintzan.

"Zelako indarra euki leiken mendi batek!" esaten deutset. "Oiztik hona, danek Juanito, eta Oiztik hara, orain joaten nazanean be, lehengoari jarraituz, gehienek Don Juan".

Danak esan dot, baina ez da egia. Ahaleginak egin arren, ezin izan neban lortu nik Inasi serora apartekoak Juanito esatea. Parroko

nintzala gotzaina etorri zan batean, Koldobika Mirena Larrea Jauna hain zuzen be, Inasik berari: "Jauna, oraintxe etorriko da Don Juan, deia hartu eta joan egin behar izan dau eta". Gotzainak: "Zein da, ba, Don Juan?". Inasik, harrituta lez: "Ba, parrokoa!" "Ah! —gotzainak irribarrez— Juanito!".

Idazlari ospetsua eta ehiztaririk onena

Nire lehenengo urteetan, Jaime Kerexeta egoan ondoko parrokian, San Agustinen, hain zuzen be. Lehendik ezagutzen neban euskal idazle nekaezina eta Biblia osoa eta Meza Liburua bizkaieraz euskeratuko zituana. Behin baino gehiagotan egon izan nintzan, Markinatik etorrita, Sortzez Garbiaren parrokia ostean eukan etxearen goiko *usotegi* antzeko langelan, lau Ebanjelioetatik ateratako *Jesu-Kristo gure Jaunaren Barri Ona* zelan ordaindu eta Bizkaia osoan zelan zabaldu eta beste arlo batzuk zirala eta. Harrituta ixten ninduan lanerako eukan gaitasunak. Jesarri eta euskeraz edo euskal heraldikaz orduak eta orduak idazteko jaioa zala zirudian, eleiztarrekin hartuemonean baino gehiago.

Kontuz ibili behar izaten genduan mezetan berba egiten genduanean, bera egon ezkero. Laster etorriko jakun "hau ez dozu ondo esan", "beste hau erderakadea da", Azkuek bere *Morfologia*n non eta zer esaten eban idatziz emoten euskula. Buruz ekiala zirudian Azkueren *Morfologia*. Berari ikasi neutsazan hainbeste gauza.

Abade ospetsua geunkan Anbotopean be, Aspen eta Arrazolan hain zuzen: Don Luis Zabala. Gu, orduko abade gazteok, bere esanez, *kaka-teologoak* ginan. Urteetan aurrera joiala ikasi eban autoa zuzentzen be. Baina, ikasi ebanean, ez egoan ha lakorik. Aspetik Arrazolarako bidean, Santiagon dagoan stop-ak ez eban beretzat balio, besteentzat baino. "Don Luis, gelditu egin behar dozu hor!". Bere erantzuna: "Leloa haz ala? Nor etorriko dok, ba?"

Ona eta zintzoa zan gure Don Luis, gizon eta abade moduan. Baina, beharbada, eta bere ustez, oraindino hobea ehiztari lez. Inguruetan be ez kazari hoberik! Eta, zer esanik be ez, berarena txaku-

rrik onena. Behin, hankak loi-loi eukazala, ia paparrera igon eustan txakur horrek. "Don Luis, esaiozu zeozer!". Don Luisek, irribarre eginda: "Kariñosua dok nire txakurra!" Eta pozik, nik papar guztia zikinduta eukiteari bape garrantzirik emon barik. Kaletarren gauzak txakur hain argiari hankak gainean ez jarteko esatea!

Ia bere semetzat eukazan Garzia Ariñotarren Jesus gorengo mailako txapeldun geratu zaneko baten, sekulako harrerea egin eutsien Aspen. Eleizan, eskerrak emotera joandakoan, honan hasi ei zan Don Luis, pozaren pozari eutsi ezinik: "Hemen dogu gure Jesus!" Batzuek igarri ezinik ei egozan zein Jesus ete zan Don Luisek aitatutako hori, Nazaretekoa ala Aspekoa.

Bilboko Deportivon ez ei egoan gizon dotoreagorik Don Luis baino, Jesusi egin eutsen omenaldian. Orduantxe kendu eban lehenengoz sotanea eta traje zibila jantzi. Pozik, uste dot, egoten zala, horregaitik adarra joten geuntsanean. Era bateko abadeetan azkena izan ete dan nago, gure Don Luis jatorra.

Telebistaren indarra

Ez dakit katekesiko umeekin ala ikastolan izan nebazan umeekin jazo jatan honako hau. Eguraldi eguzkitsua egoala eta basora joan nintzan ume mordo bategaz. Laumugarrietara heldu orduko ezkerrerantz hartu eta Udalatx aldera joan ez danak ez daki zer dan naturaren edertasuna.

Holakoxe toki eder zoragarrian gengozan, pozarren, ume eta irakasle. Inork be ez eban gogaitik egiten: jolasean jo eta ke, zapien jokoa, norgehiagoka... hobeto ezinean danok. Eta, bat-batean, mutiko edo neskato bati gogoratzen jako handik ordu erdira ez dakit zer dagoala telebistan. Jakiteaz batera, danak, aho batez, etxera joan behar zala.

"Hemen danok hain pozik egonda? Ikusiko dozue beste egun baten be!". Dana alperrik! Jokoak eta jolasak itxi, behar zana hartu... eta etxerantz danok.

Ezin neban sinistu. Banekian indar handia daukala telebistak eta gu trapu zaharren edo zugatzetatik jausten diran orrien antzera erabilteko gauza dala, baina bizi izan arte ez neban uste horrenbesterako izango zanik.

"Etxakin!"

Liturgiakoak dira, bape zalantza barik, otoitzik garrantzitsuenak eta baliotsuenak. Baina, beti izan dau, gure etxeetan eta gure parrokietan, bere lekua errosarioak. Ordura arte lez, abadeek zuzendu behar ebela uste eben eleiztar askok, nagusiek batez be. Euretarikoa zan Jakoba andra argia eta Berrio Otxoaren seniderik hurkoena, nahiz eta senidetasun hori nahiko urrunekoa izan. Bera zan gure santuaren etxea izan zana zaintzen ebana be. Guk, orduko abade gazteok, Don Agustin ona be onaren esku ixten genduan errosarioa zuzentzeko zeregin hori, seglarrek bete beharrekoa zana gure ustez.

Arratsalde baten, Don Agustinek etorri ezina izan ebala batetik, eta seglarrik ez zala aurkeztu bestetik, neu hasi nintzan errosarioa zuzentzen, eleiza nagusiaren ondoko eleizatxu txikian, lehen sakristia izandakoan. Jakin banekian zeintzuk ziran egun bakotxeko misterioak, baina, "Hirugarren jazoera edo misterioa..." esan nebanean, zein zan gogoratu ezinda geratu nintzan unetxu baten, gora begira. Orduan, eleizatxuko isiltasun estua apurturik, danek entzuteko eran, errime, esan eutsan Jakobak albokoari: "Begiratu eginin, etxakin!". Gatxa egin jatan jarraitzea, barreari eutsi ezinik.

Jazoera gogorra

Nire oroipen honeetan, letra handiakaz idatzi gura neuke, parrokiako liturgia arloei eskeinitako lerroetan hain zuzen be, danek miresten eben monitore eta irakurleetariko baten izena, Vidal Egidazurena, hain zuzen be. Zelako gizona eta zelako eleiztarra! Nasai egoten nintzan ni altarara joan eta edozer ahaztuta be. Vidalek, berari begiratzeaz batera, bat-batean igarten eta eskuratzen eustan gura

nebana. Baina ez dinot horregaitik zanik gizon eta eleiztar jatorra, benetan zalako baino.

Bizitzan izan dodan unerik gogorrenetarikoa eta latzenetarikoa izan zan beragaz jazo jatana. Uda haretan, lehenengoz ninoian ni mendira. Beti lez, mila kontu alkarri esanda gero, etxerantz abiatu ginanean, une baten, atzean geratzen hasi jatan. "Zer Vidal, lehenengoz urteten dauen patal honi be jarraitu ezin?"

Bat-batean lurrera jausi eta ezin izan zan gehiago jagi. Mendiko bizikletan igaro zan bati esker, handik ez dakit zenbat denporara heldu ziran ertzainak eta gerotxuago anbulantzia. Bitartean, denporea gelditu egin zala emoten eustan, ezer egiteko gauza ez nintzala. Ez dakit minutuak, orduak edo zer izan ziran amaitu ezineko une hareek. Inoiz barru sakon-sakonetik berba egin badot, udea izan arren hurrengo egunean leporaino beterik egoan parrokiako hiletan, egin neban. Zelako hutsunea itxi euskun!

"Andren mezak"?

Ondorengo asko itxi ebazan gure Vidalek eta ez edozelakoak, Elorrioko Sortzez Garbiaren parrokian. Baina eskualdeko beste parrokietan be sortu ziran monitore eta irakurleak.

Urteak dira, behin baino gehiagotan honako hau entzuten dana Sortzez Garbiaren parrokian ez eze, eskualdeko beste parrokietan be: "Hi, bihar andren mezea jaukagu". Bai, badakie ez dala mezea, urteetan, Arratian hasi ziranetik lasterrera hemen be, bai andrek eta bai gizonek parrokia bakotxean hilean behin edo zuzentzen daben ospakizuna. Izan be, Jaunaren Berbea entzuten da eta Jauna hartu be bai. Eta zuzendari, gehienetan, emakumeak. Bide hori hartzera eroaten gaitu eta eroango gaitu, geroago eta gehiago, behar dan beste abaderik ezak.

Kontzilioak dinoana kontuan harturik, hau da, "ez da inolako kristau-elkarterik eraikitzen, Eukaristia Santuaren ospakizuna ez badu sustrai eta ardatz", eta Eukaristia ospatzeko abadea preminazkoa dala jakinik, eta geroago eta abade gitxiago dagoala aintzat har-

turik, ez ete da, halako baten, Erroman, ausardiaz, abade gehiago izateko ez ohiko biderik urratuko?

Bien bitartean, txarto esanda dagoan baina egoki-egoki ospatzen daben "andren mezea"gaz jarraitu beharko dogu.

Ezinbestekoa

Edozertariko beharrizanean dagozan zenbatek eta zenbatek joten daben parrokiara. Jakina! Euren ustez, abadea da parrokia eta eurei lagundu behar deutsena. Ez dira gitxi kontau leikezan gauza zelebreak be. Zenbat diran bape lotsa barik, hau dala eta bestea dala eta hileta joten, abadeari etorten jakozanak. Liburu osoa beteteko beste!

"Ez dozu ikusten, ba, guzurra esaten diharduzula!" esan neutsan behin, sarritan asmakizunez beterik neu zelan atzipetu etorten zan bati. Azkenean, esaten neutsana autorturik, biok barrezka amaitu genduan gure autua. Losinkeriaz diru apur bat aterata gero bere auto ederrean sartzen ikusi neban ha be ez zan makala! Eta zenbat holako!

Caritas zan eta da beharrizanean dagozanei bakarrik emoteko bidea jarten dauena. Horregaitik eta egiten dauen eta egin leiken guztiagaitik, ezinbestekoa da parrokian, honek lehen aitatu dogun hirugarren hankea be izan daian. Nik, nahiz eta beharbada igarri ez, berari emoten neutsan lehentasuna. Eta zelako lana egiten eben eta daben parrokiako Caritasegaz arduratzen diranak!

Gaixoak eta etxean lotuta dagozanak

Hirugarren helburu nagusi edo *hanka* esan deutsagun hori, Barri Ona bizitzan mamintzea hain zuzen be, lortzeko, beste erakundetxu bat be izan dau eta badauka parrokiak: Gaixoen Pastoraltza.

Don Agustin Garamendi Uribarrilapikotegi abade zintzoa eta apala eta organista ona, izan da urteetan herriko gaixo guztiak ikusten izan dituena, ni parroko nintzala neuk ikusten nebazan bost edo sei izan ezik. Berrogeta hamarretik gora izaten ziran.

Bera bizi zala eratu genduan batzorde antzeko bat. Aurretik, Caritasen zeregina zan gaixoekin arduratzea. Don Agustin hil eta urte gitxira, parroko zeregina itxi nebanean, neuk leporatu neban Don Agustinen lan hori eta gaixoen pastoraltza antolatzeko ardurea, aurrerago aitatu dodanez. Horren barruan sartzen da, gaixorik edo etxetik urten ezinik dagozan orain berrogei inguru ikustea eta poztasun apur bat emoten ahalegintzea, nasai, eurekin jardunean, erlojuari begiratu barik. Eta, jakina, gaixoen pastoraltzako talde arduradunaren nohizbehinkako batzarrak. Talde jatorra Zer esanik be ez, ni baino gehiago arduratzen dirala gure Jauna gehiagotan hartzea gura dabenei eroaten deutseenak eta Elorriotik kanpoko egoitzetan dagozan elorriotarrak ikusten joaten diranak. Emakumeak gehienak danerako. Gizonentzat ez ete dira ba holako lanak?

Zertan sartu gara?

Ni Elorriora joanda laster, sekulako konponketak egin ziran edo, hobeto esateko, egin ebazan orduko parrokoak, Jose Lasuenek. Mutila zan, ba, bera horretan! Odolean eroian eleiza edo etxe barriak eregiteko eta zaharrak barriztatzeko gogoa eta trebetasuna.

Orduantxe egokitu zan sakristia zaharra zana, egunero Mezea emoteko, eta edegi zan eleizpe txiki barrira joten dauen ate barria. Neguan zanez, atea eregiteko egin eben zulo handitik sartzen zan hotzaren hotzaz, boxeo saio bat baino gehiago egin behar izan genduan Meliton sakristauak eta biok, berotu alde!

Agirian jarri ziran eleiza barruko horma ederrak. Egun horreetan, arnasea hartzea be gatxa egiten zan eleizondoko herriko enparantzan, eleizatik urteten eban hango hautsaren hautsaz!

Jose joan eta geroetara, eleiz sabaitik harritxuak jausten zirala ohartu ginan egun baten. Gure Inasi serora jatorra be azpian harrapau eben harritxu batzuk. Kanpantorreko harri handiren bat ez egoala sendo ezarrita be jabetu ginan. Hori izan zan gero urteetako lanaldia izan zana hasteko errazoia, izan be, konponketa batak bestea dakar.

Ete dakarren gero! Ezin izango neuke hurrenez hurren egin ziran lan eta konponketa guztiak zein lehenengo eta zein gero egin ziran jarri. Liburu osoa behar horretarako.

Nork esango eustan adreilu bat zer dan ez dakidan honi holako ur handietan sartuko nintzanik. Jose Lasuen izan balitz be...! Edo Felix Gallastegi. Honek, berak zuzenean edo bere zuzendaritzapean, guk baimena pozik emoten geuntsala, orduan bere parrokia izan ez arren, bere herrikoak ziralako, preminea euken baseleiza danak konpondu eta egoki itxi ebazan urte batzuetan zehar.

Txarto esanda dago aurretxoko lerroan jarri dodan "nintzanik". Eleiza nausiaren lanetan, buru-belarri jardun eben ekonomi batzordeko Jose Luisek, Adolfok, Celindak, Manolok, Jabik, Pedro Marik, Bizentek (zenbat lagundu deustan honek arlo guztietan!)..., bakotxak bere zereginak leporaturik, danak lankide jatorrak. Laguntza handia izan genduan, eleiztar diran eta ez diran herritarren aldetik, Gotzaitegiaren aldetik (Rafael Mentxaka, Gaspar Martínez Larrinoa...), Aldundiaren aldetik (Tomas Uribeetxebarria ahaldun nagusia, Félix Agiriano eta batez be Rafael Purroy, noizean behingo basurde janak be eginaz), Udaletxearen aldetik...

Ia "eleiza barria" egin genduan danon artean. Barruan ez zan itxi ezer ikutu sendorik egin barik. Kanpoko lanak ikusita, eleiza guztia apurtu behar zala zirudian: teilatu barria, eleizpe osoa barriztatzea, torreko harri galantak gogortzea eta apaintzea…

Anjel Amantegiren lan-taldeak jardun eban lanak hasi ziranetik amaitu arte beti. Ez egoan honi atzera eragingo eutsan lan zailik.

Lehenengo eta behin, Bizkaiko eleizarik ederrenetarikoa izanda behin be ezin daiteke bertan behera itxi. Zenbat eztabaida nire lagun Benitoren eta nire artean, ea Lekeitiokoa ala Elorriokoa dogun Bizkaiko eleizarik ederrena. Ez ete dogu biok errazoia?

Batek baino gehiagok aztertu dabe gure basilika ederraren historia eta egitura. Nik dakidanez, ezagun handi ditudan lauk bai behintzat: zertan aurkezturik ez dagoan Iñigo Agirrek, Edit Gongeta elorriotarragaz ezkonduta dagoan Rafael Lamarka gazteiztar argiak, eleizeari buruz liburu argigarria idatzi dauen Igor Basterretxeak,

parrokiari laguntzen beti buru-belarri sartuta dagoan Mari Tere Urrutxik eta ez dakit "besteak beste" jarri neiken, Berazak, Delmasek eta besteren batek be zeozer idatzi dabela entzun eta jakin dakit eta.

"Zertan sartu gaituk?" esan neutsan behin baino gehiagotan neure buruari. Baina, merezi izan dauala dirudi.

San Agustinen egiten genduzan hiletak, eta Santa Anako eleizan domeketako eta aste egunetako meza eta eleizkizunak, eleizea itxita egoan aldikada bietan. Zenbat lan emon geuntsen monjei, baina zelako pozik ebilzan, parrokiari laguntzen eutsiela eta. Beste horrenbeste esan behar San Agustingo eleiztarrakaitik be.

Anonimoa izatetik ospetsuena izatera

Jaungoikoari eskerrak, ez genduan izan istripurik, nahiz eta, egun baten, goiko sabaitik eskegita dagoan lanparea jausi, baina, sei langile inguruan ibili arren, inor azpian harrapau barik.

Iluntze baten, Garbitegiko kuadroa barriztetan ziharduan Jose Urkizu etorri jatan ia berbarik egin ezinik.

Ene! "Gaur langileren batek istripuren bat edo kalteren bat izan dau!" izan zan burura lehenengo etorri jatana.

Baina ez, egile ezezagunaren kuadroa garbitzen ziharduala, ez jakon, ba, egilearen sinadurea agertu? Norena eta Juan Valdes Leal eta bere seme Lucas Valdes ospetsuena baino ez! Ez zan harritzekoa Jose Urkizu lako artista bat ia berba barik geratzea!

San Gregorioren ala Don Bitorren mitrea?

Nahiz eta ni erakustaile motela be motela izan, behin baino gehiagotan egokitu jat batzuei eta besteei gure eleiza barriztaua erakustea.

Azkeneruntz, buru gaineko mitreagaz dagoan San Gregorioren irudia erakusten deutset eta istorio hau azaldu: Bitor Garaigordobil jauna gotzain egin eta laster, Elorriora etorri zan Meza emotera.

Halabeharrez, don Klaudio elorriotarra, gorputzez eta entzutez handia, Bilboko San Antongo parrokoa, egoan sakristian. Don Klaudiok gotzain barriari: "Non daukak mitrea, mezea emoteko?"

Leku onera! Don Bitorrek, lehengo molde zaharrak apurturik, ia ez ekian lehen gotzainek janzten ebezan jantzi gorri zelebreak zelakoak ziran be. Horregaitik esan eutsan Don Klaudiori:

"Ez, nik ez joat ekarri holakorik. Ni neure sotaneagaz etorri nok, abadeek meza emoteko behar dituenak hemen egongo dirala eta".

Don Klaudiok, bera zanagaz!, lehengo eran jarraituz:

"Zer uste dok ba, Elorrio edozer dala, gotzain batek holan Mezea emoteko? Heure herrian hagoalakoan ala?".

Handik ebilan Meliton sakristau ospetsua. Esandakoak entzun ebazanean, sartu zan eleizan eta San Gregorioren irudiari kendu eutsan buruko mitrea. Makilaren bat be aurkitu eban nonbait... eta baeukan horregaz Don Klaudiok Don Bitorri eskatzen eutsana.

Nik, luzaroan, uste izan neban Melitoni adarra jotearren esaten zala istorio hori. Baina, berbaldiren bat emotera etorri zan arratsalde baten, irudiaren aurrean, badineust Don Bitorrek: "Begiratu egik! Hor jagok nire mitrea!". "Egia da ala?" nik. Eta berak: "Jakina ba!"

Parroki(ar)en euskarri batzuk

Edozein parrokiatan, zelako alde handia, sakristaua edo serorea euki ala ez, eta eukitekotan, holakoa izan ala bestelakoa izan. Nire oroipenetan atzera jota, zelako negarrak egin ebazan horretarako joerarik ez eukan Don Bernardinok, Etxebarriko gure Hipolito Rementeria sakristau apal, zintzo eta behargina hil zanean.

Koruan nengoan ni organua joten bere hiletan. Gizon helduak izan arren, atsekabeari eutsi ezinda, negarrari emon eutsen Jose Agerrek eta beste abeslariek eta koruan egozanek, domeka guztietan Hipolitok egiten eban diru-batzea egitera beste bat agertu zanean. Izan be, gizon-emakume apalak baina handiak izan dira, gehienetan, sakristau eta serorak.

Ez ditut hemen Meliton eta Inasiren merituak jarriko. Nik beti esan izan dot badogula santu bat Elorrion, gure San Balentin, baina baita haren besteko santa bat be, nahiz eta altareetan agertu ez.

Serora izatea ixteko egoan Inasiri eta oraindino sakristaua zan Melitoni sekulako omenaldia egin eutsen eleiztarrek. Ezjakinok ausartak izaten gara eta horregaitik ausartuko naz hemen jarten bien omenaldiko mezan bota nebazan bertso antzekoak, aurretik esan neutsenagaz batera:

Melitoni: Hainbeste "burruka", hainbeste arramuzkada, hainbeste barre... danak izaten dau bere azkena. Ez neuke gura nire zuganako eskerronak azkenik izaterik... baina azkenik ez amairik izango ez dauana, Jaungoikoaren eskerrona eta saria da. Hori opa deutsut bihotz bihotzez.

Azala latza eta barrua biguna,
hori da Melitonek azaltzen deuskuna.
Arramuzkada ugari da bere jarduna.
Askoz be gehiago da emoten deuskuna.

Hainbeste lan dau honek gustora eginik
urte mordoan hemen bera "nausi" izanik.
Ez da izango beste holango sakristaurik
eleizea hain ondo zainduko dauanik.

Inaziri: Jaungoikoak bakarrik ordaindu leikizu zuk parrokiaren alde eta bertako arduradun izan danaren alde egin dozuna. Jaungoikoak ordainduko deutsu. Oroipenez eta eskerronez, bihotz-bihotzez, besarkadarik handiena!

Gorputzez txikia ta izatez handia
Hori da, zorionez, "Iñazi guria".
Bere lan ixilak dau egin historia
Neurtu ezinezkoa da bere neurria.

Parrokiaren alde zure ahalegina
Hori da Jaungoikoak bakarrik dakina

Mugabakoa dogu hemen zuk egina
Zure hutsunea da guztiz bete ezina.

Beste horrenbeste esan neike, bakotxaren izate berezia aintzat harturik, gure parrokietan doguzan eta izan doguzan sakristau eta "serora" guztiakaitik. Inasiren errepikapena dirudi Sortzez Garbiaren parrokian oraintxe bere ordezkoa egiten hasi barri dan Maria Angeles Markaidak be. Zer dan liburuaren tokia mugatua izatea!

Zenbat senide barri!

Badagoz parrokian beste ezinbesteko lan batzuk be, ezkontzako, hiletetako, bateoko... liburuak egunean jarrita eukitea eta abar. Hor be sekulako laguntza izan dau beti parrokiak, eta musutruk izan be! Nik gogoratzen dodazanak eta uste baino lehen hil jakuzanak: Fernando Marías eta Jose Askasibar. Zenbat esker zor deutsegun.

Bere gaixoak ixten ez deutsalako, ez dau jarraitzen sakristautzan eta goian aitatutako liburuen arduradun, Melitonen ostean sakristau eta liburuzain izan dogun Juan Igartuak. Iñigo Murua gazteak leporatu dau, gehien be, lehenengo zeregina, eta Xabier Kerexetak liburuena.

Gauza zelebre samarra jazoten jat Juan Igartuagaz:

Biok gara Juan eta ez dogu izen bera. Biok daukagu urte kopuru bera eta ez gara kintoak. Biok izan dogu osaba bera, eta ez gara senide. Ze demontre jazoten da, ba? Ez da zaila erantzutea.

Zelakoak garean! Inork ez dogu gura izaten pobreakaz edo inork ezagutzen ez dabezanakaz lagun izan; bai ostera, eta zelan gainera! entzutetsuak diranekin lagun izatea, eta gehiago senide edo etxeko izatea.

Ba, oraintxe aitatutako bateo-liburuak dirala eta, ez ziran bat eta bi izan, asko eta asko baino, gure Jose Antonio Ardantza lehendakari izendatu ebenean, euretara, liburu horreetara hain zuzen be, jo ebenak ea zenbaterainokoa zan jakiteko lehendakari barriagaz euken, edo euki gura eben, senidetasuna. Zenbat dei egun gitxitan!

Telefonoa kea eriola! Ez daki Jose Antoniok zenbat senide barri sortu jakozan eta noraino gehitu zan bere senitartea, perretxikoen antzera, 1985eko maiatzaren bitik aurrera!

Parrokiatik kanpokoak. Asunzionistetako ikastetxean

Urte batzuetan, asunzionistetan emoten neutsezan euskerazko ikasketak euskeraz ekienei.

"Hemen gagozan guztiok bizkaieraz egiten dogu" esaten nebanean, ia garrasika esaten eusten Elgetakoek, gero pelotari handia eta bikaina izan dan Aitor Elkoro buru zala: "Ez, ez horixe! Gu ez gara Bizkaikoak, Gipuzkoakoak baino". Nik uste dot ulertu ebela ez zala gauza bera giputzak izatea eta gipuzkeraz egitea. Hobeto, beharbada, Altsasuan, Nafarroa izan arren, gipuzkeraz egiten dala eta Oiartzunen, Gipuzkoa izan arren, nafarrera egiten dala, azaltzen neutsenean.

Oraindino batak besteari zor deutsagu, sei bider pelotako txapeldun nagusi izandako Hilarioren seme Fernandok eta biok, desafioko partidua. Eskolea amaitutakoan izan zan erronkea, jakina! bera mutiko koskorra zala. Hau dala bestea dala, bera oraindino mutikoa zala jokatu barik geratu ginan.

Nausitxutan, oraintxe pelotea itxi dauen Eugi ospetsuagaz batera zaletuen arteko munduko txapeldun geratu zanean, Elorrioko herriaren omenaldia jasota gero, erronka bota eustan, enparantzan bertan, ea jarraian batak besteari zor geuntsan partidua jokatuko genduan. Nik berak bentajarik izaterik ez nebala gura esan neutsan, sake guztiak berarenak izan behar zirala eta.

"Zergaitik sake guztiak nireak?"

"Ba, ni ez nazalako peloteagaz sakea atera behar dan lekura heltzen, ezta erdira be!"

Erronkeak bete barik geratu beharko dau.

Txintxirri ikastolan erlijinoko irakaslea behar ebela eta, bertako deia hartutakoan, euskera irakasten ni baino trebeagoa zan Bizente Aizpuruaren eskuan itxi nituan Lourdes ikastetxeko klaseak.

“Txintxirri”n be bai

Urte askotan izan naz orain Txintxirri ikastola dan horretan, erlijinoko irakasle.

Gaztetxuen lagun izaten ahalegintzen nintzan eta euren kezkak aintzat hartuz, eurek erlijinoko gaiak zirala eta eukezan arazo guztiei buruz alkarrizketa zabala izaten. Ez dot uste aspertzen ginanik.

Ezin hasi mila gertaeratxu atsegin eta gozo esaten, ezta bati, borondatez joaten ziran hilean behingo Eukaristia ospatzen gengozala!!! ostikoagaz emon neutsan ipurdikoa zelakoa izan zan azaltzen be.

Pozik gogoratzen doguz, orduan ume ziranekin eta orain andra eta gizon gazteak eta ia helduak diranekin, urte hareetan han bizi izandakoak.

Beharbada, Comillaseko hondartza ondoko kanpalekuan ikastolako talde beragaz birritan igarotako hamabost egunetakoa izango da gehien aitatzen doguna. Bete-betea izaten da hamabost eguneko alkar bizitza.

Orduan paella dotorea egin euskunak ikasiko eban oraingo sukaldari ona izaten be. Behin be ez dot ikusi gauza dotoreagorik paella ha baino. Gose be baginan eta begiekin jaten genduan. Begiekin izan behar, ahoagaz jaten hasi ginanean, ezin izan gendualako iruntsi! Han itxi behar izan genduan gero botateko!

Ondo-ondoan geunkazan nire bizitza zati bat igaro izan neban Seminarioa eta Unibersidadea. Nahiz eta urte guztian hutsik egon, geratzen zan bera zaintzen jesuitaren bat oraindino, eta egun horreetan, Euskal Herriko jesuita batzuk egozan gogo-jardunak egiten. Mezea izan genduan bertan. Amaitzeaz batera, mezea euskeraz zala entzun ebala eta, non datorren gogo-jardunak emoten ziharduana. Orduantxe ezagutu neban bere anaia Gotzonegaz batera gure hizkuntzearen alde hainbeste lan egin dauen Roman Garate.

Arratsalde baten, gogait eginda nengoan gaztetxuekin. Zuzen ibili eitezan esan eta San Vicente de la Barquerara joan nintzan. Behin be bakarrik egin ez dodana: kafea eta kopakoa hartu eta purua

iziotu. Non eta lehen, abadegei ginala, zigarro bat be erre ezin geinkean lekuan. Galazota izan dana gogo gehiagogaz egiten dozu.

Urte bietan egin neban gauza bera. Eta bietan izan neban ezusteko antzerakoa.

Lehenengoan, nire puruaren keari begira nengoala, ez dira sartzen, ba, elorriotar bi? "Zer egiten dozue zuek hemendik?

Eta barregarriena eta sinestu ezina. Bigarren urtean, hau da, handik urte bira, egoera bardin-bardinean, gaztetxuak Comillasen itxita, San Vicenten, nire puruaren keari begira nengoala, ez dira sartzen, ba, ez elorriotarrak, Durangoko nire lehengusu batzuk baino?

Behin gura purua neuk bakarrean erretea, eta ezin!

2004ko ekainean, omenalditxu bat egin euskuen ikastolan Maria Luisa Larrañagari eta bioi. Gurasoen ordezkaria adiskide handia nebalako izango zan ziur asko niri egitea. Egiari berea zor jakolako esan neban nik, saritxu bat eskuratuta esan behar ziran berben bidez, han biok bardin agertu arren, Maria Luisarena zala omenaldiaren ehuneko larogeta hamabosta eta ehuneko bosta, goia jota, neurea, sartutako orduak eta izandako ardurak be batez besteko horretan ibiliko ziralako.

Dana dala, esker onez eta pozik hartu neban omenalditxu hori.

Berrio Otxoa Abesbatza

Parrokiako abesbatza zaharretik sortutakoa zan "Orfeón Berriochoa", urte eta erdi iraun ebana.

Ez dakit nik ezjakinaren ausardiak ala sasoiak ala ezereztuta egoan lehengo abesbatza birsortu beharrak bultzatuta izan zan, baina, dana dala, une horretan ames hutsa zan abesbatza baten izena emon neban Begoñan handik hiru hilabetera! izango ziran abestialdietarako.

Eta jakina! Egun gitxiren barruan abesbatza abeslariz osotu behar, abestiak ikasi, orraztu eta txukundu behar, handik lasterrera, Begoñan, Bizkaiko abestizale guztien aurrean txarto ez geratzeko.

Holan "birsortu" genduan urte batzuetan deseginda edo hilda egoana eta "Berrio Otxoa Abesbatza" izenez ezagutuko zana, ez parrokiakoa herrikoa baino, nahiz eta parrokiaren kerizpean bizi.

Euskaldunek eta erdaldunek, andrazkoek eta gizonezkoek, ezkonduek eta ezkongabeek, politika batekoek eta bestekoek, fededunek eta fedebakoek... osotzen genduan abesbatza.

Danok mundu guztiko eta, batez be, geure herriko musikaz gozatzeko eta gozatu eragiteko eta Euskal Herriko eta kanpoko beste abesbatza askoren lagunekin adiskidetasun lokarriak sortzeko ahaleginean, anai-arreba giro pozgarrian. Egin nebazan ahaleginak baino askoz be gehiago izan ziran emon eustazan pozak eta une atseginak.

Berrio Otxoa abesbatzagaz Galizian, Santiagon, 1986.

Izan be, arnasa hartze bat zan niretzat, besteak beste, abestiak ikasten laguntzea eta, batez be, ikasitakoan, orrazten ahalegintzea

eta zuzentzea. "Errimeago, gitxiago, bigunago, astiroago, bizkorrago…", esan eta abeslarien aldetik erantzun egokia dagoanean, esan ezinezkoa da zuzendariak nabaritzen dauen atsegina.

Bitxikeria dala, uste dot, honako hau. Bi ziran eta dira, Elorrion, nagusien abesbatzak. Urte batzuetan, goitxoan jarri dodanez, parrokiako abesbatzaren zuzendaria nor, eta diputadua, politikoa, Iñigo Agirre; eta herriko abesbatzarena nor eta abadea, ni neu, hain zuzen be. Elorrion jazoteko be...!

Ahaztu ezina izan zan A Coruñako nire lagun Manuel Espiñaren bitartez Caixa de Galiziak diruz lagunduta egin genduan joan-etorria, Elorrioko herriaren izenean ginoazala argi jarriz, Euskal Herria ordezkatzen ginoazanik uste izan ez egien. Onak gengozan horretarako! A Coruñan, Betanzosen eta Lugon abestu genduan. Politena, "Negra sombra" gailegoz abesten genbizala, aurreko nagusi biri eta beste batzuei, gero esan euskuenez, urteten eutsezan negar-anpuluak.

Ostera guztian abeslariei ahotsa zaindu egiela esaten, eta neu geratu nintzan berbarik egin ezinik. Betanzosen, bertako abesbatzaren zuzendariak lagundu behar izan eustan abesti bakotxean tonua emoten.

Ez neban uste gailegoak hain losintxa zaleak ziranik. "Ez da izan zuen taldea zuk eskutitzean jarten zenduan talde xehea eta apala, hemendik igaro diran onenetarikoa baino" idatzi euskun Caixako arduradunak. Gu gertu hori sinisteko be, baina dana be ez!

Aragoiko Egea de los Caballerosen be harrera ezin hobea egin euskuen joan ginan hiruretan. Norgehiagoka zanez, abestu arte urduri samar egoten ginan. Gero, nasai eta pozik, batez be, hogetaka koruren artean laugarren sailkatu ginanean, Antonio Linazak zuzendutako Plentziako abesbatzagaz "exequo". Norgehiagoka abesbatza euskaldunak, giputzak hain zuzen be, irabazten eban beti. Handik urteetara be, laugarrena lortu eban orduan, orain lez, Ester Hernández zuzendutako "Berrio Otxoa Abesbatza"k.

Hunkigarria izan zan Elorrioko Juanito Atxa jesuitea egoan Zaragozako auzo bateko, El Picarraleko, abesbatzagaz izan genduan hartuemon estua. Zelako txaloak hango zuzendari andra gaztea eta

ni koru bien arteko ezkontzearen papera egitera behartu ginduezanean, afaloste alai baten. Txalorik gehien, bere senarrak!

Bizkai guztiko beste abesbatza bigaz batera, urte bakotxean ezbardinakaz, egiten genduzan abestialdiak geure hiru herrietan eta abesbatzarik ez eukan beste herri baten.

Urte baten, beste abesbatza batzuekin jazo zanez, ekinaldi guztia geure esku zala joan behar izan genduan herri batera. Arabako Espejo egokitu jakun.

Urte guztiko egualdirik gogorrena egin euskun. Ozta-ozta itxi euskun edurtza sendoak herrira heltzen.

Nor etorriko zan, ba, ilunetan eta edurra orkatileraino izanda?

Etorri ziran lau edo bost zale-zaleek, gitxi zirala eta, eurakaitik ez abesteko esan euskuen. "Zelan ezetz? Inork merezi badau zeuok zaree!"

Abesbatzeko hogeta hamar baino gehiagok pozik eta gogotsu abestu geuntsen ikasita geunkan guztia lau edo bost benetako zaleei!

Une hunkigarria izaten zan niretzat ahots zoragarria euken Puri Pildainek eta Jesus Mari Arietak danok maite genduan gure Don Agustin Garamendi organisteak asmautako "Gau iluna"ren eurei biei bakarrik egokien zatia abesten ebenekoa.

Pozik nago aspalditik, nik itxita gero, ofizioko baten eskuan, Durangoko Ester Hernandezen eskuan, hain zuzen be, dagoalako eta nik jarrita neukan mugea gaindituz, goi mailara heldu diralako.

Urtero izaten dogu Mezea Santa Zezilia eguneko iluntzean, gero alkarregaz afaldu orduko.

Egun baltzak ugari

Zenbat egun baltz gure Herriarenak! Esan daiteke ezin dala amaitu garraztuta ixten gaituen barriak egun batean bai eta bestean be entzun beharra.

"Berrio Otxoa" abesbatzagaz aste barruko lehenengo edo bigarren ikas-saioa amaitzeko gengozala, goitik behera zurt eginda itxi ginduzan barria ekarri euskun Mari Anjeles Egidazuk: "Naranjo

hobiratzailea, aguazila eta ikastetxeko atezaina hil dabe, hementxe ondoan".

Zurbilduta, berbarik egin ezinik, geratu zan saiora besteak baino berandutxuago etorritako Mari Asun Moreno. Hil barri zanagaz berbetan egotearren etorri zan besteek hasita gero. Bera agurtu eta handik segundu batzuetara, larogei metro baino gitxiagora, zerraldo zan berbalaguna. Ikaragarria!

Handik metro askotara ez zan izan urte batzuk lehenago Moya sarjentua hil ebena be. Gogoratzen dot orduko parroko Jose Lasuenen esturea, untzinoa eroaten arineketan joan zanean.

Ezer esan ete leiteke heriotzei buruz esan ez danik? Nor da nor beste bati bizia kentzeko? Munduko gauzarik onenak lortzeko balitz be, Herriari ez dakit zelako onurak baletorkoz be, gizaki batek ezin daike inondik inora onartu batak bestea hilterik. Bizia dogu eskubiderik oinarrizkoena.

Eta ezer lortzen ete da mina, oinazea, gorrotoa, etsipena eta jarri daitekezan gauza txar guztiak baino besterik?

Nire kintoa zan hil eben Naranjo hori. Madrilgo Atleticoren zalea. Sarritan ibilten ginan hori zala eta adarra joten. Baten batek esan eban heriotza hori "infanticidio" izan zala be.

Gerora be, orain senideekin bizi dan herritik etorri danean, neugaz egon izan da bere seme Alfredo.

Eta zer esan behar, ordenea zaindu behar ebenek Apata inguruan Jose Migel Fernández gaztea, beste barik edo urduritasunak eraginda, hil ebenean eta danok ezagutzen genduan eta ogi zati bat baino hobea zan Koldo Zenitagoia hagin-osagile entzutetsua zauritu ebenean, kotxea gidatzen betiko moduan geldiro geldiro etorrela?

Behin baino gehiagotan egokitu jatan Alkartu alkartean, urteko bazkarian, Jose Mari Aranzamendiren, Katxoren, ondoan bazkaltzea. Beti jarduten genduan batak besteari adarra joten.

Bigarrenez espetxean sartuta laster izan genduan barri negargarria. Hilda aurkitu ebela espetxeko gelan.

Nire gurasoak une larri samarrean neukazan, une horretan, erietxean, 1997ko udan. Gogorra be gogorra egin jatan egun osoan

preminan egozan gurasoakandik alde egitea, baina neure lepo gainean hartu gura izan neban Katxoren hileta eleizkizunaren ardura guztia.

Gorpua, Don Agustinek jasota, udaletxetik eleizara ekarri ebenean, bildurtu egin nintzan, hango zaratea zala eta eleiz barruan be halakoren bat izango ete zan. Baina, aurretik batzuek berbea emon eustenez, gorpua eleizan sartzeaz batera, danak isildu ziran, eta egoki-egoki ospatu ahal izan genduan, barruan, gure adiskidearen hileta.

Hunkigarria izan da behin baino gehiagotan jazo dan hau be: gurasoren baten hileta dala eta, espetxean dagoana Elorriora etorri izatea.

Noiz helduko ete da eguna eskubide guzti guztiak, bizitzarena dan lehenengotatik hasita, beteko dirana?

Noiz helduko ete da eguna, danak mahai baten inguruan jarrita eskubide guztiak, batzuenak eta besteenak, aintzat harturik, gure Herriak aurrera egiteko bideak urratuko dirana eta ondo oinarritutako benetako bakea bideratuko dana? Noiz? Horren gose-egarri gara gehienok.

Danak ezin sartu ba!

Hona heldu nazanean, "nahikoa dok" esan gura dauan tirrin moduko bat entzun dot nire barruan. Liburuaren neurriak egin deust deia, antza danez. "Elorriori eta Atxondori buruzko hau amaitu egin behar dok". "Geratzen jatan guztiagaz, zelan ba hori? Entresakea egin behar?". Baina mugak muga dira.

Katekistekin eta umeekin sartutako hainbeste ordu atsegingarri dagoz nire oroipenetan. Inoiz besterik esan jaken arren, katekistek eurek leporatzen eben ardura guztia eta aurrera eroaten eben katekesia. Nire parroko izateko azkenengo urteetan, Jabi Jaio arduratzen zan katekistekin eta umeekin eta ni honeen gurasoekin, bai euskerazko bai erderazko katekesian. Aurretik, Felix Orobiourrutia erderazko katekesi osoagaz eta ni euskerazkoagaz, baina talde bien lotura sendoaz.

Urtean ordu mordoa sartzen zan helduen katekesian, orduko gure gotzainen urteko idazki nagusia irakurten, aztertzen, eztabaidatzen, ondorenak ataraten: eta munduko eta gure herriko arazoak eta jazoerak kristau ikuspegitik ikusteko ahaleginak egiten; eta Biblia irakurteko bideak jorratzen. Aita Ramon arduratzen zan erderazkoekin eta ni euskerazkoekin.

Gastetxuek bizitza eta fedea buztartzen ikasi egien Roberto Unzuetak, Felix Orobiourrutiak eta Jabi Jaiok, batak bestearen hurrengo, Pedro Fuentes asunzionisteak eta seglar batzuk lagundurik, egindako ahaleginak be aintzat hartzeko oroipenak ditut.

Ez dira gitxi Sara Egidazu eta bere senar Juanjo Otañogaz batera urteetan zuzentzea egokitu jatazan ezkontza aurreko batzarretako oroipenak be. Edonora joan leiteke bikote bikain horregaz.

Eta Don Agustin onari egindako omenaldi bietan Iñigo Agirreren zuzendaritzapean birsortu zan eta geroago Patxi Arginzonizek, ia hil arte zuzendu eban Parrokiako Abesbatza dala-eta esatekoak ez litzatekez gitxi izango. Liturgiari jagokozan abestiak zirala, hileta guztietan abestu ala ez, eta nahiz eta eurentzat izan ez hiletetan dirurik jaso behar eben ala ez, eztabaida bat baino gehiago izan neban umetatik lagun nebazan abeslari batzuekaz, ez zuzendariekin. Baina, txikito bat ardao alkarregaz harturik amaitzen ziran aurreko eztabaidak. Zintzo jarraitzen dau abesbatzak, oraindino parroko nintzala hasita, Josan asunzionistearen gidaritzapean, liturgiari bikain laguntzen. Eta zer esan Juan Anjel Jauregik zuzenduta eta Bitorrek armonioa jota Azpeko liturgia janzten dauan abesbatzagaitik? "Guk solfeoa barik, sopleoa" esaten eban nire adineko Juan Mari Armentia jatorrak. Holako "sopleodunak" gura geunkez leku askotan. Apatakoak be hasi barri dira, Mari Karmen Astarloak armonioz lagundurik eta Mila Beitiak "bultzatuta".

Liturgia barruan, Meza arloan, ez da makala izan Josanek berak eta Andaluzian ibilitako Alberto Pagonabarraga euskaldun petoak eta monjen oraingo kapelaua dan Jesus Mari Madariagak parrokiari emondako laguntza.

Elorrio bertako Isabel Urizarbarrena buru daben monjakin eta euren kapelauagaz eta praile asunzionistekin izandako hartuemon sakon eta ugarien oroipenak be ez dira gitxi. Bitxikeria lez, Estatu Batuetako NASAk dituen langeletan be ez dot uste aita Tomas Gerreroren gelan egozan beste neurri eta era guztietako tresna, tramankulu, hari, kable, bonbila, lotune... egongo diranik. Hori emoten eustan behintzat, beragaz han egoten nintzanean.

Umeentzako ikastetxea zuzentzeaz gain, buru-belarri jardun dabe beti parrokiari laguntzen, gure Don Klaudiok, orain hirurogeta lau urte, sortutako emakume misiolarien eleiz-alkarteko Margari elorriotarrak eta lagunek. Zenbat zor deutsegun elorriotar guztiok!

Seglarretara jota, Neokatekumenalei, Kursilistei, Gau-gurtzaileei (ez gaua gurtzen dabelako), "Helduak"ei, "Bizian gora"koei eta "Vida ascendente"koei buruz, baditut mila bizikizun, onak gehienak. Zer esanik be ez, bakotxa bere berezitasunaz, talde horreek dirala parrokiaren legamina.

Eta parrokiako arlo guztiak bateratzen, bultzatzen, zuzentzen, erabagiten eta aurrera eroaten, alperreko apaingarri izatea inondik inora gura ez neban Pastoral Kontseiluari buruz, zer esan!

Ezinbestekoa da, Elorrioko parrokiari buruz berba egiten hasi ezkero, eleiz-tresna, eleiz-jantzi eta liburu zahar baliotsuak batzeko, barriztatzeko, sailkatzeko, erakusteko... sortu zan eta, eragozpen batzuk gaindituta, ondo jokatzen diharduan "Gure Ondarea", une honetan Iñigo Murua gaztea arduradun dala. Laguntzarik handiena Santa Anako monjei eta honeen adiskide handi diran andra batzuei zor deutse "Gure Ondarea"k.

Beste horrenbeste esan behar elorriotarrek euren herrikide dabelako harro jarten dituan San Balentini buruzko eraspena zaintzeko eta gehitzeko sortu zan "Berrio Otxoa Kofradia"gaitik. Zergaitik ete da orain arteko kofradiaren edo aurretiko batzordearen buru guztiak alkate ohiak izatea, Pedro Eriz, Jose Mari F. Arroiabe eta Jesus Mari Agirre, hain zuzen be?

Zelako oroipen gozoak San Balentinen egunekoak be. Beti izan doguz abade ugariz inguratutako gotzain bat edo beste Meza Nausi-

tan eta Berrio Otxoaren omenez bertso sakonak eta entzungarriak abestu ditue Jon Azpillagak eta Jose Agirrek urtero eta Anjel Mari Peñagarikanok urteren baten. Bizi zala, neuk ekarten neban inoiz kotxean Balentin Enbeita handia, gure San Balentin beato egin eben egunean jaiotakoa. Pozik etorten zan.

Ez luzatzeko egin dodan "entresakea"k ez deust lekurik izten 1984tik 1987ra arteko Eleizbarrutiko Batzar nagusiak eta geroagoko Eleizbarrutiko Eginbideak parrokiari emon eutsan bultzakadea azaltzeko.

Ezta urteroko "errebonbiloak" elorriotarrontzat daukan bihotz-ikutua adierazoteko be. Ezta…

Eten egin behar Elorrion eta Atxondon izandako oroipenei buruzko berba-jarioa.

XIII
ELORRION NAGOALA, HANGOAK ETA HEMENGOAK

Labayru Ikastegiak eratutako Euskal Ikastaroa

Elorrioko nire lehenengo urteetan, beste bizikizun atsegin eta zoragarria izan neban. Uda batzuetan, Labayru Ikastegiak Derion antolaturiko udako ikastaroetan izan nintzan, Ander Manterolak deituta.

Geure kabuz euskerea zertxobait landu genduanok ginan orduko irakasle. Ikasteko gogo handiz etorritakoak ziran ikasleak.

Ahaztu ezinak, hau eta bestea eginaz eta tarteko kantuz, hain bizkor amaitzen jakuzan ikastaldiak: urte baten edo bestean, irakurketa, idazketa; beste urte bitan edo, Bizkaiko idazleak; aditza, geroago; azken urtean Karmelo Etxenagusiari ifarraldeko literaturari buruz agintzen zituan lanen zuzenketan laguntzea...

Bizkaiko idazleei buruz jarduteko, Karmelok eukan ikastaro guztirako gidoia eginda. Baliabide egokia zan niretzat eta egoki atontzen neban ikastaldia Bizkaiko literatura emotea egokitu jatanean.

Baina, gero etorri ziran komediak niretzat.

Ez dakit zenbatgarren urtean, euskal literaturako maixurik jakitunenetarikoaren, Jon Kortazarren, esku geratu zan gidoi edo nondik norako hori atontzea. Galduta aurkitu neban neure burua. Ez nintzan hango nomenklatura eta ikasgaiak azaltzeko erearen jabe.

Argi eta garbi esan neutsen guzti hori arrotz egiten ez jaken ikasleei nik ezin neioela irakatsi ez nekian gauzarik, idazleen literatur balioak esate baterako; nik bizkaierazko idazleak irakurri ahal izan egiezan lagunduko neutsela, beste gauzak alboratuta.

Jatorrak izan ziran, benetan, literatur arloetan nire irakasle izan eitekezan ikasleak. Ondo joan jakun ikastaroa, baina nik hurrengo urterako beste gai bat hartu neban.

Ez dot uste, salbuespentxu hori izan ezik, Udako Ikastaro honeetan baino atseginagoak izan jatazanik, inoiz be, irakasketak.

Eta zer esan afalosteari buruz? Ha zan poza eta ilusinoa. Herriaren esnaeraren oihartzuna zirudian edo zan, izan be!

Gero, euskal filologia Unibersidadean eginda ekarrenen eta, beraz, nik baino gehiago ekienen eta irakasle hobeak ziranen eskuan itxi neban, sekulako oroipen gozoaz.

Urteren baten, Labayruk Udako Ikastaroa udatik kanpo urtean zehar herrietara zabaldu ebanean, Durangon be lagundu neban aste barruko egunen baten gairen bat jorratzen.

Pozik lantzen ebezan euskal gaiak inguruko ikasteetxeetako irakasleek eta monja batzuek. Erdi liluratuta geratzen ziran, eurentzat, nahiz eta euskaldunak izan, ezezaguna zan euskerearen mundua aurkitzen ebenean.

Madrilgo azkoitiarragaz hartuemona

Markinako nire azken urteetan eta Elorrioko lehenengoetan izandako esperientzia hau be sarritan dot gogoan.

Gure Don Agustinek, musikari ona izan arren, gorreri handi samarra eukan. Bigarren Bethoven zala esaten neutsan nik. Hori zala eta, behin neuk lagundu neutsan Madrilera. Otorrinoa zein kaletan bizi zan itaundu neutsanean, Legasa kalean bizi zala erantzun eustan. Ene! Kale horretan bizi da Pedro Irizar jauna! Ezagutzeko gogo handia daukat eta ikustea ohore handitzat izango neuke.

Entzute handikoa izan da Pedro Irizar euskeraren dialektologiari, aditzari eta beste hainbat arlori buruz egin dituen lan ugari eta

sendoakaitik. Azkoitian jaio arren, Madrilen bizi izan da urte bi eukazanetik larogeta hamahiru urtera heldurik oraintxe urte batzuk dirala hil dan arte. Baina, zein zerikusi neukan nik beragaz?

Ba, zori onez, niretzat lan atsegingarria izanaz gainera, bere azterketak egiten, neurri txikienean izanda be, laguntzatxua emon ahal izan neutsala, lehenengo, Etxebarrin parroko neban Bernardinok bultzaturik.

Irizarrek aurretik gertautako itaunketa bat aurrean izanik, magnetofoia hartu eta aditz hau eta bestea zelan esaten zan eta ahoskatzen zan hiztun zaharrei, adinekoei eta gazteagoei itauntzea eta magnetofoi horretan hartzea izan zan pozik egin neutsan lantxua, 1974an, 1979an eta 1982an.

Iurretan, Arriandin, sutsu, dana egiten eban antzera, eta pozik, egin eustan "informatzaile" osaba Gillermok. Durangon, Serapio Aroma eta Don Fermin Madariaga izan ziran informatzaile, bertako *peto petuak* biak.

Aldetxua egoan lehen Durango bertako euskerearen eta Iurreta eta Durango inguruetako euskerearen artean. Ez dot uste, idazten dodan une honetan, lehengo Durangoko kaleko berba egiteko erea inork erabilten dauenik. Ingurukoak iruntsi dau. Goia jota, batek edo bik egingo dabe.

Elorrioko aditzen azterketan be lagundu neutsan, pozik lagundu be, Pedro Irizar Jaunari. Kalean, berba egiteko erraztasun handia euken Bruno Garaizabal eta Juanita Landaburuk, eta baserrian, Gazetan hain zuzen be, jator berba egiten eban Ebarista Mazorriagak lagundu eusten euren aditza magnetofoian jarten.

Markina aldean, Bolibarren hartu neutsan bere berbetea gero bere bizitzari buruz liburu atsegina idatzi eban Bereziko-etxebarriko Tomas Gerrikagoitiari, Beziri. Eta Etxebarrin, Agerreko Mikaela Elordiri eta Basabeko Juanita Barruetabeñari. Nire gazte taldeko honeen alaben euskeraz egiteko trebetasuna ezaguturik, zelan egingo ete eben horretan irakasle ebezanak, amak?

Badirudi goikoa irakurrita, neu izan nintzala Pedro Irizar Jaunari 1232 eta 760 orrialdeko lau tomotan, letra txikiz, ateratako liburu

handi handi biak idazten lagundu eutsenetatik garrantzitsuena. Horixe edozer! Izatekotan, bestetara. Baina bai poztu ninduala ni baino askoz be jakitunagoekin batera lan eder horretan neure ekarpen txikitxua egitea.

Jakitun horreetariko bat zan nire ustez geografian, toponimian, hizkuntzan eta beste arlo batzuetan benetako entziklopedia bizia dan nire adiskide Jose Luis Lizundia euskaltzaina... eta abadinotarra. Zer ez daki honek? Horregaitik dira liburu horreetan be hain zehatzak eta zorrotzak berak bialdutako oharrak.

Baina, Madrilera bihurturik, Don Agustin otorrinoagaz itxi eta banoa kale berean, Legascan hain zuzen, 54garren zenbakira.

Zenbatgarren solairua zan ez nekianez, lehenengokoan jo neban atea. Zirrikitu estu baten neurrian edegi zan. Bildurra edo konfiantzarik eza erakusten eban aurpegiaren erdia agertu zan zirrikitu horretatik barruko aldean, eta ahots dardaratsuaz esan eustan, erderaz, jakina!: "Nor da?" Ez zan harritzekoa, orduan entzuten ziran lapurretak eta etxean egozan zaharrei egindako erasoak eta entzunda.

Nik, orduan, neuk be erderaz: "Zu, badakit etxe honetan bizi dala Pedro Irizar jauna, baina ez dakit zein atetan edo solairutan"

Berak, oraindino lehengo bildurrezko jarrerea aldatu barik: "Neu naz".

Orduan nik, oraingoan euskeraz: Ene, zu zara orduan Padro Irizar Jauna?

Ez eustan itxi jarraitzen be. Euskaraz niharduala entzun ebaneko, alde batetik bestera edegi eban atea eta nor nintzan esan orduko bildur itxura guztiak kendurik, esan eustan: "Sartu barrura, aurrera!"

Batari eta besteari hartutako magnetofoi zintak bialtzen neutsazan bere laguntzaile txatxar ha nintzala esan neutsanean, ez ekian zer egin be eskerronez. Atsegina izan zan beragaz jardunean egondako ordubetea. Zelako gizon handia! Emaztea gaixorik eukan eta ha zaintzen ziharduan, maitekiro, une horretan.

Hagineko mina eta txakurrak haginka!

Gaur egun, edozein mutikok edo neskatok ikusi dau guk hainbeste urtetan ikusi dogun baino mundu gehiago. Edozeinek dinotsu gaur Europako nahiz Australiako, Afrikako, Ameriketako, Asiako edozein herrialdetatik etorri barri dala.

Han eta hemen eta bestean izan arren, begiz ikusi dabezan eta oinez, bizikletan, autoz, trenez nahiz hegazkinez "zapaldu" dabezan lurraldeak ezagutzen ete dabez? Noraino ezagutu?

Ni neu ez naz ausartzen ikusi eta "zapaldu" ditudan herrialdeak ezagutzen ditudala esaten, ez ditut ezagutzen eta, azal-azaletik izan ezik. Zenbat diran Euskal Herrian, ez egun batzuetan bakarrik egon diranak, bertan bizi diranak baino, eta Euskal Herria zer dan azaletik be ez dakienak, eta ez dinot nik gura neuken Euskal Herria, bene benetako Euskal Herri anitza (askotarikoa) baino!

Orain be barre egiten dogu gogoratzen dogunean, baina ez zan izan txantxetakoa jarraian esango deutsuedana.

Bazkaloste baten, San Andres eguna zalako, Elorriotik egun horretarako joanda, lehen Etxebarrin abade egondako hango Don Bernardino parroko eta adiskide handiagaz nengoala, Karmelo Etxenagusia eta Diego Bergizes etorri jatazan bila, Karmelok zuzendutako kotxean Suitzarantz abiatzeko. Diegorentzat euskerazko mintzabide-ikastaroa lez izango zan bidaia. Holan izan zan lehenengo egunean. Gelditu be ez barriketan Karmelo eta biok egun guztian!

Itsasoan igerian ebilela ito barri zan Guy-Marie Riobe gotzain ospetsuaren gorpua ikusi genduan Orleanseko katedralean.

Hagineko enpastea ondo ez eustela jarri edo holakoren bat zala, eta ni hagineko minari eutsi ezinik, bigarren egunetik aurrera. Zelako eroapena izan eben nigaz lagun biek. Kanpin-dendan egiten genduan lo. Egiten genduan barik, egiten eben, esan behar. Ni erdian, eta haginak lo egiten ixten ez eustanez, eskuman Bilboko orkestra eta ezkerrean Donostiako Abesbatza neukazala emoten eustan, baina notak hain fin joten ez zituela.

Karmelok lehendik ezagutzen eban Suitzako herritxu edo baserri zoragarrira heldu ginanean, pozarren ni, hurrengo egunean, domekea izan arren, hagin-osagileak hartuko ninduala jakin nebanean.

Baina, abadetxera bidezidorretik ninoiala, alemanez egiten eben batzuen txakurrak ez eustan, ba, salto egin eta bere hortzak sartu izterreko goi aldean?

Etxean abadearen neskameak barre egin eustan, lehenengo, nik "m´a mordu un chien" edo holako zerbait esan neutsanean, baina odolak bor-bor urteten eustala konturatu zanean, bat-bateko osakuntza egin eustan eta ondo be ondo egin be. Hurrean egoan herritxu batera eroan ninduen eta aurrerapen guztiak eukazan erietxera, herri txikia izan arren. Oso ondo egin eustezan egitekoak erietxe dotore eta garbi haretan.

Hurrengo goizean, beste herritxu batera, hagin-osagileagana. Zelango tresnak eta zelango erizaindegia han be!

Ez da edozein joaten, gero, Suitzara hagineko mina kentzen edo txakurraren haginkadea osatzen!

Bertako parrokoagaz ospatu genduan Meza nagusia. Ez dot uste parrokoaren eskabidez euskeraz abestutako Aita gurea inoiz gogotsuago abestu dodanik eta abestuko ebenik Diegok eta Karmelok be. Hagineko min barik eta txakurraren haginkadeak minik emoten ez eustala!

Negarrez egon ei zan, gure hizkuntzan be abestutea Eleizearen orokortasunaren ezaugarri zalako eta Europako hizkuntza zaharrenean Aita gurea entzun ebalako, hango organistea.

Iluntzean, familia baten etxean afaltzen gengozala, sekulako itaunak egin eustazan nire ondoan jesarri zan bertako alaba batek.

Gure artean berba zelan egiten genduan izan zan lehenengokoa. Karmelok eta biok beti geurea egiten genduala eta bestea geugaz ikastearren etorri zala esan neutsanean, poztasun irribarrea etorri jakon.

Gero egin eustazan itaunakaitik, Euskal Herria nik baino hobeto ezagutzen ebala zirudian. Harrituta itxi ninduan, baina ez zan harritzekoa.

Lurralde edo kantoi haretan hizkuntza frantsesa hil ala bizi egoeran aurkitzen zalako, mobimentu sendoa sortu zan kantoi ha bitan zatitzearen alde, frantsesa egiten zana batetik eta frantsesa irusten ziharduan alemana egiten zana bestetik. Eta hain zuzen be, nigaz berbetan ziharduana zan mobimentu sutsu horren idazkaria!, hurrengo egunean jakin genduanez. Lortu eben, zorionez, handik urtebetera, euren helburua!

Baina ez zan hor amaitu gure bidaia. Handik urteeran, ziztadena zala, txakurraren haginkadea zala, sekulako sukarrak hartu ninduan. Nire lagun biak, benetako lagunak, kotxetik kanpo lo egin eben, niri trabarik ez egiteko. Eta sekulako izualdia kotxera bihurtu ziranean! Ez ninduen kotxean aurkitu. Neu be kanpora urtenda nengoan, erdi lo.

Behin ikusi dot haserre bizian gure Karmelo. Hurrengo iluntzean zan. Entzute handiko beneditarren monastegi baten niretzako lo egiteko gelea eskatu eta horren arduraduna ez egoalako, hartu ginduzan fraileak, erdi negarrez, ezin euskula itxi esan behar izan euskun.

"Legea harrera ona egiteari nagusitu!" esaten eban Karmelok. Eskutitzen bat be egin eutsen etxera bihurtu ginanean.

Osatu nintzanean, etxerantz ginoazan!

Ipar Ameriketan

Elorriora joan barri nintzala, nire lehengusina Mari Asun, gure aitaren loba kutuna, Durangoko Rafa Ibarretxe pelotariagaz ezkondu zan. Ameriketara joan ziran handik hile batzuetara, Rafak pelotan egin egian.

Eurak joan eta egun batzuk geroago, hara joan ginan Benito Ansola eta biok nire lehengusu-lehengusina horreekaz eta Markina aldean gengozala ezagutu genduzan hainbeste pelotarigaz hamabost egun egotera.

Ez da bizimodu erosoa pelotariena Ameriketan. Orduetan pelotalekuan eta hango geletan sartuta egon behar, kiniela jokoaldi guztiak amaitu arte.

Renon, meza emoten, Karmelo Etxenagusiagaz, 2003.

Kinieletan jokatzen da han, geuk umetan "gerra afuera"ka jokatzen genduan lez. Kiniela bakotxean zortzi bikote (edo zortzi bakarreko). Batek galtzen dauenean, beste bat sartzen da eta holan, galdu ahala urteten eta irabazi ahala bertan geratzen, bikote batek (eta banan-banan danean, banango batek) zazpi puntu lortu arte.

Saio bakotxean, hamabost kiniela, hiru banan banangoena eta hamabi bikoteena, izaten ziran.

Dolar asko be asko jokatzen eben bertakoek eta New Yorketik joaten ziranek, trenez ordubetera. Horregaitik izango zan Bridgeportera lehenengoz joan ginanean, pelotarien egongelak eta jolasgelak intendenteak guri erakusteko, poliziak lagundu behar izatea. Beste egun guztietan, zestazko jokoaldi guztiak amaituta gero joaten ginan barrura pelotariakana, hareen emazteak eta gu biok, danok alkarregaz etxeratzeko.

Domeketan jai izaten eben pelotariek. Benito eta biok euretariko batzuen parrokietako abade edo Eskola Laboralean irakasle izan ginala eta, New Yorkera egun bateko osterea eratu eben.

Harrituta geratu ginan Harlem auzo luze amaituezinetik zehar ginoazala, goizeko bederatziak izan arren eta Benito eta biok izan ezik beste gizonezko guztiak hemengo pelotari morroskoak izan arren, autobus-gidaria ia bildurrez egoalako, zulaturen bat edo izan ezkero hango bizilagunekin edozer jazo eitekela eta.

Zoragarria izan zan ferry baten Manhattan guztiari emon geuntsan itzulia.

Horren ostean ikusi genduan, antzoki txiki samar baten, John Travoltaren "Grease" entzutetsua.

Beste egun bateko ostera bat be egin genduan Benitok eta biok New Yorkera, hain handia, hain enda anitzekoa eta hain "basatia" begitandu jatana. Gogoan izan neban, bizi-bizirik, han goi goian egon ginan denpora, orain urte gitxi abioiek jota etxeorratz erraldoi biak ke artean eta sutan jausten telebistaz zuzenean ikusi nebazanean.

Askatasunaren harri-irudi erraldoira heldu ginanean, Anbotogaz jazoten dan antzera, laino banak inguratzen ebezan gu ordu erdi lehenago egondako eta orain oroipen hutsa diran etxeorratz biak.

Uste neban baino lehenago ikusi ahal izan genduzan, hurrengo egunean, Washingtoneko lekurik ospetsuenak, Kapitolioa, Franklinen irudia, Pentagonoa... Baltz asko sumau genduzan Arlington hilerrian Kennedytarren hilobietan, otoitzean.

Connecticut-eko uriburura, Hartfordera, eroan ginduzan, beste egun baten, gure ikasle izandako Hunbertok. Han be gure adiskide mordoa. Nire bigarren ama Isabelen aldetik senide neban Jose Antonio Irigorasen etxean jan genduan. Nork esango euskun ia bazkari osoan negarrez egon zan Aitziber umetxua, hau idazten dihardudala Durangoko alkate argia eta bizkorra izango zanik?

Ez dot ikusi, behin be, gauza harrigarriagorik, honuzkoan, hegazkinak lurra itxi eta hegaz hasi zanean ikusi nebana baino: New York, geure azpian, gauean iziotzen diran argi guztiak biztuta!

Jerusalemera!

Zein kristauk ez dau izan bere bizitzan Jesus ibili zan lurraldeetatik zehar ibilteko eta Jesusek ikusi ebazan mendiak eta ingirak eta itsasoa ikusteko gogo bizia?

Zenbat idatzi dan sortaldeko lurralde sagaratuei buruz!

Juan Izurrategi Elorrioko parroko izandako eta gero gerra-irabazleen espetxe baten hil zanak amari Lur Santuetatik egindako eskutitz maitekorrak, liburuan batuta, irakurteko zoria euki neban umetan. Oraintsuago, barriro izan dot zori hori, Juanjo Pujanak itxitako liburuari esker. Nire ama be agertzen da, ume zala, liburu horretan.

Berrogei abadek, Bizkaiko hamar euren artean, hartu genduan hegazkina Madrilen, 1979ko urriaren hamaseian, asmoz beterik. Moisesen hurrengokoek zapaldu eben lekutik guztiz bestekaldean zapaldu genduan guk amestutako Lur Santua, Tel Aviven, hain zuzen be. Papelak zirala eta ez zirala, etxera bialdu ez ginduezanean pozik. Berandu baten sartu ginan Jerusalemen, gaztelaniaz "Zure etxera goaz, Jauna" gogotsu abesten genduala.

Salamankako Unibersidadeak eratzen eban, urtero, hamabost eguneko Biblia ikastaroa, Lur Santua deritxan horretan bertan.

Ofeletik, Dabiden uritik, hasi ginan hurrengo goizean goiz; Jebuseuen, kasurako, Jesus baino mila urte lehenagoko harresiak ikusi genduzan. Jarraian, ura belaunetaraino geunkala, eta lastargien eta esku-argien argitan, Ezekiasek arerioakandik babesteko harri artean egindako zulo luzea igaro genduan. Han, Bibliak horri buruz dakarrena astiro irakurri eta Florentino Garzia Biblian adituaren azalpena entzun genduan.

Hori egiten zan, egunik egun ikusi genduzan leku jakingarri guztietan be. Guztiz gaurkotuta egoan irakaslea. Biblia aztertzeko, ikasteko eta gozatzeko bide bikaina, gero etxean, "Maison de Abrahan"en bertan, izan genduzan irakasaldiak gehituaz, batez be.

Oraingo historia argitzeko be egokiak izan ziran hamabost egun horreek. Hantxe ikusten zan 1947ko eta hurrengo gerren osteko Isra-

el zein zan, palestinoen lurraldeak izan arren israeldarren menpean zeintzuk egozan, palestinarren euren lurraldean be euren jaio herrietatik aterata egozan errefuxiatuen kanpalekuak zelakoak ziran...

Harrituta itxi ginduzan, legez Israel izan barik, israeldarren menpean egozan lurraldeetako leku historikoetan, oraindino ia mutiko ziran israeldar ikasle nagusienak ametrailadorak eskuan eta ebilzala ikusteak. Palestinarrak bizi ziran toki horreek ikusten ziharduen israeldar neskato-mutikoak zaintzeko egiten eben hori.



Jerusalem, Olibeti mendian, Aita gurea, 1999.

Neskato-mutikoak aitatu dodazanean, arratsalde baten han bizi izandakoa etorri jat gogora. Gu berrogeiok, gutariko batek irakurten eban Biblia atal bat entzuten gengozan, gero, jarraian, irakasleak

azalpena emoteko. Bat batean, hango "ikastola" bateko ume aldra handia agertu zan, zalaparta hutsean. Jakina! alde guztietan, umeak ume. Baina... edonorentzako libre egoan landa zabala izan arren, irakurten eta entzuten gengozala ohartzeaz batera, euren irakaslearen begiruneak eragindako ixiltasun osoa sortu zan. Metro batzuk harantzago, barriro jarraitu eben umeak ume izaten, alai eta zaratatsu. Zelako irakatsia emon euskuen!

Jerusalemen bertan, alde zaharrean, bata bestearen ondoan dagoz gerran haustuta geratu zan juduen oraingo barriztautako auzoa, musulman auzoa eta armenioena eta kristauena deritxoen auzoak.

Alde zaharretik kanpo, laster igarten da zein dan juduen aldea eta zein palestinarrena.

Sekulako bildurra sartu jakun euskaldun biri, palestinarren denda baten ogia erosten gengozala, gudari juduen jeep bat gelditu eta armekin dendan sartu ziranean. Eurak be ogia erostera sartu ziran antza!

Bihotzean ikututxua

Gauza asko egon ziran hunkigarriak niretzat bidaia horretan.

Jakina da ez dala ia ezer geratzen Jesusen denporatik hona ikuturik egin barik, baina bihotzean halako zertxobait egiten eban jakiteak Jerusalemen Jesus orain Olioen baratza esaten jakon horretatik urrun ez zala ibili, eta orduko denporako geratzen diran eskilara bakar hareetatik gora eta behera joango zala, eta Jenesaret itsasotik guk ikusten genduzan itsasertzak eta mendiak ber berak ikusi ebazala, eta Kafarnaunen eta Nazareten... ez zala guk ikusten genduanetik urrun ibili.

Zirraragarria egin jakun, baita, Jesusen hilobiaren ondoan euskaldunok euskeraz ospatu genduan Meza zoragarria. Zelako negarrak egin ebazan Jerusalemen bizi zan Bolibarko monja batek!

Halabeharrez, Jerusalemen alkar ikusiko genduala jakin barik, beraren etxean egon barri nintzan Bolibarko Bezinean, beraren nebeagaz eta beste senideakaz.

Geugaz ibili zan ostera guztian Jesusen maitasunez Mexikotik etorritako mutil gazte bat.

Ze kaltegarria izan daiteken Biblia hitzez hitz historia balitz lez hartzea. Hori jazoten jakon mexikarrari. Guri mesede egiten euskuen irakaslearen azalpenak, nora ezean eta senetik kanpo itxi eben gure lagun gaztea. "Orduan, ezer be ez dakigu, ezer be ez da benetakoa?". Azkenean, gehiago ezinean, galdetu edo bota eutsan irakasleari: "Don Florentino. Jesús existió?"

Irribarre eginda, azalpen ederra emon eutsan honek. Baretu zan gure mexikarra eta gaurkotzeko asmoa be hartu ebala zirudian.

Handik hogei urtera, erakunde berak eratuta, barriro egin neban Lur Santuetara osterea, oraingoan, beste bidaia askotan lez, Benito Ansola lagun nebala.

Barriztapenak barriztapen, hogei urte lehenagoko oroipen onak errepikatu ziran nigan.

Oraingoan, Jordanian be izan ginan hiru egunean edo, Gerasako hondar eta harri zahar ikusgarriak, Petra liluragarria, Amman uriburu nagusia eta Moises lur agindutakoari begira egon ei zaneko tokia ikusten genduzala.

Errusiatik eta Europatik zehar

Esan daiteke asko ibili nazala munduan zehar. Ezta antzik be! Zer dira sei zazpi urteera luze horrenbeste urtetan? Urte askotan, gurasoen ardureak ez eustan ixten urruneko joan-etorririk egiten. Lagunen bategaz eta gurasoekin eurekin Tarragonaraino urte batzuetan, Errioxaraino beste batzuetan eta gero horixe be ez urteetan.

Azaldu ezina dan min handiz, Jaunak Beragana eroan ebazalako, gurasoen ardura barik geratu nintzanean, egin nebazan ostera bat edo beste.

Nire bidaia laguna, gehienetan, zer esanik be ez, Benito.

Errusiarakoa izan zan, beharbada, bidaiarik interesgarrienetarikoa. Eurek katedralak esaten deutseen fraileen monastegietako osterea egin genduan, autobusean.

Lehenengo, egun batzuk San Petersburgon. Zoragarria! Ikusi daiteken enparantzarik handiena, "L´ermitage" museo ikusgarria, mila jauregi dotore, ubideak, "tsar" deitutako hango erregeen udako eta neguko jauregiak... Hori bai! Gauzarik gehienak, autobusak eurak be, zaharkilduta.

Azkenengo katedralean egon eta gero, Moskuruntz ginoiazala, ehun kilometro inguruan, bost edo sei auto ikusi genduzan bide ondoan ibili ezinik gelldituta. Hemen, urteak eta urteak dirala, ikusten ez dana.

Lagun handi egin genduan, egun hareetan, Mallorcatik bera bakarrik joian mutil gazte bat. San Petersburgon, arratsalde baten, afaldu egin behar genduala eta kanpotik ez dotore ez zahar emoten eban jantoki baten sartu ginan beragaz. Sartzeagaz batera, urtetekoa egin genduan Benitok eta biok hango moketea eta barru dotorea ikusi genduzanean. Ez euskun itxi gure lagun barriak.

Jarri ginanean, afaltzen gengozala, sekulako ikuskizuna: dantza zaharrak, oraingoak, Errusiako folklorea, dana fin fina, janari polita... diru barik geratuko ginala uste izan genduan! Gure lagunak, nasai egoteko, ez deuskula itxiko guk ordaintzen eta.

Harrituta eta sinestu ezinik geratu ginan: hiru mila pezeta izan zan bakotxarena.

Gau osoa egin genduan, trenez, San Petersburgotik Moskura. Ikustekoa hau be!

Nork esango euskun, urtetxu batzuk lehenago, abade bi nasai nasai ibiliko zirala Kremlinen barruan eta han bertako abade ortodoxoak eta monja ortodoxoak ikusiko genduzala euren sotanekin eta monja jantziekin? Egon be, sei-zazpi eleizatxu dagoz Kremlin barruan. Kanpokaldean, berez jarri ginan otoitz egiten, gure aurrean, ikono baten ondoan, gizon bat, aitaren egin eta sutsu be sutsu otoitzean ikusi genduanean.

Hainbeste urtetan Jaungoikoaren lorratz txikiena be ezabatzeko agintariek eta indar guztiek ahalegin osoa jarri arren, katedraletan eta eleiza guztietan ikusi genduanak harrituta itxi ginduzan.

Moskun bertan, kale bi edo hiru hartzen zituan kilometro inguruko giza-lerroa ikusita ha zer ete zan turismo-gidariari itaundu geuntsanean, santu batzuen erlikiak ekarri barri zirala eta hareen aurrean otoitz egitera joiazanak zirala esan euskun harek.

Urte horreetan, Benitok eta biok barriro be, Europatik zehar egin genduan osteran ez genduan izan esateko aparteko gauzarik.

Hungaria da, Finlandiagaz eta Euskal Herriagaz batera, indoeuroparra ez dan hizkuntza egiten dan leku bakarra Europan. Nahiko ondo ikusi genduzan Budapesteko alderdi biak, hango jauregi ederrak miretsiaz.

Liluragarria da Praga, Europa erdi erdian. Musikaldi klasiko zirraragarria entzun eta beste ikuskizun harrigarri bat be ikusi genduan.

Carlovy Varyko uri ikusgarrian dagozan geiser antzekoak ederragoa egiten dabe han izaten dan munduko zine jaialdi ospetsua. Zine-zalea eta zinean aditua danez, ur bitsetan egoan Benito.

Vienan egin genduzan azken egunak. Etenbako euriak ez euskun itxi behar dan moduan ikusten eta miresten hainbeste eta hainbeste jauregi eder, enparantza zabal... baina Opera etxean egonda gero, Orson Wellesegaz "Hirugarren gizona" pelikulan bat egin genduala iruditu jakun, berak Joseph Cottenegaz eztabaida garratza izan eban norian gorantz igon genduanean.

San Pauloren lorratzak...

Salamancako Unibersidadeak, Lur Santuetarako hamabost eguneko ibilaldia eta ikastaroa eratzen dituen lez, egiten dau Turkiarako be, "San Pauloren lorratzen atzetik" izenburuaz.

Hogei domingotar eta hogei abade joan ginan, euren artean Benito eta biok. Domingotarrak, danak misinoetakoak ziran, ikasketak barriztetako hile batzuetarako Madrilera joandakoak.

Metodo bera erabili genduan. "Apostoluen Eginak" liburutik eta San Pauloren eskutitzetatik irakurten genduan leku bakotxari egokona, gero adituaren azalpena entzuteko.

Leku ederrak ditu Turkiak turismorako, esate baterako, antxinako eremitak otoitz-lekuak jarten ebezan hatx txiki dotoreak Kapadozian; Pamukkale leku liluragarria, munduan bakarra, urjauzien antzeko malkar zuriak osotuta; eta zer esan Estambuli buruz?

Gehiago mirestu ninduen, ostera, Esmirnako herrian uste dot zala, bizi diran italiar monja gazte, dotore eta apalak. Kristau lez agertzeko adore handia behar da musulman giro itxian, apaltasun osoz, ahal dabenik gehien danei lagundurik, kristau testigantza emoteko.

... eta gure artzainenak jarraituz

Jauzi handi bat eginaz, San Pauloren lorratzen atzean egin genduan bidaia hori itxirik, gure artzainek lehengo gizaldian egin ebezan urratsen atzean egin genduan bidaiara joko dot. Idahora joan ginan ordurako gotzain eginda egoan Karmelo Etxenagusia eta biok. Gidari izan genduzan Jose Luis Egiluz, Derioko ikastetxean zuzendari eta irakasle zana, eta musikari trebea, haren emaztea Michel Ameriketan jaioa eta euren seme-alaba txikiak.

Egun bete-beteak.

Karmelo gotzaina han zala jakin ebenean, abioian Boisetik ordubetera dagoan Renora eroan ginduezan, hiru egunerako, hango euskal jaian esku hartzeko.

Han be, ezagunak. Inork ez deust nire izen osoa esaten. Ba, han, parke baten mezea emoteko gengozala, atzetik, batek: "Juan Bizente!". Ene! Aspaldian han ezkonduta bizi dan Iurretako Jabier Aldekoa-Otalora.

Jabierren etxean afaldu genduan, bere emazte filipinarraren beste ahizta bigaz eta beste euskaldun batzukaz, euskeraz egiten genduanok mahai baten eta besteek bestean.

Kati Caminok egin euskun Renorako deia eta han hartu. Arratsalde baten Reno erakutsi euskun Durangoko Antonio Bolañosegaz ezkonduta dagoan hau, Baionako bikario nagusi Camino ezagunaren lobea da. Ameriketan jaioa, ez ekian euskera, baina bere aurretikoen

lurraldera etorrita, ondo be ondo ikasi eban. Ze gozo egiten eban berba edo mintzatzen zen.

Beragaz eta Renoko Unibersidadeko liburutegiaren arduradun zan euskaldunbarri bategaz, Tahoo aintzirara joan ginan, egun baten, lehengo pelikuletako Ameriketako mendebaleko herri txikiak gogoratzen dituen Carson City-n be ordubete luzea eginaz.

Aintzira horren inguruan daukez pelikulakoak dirudien etxeak zinemako izar handi askok. Californian be egon nazala esan behar, bost minutu egin genduzan lurralde hori zapaltzen eta. Batzuk nahikoa izaten dabe denpora hori, zapaldu daben lurraldeko historia, gizartea, politika eta gorabehera guztiak ezagutzen dabezala esateko. Guk ez genduan astirik izan horrenbesterako. Bost minutuan ezin ba!

Jaialdiko mezatan, Goñi bigarrena pelotariaren osaba batek, Jesus Goñik hain zuzen be, eta Californiatik etorritako Johnny Curutchet bertsolariek abestu ebezan bertsoak. Baita Meza ostean be. Izan zan gero, goiz eta arratsalde, harrijasotze eta beste euskal kirol ugari. Eta, zer esanik be ez, alkarteko bazkaria. Harrijasotzen, orain polizia dan euskaldun bat geratu zan nagusi.

Ezin azaldu, egunero zer egin genduan, zer ikusi genduan, zenbat ezagun agurtu genduzan, labur be labur egin jakuzan hamabost egunetan.

Idahon, Boise uriburutik hurrean, Nampako etxe baten egon ginan, han hogeta hamar kilometro hurrean egotea da eta.

Kilometroetara ikusten zan etxe aurrean eukan euskal ikurrin handia hango banderearen ondoan, jakina.

Ondo lotzen ebezan maitasun biak: euren gurasoen herriarena batetik, eta euren gurasoak onartu ebazan eta eurak jaio ziran eta beti bizi izan diran herriarena bestetik.

Etxe horretako emazteak, Helenek, han jaio eta beti bizi izandakoak, Algortakoak izan ebazan gurasoak eta gaztelania apur bat ekian. Senarrak, Frank Barriak (jakina, han ezina zan Malaxetxebarria esatea), han jaio eta bizi izandakoa hau be, markinarrak zituan gurasoak. Ez ekian gaztelania, baina zelako euskerea, eta ze pozik egiten eban euskeraz! Markina bertako doinuaz eta ingles ahozkeraz egin be.

Heleneren kotxeak "Algorta" eban matrikulea, eta "Markina" Frankenak.

Begoñan ospatu genduan hain maitagarri egin jakun Frank horren hileta mezea.

Euren etxean, bazkal orduetan, hizkuntza batetik bestera jauzika ibilten ginan. Beti geratzen zan baten bat ulertu barik. Ingelesa egiten zanean, neu ulertu ezinik. Euskeraz egiten zanean, Helene ixilik. Eta gaztelaniaz egiten bazan, Frankek txistik be ez. Karmelo zan edozer eginda be beti jardunean egin eikeana.

Izan ginan lehen euskaldunak artzain ziran mendi baten be, han urteak daroazan Beni Goitiandia harrijasotzaileen Ameriketako txapeldunagaz. Orain, euskaldun bat zan ardien ugazaba eta kolonbiarrak artzainak. Lehengo euskaldun artzainen seme-alaba danek daukie urian ogibideren bat.

Yellowstonera egun biko joan-etorria egin, rodeo bat ikusi, Snake ibaitik osterea egin, han hemen baino egunen batzuk lehenago San Inazio jaia ospatu eta orduan amaitu genduan gure ibilaldia.

Karmelo gotzaina buru zala, beragaz ospatu genduan Meza nagusia Iparraldeko Martzelek, hango euskaldun guztien abadeak, bertako abade batek eta neuk, diakono bi be altaran zirala, eta dantzari talde trebe batek eta Boiseko Euskal Abesbatzak parte hartzen ebela.

Tamalez, ezin izan ziran etorri, pena handiz, euskaldun zaharrenak, ordubete lehenago sekulako oinaztuak eta euri zaparradak izan ziralako.

Zenbat bizkaitar, gehienak Durango, Gernika eta Lekeitio-Markina bitartekoak, eta beste euskaldun agurtu genduzan, gure umetako Arriandiko laguna zan Emeterio Izurzagandik hasita. Nor nintzan jakin ebanean, umetan ezagutzen ei ninduan bere emazteak be.

Eta zelako erromeria, iluntzean, horretarako itxita egoan kale ederrean, Durango aldeko "Luhartz"ek zuzenduta, aurretik Renon egin eban lez. Kale horretan dagoz "Gernika" jatetxea, Euskal museoa eta pelotalekua, eta Euskal Etxea. Espoloian, harrian zizelatuta, hiru lau euskal kanta, musika eta guzti. Ikurrinak be mordoa. Etxean gengozan!

Mexikotar langileak ugarienak diran parrokia baten be emon genduan Mezea, gazteleraz, eleizea bete eben guztiek esku hartuta.

Karmelo, gotzain eginda laster, hemendik izan zanean, bost abadegei nagusi ei egozan eleizbarruti guztirako. Gaur egun, berrogeitik gora dira. Beraz, abadegeiak gehitzea herri atzeratuetan eta txiroetan bakarrik ez da jazoten.

Elorriotik Erromara

Elorrion nagoala birritan egokitu jat Erromara joatea. Bietatik baten be ez genduan astirik hartu behar dan moduan ez arakatzeko ez ikusteko be.

Elorrioko Sabin Alonso nire lagunak zuzentzen eban herriko eskolako Eskolaniari laguntzearren zan lehenengokoa. Orduan, Joan Paulo bigarrenak emon eutsen mezea mundu guztitik joandako ume abeslariei.

Gure Jauna hartzen joan nintzanean, egokitu jatan abadeak ez eustan itxi eskuetan hartzen. Ahotik sartu eustan, atzamarra bustirik. Liturgikoagoa ete da ba? Ala zikinagoa?

Gure Balentin Berrio Otxoa santu izendatu ebenean joan nintzan azkenengoz, "Berrio Otxoa" nire abesbatzagaz batera, oraindino neu nintzan zuzendaria eta. Geugaz etorri ziran Bilboko "San Antongo Abesbatza"koak be.

Benetako zirrara eta oilo-haragia, San Pedro basilikearen ate nagusi ondoan egozan gure koru biei, San Antongo abesbatzaren zuzendari Alfredok organua joten ebala, "Ogi Zerutik" zuzentzen hasi nintzanean eta enparantza erdiak, sendo eta errime "...etorria, Zu zara gure poz guztia" abesten jarraitu ebanean.

Guk plaza erdi horri behin eta barriro entzuteko, ahapaldiak gehitzen genduzan neurrian, erlojura begira ei egoan —telebistan agertu zanez— aita santuaren ondoan liturgia zuzentzen ebana.

Ez ete eban merezidu enparantza erdi baino gehiago zan horrek bere hizkuntzan zeozer entzutea, batez be beste guztiek eurena, txataltxu bat besterik ezean, entzun ahal izan ebenean, bai egun horre-

tan, bai hurrengo egunean "Paulo seigarrena" deritxon Vatikanoko areto nagusian aita santuak danok agurtu ginduzanean?

Ez uste izan horregaitik abesten eben hareetatik eta aretoan egon ziran euskaldunetatik inork fedea galdu ebanik! Baina, min hartu bai.

Hurrengo arratsaldean Espainiako enbajadan abestu genduan, banan banan eta alkarregaz, San Antongo Abesbatzak eta Berrio Otxoa Abesbatzak, San Balentinen herritarra izatearren harro egoan Jose Antonio Ardantza lehendakariak entzuten euskula, gure gotzainekin batera.

Sartu orduko, kalean, urrundik ikurrina ikusi ebanean, zuzen zuzen etorri jakun irribarreka eta euskeraz egiten ebala, Ezpeletako semea dan Roger Etxegarai kardenal ospetsua, Gantin kardenal baltzagaz batera.

Urteroko hiru esperientzia on

Ezin ditut hemen jarri barik itxi aspaldiotan izan dodazan urtean behingo hiru esperientzia pozgarri. Izan be, urtean behin izaten dira Gogoeta Astea, Durangoko Liburu Azoka eta kintoak alkartzea.

Zidar ezteguetara helduko dira, heldu ez badira, Euban hasi ziranetik hona garatu diran Gogoeta Asteak. Otoitz giro eta euskal giro ederrean eta gaurko munduaren eta gure Herriaren eta gaurko Eleizearen arazo bat edo beste aztergai nagusi dirala, bakotxean Herrialde baten batzen zan lehenengo eta Loiolan orain, laiko ezkondu, ezkonge, alargun, monja, erlijioso, abade… mordoa. Giro zoragarria Euskal Herriko lurralde guztietakoen artean. Eta ezin ahaztu hainbeste bider gure artean izan dogun Flandesko Ludo Docx abade euskaldunbarritua be. Tamalez, hau dala bestea dala, ezin izan naz egon guztietan, baina egon nazanetatik, arnasa barriagaz bihurtzen izan nazala autortu behar, besteei be jazoten jakenez.

Durangoko Liburu Azoka da urteroko beste esperientzia atsegina. Ezagunegia da nik hemen gauza barririk esateko. Honako hau bai gero. Hau idazten dihardudala, Durangoko nire gurasoen etxean

hain zuzen be, aurre-aurrean dodala Azoka ospetsu eta onuragarri hori ospatzen dan eraikin zabal, luze eta dotorea.

Aspaldian dogu beste hainbestek lez, urte berean jaiotakoak egun batean alkartzeko ohiturea. Ukatu ezina da gauza ederra dala, pentsaeraz, politikaz, hizkuntzaz eta hainbeste arlotan hain desbardinak diranak, danen gainetik adiskidetasuna jarriz, gizatasunez eta umore onez alkarregaz jardutea. Atxakia hori ete da ba, nik bat barik hiru kintada ospatzea? Bai, bata nire jaioterrikoekin, Durangokoekin, izaten da. Iurretakoak be geugaz. Bestea, elorriotarrekin. Bertako abade izateaz gain, gehienak umetatik ezagutzen ditut. Eta, zein ete da hirugarrena?. Ez jaken ba gogoratu Elorrioko gure adineko andrei eurekin joan behar nebala neuk be? Han izaten naz "bedeinkatua zu, andra guztien artean…".

Osasuna

Ez uste izan, gero, Osasuna zalea nazanik. Nahikoa dot gure Athletigaz. Biziteko eta lan egiteko preminazkoa dogun osasuna aitatu gura izan dot izenburu horregaz.

Izeko Mari, aitaren arreba bakarra geratzen jat bizirik, aitaren anai-arreben artean.

"Izeko, ea ba, bost minutuan esan behar deustazuz daukazuzan gaixo eta min guztiak". Bost minutuak joaten diranean, beste gai bati heltzen deutsagu biok.

Izan be, geroago eta zaharrago, geroago eta ziurrago zein gai erabiliko dogun danok gure alkarregazko jardunetan: hemengo mina, hango tirakadea, ez dakit nongo apurtua, besteko gogo txarra...

"Osasun sendokoa zara zu" esan eustan, lehengo baten, ondo ezagutzen nauan osagile batek. Nik, harrituta, esan neutsan: "Ez dozu nire osasun edo gaixo historiala irakurri, ala?"

Ume-umetan kendu eusten, gura barik, jakina, eztarriko ebakuntza baten, gingaila edo eztarriko kanpanilea. Urteetan eta urteetan ez neban eta ez genduan etxekoek jakin, horrek dakarzan trabak sumatzen hasi nintzanean Santanderko osagile ospetsu batek esan

arte. Harrituta egoan berba nahiko argi egiten nebalako. Jakin nebanean, esaten neutsen nire lagunei orain eztarriko "txilina" barik, "timbrea" jarriko deustela. Baina, ez da barre egitekoa. Oraindino be hor dot benetako kurutzea, gangaila gabetasun hori.

Gero, urte ezbardinetan, eskumako belauneko lau ebakuntza (horreen ostean be futbolean egin dot), "hernia discal" deritxon etendurarena, "hernia de hiato" deritxonarena, behaztunarena, lepoko tendoiarena... prostata dala eta hartutako radioterapia, eta abar eta abar luzea.

Ebakuntza bi, ia nire anaia txikitzat neukan Jose Mari Urizarrek egin eustazan, nire gurasoen loba eta besoetakoa, beraren bat-bateko heriotzea zala-eta hainbeste eta hainbeste negarrez eta lur jota itxi ebazana.

"Zein ebakuntza egitea gura dozu, ba, orain?" esan eustan orain lau-bost urte, lehenengoz ikusten ninduan eta nire historiala irakurri eban osagileak. Barre egin genduan, baina handik laster egin behar izan neban lepoko tendoiarena.

Honen bergaikuntza edo rehabilitazinoa egiten niharduala, sekulako jaia egin genduan lagun batzuek Gazetako alkartearen jantokian, egun baten. Han ziran, besteak beste, Jose Mari F. Arroiabe alkate izandakoa, Juan Mari Goikoetxea osagile ebakuntzalaria, Gazetako Agirre anaiak, Joxe "Bueno"... Laja eta Landakanda soinulariak eta Jon Azpillaga, Joxe Agirre eta Anjel Mari Pañagarikano bertsolariak.

Ur-bitsetan gengozan danok. Ni bai, behintzat.

"Rehabilitazino" dalako hori egiteko ordua etorri jatan. Ez neban behar izan errazoi sakonik ez askorik, itxita be egun batekoagaitik ez nebala kalterik izango, Juan Mari osagileak esan eustanean. Horixe gura neban entzutea. "Rehabilitazino"koari deitu neutsan ez ninoiala azalduz. Zertzuk entzun behar izan nebazan hiru bertsolariakandik! Hona zer bota eustan Peñak:

... hola batzea hori degu desioa.
Juanito ere gaur pozik dago eta badauka zioa.
Eta badaki nola izan zuen honek operazioa.
Zeinen ederki egin dezun gaur rehabilitazioa.

Bat-batean etorri zan Joxe Agirrerena be:

Nik ere badakit jinasi pixkat gaurkoz egin behar zuena,
baina hau ere bromak engañau, hori gauza nabarmena!
Baina Juanito beti izan da alaia eta zuzena.
Holakoxea behar genduke apaizik aldrebesena.

Bertsolariek bat-batean asmetan dabena beti egia balitz, ze ederto batzuetan!

Jon Azpillagak, maltzurkeria guztiaz Juanito barik "Don Juan" izendaturik sekulako bidea jarri eutsen beste biei zalaparta barregarria sortzeko:

"Don Juan" hau beti moldatutzen da parrokiako lanera.
Jubilatuta daukagu, baina, beti da bide onera.
Moldatzen aste egunera, bardin Balentin egunera.
Honek ederto egingo luke obispuaren papela.

Eta hortik jarraitu ezkero, baita aita santuarena be! Dana dala, handiak bertsolariak! Zelako etekina atera eutsen jarraian Jonen bertso horri be. Eurei entzunaz, gaixoak be osatu!

Osasunari buruzko gaiari jarraituz, hirurogeta hamabost urte beteta be gaztea nazalakoan, han ibilten naz eleizpean mutikoei baloiagaz neure jokalditxuak egiten. Eta, plausta! Ez jatan, ba, baloia jo eban hankea barik bestea bihurtu, lehengo egunean, eurekin geratu barik aurrera ninoianean eta, halabeharrez, baloia aurrean jarri jatanean? Hainbeste urte lepoan eta umekeriak eta harrokeriatxuak egitearren, ez dakit oraingoan ezkerreko belauneko lehenengo ebakuntza egin beharko ez dodan. Dalako "resonancia magnética"k esango dau. Noiz etorriko ete jaku batzuei zentzuna lepoan zenbat urte doguzan jabetzeko?

Ete dago horrenbeste ebakuntza egin dituenik? Zeredozertan erronkarik botatekotan, horretantxe bota neike. Nahiz eta hor be izango dan eta dan ni baino gehiago danik.

Idazkitxuak eta itzulpenak

Zeozertarako "bokazinorik" izan ez badot, idazle izateko izan da. Baina, inoiz premineak bultzatu nau zeozer idaztera. Halanda be, nirerik argitaratuta lehenengo ikusi dodana, ez da izan nire kabuz idatzitakoa, itzulpentxu bat baino. Une haretan Alfonso Irigoienek zuzentzen eban *Anaitasuna*n agertu zan Victor Manuel Arbeloa ikaskideak, Comillasen gengozala, itzultzeko eskatu eustan bere lantxu bat. Ezjakinak ausartak diranez, ezjakin honek baietza emon neutsan ikaskideari.

Nik neurez aldizkari batean edo bestean idatzi ditudanak pilatuz, zentimetro bateko neurria emongo balebe, metro batzuetakoa izango litzateke beste batzuek idatzitakoen itzulpenen pilaketa.

Eleizearen irakatsiak eta Eleizearen orduko ikastetxeen jarduerak, herri eta hizkuntza txikiei buruz, neurri handi baten, ez ebela bat egiten, eta *Anaitasuna*n "Eta Eleizearen kolejioak zer?" argitaratu neban lehenengo idazlantxua, hirurogeta hamargarren urtean.

Gerora, noizean behin, gitxitan, *Zeruko Argia*n eta *Anaitasuna*n idatzi dot, bietan batueraz. Eleizbarrutiko *Alkarren Barri* aldizkarian beste horrenbeste, baina bizkaieraz.

Zahartzaroan dirudi sartu jatala huskeritxu batzuk idazteko grina, baina batez be lurraldeko euskal komunikabideei laguntzearren eta beti be irakurle zehe eta apalei zuzendurik. Zutabe mordoa idatzi ditut, gai bati eta besteri buruz, *Anboto*n, Durangaldeko astekarian.

Abadetzako nire lehenengo urteetan izan zan Kontzilioa. Handik sortu zan eleizkizun guztiak ama-hizkuntzan jarteko baimena eta egoan hutsune nabarmena beteteko eginbeharra.

Urte batzuetan Euskal Herriko Eleizbarruti guztietako Liturgia itzultzaileen batzorde baten, Mikel Zaratek ezin ebala eta, bere ordez batzar mordoskan esku hartzeko zoria izan neban, Donostian. Euskalki guztietakoak batzen ginan. Ezin ahaztu, besteen artean, Jaunak Beragana eroan dituen Joan Mari Lekuona eta Joxe Mari Aranalde giputzak eta Tomas Otxandorena nafarra, gizon handiak eta adiskide jatorrak hirurak.

Euskal Baliabideak taldea, Ondarroan, 2009.

Harrituta izten ninduan saio bakoitzean Agustin Apaolaza beneditarrak. Ez dakit zein zan handiagoa, salmoei eta Bibliaren beste arloei buruzko bere jakituria ala bere apaltasuna. Bibliak ez eukan ezkuturik beretzat. Comillasen irakasle izandako Jose Alonso gogoratzen eustan. Lan horreen guztien arduradun, Eustasio Etxezarreta, gizon behargina eta zehatza zehatzik badago.

Lan horreekaitik izan zan beste batzuen artean, lau Bizkaiko abade, ordurako gotzain zan Karmelo Etxenagusia, Lontzo Zugazaga, Jose Mari Rementeria eta ni EIZIEk (Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkarteak) ohorezko kide egin ginduzana.

Elorrion urte mordoa beteten nebala, parrokian nire abade zereginak bertan behera itxi barik, egun izendatuetan, gotzaitegiko itzultzaile zeregina leporatu eusten. Horrek, urteetan, zenbatu ezin besteko agiriak, eskutitzak, deiak, oharrak, adierazpenak… itzuli beharra ekarri

eustan, aurretik Martin Olazarri eta Txomin Solabarrietari ekarri eutsen lez eta nire ondoren Miren Leanizbarrutiari ekarten deutsan lez.

Aspalditik batzen gara Bilboko gotzaitegian "Euskal baliabideak" izena jarri deutsagun taldetxu bat, Bizkaiko eleiztarrek dabezan liturgia, eleizkizun, erritual eta abarren preminak zeintzuk diran aztertzeko eta erantzun egokia emoten ahalegintzeko.

Besteak kargu, zeregin eta lan garrantzitsuetan buru-belarri sartuta dagozanez, neu izaten naz, batzuetan behintzat, lehenengo itzulpen-bidea urratzen dodana. Baina holan danean, han batzen gara gero Lontzo Zugazaga, Jose Mari Rementeria eta hirurok lanari, argitaratu orduko, azken azterketa sakona egiteko. Atsegingarria da horreekin biokin lan egitea.

Liturgiarako bizkaierea, oraingoz behintzat, ezinbestekoa dogunez, batutik bizkaieratzeak be izan ditut baten baino gehiagotan. Hori jazo da urteko irakurgai guztiak batzen dituen *Irakurgaiak* liburu potoloagaz, lehengo itzulpena aldatu da-eta, nahiz eta oraindino argitaratu ez. *Meza Liburu* barriagaz be beste horrenbeste jazoko da.

Andoni Gerrikaetxebarria, bikario nagusi ohia, dogu taldearen buru eta Felix Alonso, Fernando Elorrieta eta Jose Luis Izak osotzen dabe taldea hor goian aitatutakoekin batera. Karmelo gotzaina be sarritan izaten dogu bere aholku jakingarriak emonez. Hau idatzita gero etorri da zurt eginda itxi gaituan itxaroten izan ez dogun barri mingarria: Karmeloren heriotzea. Zer egingo ete dogu gai honeetaz bera barik? Goitik lagun izango dogula uste osoa dogu.

Bi edo hiru liburutxu eta liburu bi be itzultzeko aukerea izan dot. Antzina, Kili-Kilik argitaratutako *William Tell* eta beste zerbait; gero, nagusien katekesirako, *Hauxe hartu dogu Jesusengandik*; Urkiolan Joseba I. Legarzak eginiko *San Antonio. 8. mendeurrena. 1195-1995*. Horreek hirurok, bizkaieraz.

Hurrengokoak, liburu handiagoak, batueraz: Paloma Orozcok San Pablo argitaletxean umeentzat dotore egokitutako eta argitaratutako *Biblia*; eta, argitaletxe berean, Javier M. Suescunek idatzitako *Me aburro en Misa*, *Aspertu egiten naiz Mezatan*.

Beti eskatu izan dot ni baino jakitunagoen laguntza. Asko zor deutsat, horretan, Luis Baraiazarrari, orain irakurten diharduzun liburu honetan Adolfo Arejita euskaltzain jakitunari eta Igone Etxebarria emakume argiari zor deutsedan lez.

Larrosa bidea?

Baina ibilera luze samar horretan, dana izan ete da atsegina, dana larrosa bidea? Ez ete da izan arantzarik?

Izan ete dan ba! Batzuetan, ibilian zoazala nahi ala ez zapaldu behar dozuzanak edo sartzen jatzuzanak: amets batzuk hankaz gora joateak, gauzak txarto urteteak, lagun eta adiskideen ezbeharrak, maiteen dozuzanen heriotzak batez be, egun baltz eta gogorrak...

Baina mingarriagoak beharbada, ez berez holakoak diralako, aldendu edo alboratu eitekezanak. Batzuk, borondate onenagaz sartutakoak haren baten, baina benetako arantzak. Beste batzuk, norberak borondaterik onenagaz jokatu eta txarto egin dozula eretxirik, sartu deutsuezanak. Baita, batzuen burugogorkeriagaitik eta hau edo bestea egiteko euren bidea dala bakarra uste izan dabenakandik hartutakoak. Eta norberak inondik inora ulertu ezinekoak izanik sartu deutsuezanak. Bai, badira holakoak be.

Norberak be ez ete deutso sartu arantzarik baten bati? Parkatu deidala.

XIV
HEMENDIK AURRERAKOA?

Eta orain, tontorretik bestekaldera begira jarriko naz. Ez dakit zenbatekoa izango dan bestekaldeko azkenera daroan bidea. Jainkoak bakarrik daki. Itxaropentsu nago.

Baina, izan ete daiteke itxaropentsu gure Herriari begira? Oraindino laino baltzak alde guztietatik. Barriztapenak barriztapen, iraungo ete dau gure Herriak Euskal Herri izaten, gaur egun ezinbestekoa dan aniztasuna izanaz, baina bere betiko izaerea galdu barik?

Helduko ete da eguna, inoren eskubideak zapaldu barik, inoren barru ondasunak galdu barik, gure Herriak aurrera egingo dauana? Lortuko ete da gure Herrian danok lanbidea eta, beraz, jan bidea izatea? Lortuko ete da edozein lurraldetatik etorritakoa eta edozein koloretakoa gu lako bat balitz lez onartzea eta bere jatorrizko kulturea galdu barik geurea be beregandu eta geurean be murgilduta egotea? Itxiko ete dogu alde batera, lotu ezina dan guztia?

Eta gure Eleizea? Orokorrean hartuta, ausartuko ete da Erdi Aroari jagokozanak itxi eta gaurko Aroari jagokozanak hartzen, bere izateari eta ezinbestekoari eutsiaz, horretarako egin behar diran eztabaidak, alkarrrizketak, azterketak, aldaketa guztiak eginez, beti ez dogula asmatuko jakin arren, baina Espirituagan uste osoa jarririk?

Noiz itxiko ete doguz alde batera, aldakorrak izanez, gaur mundua Jesusengana bideratzeko eragozpen diran arauak, ohikuneak, erituak, ohiturak...? Esate baterako: aita santua estatu baten buru-

zagi izatea, emakumeen eta gizonezkoen ezbardintasuna Eleizan, gotzainen izendapenak…

Noiz itxiko ete doguz alde batera, apaltasunez, besteakanako susmo txarrak, egia osoaren jabe inor be ez dala jakinik?

Noiz hartuko ete doguz gugaz bat ez datozanak borondate oneko gizon-emakumetzat?

Noiz sartuko ete dogu barruan, norberagandik hasita, Jaungoikoak gure ona gura dauala eta, horregaitik, danari itxaropen begiekin begiratu behar deutsagula eta pozik bizi behar dogula?

Itxaropena, ba, Herriari begira, Itxaropena Eleizeari begira. Itxaropena norberari begira.

Azken baten, Jesusek azaldu deuskun Jainko Maitasunak, heriotzea bera zapaldurik, on guztia bere osotasun betera edo betetasun osora eroango dau, betiko bizikizun atsegin bete bihurturik.

SUTONDOAN SORTA

1. Ebaristo Bustintza Kirikiño: *Egunekoa*
   Aukeraketa eta hitzaurrea: Xabier Perea
   Aurkezlan eta moldakuntza: Jesus Mª Agirre

2. Jose Manuel Etxeita: *Josetxo*
   Moldakuntza eta sarrera: Adolfo Arejita

3. Estepan Urkiaga Lauaxeta: *Azalpenak*
   Aukeraketa eta hitzaurrea: Jon Kortazar

4. G.C. della Croce – Bernardo Mª Garro Otxolua: *Bertolda eta Bertoldin*
   Aurkezlana eta moldakuntza: Adolfo Arejita

5. Eusebio Erkiaga: *Jaioko dira*
   Sarrera: Lino Akesolo

6. Ebaristo Bustintza Kirikiño: *Edo geuk edo iñok ez. Euskerearen alde*
   Sarrera eta hautapena: Xabier Perea
   Moldakuntza: Xabier Perea, Adolfo Arejita

7. Mikel Zarate: *Ipuin antzeko alegi mingotsak*
   Aurkezlana: Igone Etxebarria

8. Eusebio Erkiaga: *Batetik bestera*
   Moldakuntza eta aurkezlana: Iñaki Sarriugarte

9. Txomin Agirre: *Auñemendiko lorea*
   Moldakuntza eta sarrera: Rosa Mari Arano

10. Txomin Agirre: *Kresala*
    Moldakuntza eta sarrera: Mirari Alberdi eta Jon Arretxe

11. Jose Manuel Etxeita: *Jaioterri maitia*
    Aurkezlana eta moldakuntza: Iñaki Sarriugarte

12. Eusebio Erkiaga: *Txurio Txoria*
    Aurkezlana: Igone Etxebarria

13. Txomin Agirre: *Garoa*
Moldakuntza eta sarrera: Bingen Zupiria

14. Resurrección Mª Azkue: *Latsibi*
Moldakuntza eta sarrerak: Mirari Alberdi eta Karmele Olano
Adolfo Arejita eta Luis Villasanteren hitzaurreak

15. Jean Barbier – Bernardo Mª Garro Otxolua: *Ixtorio-Mixterio. Ipuin-Mipuinak*
Sarrera eta moldakuntza: Igone Etxebarria

16. Ebaristo Bustintza Kirikiño: *Guda Nagusia (1914-1918)*
Testu-aukeraketa eta sarrera: Xabier Perea

17. Jose Antonio Oar-Arteta: *Zaar-Barri*
Sarrera: Segundo Oar-Arteta

18. Xabier Goitia: *Eusko umeak atzerrian*
Eratzailea: Jaime Kerexeta

19. Eusebio Erkiaga: *Arranegi*
Sarrera eta moldakuntza: Iñaki Sarriugarte

20. Sorne Unzueta Utarsus: *Idazlan guztiak*
Testu-aukeraketa: Igone Etxebarria

21. Ipolito Larrakoetxea Legoaldi: *Grimm anaien berrogeita hamar ume ipuin*
Sarrera, oharrak eta moldaketa: Miren Atutxa

22. Eusebio Erkiaga: *Berbalauaren kulunkan (Prosa lanak) I*
Sarrera eta edizioa: Andres Urrutia

23. Eusebio Erkiaga: *Berbalauaren kulunkan (Prosa lanak) II*
Sarrera eta edizioa: Andres Urrutia

24. José Basterretxea Oskillaso: *Euskaldunak Madrilen*
Sarrera eta edizioa: Adolfo Arejita

25. Karmelo Etxenagusia, Gotzaina: *Euskerea nire bizitzan*
Testuaren ardura: Igone Etxebarria

26. Jean Hiriart-Urruti: *Ni kazeta-egilea naiz. Artikulu, berri, istorio*
Sarrera eta edizioa: Xabier Altzibar

27. Mikel Zarate: *Haurgintza minetan*
Sarrera: Jesus Etxezarraga

28. Domingo Agirre: *Kresala*
Sarrera: Sebastián García Trujillo

29. Xipri Arbelbide: *Zoriona. 31 eta esku*

30. Ebaristo Bustintza Kirikiño: Abarrak
Sarrera eta edizinoa: Miren Atutxa

31. Gorgonio Renteria: *Izartu euskaldunak! Elantxobetar baten olerkiak eta artikuluak*
Biltzailea: Jule Renteria
Sarrera eta edizinoa: Igone Etxebarria

32. Ebaristo Bustintza Kirikiño: *Aberriaren alde. Artikulu politikoak*
Testu-aukeraketa: Javier Perea
Sarrera: Cesar Gallastegi
Edizinoa: Igone Etxebarria

33. Estepan Urkiaga Lauaxeta: *Gure aberriaren elea. Kazetari-lanak*
Sarrera eta testu-aukeraketa: Xabier Altzibar
Edizinoa: Igone Etxebarria

34. Balentin Berrio-Otxoa Santua: *Neure amatxo maitia. Euskerazko gutunak*
Sarrera: Roman Berriozabal
Hizkera-azterketa: Adolfo Arejita

35. Eusebio Erkiaga: *Goizean eta arratsean. Eskubete neurtitz • 1*
Sarrera: Igone Etxebarria

36. Eusebio Erkiaga: *Goizean eta arratsean. Eskubete neurtitz • 2*
Sarrera: Igone Etxebarria

37. Bitoriano Gandiaga: Hitz lauz idazten
Sarrera eta edizinoa: Iñaki Sarriugarte Irigoien

38. José Basterretxea Oskillaso: *Kurloiak. Mutiko kaletarrak Bizkaian*
Sarrera eta edizioa: Adolfo Arejita

39. Ebaristo Bustintza Kirikiño: *Bizkaia begietan (1913-1928)*
Testu-aukeraketa: Javier Perea
Sarrera eta edizinoa: Miren Atutxa

40. Angel Ugarteburu Meabebasterretxea: *Milloitik mundura. Ume-denporako oihartzunak*
Sarrera: Juan Luis Goikoetxea

41. Georges Simenon: *Aspaldiko Maigret*
Itzulpena: Eusebio Erkiaga
Sarrera eta edizioa: Andres Urrutia

42. Felix Bilbao: *Ipuin-barreka*
Sarrerea: Adolfo Arejita
Edizinoa: Nagore Etxebarria

43. Errose Bustintza Mañariko: *Ipuinik ipuin Mañarian gora*
Sarrerea: Jabier Kalzakorta
Edizinoa: Nagore Etxebarria

44. Juan Bizente Gallastegi: *Tontorretik begira Abade baten oroipenak*
Sarrera: Adolfo Arejita